Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lekeitio

Aurkibidea

Udalerria: Lekeitio

Sarrera

Lea-Artibai eskualdeko herri euskalduna. Bizkaiko arrantza portu garrantzitsuenetakoa du, eta aldi berean gune turistiko nabarmena da. Herriaren biztanleria hirukoiztu edo laukoiztu egiten da uda garaian. Mendebaldeko euskararen aldaera da herriko euskalkia. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.
Argazkia: Mikel Iturbe Urretxa

- **Biztanleak**: 7.307
- **Euskaldunak**: %86,69

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **64**
- Zintak: **80**
- Pasarteak: **576**
- Transkribatutakoak: **263**
- Audioak: **18**
- Bideoak: **556**

Proiektuak

- Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskalkiak.eus
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Lea-Artibaiko ahotsak
- Lekeitioko ahotsak
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)

Hizlariak

Bittori -

Bitoria Aboitiz Atxabal *Artxanda* (1931)

Aita Lekeitioko arrantzalea zen eta ama Ispasterko baserritarra. Bitoria Ispasterren jaio zen, aita itsasoan zegoela, baina Lekeitioko moilan hazi eta bizi izan zen lau neba-arrebako familia batean. Hamar urterekin eskola utzi eta saregin lanean hasi zen. Lekeitoko Salbador Anakaberekin ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen.

Mari Tere Aboitiz Iriarte (1924)

1924. urtean jaio zen Bergara kalean. Itsas munduarekin lotura izan du betidanik: bere amaren familiakoak armadoreak ziren eta dei egiten eta saregin lanetan ibilitakoa da, besteak beste. Bere senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa, Juan Uribarren Atxabal "Juan Xoxua"rekin.

Dominga Aboitiz Leniz (1931)

1931n sortu zen Lekeitioko Arranegi aldean. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen: aita arrantzalea eta ama etxerik etxe ibiltzen zen garbitzaile legez. Narea kalean eta Beazkoa Bekoa kalean bizi ziren umetan. Umetatik bizitza gogorra izan du Domingak. Aita gerra sasoian hil zitzaion eta Beazkoa Bekoa kaleko etxetik bota zituztenean, kontzejupeko kartzelan egon ziren bizitzen. Osasun arazoak zirela-eta, hezurrenak hain zuzen ere, 6 urterekin Gorlizko ospitalera joan zen eta han egon zen 9 urtera arte, ama hil zitzaionera arte. Orduan, umezurtz gelditu ostean, bere ahizpa batekin Lekeitioko Uribarren Abaroa fundazioko egoitzara joan zen bizitzera eta geroztik bertan bizi izan da. Sekula ez zen eskolara joan, 9 urterekin hasita egoitzan bertan moja batek irakatsi zizkion jakin beharrekoak. Urte hauetan guztietan bertako lanak egin izan ditu: garbiketak, nagusiak zaindu, txerriak gobernatu... Beraz, oso ondo ezagutzen ditu egoitzako istorioak eta nondik norako guztiak. Kantuzalea da Dominga, eta herriko kantu zahar asko dakizki.

Jesusa Akarregi Aboitiz *Malageñia* (1920)

1920ko urtarrilaren 11n jaio zen Almeriako Adra herrian, baina sei hilabete zituela Lekeitiora bueltatu zen familia. Hamaika neba-arrebatatik hirugarrena izan zen, hirugarren alaba, osteko guztiak mutilak izan baitziren. Gerra Zibila hasi zenean hamasei urte zituen, baina ordurako Frantziara ebakuatuta egon ziren bere ama eta beste senitarteko batzuekin. II. mundu gerra hastekoa zela Lekeitiora bueltatu ziren atzera ere. 17 urtegaz, gerra sasoian, Donostiako Alde Zaharrera joan zen neskame lanetan, bere lehengusina batekaz, Lasa-Inda familiarengana. 20 urtegaz Lekeitiora bueltatu zen. Lan ezberdinetan aritutakoa da, armadore familiakoa denez lan guztiak itsas munduarekin lotutakoak izan ditu: kabanan, dei egiten, arrainen deskargan... Lau seme-alaben ama da.

Julian Akarregi Aboitiz *Zurdo* (1923-2023)

Txitxarro kalean (Ezpeleta kalea) jaio zen arrantzale familia batean. Aita patroia zuen eta 1951ko abenduaren 29ko ekaitzean desagertu zen "Estrella del cielo" familiako baporea amarratzen zegoela. Umetan, kofradia zaharreko eskolara joan zen, eta, gero, gerraostean, bertako maisuagaz eta Julian Zabalagaz ibili zen klase partikularretan. Gerran herritik ebakuatuta joan ziren, eta alde batetik bestera ibili ostean, Frantziara joan ziren. Handik, 1937an bueltatu ziren eta orduan hasi zen itsasoan lanean, 14 urte zituela, eta 59 urtera arte ibili zen. 1945etik patroi lanetan aritu zen. Soldadutzan Ferrolen egon zen, infanteria marinan, eta bertako arraun-taldean parte hartu zuen. Lekeitioko antzar eguneko masta puntako errekorra du "Zurdo"k, 6 banderarekin.

Pedro Juan Akarregi Aboitiz (1921-2012)

1921ean jaio zen Lekeition eta bertan bizi izan da beti. Umetan Kofradia zaharreko eskolan ibili zen, baina 12 urterekin hasi zen beharrean. Hamaika neba-arrebatatik laugarrena izan zen, lehenengo semea, osteko guztiak ere mutilak izan ziren. Bere aita, "Julin Txato" 1951ko abenduaren 29ko ekaitzean desagertu zen "Estrella del cielo" familiako baporea amarratzen zegoela. Familiako tradizioa jarraituz, 12 urterekin itsasoan hasi zen beharrean eta lotura hori sekula ez du apurtu. Denetariko beharrak egin izan ditu. 12 urterekin osabarekin hasi zen moilan, eta 13rekin aitagaz batera atunetan itsasoratu zen lehendabizikoz. Atunetan, antxoatan, bisigutan eta paparrotan ibili zian da batez ere. 18 urterekin 2. mailako itsas motorista titulua atera zuen, eta 21 urterekin 1. mailakoa. 13 urtetan, 1945-1958, arrasteko arrantzan ibili zen, eta gerora baxurakoan. Gerra sasoian, nazionalak sartu zirenean Bermeora joan ziren, eta italiarrak heldu zirenean bertara Bilboko "Puerto Franco"ra joan ziren. Bera aitarekin Bilbon egon zen, eta ama eta beste neba-arrebak Muskizen. Bilbora hartzerakoan Laredora joan ziren eta gainerakoak Frantziara. Alde batetik bestera ibili ziren denbora luzez; azkenean, Santoñatik bueltatu ziren Lekeitiora.

Modesto Alzibar Arregia

Modesto Alzibar lekeitiarra. 1985eko uztailean egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Salbador Anakabe Mendieta *Masako* (1925)

1925. urtean munduratu zen Txitxarro kaleko (Ezpeleta kalea) zazpi neba-arrebako familia batean, bera zen etxeko gazteena. Itsas munduarekin lotura izan du betidanik: bere aita arrantzalea zen, ama saregina eta anaiak eta bera ere arrantzaleak. Umetan, 9-10 urte inguru zituenetik gerra hasi arte, Pasaiako San Pedron egon zen gurasoekin, aitak bertan egiten baitzuen lan. Umetan eliza atzeko eskolan ibili zen. 13 urtegaz itsasoan hasi zen eta arrastrean zein baxuran ibili zen 60 urtera arte sugin (fogonero) eta makinista moduan. Bitoria Aboitiz saregin lekeitiarrarekin ezkondu ostean, sei seme-alaba izan zituzten.

Begoña Ansotegi Txakartegi *Begoña Sagunto* (1928)

1928ko abuztuaren 15ean jaio zen Puerto de Sagunton (Valentzia). Bere gurasoak lekeitiarrak ziren eta zazpi neba-arreba izan ziren, horietako asko gazterik hil ziren. Lau urte zituela ama eta lau neba-arrebagaz Lekeitiora bueltatu ziren, aita eta bi neba Valentzian hil ostean. Zortzi urterekin, gerra sasoian, Ferrolera ebakuatu zituzten eta bertan egon ziren sei hilabetez. Lekeitiora bueltatu eta 12 urtera arte mojen eskolara joan zen. Lan ezberdinetan aritutakoa da Begoña: 12 urtegaz umeak jagoten; 13-14 urtegaz abarketak egiten; 17 urte zituenetik saregile eta dei egiten; 19 urtez kabana ezberdinetan aritu zen; eta, azkenik, 1972an jubilatu arte dei egiten aritu zen bere senarraren baporean, Antiguako Aman. Santiago Arrizabalagarekin "Santana" ezkondu eta hiru alaba izan zituzten.

Felisa Arrasate (1924)

Jon Atxurrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa hau 1992. urtean. 68 urte zituen orduan.

Aurelio Arrillaga Goikoetxea (1923-2012)

1923. urtean sortu zen Mendexako Marierrotan. Gurasoak ere mendexarrak zituen: ama Iturraspekoa eta aita Baurdokoa. Marierrotatik Oletara (Amoroto), Asterrikara (Berriatua) eta azkenik, Lekeitioko Eskolapera joan zen bizitzera. Hori dela-eta, eskola desberdinetan ibili zen, baina hala ere, ez zuela askorik ikasi dio. Gerra Asterrikan pasatu zuen, frontearen erdi-erdian. 16 urterekin itsasora joan zen lanera beste lekeitiar askoren modura. Marierrotako eta gerrako kontu ugari kontatzen ditu grabazio honetan.

Jon Atxurra (1929)

Felisa Arrasaterekin batera egin zitzaion elkarrizketa hau 1992. urtean. 63 urte zituen orduan arrantzale honek.

Rufo Atxurra (1911-2002)

Lekeitioko Bergara kalean jaio zen. Amaren aldeko aitona Mutrikutik etorria zen; aita lekeitiar petoa. 14 urterekin eskola utzi eta lantegian hasi zen lanean. 52 urte egin zituen lantegi berean lanean, harik eta erretiroa hartu zuen arte. Herriko historiaz eta ohiturez arduratuta, bizi guztia igaro du herriko kontuak eta dokumentazioa biltzen: argazki zaharrak, ipuinak, abestiak, etnografia, hiztegia... Udalean egin diren zenbait argitalpenetarako ere laguntza handia izan da beti.

Katalin Atxurra Alegria (1926-2020)

Gardata auzoko Urikoa baserrian jaio zen zortzi neba-arreba artean, udaletxez Ispaster, baina elizaz Lekeitio den etxean. Ama lekeitiarra zuen eta aita mendexarra. Gardatako eskolan maistra euskalduna izan zuten gerrara arte, ostean erdalduna etorri zen. Eskolapeko eskolan ere aritu zen euskaraz idazten ikasten. Gerrak beraien auzoan eragin askorik ez izan arren, oso ondo gogoratzen ditu garai hartako istorioak. Ezkondu ostean, "Maderas Lekeitio" ondoko Eluntzeta baserrira joan zen bizitzera. Bere lagun Teresa Erkiagak lagunduta kontatu zizkigun umetako eta gaztetako bizipen eta istorioak. Argazkian eskuman dagoena da.

Resurreccion Maria Azkue Aberasturi (1864-1951)

Euskal idazle, hizkuntzalari eta folklore ikertzaile ezaguna. Ama mundakarra zuen eta aita lekeitiarra (Eusebio Maria Azkue poeta). Itsas ikasketak egin zituen Lekeition eta hamalau urterekin Bilbora joan zen batxilergoa ikastera. Ondoren, filosofia eta teologia ikasketak burutu zituen Gasteizen. Salamancan apaiztu zen 1888an eta, Teologia doktoretza egin ondoren, Bruselan eta Kolonian musika ikasi zuen. Urte berean, Diputazioak Bilboko Institutuan euskara irakasteko katedrarako lehiaketa irabazi zuen, Sabino Arana eta Miguel Unamuno lehiakide zituela. Bertan lan egin zuen irakasle moduan 1936ra arte. Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat izan zen eta sorreratik euskaltzain osoa eta bertako burua izan zen, 1951n zendu zen arte.

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa da honakoa. 49 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.212 eta 2.213

Antonio de Arrizabieta (1856)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Kapilaua zen eta 57 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.214

Jose Eiguren Mendiguren *Jose Baños* (1927-2010)

1927an jaio zen Talan, bainuak zeuden tokian. Gurasoak ere lekeitiarrak ziren eta bere ama arduratzen zen bainuen mantenuaz. Bere aititak jarri zituen martxan Lekeitioko lehen bainuak, eta negozioaren nondik norako guztiak ondo gogoratzen zituen. Gerra ostean, sendagaiak ugaritzearekin batera, indarra galtzen joan zen eta azkenean 1950. urtean zarratu zituzten. Bere aita Batzokiko atezaina izan zen, eta kartzelan eta langile-batailoietan egon zen urte luzez heriotza-zigorretik indultatu zuten arte. Bere amamak Santi taberna izan zuen eta bere amak ere han egin zuen lan. Bilbon ikasi zuen, Arte eta Lanbideak, eta orduz geroztik arotz lanetan ibili izan zen. Elizako abesbatzako kide izan zen 40 urtez. 5 seme-alaben aita.

Nere Eiguren Unamuno (1933-2020)

1933. urtean jaio zen Narea kalean. Beraien aitak ontziola izan zuen Lekeition bertan. Bere senarragaz, Bittor Txakartegigaz, eta Libe Plazagaz batera egin genuen berba lehengo bizimoduari buruz. Hirukote berarekin jasotako kanta eta ipuinen grabazioan eta beste batzuekin batera osatutako mahai-inguruan ere parte hartu zuen.

Olatz Erdozia Leturia

Olatz Erdozia Lekeition jaio zen, nahiz eta urte askoz Arrasaten bizi izan zen gurasoen lana zela eta. Astebururo ordea, Lekeitiora bueltatzen ziren. Garai batean Lekeitio nolakoa zen kontatzen du (kaleko giroa, lanbideak, emakumeak...) eta gaur egungo kontuez (etxebizitza falta, lana, bizimodua, euskararen egoera...) hitz egiten du.

Teresa Erkiaga Korta (1927-2018)

1927. urtean sortu zen Konpañia aurrean, Apalloa kalean. Ama Gizaburuko jostuna zuen eta aita arrantzale lekeitiarra. 5 neba-arrebatako alaba bakarra eta nagusiena izan zen. 14 urtera arte joan zen eskolara, baina tarte horretan gerra bizi izan zuen. Ama eta lau neba-arreba ebakuatuta joan ziren eta bi urtez egon ziren batetik bestera: Santoña, Paris, Katalunia...; hala ere, leku denetan hartu zituzten oso ondo. Bitarte horretan, bere aita Larrinagako kartzelan egon zen, errepublikazalea zen-eta. Atzerritik herrira bueltatu ostean, Ritaren eskolan ibili zen. Lekeitioko ikastolako sorreran parte hartu zuen, bere seme bat izan baitzen lehen 6 ikasleetako bat. Bere lagun Katalin Atxurragaz batera kontatu zizkigun bere bizipenak 8 seme-alaba dituen ama honek. Argazkian ezkerraldean ageri da Teresa.

Nere Erkiaga Laka (1973)

Nere Erkiaga 1973an jaio zen Lekeition. Aita lekeitiarra eta ama mendexakoa ditu eta etxean mendexako euskara erabili dute beti. Bibliotekonoma eta Dokumentazioko ikasketak egin zituen Salamancan. Hainbat liburutegi publikoetan eta artxiboetan lan egin du eta azken hamalau urtean Xenpelar Dokumentazio Zentroan eman ditu.

Mari Carmen Fundazuri

1985eko uztailean egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Juan Garai *Txaporrenekua*

"Txaporrenekua" ezizenez ezagutua. 1985eko uztailean egin zitzaion grabaketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako. Lekeitioko kantak (bertsoak) abesten ditu grabazio honetan.

Faustino Garatea Bilbao (1932-2018)

1932an jaio zen Lekeition, familiaren etxea moilan bertan zegoen. Ama bermeotarra zuen eta aita lekeitiarra. Sei urtetatik 13 urtera arte herriko eskolara joan zen. Bere aita arrantzalea zen, eta herrian ohikoa zen legez bera ere 13 urterekin itsasoan hasi zen beharrean. Soldadutza ostean, 1956-1957 ikasturtean Ondarroako arrantza-eskolara joan zen patroi ikastera. 1957an, Irlandako uretan murgildu zen. Ordutik aurrera beti patroi moduan aritu izan da erretiroa hartu arte. Afrika aldean ere ibilitakoa da: Dakar, Senegal, Maroko... Hiru urtez aritu zen arrasteko arrantzan eta gainerakoak baxuran. Atunetan, antxoatan eta bisigutan ibilitakoa da, baina gehienbat atunetan. 1980. urtean Eibarreko Astelehena frontoiko jabeei "kalamua" baporea erosi zien, "pelotari" ezizenez ezaguna zena. Emaztea ere lekeitiarra du eta lau seme-alaba izan zituzten; hiru semeak arrantzaleak dira. Arrantza munduko zirrikitu guztiak oso ondo ezagutzen ditu, eta azalpen guztiak zehaztasun osoz ematen ditu.

Nekane Gezuraga Azkarate *Azkaratenekua* (1936)

1936. urtean, Gerra Zibila puri-puri zegoenean, Gamarra kalean jaio zen; izan ere, ama bertako familia batean egon zen inude, nahiz eta gurasoak moilan bizi izan. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen. Ama Zita enperatrizen etxean neskame lanetan aritu zen inude aritu aurretik; gerora fruta-denda izan zuen. Zazpi neba-arrebatatik seigarrena izan zen Nekane, eta senitarteko batzuekin hazi zen San Pedropean. Etxe hartan kordeleria eta abarketeria izan zuten; hori dela-eta, oso gutxi joan zen eskolara eta kolegiora. Gaztetan, Acción Católican eta herriko ezpata-dantza taldean aritu zen. Bere bizilagunarekin ezkondu ostean, Australiara joan zen; baina, handik ia bost urtera, senarra han gelditu zen eta bera semeekin bueltatu zen herrira.

Rufina Goenaga Alzibar (1933-2021)

1933. urtean munduratu zen Lekeitioko Ezpeleta kaleko 36. zenbakian. Gurasoak lekeitiarrak zituen, itsas munduarekin lotutakoak, aitak kargako itsasontzietan egiten zuen behar. Alaba bakarra izan zen. Gerra aurretik, bere aitak Elantxobeko portua zaintzen zuen eta bertan egon ziren 9 hilabetez. Gerrak irteterakoan, bere aitak ihes egin behar izan zuen eta urte luzez Mexikon egon zen; 14 urte eta erdi zituela ezagutu zuen Rufinak bere aita, orduan bueltatu baitzen herrira. Diktadura garaian, Arranegi Zabalean bizi zen Ezpeleta kaleko etxera bueltatu arte. Herriko eskolara joan zen 6 urterekin eta 13rekin bere izekok Arranegian zuen janari-denda hasi zen beharrean, errazionamendu denboran. Leonor Zilloniz Arrizabalagarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Ander Goikoetxea Vazquez (1990)

1990eko azaroaren 30ean Lekeition jaioa, bertan bizi izan da beti, eta bolada batez Bilbon, ikasketak egin bitartean. Lekeitiarrak ditu gurasoak eta arreba bat du, bera baino zaharragoa. Pilotan jokatu izan du urte askotan, eta elkarrizketa egin genion garaian haurrei erakusten eta entrenatzaile lanetan aritzen zen. irakasle-ikasketak eginak ditu, bai Lehen Hezkuntzari eta bai Haur Hezkuntzari dagozkionak. Haurren udalekuak antolatzen eta begirale lanetan ere aritu izan da. Lekeitioko hainbat kontu, euskara, hezkuntza eta beste ditu mintzagai, Irati Seijo herritarrarekin egin genion elkarrizketan.

Gregori Goitia Izurieta (1919-2020)

1919. urtean jaio zen eta Bergara kalean bizi eta hazi zen zazpi neba-arrebako familia batean, bera bigarrena izan zen. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen. Umetan neba-arrebak jagon behar zituenez, ez zen sekula eskolara joan, eta bikarian ikasi zuen ikasitako apurra, betiere euskaraz. Ama 13 urte zituela hil zitzaion, eta amamarekin hazi ziren. Oso ondo gogoratzen ditu gerrako kontuak eta aita kartzelan izan zuenekoa. Kabanan eta dei egiteko ibili zen gazte-gaztetatik erretiratu artean.

Maria Goitia Meabe (1908-2000)

1908. urtean Ezpeleta kaleko 16. zenbakian jaio zen eta gero kale bereko 10. zenbakian bizi izan zen. Gurasoak lekeitiarrak izan zituen. Zortzi neba-arreba izan ziren. Bere aita eta nebak arrantzaleak izan ziren. Umetan Lekeition bertan ibili zen eskolan.

Teo Goitiz Izurieta (1932-2021)

1932an jaio zen. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen, Arranegikoak; aita eta neba arrantzaleak ziren eta ama dendarik denda produktuak banatzen aritzen zen. Gerra aurretik Bergara kalean bizi ziren, eta gero, kofradiak bere aitari utzitako etxe baten bizi izan ziren moilan bertan. Gerran 5 urte zituela, ama eta bera "Nuestra Señora del Socorro" itsasontzian ebakuatuta joan ziren Portugaletetik Santanderrera eta handik Perigeux-era (Frantzia); 9 hilabetez egon ziren han. Aita eta neba Baionan egon ziren, baina beraiek ez zuten jakin. Lekeitiora bueltatzerakoan etxea zarratuta, konfiskatuta, aurkitu zuten, eta etxera bueltatu arte osaba-izeko batzuen etxean egon ziren ama eta biak. Bere aita eta neba denbora batera itzuli ziren. Herri eskolan ibili zen 12 urtera arte, goizetan ohiko ikasgaiak ikasten eta arratsaldez joste-lanak... 12 urtegaz ogia egiten hasi zen okindegian, eta arratsaldeetan mojetara joaten zen idazteko makina erabiltzen ikastera. 14 urtegaz neskame joan zen Ondarroako familia batera, baina hilabete baino ez zen egon. Lan askotan aritutakoa da, baina ia beti itsas munduarekin lotuta: Kabanan behar ezberdinetan, Garavillan, Aulestin atuna zuritzen eta bertakoei lana irakasten, moilan arraina kargatzen, frontoia garbitzen, etxean udatiarrak hartzen... Kabanan 22 urtez aritu zen, hori dela eta, bertako hainbat eta hainbat kontu kontatzen ditu. Senarra ere lekeitiarra du.

Rosario Gurrutxaga Lezertua (1922-2015)

Xemeingo (Markina-Xemein) Igerrandia baserrian jaio zen 1922. urtean. Aita bertakoa zuen eta ama lekeitiarra. Baserriko alaba legez, ume-umetatik hasi zen bertako lanetan eta eskolara gutxi joan zen 9 urtegaz neskame lanetan hasi baitzen. 16 urterekin Lekeitiora joan zen lanera, Okamika kabanakoen etxera. Bertatik ezkondu zen 20 urte zituela Lekeitioko Pedro Sarriagaz; hori dela-eta, bizimodu gehiena Lekeition egin zuen. Nahiz eta bera Markina-Xemeingoa izan, Lekeition bizi izandako garaiko eragina du berbakeran.

LEK-020 Hizlari ezezaguna

Emakume lekeitiarra. 1985eko uztailean egin zitzaion elkarrizketa hau HABEko "Alfabetatzerako Langaiak. Bizkaieratik Baturantz" liburuaren prestaketarako.

Tomasa Iriondo (1925)

Maria Izagirre Aizpuru *Mari Gallo* (1924-2017)

Igualdegi kalean sortu zen 1924.ean, 'Gallo' taberna gainean. Gurasoak ere lekeitiarrek zituen: ama lehorrekoa eta aita itsasokoa, kofradiako idazkaria edo "eskribintia" izandakoa. Hiru ahizpetatik nagusiena izan zen bera. Alondigako eskolan ibili ostean, gerraostean bere gurasoek hartu zuten 'Gallo' tabernan hasi zen laguntzen. Irakurtzea oso gustuko izan zuen txikitatik. Pedro Juan Akarregi arrantzaleagaz ezkondu eta zazpi seme-alaba izan zituen. Elkarrizketatzaile bat bere biloba da.

Carmen Jaio Urkiaga (1923-2021)

1923. urteko irailaren 11an jaio zen Lekeition. Bere ahizpa Edurne eta Luisarekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Carmen eskuman dagoena da.

Edurne Jaio Urkiaga (1925-2020)

1925. urteko abuztuaren 20an jaio zen Lekeition. Bere ahizpa Luisa eta Carmenekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Hiruren artean irudian erdian agertzen dena da Edurne.

Luisa Jaio Urkiaga (1930-2014)

1930. urteko ekainaren 21ean jaio zen Lekeition. Bere ahizpa Edurne eta Carmenekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Luisita ezkerreko partekoa da.

Miren Kortazar Bengoetxea *Espoliñekua* (1936)

1936an jaio zen Narea kalean. Gurasoak lekeitiarrak zituen: aita arrantzalea, eta ama arrain-saltzailea. 10 neba-arrebatatik gazteena da bera. Elkarrizketa honetan Rita eta Julian Zabala neba-arrebek Lekeitioko herriari egindako ekarpenaz egiten du berba. Bera sei urte eta erdirekin hasi zen herriko eskolan, eta ordura arte Ritarekin aritu zen irakurtzen ikasten. Lekeitiar asko igaro ziren eskola hauetatik, ateak beti zabal-zabalik zituztela dio Mirenek, edozein ordutan joan zitekeelako edozein. Herriko eskolan ez bezala, beraiekin euskaraz ikas zitekeen. Elizak, "Acción Católica"ren bitartez, bultzada handia eman ziola dio euskal kulturari garai gogorrenetan: antzerkiak, dantzak, kantak... egiten eta ikasten zituzten euskaraz. Doktrina euskaraz ikasteko aukera izan zuten Ansentzion Larretaren etxean. Emakumezkoek herriko kultur ekintzetan izandako bilakaera ere kontatzen du: esate baterako, korura abestera igotako lehen andreetako bat izan zen Miren.

Lekeitioko kantak eta ipuinak



Lekeitioko kantak eta ipuinak batu genituen grabaketa honetan. Ezkerretik eskumara bertako protagonistak: Libe Plaza (1936), Nere Eiguren (1933) eta Bittor Txakartegi (1932).

Amale Leturia Goenaga (1930-2018)

1930. urtean jaio zen Arranegi kalean, beraien amonak abarketa-denda zuen bertan eta azpian sagardotegia. Umeak zirela beraien aita fusilatu zuten; ama alargunak lan asko egin behar izan zuen aurrera irteteko. Amale josten aritu zen. Bere neba Damasorekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Elkarrizketatzaile bat beraien senitartekoa da.

Damaso Leturia Goenaga (1933-2022)

1933. urtean jaio zen Arranegi kalean, beraien amonak abarketa-denda zuen bertan eta azpian sagardotegia. Umeak zirela beraien aita atxilotu eta fusilatu zuten; ama alargunak lan asko egin behar izan zuen aurrera irteteko. Damaso amarekin hasi zen lanean itsasorako kontuak saltzen moilako dendan. Bere arreba Amalerekin batera egin zitzaion elkarrizketa. Elkarrizketatzaile bat beraien senitartekoa da.

Jone Leturia Meabe (1934-2021)

1934an jaio zen Ezpeleta kaleko 10. zenbakian. Aita, Manuel Leturia, kartzelan sartu zuten, eta, handik atera ondoren lanik gabe egon zen hainbat urtez, inork ez baitzuen enplegatu nahi. Azkenean, Pasaian aurkitu zuen lana eta hara joan zen bizi izatera emaztearekin; Jonek eta Maria Luisak amamarekin geratu behar izan zuten Lekeition. Ahizpa biak, etxeko txalupa eta tabernako lanetan eta josten aritu ziren, besteak beste, ezkondu ziren arte. Astilleruko Bixente Eiguren "Esparbela"rekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen. Bere ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa; argazkian eskuman dagoena da Jone. Elkarrizketatzailea bere iloba da.

Maria Luisa Leturia Meabe (1937-2024)

1937an jaio zen Ezpeleta kaleko 14. zenbakian. Gerra sasoian jaio zenez familiako gizon gehienak kanpoan zeuden. Aita, Manuel Leturia, kartzelan sartu zuten, eta, handik atera ondoren lanik gabe egon zen hainbat urtez, inork ez baitzuen enplegatu nahi. Azkenean, Pasaian aurkitu zuen lana eta hara joan zen bizi izatera emaztearekin; Jonek eta Maria Luisak amamarekin geratu behar izan zuten Lekeition. Ahizpa biak, etxeko txalupa eta tabernako lanetan eta jostean aritu ziren, besteak beste, ezkondu ziren arte. Luisa Javier Erdozia "Giputxa"rekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituen. Bere ahizparekin batera egin zitzaion elkarrizketa; argazkian ezkerrean dagoena da Maria Luisa. Elkarrizketatzailea bere alaba da.

Mahai-ingurua Lekeition

Lekeitioko bost lagun batu genituen beraien ume eta gazte garaiko bizipenak gogoratzeko. Argazkian ezkerretik eskumara: Benita Elorriaga Aranguena (1930, Kanala auzoa (Sukarrieta), 20 urtegaz Lekeitiora etorritakoa), Libe Plaza Laka (1936, Arropain auzoa), Mari Loli Gezuraga Goitiz "Oikonekua" (1943, Narea kalea), Nere Eiguren Unamuno (1933, Narea kalea) eta Bittor Txakartegi Arrinda (1932, Narea Kalea).

Modesto Meabe Artetxe (1928)

1928. urtean jaio zen Atxabal kalean, lau neba-arrebatako familia batean. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen. Gerra sasoian, Mungiara joan ziren izeko batengana. Lekeitioko herri-eskolan ibili ostean, 13 urtegaz aitarekin batera hasi zen itsasoan lanean. Bere koinatu Joseba Plazarekin batera kontatu zizkigun Lekeitoko istorio eta kontakizunak.

Miren Mendezona Urkiaga (1937)

Gerra Zibilean jaio zenez, Mendexan, amaren jaiotetxean jaio zen, baina Lekeition hazi. Aita Gizaburukoa zuen eta sasoi batean bertan bizi izan ziren. Umetan Lekeitioko mojen ikastetxera eta Gizaburuko herri-eskolara joan zen. 14 urterekin Lekeitioko kondearen etxera joan zen neskame lanetan. Gazterik alargundu zen 4 alaba zituela eta mertzeria bat zabaldu zuen Lekeition. 1983. urtean Bilbora joan zen bizitzera degustazio bat zabaldu baitzuen bertan eta bertan bizi izan zen 25 urtez.

Mila Mendia Goitia *Larrosinekua, Maittenekua* (1931)

1931. urteko Milagrosa egunean sortu zen Eskolapeko 'Mendienekua' etxean. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen: aitaren aldekoak *Larrosinekua* desizenez ezagunak eta amaren aldekoak "*Maittenekua* desizendunak. Bederatzi neba-arrebadun familia osatu zuten. Aita makinista eta errepublikazalea zen eta Gerra Zibilean alde egin behar izan zuten mugaz beste aldera: Hendaiako senitarteko batzuenera joan ziren eta lau urtez egon ziren bertan. Aitak ezin izan zuen Lekeitiora bueltatu; Bilboko San Antonetik Santanderrera eta handik etxera etorri zen hilzorian egon zenean. Garai hartan, aitaren izenean zeuden ondasun guztiak kendu zizkieten: jaiotetxea bera, Gallo taberna... Aitak zabaldu zuen Gallo taberna, oilar-auskei zien zaletasuna omenduz. Milak 17 urte zituenean hartu zuten berriro ere taberna eta hantxe aritu zen urte askoan lanean. Etxeko amama petrikiloa eta Kaxarranka dantzako banderaren jostuna izan zen. Eskolapeko bizipenak, umetako gaiztakeriak, tabernako anekdotak, amamarengandik jasotako erremedio naturalen sekretuak, abestiak... kontatu zizkigun besteak beste umoretsu eta pozez. Azken bi zintetan bere umetako lagun mina den Ana Mari Trebiñogaz batera parte hartu zuen.

Itxaro Mentxaka Bengoetxea (1964)

Itxaro Mentxaka, Lekeition jaiotako mezzo-sopranoa da. Ikastolan, Itxas-Soinua abesbatzan hasi eta Europa guztitik kantuan ibili ziren. eta gero,
1983an Bordeleko kontserbatoriora joan zen eta han kantu-ikasketak egin zituen. Operan, *Cristóbal Colón* antzezlanarekin ekin debutatu zuen 1989an Bartzelonako El Liceu antzokian.[2] Harrezkero hiri ezberdinetan lanean dihardu.

Jose Ignacio Murelaga Imaz (1908-2008)

1908an jaio zen Lekeition. 1936an Gerrako Euskal Itsas Armadan D-14ko komandantea izan zen. 1936an alde egin eta ez zen 1945era arte bueltatu. Tartean, Ferroleko kartzelan egon zen, eta betirako kartzela-zigorra ezarri zioten. Zigor hori kendu eta Bilbora bidali zuten, harik eta 1945ean berriz Lekeitiora itzuli zen arte. Elkarrizketa hau 97 urte zituela egin zioten Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzakoek.

Julian Murelaga Sustaeta *Karoli* (1929-2021)

1926. urtean jaio zen Kinkilla kalean. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen; bost anaiatatik zaharrena da. Bere ama Karoli kondeareren neskamea zen eta anaia guztiek hartu zuten "Karoli" ezizena. Bere aitak 1932. urtean zabaldu zuen "Murelaga y Pagai" ontziola Arropainen. Bere aita gerra sasoian, Santoñara joan zen eta handik Ipar Euskal Herrira; hiru urte eta gero, ontziolara bueltatu zen. 13-14 urterekin bere etxeko gehienak ontziolan hasi ziren beharrean, eta aita hil zenean, beraiek hartu zuten horren kargu "Viuda de Murelaga" izena jarriz ontziolari. Azken urteetan "Murelaga ontziola" izena izan zuen. Hauxe izan zen Lekeition sortu zen azken ontziola eta baita zarratu zen azkena ere. Julianek urte askoan izan du "San Pedro Kilinkala" prozesioan parte hartzeko ardura.

Mertxe Pagoaga Etxaburu (1929-2021)

1929an jaio zen Atea portalean. Aita lekeitiarra zuen eta ama Ondarroan jaioa, baina Lekeition hazitakoa. Bost neba-arrebatatik laugarrena izan zen. 18 hilabete zituela ama hil zitzaion eta senitarteko batzuekin hazi zen Goiko Kaleko baserri-etxe batean, Lekeitioko kaleetan zegoen baserri bakarrean. Umetan karitateko mojetan ikasi zuen. 16 urtegaz ogi-banatzaile lanetan hasi zen "Viuda de Telleria"renean, eta bi urtez jardun zuen bertan. Gerra denboran, Amorotoko Abiataga baserrian egon ziren, eta Lekeitiotik Kalbarioko kobazuloetara joaten ziren ezkutatzera. Aita arotza zuen, eta herrian bi arotz baino ez zeudenez, bere aitak egiten zituen hil-kutxak Atea portalean zuen tailerrean. Bere amamak txerri-gobernuan egiten zuen lan: txerriak hil ostean txerrikiak prestatzen. Frantziako kostan "Valle de Mena" baporean hildako 17 gizonetatik bat bere neba izan zen. Beste neba eta arreba bat Argentinara joan ziren eta bertan egon ziren urte luzez. 29 urtez kabanan aritu izan da beharrean Lekeition eta Aulestin, urte gehienak arduradun legez. Jose Abaskal marinel lekeitiarrarekin ezkondu eta alaba bat izan zuten.

Libe Plaza Laka (1936)

1936. urtean jaio zen Arropainen. Txiki-txikitatik baserriko lanetan aritutakoa. Bittor Txakartegi eta Nere Eiguren egaz batera eman zigun beraien gazte-denborako bizimoduaren berri. Hirukote berarekin jasotako kanta eta ipuinen grabazioan eta beste batzuekin batera osatutako mahai-inguruan ere parte hartu zuen.

Joseba Plaza Plaza (1930)

Mendexan jaio zen bere gurasoak hangoan baitziren, baina gerra orduko etorri ziren Lekeitiora. Bere aita sakristau lanetan aritutakoa zen. Mendexako eskolan eta Lekeitioko fraideen ikastetxean ikasi zuen. Gerra sasoian ere Mendexan babestu ziren etxekoak. 19 urtegaz, Lekeitioko udaletxean hasi zen beharrean bulegoko lanak egiten, eta batez ere kontu-hartzaile bezala aritu zen 43 urtez. Tartean 3-4 urtez Goraburu zinemako leihatilan ere egon zen. Bere koinatu Modesto Meabe rekin batera egin genion elkarrizketa.

Irati Seijo Diez (1992)

1992ko urtarrilaren 21ean jaio zen Irati, Lekeition, eta bertan bizi izan da nagusiki, baina baita Bilbo eta Gasteizen ere, ikasketak egin bitartean. Aita lekeitiarra eta ama Bilbon jaioa ditu. Hiru senidetan zaharrena da; ahizpa eta anaia gazteagoak ditu. Euskal Filologia ikasketak bukatzen ari zen elkarrizketa egin genionean, eta Pedagogia ere ikasten hasia zen, Donostian. Hezkuntza kontuetan interes handia du, eta batez ere hezkuntza ez formalaren eremuan lan dezente egindakoa da. Euskal gaiak eta literatura asko interesatzen zaizkio. Lekeitioko hainbat kontu, euskara, hezkuntza eta beste ditu mintzagai, Ander Goikoetxea herritarrarekin egin genion elkarrizketan.

Jose Sesma Erezuma *Bikidxa* (1926)

1926. urtean sortu zen Monseñor Azpiri kalean. Aita ere arrantzale lekeitiarra zuen eta ama Aulestiko Santa Eugeniakoa, "Lauaxeta"ren lehengusina. Familiatik datorkio itsasoarekiko lotura: 1931. urtean bere aitak baporea egin zuen eta bera ere 15 urterekin sugin (fogonero) hasi zen; gerora, makinista bezala ibili zen. Hori dela-eta oso ondo ezagutzen du bizimodu hori. Gerra garaian, Aulestiko Malaxen egon zen osabarenean. Argazkilaritza da bere zaletasun nagusia: Lekeitioko 16.000 argazki baino gehiago ditu. 16 urtetatik 80ra arte San Pedro Kili Kalian parte hartu izan du. Txiste-kontalari trebea ere bada. Hainbat tresna eta objektu zahar gordetzen ditu: arrantzakoak, zilarrezko txanponak, argazki- eta bideo-kamerak...

Simon Sesma Erezuma (1917)

Arrantzalea, Lekeition jaio eta bizitakoa. Aita ere arrantzale lekeitiarra zuen eta ama Aulestiko Santa Eugeniakoa, "Lauaxeta"ren lehengusina. Kofradiako presidente izateaz gain, arrantzari lotutako karguak izan zituen eta herriko alkate ere izan zen.

Ana Mari Trebiño Lauzirika (1931)

1931. urteko Santa Ana egunean jaio zen Dendari kaleko 52. zenbakian. Ama Lekeitiokoa zuen eta aita luzaroan Ameriketan beharrean ibilitako errioxarra, Amorotoko maisua izandakoaren semea. Umetan mojen ikastetxean, Goiko kaleko Petraren eskolan (euskaraz) eta Bilboko kolegioa baten ibili zen; azken horretan ikasi zuen bordatzen, oso trebea izan da horretan, hainbat arreo, izara... egindakoa baita. Beraien etxeko txerri-hiltzeak eta odolostak oso ezagunak izan ziren herrian. Gerra Zibilean, beraien aita Ameriketan zegoela, "Cara al Sol"en eskua ez altxatzeagatik ama beste hainbat emakumerekin batera atxilotu zuten; Lekeitioko kartzelatik Bilbora eroan zituzten. Bitartea horretan, Ana Mari eta bere neba beraien jagoleagaz egon ziren Lekeition. Garai hartan beraien aitaren anaia zen herriko alkatea. Ana Marik berak dioenez, okerkeria asko egindakoa da umetan, beti izaten ei zituen pentsamendu onak-eta. Beraien lagun-koadrila ere sasoi hartako emakumeekin konparatuz oso ausartak ziren. Behin, zortzi lagun joan ziren Bartzelonara beste bati laguntzera eta bertako mutil bat ezagutu zuten, Jordi. Gutun bidez harremana mantendu, maitemindu eta ezkondu egin ziren. Gutun bidezko maitasuna posible dela aldarrikatzen du, bera baita horren lekuko. 28 urtegaz, 1960. urtean, Bartzelonara joan zen bizitzen; hala ere, sekula ez du bere jaioterria eta bertako lagunak ahaztu eta ahal duenean bertan izaten da bisitan. Umetatik bere lagun mina den Mila Mendiagaz batera aritu zen kontu-kontari.

Bittor Txakartegi Arrinda (1932-2022)

Narea kalean sortu zen 1932.ean. Bere emazteagaz, Nere Eiguren egaz, eta Libe Plazagaz batera kontatu zizkigun antzinako bizipenak. Hirukote berarekin jasotako kanta eta ipuinen grabazioan eta beste batzuekin batera osatutako mahai-inguruan ere parte hartu zuen.

Juan Uribarren Atxabal *Zozua* (1924)

1924. urtean sortu zen Narea kalean. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen, ama Arropaineko Zozua baserrikoa; hortik datorkio "zozua" ezizena. Umetatik arrantzari lotuta bizi izan da, aitarekin ibiltzen baitzen motor txikiarekin eta 80 urtera arte ibili izan zen. Makinari, koipeztatzaile, arrantzale zein patroi lanetan ibili izan da, hurbilean, Ternuan (Terranova) zein Dakarren; hori dela-eta, itsas munduko kontuak oso ondo ezagutzen ditu. Gerra sasoian, aitarekin joan zen Santanderreraino ebakuatuta, eta garai hartako bizipenak ondo gogoratzen ditu. Bere emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa, Mari Tere Aboitizekin.

Angela Uribarren Bilbao *Patiño* (1931-2025)

Lekeitioko Narea kalean jaio zen. Bere gurasoak lekeitiarrak ziren, bi ahizpetatik zaharrena da bera. Umetan lau urtez joan zen eskolara. Eskola bukatu ostean lan ezberdinetan aritu zen; umeak zaintzen, bere ahizpa gaztea (bera baino hamar urte gazteagoa) eta Taberna Vascako alaba; Leoneneko okindegian ogia banatzen; Kabanan tarteka; eta, despiskan behin baino ez zuen egin lan. Lekeitioko Jose Manuel Gezuragarekin ezkondu ostean bost seme-alaba izan zituzten.

Luis Urizar Murelaga *Zirillo* (1933-2023)

Dendari kalean jaio eta bizi zen, ezkontzerakoan Bergara kalera joan arte. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen, itsas mundukoak: aita arrantzalea eta ama kanabako langilea eta moilako janari-denda bateko dendaria. Hamahiru urterekin eskola utzi eta letoigintzan (latonerian) hasi zen lanean 14rekin itsasora joan aurretik: txibitan, bisigutan, antxoatan zein atunetan aritutakoa. Afrikako hainbat herrialdetan ibilitakoa da, eta beste lekeitiar asko bezala lau aldiz Dakarrera joandakoa. Erretiratu aurreko urteak sukaldari-maiordomo legez ibili zen merkataritza-ontzian.

Juli Zarragoitia Gezuraga (1922)

1922. urtean sortu zen moilan. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen. Aita itsasoan desagertu zen beste bost gizonekin batera. Umetan, gaur egun kultur etxea dagoen tokian zegoen mojen San Jose ikastetxean ikasi zuen. Oso ondo gogoratzen ditu gerrako eta gerraosteko kontuak. Laredora joan ziren ebakuatuta eta handik "zona leal" era, Bartzelonara. Hiru seme-alaba izan zituen.

Leonor Zilloniz Arrizabalaga (1929-2020)

1929. urtean sortu zen Lekeitioko Azpiri kalean. Aita lekeitiarra zuen, Intxaurrondokoa, eta ama Ereñoko Meldibil baserrikoa, jostuna. Etxean 5 ahizpa izan ziren. Aita umetan hil zitzaien eta izekorenean igaro zuten denbora asko. Mojen ikastetxera joan zen. Lekeitioko etxe askotan umezain jardundakoa da. Kabana aritu zen beharrean. Rufina Goenaga Alzibarrekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. 14 urterekin hasi eta 52 urte lantegi berean

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/004
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elkoro, Lander
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Aita arrantzalea zuen. Bera 14 urterekin eskola utzi zuenean autoen lantegi batean hasi zen lanean eta 52 urte egin zituen bertan, erretiroa hartu arte, hain zuzen ere.

Transkripzioa
-Eta aitta ze zan arrantzalia?
Arrantzalia
-Zeure aitta?
-Arrantzalian umia naz ni. Arrantzalina.
-Orduan ee, Lekeitxion jende guztia izango zan arrantzalia edo?
-Gehixenak bai, gehixenak, ta hongo historixak ezta?
-Eta zeu ez?
-Eeh?
-Zeu ez zara arrantzalia izan?
-Nik hamalau urte naukozanian urten neban eskolatik, gehixao ikasi neban ta, hamalau urte ikasten egoteko, gehixao ikasi neban ta sartu nintzan, automobillak euazan, “linea de automobiles”, Lekitto ta Bilbokuak; taillerretan, hantxe taillerretan, ta hantxe ein nebazan berrota hamabi urte. Hantxe sartu, ta handixik jubilau. Gero […]honek aa…erosi ein zirian ta lelengotan zirin batzuk, gero saldu ta beste batzuk, ta holan ein zirian ezta? Lehenoko Lekitton arrantzarako.

1.2. Itsasoko lana eta lehorrekoa

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:07:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Badiola, Lander
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Lekeitio asko aldatu da. Berak ez zuen itsasoan lan egiteko tentaziorik izan, mareatu egiten zen eta. Lantegian sartzeko aukera izan zuen eta ondo atera zitzaiola dio.

Transkripzioa
- Asko aldatu da, Lekitto?

- Puf, total, goittik behera, goittik behera.
-Eta ba zuk e, ez ziñuan euki zuk e gogorik arrantzan eitteko-edo?
-Ez, ez nintzen, maria eitten nintzan, maria eitten nintzan, ez nintzen ee, lehena itsasora nahi eusten neuri be baiña, ee ez neban nahi, hantxe […] ta gero, ondo urte eustan, urten ebanin ia beste gauza bat nintzon, ezta?
-Itsasoko bizimodua zer da gogorraua, lihorrekua baiño?
-Ba gustaten jakonentzako ez, ze daoz pertsonak, baiña nitzako bai, nik ee ni maria eitten nitzan. Baiña beste batzuk ez, ta hantxe sartu giñun ta handixik aurrera edo bai.

1.3. Umetatik bildumak egiteko interesa

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/007
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Erkiaga, Ane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 7.805 argazki omen ditu sailkatuta. Lekeitioko historia ondo ezagutzen duela komentatzen dute. Umetatik izan du halako gauzetarako zaletasuna. Lehenengo jaunartzea egin zuenean "Eliz-liburutxoa" izeneko liburu bat eman zieten eta hura omen da gordeta duen lehen liburua.

Transkripzioa
- Eta olakuak zemat daukazuz asko?
- Berrota hamabi.
- Berrogeta hamabi holako?
- Zazpi mila zortzirehun da bost argazki daukot. Heuren temakin, ezta?
- Bai.
- Lekitto asko goittik ta behera aldatuta.
- Orduan Lekeitxioko historixia-ta ondo ezautuko dozu zuk?
- Eh?
- Lekeitxioko historixia-ta ondo ezautuko dozula zuk, ez?
- Bai hombre, horixe zan neure afiziñoia ta, holantxek ixanda, eozer en bihar neban da. Leheno zana […] da holan pasaten gendun denpori.
- Eta noiz hasi ziñan holako kontuak jasotzen?
- E txikitxatik neukazan, daukat ondioko guri lehenengo komunioia eieuskunian, “primera komunion” emote euskuen liburutxu bat Elez liburua jakon ixena. Euskeraz indda lelengoz zana.
- Bai
- Ordun denboran da. Ta lelengo daukaten liburua haixe daukat, lelen daukaten liburua. Ta gero, beti ha edo bestia edo topaten zana edo batun da…maletia beteko neukoke. Amak esaten eustan: “zetako da? Etxin ez daukau nun euki be ta, zeure paperok eta braetak”. Afizinoi neuri zan ta, geldi, geldi, geldi, geldi geldika balidxo ixan eustan asko, ze gauzak ondo erun nebazan. Neure bizitzia zan “hobby” esateutzan batek, ezta? Mendizali nintzan, ta karo beti biharra eukaulez beti ba ez eukaun ha, ibiltteko holakoik baiña, Urrarixan ixan gara, Aizgorrin be bai ta horretan.
- Bai, eh?
- Baiña hogeta hiru urteaz, hara be idxon genduan […], Lekittarra zan,

harek eta bixok. Ta bestelan ingurutako mendidxetan ta ahal nebanian.
- Bai ba.
- Ze autobusen gora beheria eguneroko lana zalez, nik domekan librako.
- Bai, lehen kotxerik eta holakorik ez zan egongo, edo oiñez edo autobusa hartu bihar, ez?

1.4. Lekeitioko bizimoduaren aldaketa

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/010
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:12:05. **Bukatu**: 00:14:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elkoro, Lander
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Mendizalea izan da eta eta txoritarako zaletasuna ere izan du. Ez zuten dirurik izaten eta horrekin entretenitzen ziren. Pobre aberatsak badaudela dio. Lehen Lekeition lana nondik sortzen zen. Lau astillero zeuden herrian, esaterako. Gazteak normalean itsasoko lanetarako prestatzen ziren. Gauzak asko aldatu dira. Lekeitio diru aldetik nahiko ondo bizi zen herria zen.

Transkripzioa
- Esan dozu orduan mendizalia izan zarala?
- Bai, mendizalia-edo...
- Eta animalixak eta gustau ixan jatzuz?
- Txoridxak eukitxen nebazan etxian.
- Bai?
- Bai, jilgeruak-eta, kamarixorikn eta ez, bertokuk, torretxoririk bez e!
- Torretxoririk bez, e?
- Ez.
- Holakorik ez, e?
- Bai.
- Eta hori be kanbixau ein da on txori kontua ta?
- Bai, ez diraz on abidxaten honek ongo gaztiak gero, ongo joeria gehidxo da tabernia-edo, edatia ta beste. Ze lelengo ta bat dirurik ez eukaun baiña pobre aberatsak be eoten diraz, nik ikusi dot hamen jente aberatsa baiña jente galdua, ezta?
- Egixa.
- Ta hamen be bakixu ze pasaten dan baiña hamen gero beraneantiak eta beste jokera bat, ezta? Baiña bueno pentsa eukauzan hamen hogeta hamabi bapor baiño gehidxo, Tretseruak gaur ez doz, sei-edo, ontxe dabiz batzuk eitten barridxak, gero eukauzan hortik kanpora lau astilleru baporak eittekuk.
- Hamen bertan?
- Bai, bat dao on holan-holan dabil baiña bueno bapez, taillerrak ta gero inportantiena zan “Fabricas de conservas” esaten jakona. Horrek eukazan honak eta nahiku gure herridxentzako. Gaur be bat bakarrik do baiña berak be kanpotik ekarri eitten dau arraiña, osake, zentzun horretan, aldatu ein biha da, baiña horreri bide barri bat ipintteko ta gauza dan (...) izateko, barririk ez dou sortu. Aitzen nazu?

- Bai, bai, bai.
- Segun zer, turismuak-edo, ia emoten badau. Ta on a ba gaztedidxa be ez da lehenagoko modun ez da. Danak ogidxa nahi ta itxasora ikasten. Ulertzen dozu? Pilotuk eta kapittanak eta nautikakuak eta, on ez dao nautikakorik be, baiña lehen famili askotan ha zozer dirutxu eukanak ha euren umiari emoten eutsen, karrera bat, o bien zala makinista aldetik o piloto aldetik eta da...beiratu diruari ta ondo, nahiku ondo bizi zan herridxa zan Lekitxo.
- Bai ez?
- Bai, denen zentzunian, ezta? Millonarixo be ez eukoun iñor, ogidxa bidian erosten behintzat.
- Eta bihar asko ein bihar baiña biharra einda ondotxo bizi zan herridxa.
-Bai, on hori aldau ein da, hori aldau ein da.

1.5. Gaztetan txoritarako zaletasuna

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/011
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:17:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Erkiaga, Ane
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Natura » Fauna
- **Laburpena**: Gaztetan txoritara joateko zaletasun handia izaten zuten inguruko mutikoek. Txoriak "likiaz" nola harrapatzen zituzten kontatzen du. Kantatzen zuten txoriak harrapatzen zituzten. Habia bila ere ibiltzen ziren. Inguruetan txepetxak, kardantxiloak, zozoak, birigarroak... aurkitzen zituzten. Kilker bila ere ibiltzen ziren. Eskopetarekin ibiltzeko zaletasunik ez du izan, gerran izan omen zuen nahikoa eta.

Transkripzioa
- Eta esan dozu zuek afiziño handixa zekazuela txoritxan-eta ibiltzeko ta...?
- Bai hombre.
- Bai.
- Asko, gaztetan hamen asko.
- Harrapatzen be bai?
- Bai, txoridxak baiña liskiaz ta.
-Zelan?
- Liskiaz, liskia.
- Eta zelan eitten da hori?
- Ipini lelengo, hartun arbola adar bat, sartun. Ta gero, hartzen diraz haunako beren adarren gauza handi batzuk, ta emoten jako liskia, liskiaz ipintzen jako. Ta txoridxak, ipintten jako albuan beste txori bat kantaten. Ta ze eitten dau, etorten da ta paraten dalez, preso geratu.
- Bertan geldittu pegata?
- Bertan pegata geratzen da
- Eta holan zer harrapatzen zenduen?
- Gilgeruak, gilgeruak-eta, holako txorijak, torratxoririk eta holakorik ez, kantaten eben txorijak ezta? Ze kaidxolan ipintten jakon kantaten ebana ta afiziño haundixa euan hamen, hamen mendi inguruan.
- Osake likiaz?

- Eh?
- Liskiaz?
- Liskiaz bai [...] ta gero habidxetan be bai.
- Habidxetan be bai ibiltzen ziñazien?
- Ene! Gazteridxak horrek atrapaten ebazan.
- Eta ze, ze harrapatzen zenuen?
- Segun, ze habidxa topaten zendun. Han ez zan eoten ze harrapau baiña topaten zana.
- Eta zer topatzen zan hamen?
- Hamen, gehidxen, torratxoridxak eta honek goi partian eitten ebezelez, ba gehidxen honek txepetxak, jilgeruak gehidxen, ta gero baitta be topaten zirin enarak eta honek, balkopitan eitten ebezen, horrek ez zirian atrapaten. Sosuak be bai, sosun habidxa, birigarrunak be bai. Ta ongo gaztik ez diraz...ta gero grillotan be bai.
- A bai?
- Grillotan be bai, sartu ziridxa...Ta on ez dakit juten dirazen edo...
- Gitxiago seguru.
- Osake ez dau ongo mezuak balidxo?
- Eta eskopetiaz ez ziñazien ibiltzen, karabiñiaz?
- Ni neu ez naz ixan eskopeta zalia. Gerran euki gendun hori. Ta...
- Nahikua.
- Nahiku ta gehidxao, ez gendun ezer atara handik, etxetik kanpo urte asko. Aldan modura...

1.6. Herriko kanta ezagunak

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/021
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:24:40. **Bukatu**: 00:27:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elorza, Ander Marino
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Lekeitioko Bergara kalean jaio zen, kalerik "popularrenean". Lekeitioko pertsonaia "onenak" bertakoak omen ziren. Hauen inguruko kanta bat errezitatzen du. Orduan asko abesten zen. Beste kanta batzuk errezitatzen ditu.

Transkripzioa
- Eta zu jaixo nun jaixo ziñan Lekeittion?
- Lekitton.
- Nun, ze kaletan?
- Bergara kalian, Lekitton daonik kalerik popularrenin.
- A bai?
- Han euzan personajerik onenak aa, Lekitton euazanak. Langredo ta Pitxarra. Ezixenak ezta? Emakume arrogiñatik-eta. Langredo ta Pitxarra pertsebatan hasi, Langredo gixajua txirrist endda jausi, baitta pitxarra parez etxera jausi, honako parejarik ez dxuat ikusi. Kantia.
- Orduan asko kantaten zan?
- Asko...

- Bai?
- Asko. Hombre, honek ez dabe eitten baiña, honek on ee gure kantak hondatu dabez, on e... Bagoiaz danok estrepedsuan, bakotxa beren tostara, e... bagoiaz danok, mariñeruak bruum! Bagoiaz danok estrepesuan bakotxa beren tostara. Tostia jesarlekua da dagona. Andra ta umiak ohian itxitta lihorrekun kontura. Da on kantaten da, andra zantarrak ohian itxitta txaputxerun kontura. Pentse zelako... Lekeitioko kalian [...] denporalian hogei txitxarro ta gehixao sartzen diz zabelian, baiña guztiak aldian. Harek asko [...] Lekittora harek kanta danak atarata on zeuena. Hasi tala puntatik eskolaperaiño, ez da ikusten besterik tabernia baiño, nor ez da mozkortuko hainbat tabernakin, baitta islako akerrak eraten baleki. Tali da kurtzidxoduna, da portua aurrian, da lehen akerrak euzan islan.
- Bai?
- Nonoiz... Ta gero eon zirin milla lio da kendu eibezen, ezta? Bai.
- Eta bat edo batek eruanda?
- Bai, erunda.
- Han lagata?
- Bai erun, izteko hantxen e... zea, piñuk euazalez haretxek garbiuten e, bedarra jateko. Hantxe euazan. Ze lehen hor konbentua eon zan ba, ez gure denporan, lehengo garaixetan. Hontxe be hor doz oiñarridxak harenak.

1.7. Zita enperatriza Lekeition

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/026
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:40:30. **Bukatu**: 00:41:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elorza, Ander Marino
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Zita enperatriza Lekeition bizi izan zen denbora batez senarra hil eta bere zortzi seme-alabekin desterratu zutenean. Gerra hasi arte egon zen Lekeition. Semea ezkondu zenean bisitan itzuli omen zen Lekeitiora, sekula ez zelako herriarekin ahaztu. Lekeitioko herriak ere ez omen zituen haiek ahaztu, pertsona onak zirelako.

Transkripzioa
- Eta zein da historixia ba enperatrizana?
- Enperatriza, eon zan Lekitton, bakixu desterrata bialdu eben, bere zortzi seme-alabakin, gixona hildda ta hamen etorri zan, gerria hasi arte, gerria hasi zanian ha urten en bihar zan, ezta? Ta emon eban /emonban/ ejenplo bat bueno iñok emon baban ha, pertsona onak eta dirurik eta ez euken laguntasunaz-ta, benetako pertsonak zirin harek, ta gero jun zan ta ezkondu zanian semia Otto ta etorri ein zirian ha bisittan, sekula ez dira Lekittoaz ahaztu, ta geu be ez eurakin e?
- Ez?
- Honbre.
- Lekeitxok asko maitte zeban?
- Bai, bai, bai, bai, benetan e? Ta gerran be amak ha influidu ban “pena de muerte” euazan batzuk hil ta ez eitteko ta... Bueno, bueno, bueno, on-onak. Onak zirian.

-Izena zelan jakon? Enperatrizak?
-Zita.

1.8. Tabernara barik, Talan musika barik baltseoan

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/042
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 01:42:29. **Bukatu**: 01:44:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Emakumeak ez ziren tabernetara sartzen, baina mutil-lagunarekin irteterakoan zer edo zer hartzen zuten. Talara baltseoan joaten ziren beraien kontura, musika barik.

Transkripzioa
- Noizien behin joango ziñien San Antoliñetan-edo gizonaz?
- Bai. Gizonaz nahi bazendun egunin-egunin. Baiña gero, ez neban urten be eitten. Guk eitten genduan, astin-astin urten sei parejak. Urteten genduan ta orduan ba, zelako izena esaten eutsen hari edaridxari?
- Bermuta?
- Ez. Lodidxe izaten zan. Kañie be ez. Hori zan beste izen bat eukan. Ta haxe, gozue izeten zan-ta. Kinkerrenkoie-edo ez dakit ze izen eukitten eban. Bestela etxien. Gero eitten genduan, horra Talara juan, Talan balseuan geure kontura.
- Musika barik?
- Musika barik.
- Umoria!
- Umoria. Sei lagun izeten zan. Bueno, Paul Grande, ezautu dozu? Paul Grande ezautuko zendun. Pablo [Sant...nekua].
- Bai Urtzi Ta Egoitz Akarregin ta aitxitxa.
- Akarregi zan. Harek beran zapatilla handidxakin: “Koñe, ez dotsut gehidxo zeuri lagunduko. Ein ondo. Kaderak erabili ondo”.

1.9. Mutilen jolasak; neska zein mutilen jolasak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/066
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 02:24:13. **Bukatu**: 02:27:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Mutilek eta neskek ez zuten askotan elkarrekin jolasten. Mutilak txanpaka aritzen ziren diruarekin, txanponekin. Mutilak eta neskak baleka (ezkutaketara) eta "Tres navios en el mar"era aritzen

ziren. Diabolorako ez zuten dirurik izaten eta gastatutako haria erabiltzen zuten.

Transkripzioa
- Danok batera?
- Ez, mutillak txanpaka, harek dirukin txanpaka, txanpas.
- Ta zelan zan hori?
- Hori be hormara bota txanpa, txapa, "guazen txanpan" esaten eben harek.
- Ta norek urrunao... bai, gero txanpakin eitten zana, ez? hori jokua.
- Eta, holan, ezkutetan edo bata bestiari harrapaketan eta aringa-aringa eta.
- Hori be bai, aringa-aringa eta ezkutaten be bai, baleka.
- Baleka?
- Baleka.
- Baleka esaten zenduen?
- Baleka.
- Geuk be holan esaten dotsau, "Bale" eitten genduan-ta amaitzerakuan [...].
- Ta nun olgetan zenduen?
- Ganera, ariño, hori baiño ariño “Tres ba...” zelan ete zan bera “Tres... En el mar, otros sin, sin...” ahaztuta daukat [horretxek be].
- Baiña hori zer zan kantia edo jolasa?
- Jolasa zan, bai. “Tres navíos en el mar, otros en el [... navegar]”.
- Alkarreri, ezta?
- Alkarreri, alkarreri ta, halantxerik, mutil ta neska hor.
- Bai. Eta gero horreaz, diaboluaz [...]?
- Bai, bai, hori be bai. Ba, guk, baakixu, ez eukuaun tirabolorik, bolorik erosteko ta eitten genduan, hori gastaten zanian haridxa, harexeaz haridxaaz imiñi tirabolua.
- A, hori, bera karretia.
- Bera karretia, haretxeaz bolua, ta Txapartegiñekuak, harek horrek eukezen, boluak, ta beti, abilla zan ixten hori. Ta “zu zara abilla” behiñik behin, [...] zara. Erosi eutsaun, berari erosi eutsaun tabernia. Tabernia erosi eutsaunian esan neutsan “zu lehen be, gero, ez ziñin ixaten abilla, gero. Hauxe, merketxuo eitteko ta”.
- Negoziaten ibili ziñianian, ez zeban barkatzen, harek ez zeukan barkatzeko harixa saltzen ebanian bez.
- Ta "zu sekula be ez". Kristina, Kristina, Kristina be bai. Kristina be ha baiño hobiao zan, ta ha be bai, Nati, Nati. Nati esaten eutsaun. Nati zan ixten gaittuzena guri han. “Zu, zuk itxi? Ezta…” esaten eutsaun. Harek euren…, ta geuk be ikasitta. Handik palotik be, ikasitta dana, ta, ganera, “zuek baiño abillao giñin, zeuen bolukin ibilitta”.
- Eta gero bizikletan...

1.10. Bizikletaz arbolaren kontra

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/067
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 02:27:18. **Bukatu**: 02:30:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena**: Jesusak ez zuen bizikletarik, baina behin, lagun baten bizikletan zihoala arbola baten kontra jo zuen, ia-ia uretara jausi zen. Hilerokoarekin egon zen eta txiza aldera egin eta zikindu egin zela gogoratzen du. Bizikletako erradio guztiak apurtu zituen.

Transkripzioa
- Bizikletarik edo euki zendun zuk?
- Bixikletan, bixikletan behin juan ta jo. “Bazoiz gero” ta hiru arbola euazan, ez nintzan jausi erreidxora “por misericoridia”. Jo arbolia, ta justo-justo reglakin eon nintzan ta dana odolez bete. Odolez bete jaten, kendu, kendu neban kertsia... Ha Teodorak ataranikua zan ha [...]. Radixo guztik apurtu.
- Baiña berena zan bizikletia, zeuria ez.
- Ez! neuria?
- Zuk ez zeukazun.
- Ez neukan bixikletarik nik! Esan dotsuet ba: Teodora ibiltten zan hori, ta harek atara dau bixikletia ta bixikletia atara ta txandaka. Gero “bazoiz e, bazoiz”. Ta ikusi nebanian neure burua bixikletan noila, kontixu, geruo ta haratzo ta haratzo. Baakixu nun jausi nintzan? Hiru, zelan etxe bi daoz? Etxe txiki bi? Baten pentsaten dot Paz [...] ta harek, ta bestia hori, zelako ixena eukan berak emakumiak? Ta beti eoten naix haretxen akorduan. Euazan bata halako lekuan ta bestia urruntxuo. Bi. Ta bidxen bitartian, beheko partetik harek, arbolia. Hiru arbola, beheko partetik, erridxo partetik. Bestelakuan han [nidxoi]! Joten dot hori, arbolia, ta, klaro, txixak be urten eustan. Hori, ein neban, kertsia justo-justo soiñian, soiñeko kertsia, imini ta tapa neban hori. “Nun dabil hau, ba?” han danak, hirurak; Teodora bat, neu bi ta ez daitt Miren bazan bestia. Miren difuntia, hiru giñin, behiñik behin. “Zeuri itxoten goz hainbeste denporan ta”. Ta apurtuta radidxuak.
- Formal-formala zan berau be.

1.11. Portuan igerian

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/068
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 02:30:12. **Bukatu**: 02:32:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Igerian abila zela dio. Kuleroak eta kamiseta jantzita bainatzen ziren. Portuan ikasi zuen igerian. Behin hainbeste ur irentsarazi ziotela gogoratzen du, burua uretan sartu ziotelako.

Transkripzioa
- Eta gero zuk ikesi zendun igeridxan? Igeridxan ikesi zendun?
- Bai. Igeridxan? Abillao nitzan mutillak baiño be.
- Baiña zer, trajebañue ta janzten zendun ala?

- Keba! Kamisiaz ta hareaz. Pantaloiakin ta kamisiaz. Ta gero jo, hori. Sikatu plantan, sikatuten harridxai jota.
- Ta umetan ikasi zendun, orduan?
- Bai, umetan.
- Isuntzan edo nun?
- Portuan, lelengo. Portuan.
- Orduan, portuan batez be umiak.
- Portuan eitten genduan. Ta ikaria Bittor barik eittiari ta horreri, Sokorrori, Sokorro ondarrutarrari. Agarra, hamendik hortik zihar: “dzanga, dzanga ta dzanga!”. Ta haunbeste ur tragaten, tragaten. Haunbeste denboran euki eusten halakuan. “Juidxixorik be ez daukazu-ta” andra guztik…Haunbeste denboran euki eusten urak ataraten. Baiña umetan, eurak…
- Bai zera!
- Nausitxuauak.
- Horrek baeukan nik baiño, Teresa-ta baiño zaharraua zan ta atara kontuk. Gero ba izan bazan beste bat, […ko] eban. Gero ba, ez zan umiekin sartzen, baiña.
- Ama ta aitxe, nungoak euki zenduzan zuk?
- Lekeittiarrak.
- Lekeitxiarrak, bidxek kalekoak?

1.12. Txikotean (sokasaltoan) "baldonga-baldonga" kantatuz

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/022
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:34:24. **Bukatu**: 00:36:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Txikotean (sokasaltoan) ibiltzen ziren neska eta mutil. "Baldonga-baldonga" kantatzen zuten. "Tengo un niño chiquitín" ere kantatzen zen.

Transkripzioa
- Txikotien, txikotien eitten genduan, sokan, bueno, korrika. Korrika zan ha saltua. Ta, bestelan, ba, tenplau, neska ta mutil. Mutillak listo eoten zirin saltateko; astun moduan saltaten eben igual baiña. Gaur be, gaur eon naz, ganera, kantaten horrekin “Baldonga, baldonga, date la buelta ronda... –nundik jatort niri hau kanti ba?– para que supieras cantar y bailar. Date la ronda, date la vuelta ronda para saludar”. Oseake, txikotian bi eraitten ta bat saltoka. Ta bestiok kantaten “baldonga, baldonga” ta bueltaka “date la vuelta ronda para saludar”, sokan bertan, […] ta sartzen zan gero beste bat. Harek saludaten ebanian, bestia sartzen zan. Ta mutillak esaten “Hala, haunek saluduk eitten, guk be eingo douz saluduk”, “Ez hau nesken kanti da, zuek ez zarie mutillari kantako `baldonga, baldonga´" esaten eutsaun, “`Baldongo-baldongo´ kanta biharko dou /bikou/” ta “Ez” esaten. Ta hau bestiau, hori: “Tengo un niño chiquitin”. Hori... Hori? Bueno, hor mutillak be bai. Erain be bai ta gero sokan salta be bai. “Tengo un niño chiquitin”. Honek, e, bi soki emoten, ezta? Ta batek salta ta gero, urten orduko, bestik salta, oseake beti sokan bi.
-Ta kantia zelan da?
-”Tengo un niño chiquitín como su abuelo, todos los días está el chiquillo

enfermo. Es una calamidad, ojalá se muera, delefín, delefán, matarile rile ron". Haulan [...] gendun.
-"Ojalá se muera"?
-Aittitten modura: "Tengo un niño chiquitín como su abuelo, todos los días está el chiquillo enfermo. Es una calamidad, ojalá se muera, delefín delefán matarile rile ron". On, hori hasieriori nok asma eban ez dakit.
-Hori da letria hori: "Ojalá se muera"...

1.13. Agustin Chiquitin I

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/023
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:36:25. **Bukatu**: 00:37:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Oso gizon dotorea zen Agustin; Don Agustin eta Agustin Chiquitin ere deitzen zioten. Arropa guztia ondo kobinatuta eramaten zuen, prakak, alkandora, galtzerdiak, zapia...

Transkripzioa
- Eta...
- Agustín Chiquitin esan dotenian... bueno, pregunta zeuk.
- Ez, ez, ez, esan, esan.
- Euan... gixon famosua euan hamen. Dotoria gixona, ez zan altua ta holan, baiña tentia bai, [...] tentia, baiña jazten zan "al pie de la letra". Traje marroia eukitten baeban, ipiñiko eutsun, bueno, gorridxa be bai igual, baiña beixa pañuelua, beix argidxa; marroia izanda, igual berdia be bai, baiña, bueno, juegora. Zer ipintten eban, alkondaria be halantxe, kaltzetiñak be halakoxiak, trajiaz. Ze traje eukan, ze pañuelo euki eban, korbatia be haxe eta kaltzetiñak be haxe.

1.14. Agustin Chiquitin II

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/025
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:38:40. **Bukatu**: 00:40:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Don Agustin edo Agustintxu deitzen zioten Agustin izeneko gizon dotore bati. Zera kantatzen zioten: "Agustin Chiquitín, eres un galapín...". Beste kanta baten hasiera.

Transkripzioa
- Agustin, gure Agustin, eleganti. Elegante, dra. "Hamen Don Agustin!" esaten eutsen.
- Zer zan txikixa alturaz, edo zegaittik "chiquitín"?
- Bai, ez zan altua, ez zan, baiña, kantia, ba [...]. "Hamen Don Agustin"

esaten eutsen bestik, “Et, et, et – [esaten eutsen berak]– Don Agustin... Agustin, e?”. “Bai, baiña [...] Agustin zara zu, Don Agustin baiño”. Ta nik beituten neutsan ia gixonak zer esaten eutsen, beituten neutsan beti korbatiari, pañueluari ta kaltzetiñeri. Beti fijaten nintzan. Ta gero amari esaten neutsan: “Etorri da Agustintxu”. Gero Agustintxu dei... deittu ez eutsen eitten, baiña Agustintxu. Agustintxu. "Bai, biximodu makala Agustintxuk!”. Ta kantia be dago beorri etarata, beorrentzako ha ixango zan: “Agustin Chiquitin eres un galapín y por no trabajar, te has metido aguacil y a los pobres aldeanos no les dejas vivir y les quitas los cuartos para beber txakoli.” Beste zatidxa dao: “Agustín Chiquitin se quería casar y quería vivir a la orilla del mar y quería vestir pantalón, pantalón de...”, “mahón” ez zan, ba. "Pantalón de... por eso...". Ez jat akordaten "pantalón" ba, akordako jat baiña. “Quería vestir pantalón de esmoquin”, ezta? Bai, haulakoxe bat da. “Por eso le llamamos Agustin Chiquitin”. Horrek orduntxe ataraniko kantak horretxek, zati bittan, baiña berari ataranikuk horretxek.

1.15. Koltxoiak jotzen

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/038
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:57:03. **Bukatu**: 00:58:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- **Laburpena**: Portu gaineko zelai batean jotzen zituen jendeak koltxoiak. Artilea harrotu eta gozo-gozoak geratzen ziren berriro.

Transkripzioa
Hor goidxan, eskillarak ion ta hor goidxan, ba, esplanada handidxa, esplanadia eta zelaidxa, ze hor lehenago karabiñerun etxia eon zan. Gero portun egon zan, baiña karabiñerun etxia euan hor, [...] elixara orduko zelai baten, eta hamen behian esplanadia. Zementua edo harridxa, ez dakitt zer zan. Jentiak eitten ebazan koltxoiak hantxen jo, oseake garbittuteko koltxo azala, ba, hutsittu ein bihar. Ordun, bertan azalian eruan koltxoia, lanazkuak zirin lez, harek lanak ipiñi [...] koltxoi azalian, hantxe, ta eiñ, pixkat nasaittu, pelota beti eitten da hori ta, ta hantxe halako palo bateaz, ipiñi ta jo harexek koltxoik, jo-jo, erain-erain paluaz. Ta jo ostera be, ta jo ostera be, ta geldittuten zan, ba, harro-harro. Karo, jo eta jo, harek batunda eon edo han zabalduta juan! Karo [...] gustora ez gendun eingo lo, ba? Ño! Koltxo bigun-biguna. Ta hantxe josten ebezen gero, hantxe josi. Ta, batetik bestera be, harek formak emoteko, koltxo [...], unin-unian holako zuluk einda bestelako teliagaz ta haulakoxe orratz handidxakin, beste partera pasateko, josteko. Ta han geldittuten zirian jositta-ta.

1.16. Santinean ezkontza-bazkaria

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/061

- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 01:34:12. **Bukatu**: 01:36:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Beltzez jantzita ezkondu zen. Hamazazpi lagun bildu ziren. Diadema bat eraman zuen. Santinean bazkaldu zuten. Jatetxe horri zuzendutako kanta.

Transkripzioa
- Zu ezkondu ziñenian, zelakoa izan zan zure ezkontza-egune? Ez zan izengo gaur eguneko modukoa?
- Ez. Ba, gu zenbat jun giñian? Hamazazpi laun-edo.
- Hamazazpi lagun.
- Baltzezko jantzitta. Erropa politta.
- Baltzezko?
- Bai.
- Ulia zelan [zendun]?
- Buruko... ha koiñatiak itxi eustan ["que no compre"], ariñao ezkonduta euan lez ha aurreko nobienbrian, haulako diadematxu bat eukan tulagaz. Berak arpeidxan-ta erun eban, nik [...]. Ta bera, diademia ezin ipinitta neu [...]. Beste guztidxengana jun nitzan ta neu, ta nire koiñatia planta " ai, koiñatia, ezin dotsut ipiñi". "Hamen haulan sartunda ipitteko hori" esaten neutsan. "Ekarrixu armaridxua", koketia ordun salan eukaun eta espillua eukan lez, [...] "orraztuta nao atzo, ta, total, hamen hau sartzeko, ez dot bihar tulik. Ba berau diademia nahiku dot, zetako bihar dot gehidxao ba?" Ta sartu neban. "Mírala a ella –nire koiñatiak–, fíjate qué tranquila está. Tú misma te has puesto", "A ver. ¿Quién me va a poner? Esta está temblando, tú no querías ponerme, pues alguien [...]. No iba a traerle a la madre de la cocina aquí, para que me ponga una diadema". Ta haretxeaaz diademiaaz. Ta ez dakitt on tulaaz badago ala hutsik badao. Beittu, ahaztuta nao, tulaaz badao.
- Eta gero zer? Zer egin zenduen, banketie- edo?
- Gero Santiñera. Santiñian jan genduan. En jeneral Santiñera asko juten zirin ordun. Famosua zan Santiñekua ta. Karnabaletan-ta, ganera, Santiñekua zan... "En casa de Santi, hay buen sitio allí, hay una cocinera que se llama Antoni". Badaukagu gehidxo be Santiñeko kantak. Harek [...] gittarristak-eta karnabaletan daoz... ixaten zan ha, bueno! Ta hantxe, Santiñian. Tabernan barik kanpuan daoz harek terrenuak, terrazatxua hantxe, hantxe jan gendun, terrazatxua hantxe, kanpuan, tapata goidxa.
- Ta ze kanta gehidxao deko Santik, ba, holan? Gehidxao esan dozuz dekozela ta.
- Zelan?
- Kanta gehidxao, Santinak?
- Bai. Gero segidu eitten dau: "En casa de Santi, hay buen sitio allí, hay una cocinera que se llama Antoni. Cantemos a una, cantemos con dos –esaten dabenak–, cantemos con sal, en este jolgorio que da el carnaval. De locos nos tratan, no hay más que temer, que viva la tuna y olé!". Kantaten zan hori. Baiña askok: "que viva", hori, "Cantemos a una, cantemos con dos". Ez da "cantemos con sal", [...] saleroso.

1.17. Ansotegi `Andariña´ Madrilera oinez

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/063
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 01:37:53. **Bukatu**: 01:39:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Ansotegi Andariña deitzen zioten aitonari. Berak ez zuen ezagutu, baina hura bezelakoxea irten da Begoña, "andariña", ibiltaria. Telegramak edo presazko gauzak zirenean, berak eramaten zituen abisuak. Madrilera ere joan ei zen behin presazko telegrama bat eramatera. Makilarekin beti.

Transkripzioa
- Antonio Ansotegi nok esaten eban, ba? Aittitta, aittita Ansotegi gehidxao. Ansotegi `Andariña´, nire aittitta, aitten aitta zan `Andariña´. Esaten dabe [...] iñoix: “Begoñak dauko martxia!” Aittittak ez naben itxi ezer be ez, ez neban ezagutu be eiñ, ta itxi nau, bere modura, andariña ixaten. Besterik ez nau itxi horixe baiño. Andariña. Telegrama...Lehenao harek, zaldidxakin, karrokotxiak, horrek juten zirin. Telegramak urgentiak zirinian-ta, ba, halakoxiak, ta karteruk-eta eruan bihar dabenak, ariño aillaateko. Ta holako urgentia zanian: “Deittu Ansotegi andariñari.” Ta telegrama urgentiak-eta gure aittittak. Madrilera be junda dao oiñez, en akellos tiempos Madrilera. Gure amari esaten neutsan nik: “Madrilera, amuma, ama, juteko...” esaten neutsan, aittak “makina bat pausu emon biharko eban, ba”. “Bai, baiña kamiñuak libriao on baiño. “Bai, kamiñuk, baiña mendittik -ta juten zan, ez zan juten beti kamiñutik. Mendidxetatik juten zan ta”.
- Madrilera?
- Bai.
- Oiñez?
- Telegrama urgente bat eruten.
- Urgente?
- Urgente, bai.
- Tardauko eban ba!
- Bai. Ta orduntxen entzunda gure amari esaten ebala beti, ta geuri esaten gaittuzen “Ta zuek be, aittitten antzian, iñora bazoiaze, Mendixara-eta juten zarie eta horra ez dozue eruten, baiña aittittak esaten eban ibili bihar danian, kilometro bat bada be, makillia eruteko beti eskuan.” Harek beti makilliagaz, ta bere makilliagaz Madrilera artian.
- Ta Madrilera arte juan zan, baiña...?
- Bai. Eta etorri be bai.
- Bittartien lo eta zer eitten eban?
- Ez dakitt ba. Horixe ez dakitt. Badakitt haraxe jun zala eta bueltan etorri bere makilliagaz, telegramia entregata. Ta esan eben, esaten ebala, amak esaten ebala beti: “Danori esaten dotsuet, e? Pausu bat ein bihar badozue, kilometro bat ein bihar badozue, ba, kilometro bat, baiña makillia eskuan beti”.

1.18. 'Txoloka', kaniketan eta 'txanpan' jolasean

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Erref**: LEK-006/066
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 01:42:53. **Bukatu**: 01:45:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Asko olgatzen ziren gaztetan. Txoloka ibiltzen ziren intxaurrekin. Zulora sartzen. Baina jan egiten zituztenez, brixko hezurrak erabiltzen zituzten gehienetan. Kaniketara ere bai. Jolasaren arauak eta gorabeherak. "Txanpan" ere ibiltzen ziren, 'txori txiki' edo 'txori handi' (txakurtxiki, trakurraundi) bana hartuta.

Transkripzioa
- Ez dakitt ba zuk, holan, gauza gehitxua badekozuzen kontetako, gaztetako kontuek edo kantak edo...
- Gaztetako kontuak? Gu olga eitten giñin asko. Gu olga asko. Sokan ta haunan, txoloketara. Txoloketara, bueno!
- Zertzuk zien...?
- Gazte bateri esan neutsan txoloketan; ia zer dan txoloketara. “Txoloka!", "Ta zer da txoloka, ba?”. Txoloka, intxaurra, intxaur txoloka. Intxaurrak penia emoten eutsun, erosi ein bihar ixaten zirian ta. Zuluak topa ta intxaurrakin, [horrek ein] segun nora tokaten jatzun, haunako tokidxan-edo iual, tente nun zaozen, pausu bi edo hiru, planta danak batera, bardin medidan, ta txolo ein, hantxe zulun, zulun azertatera intxaurra. Baiña intxaurrak lantzin behin, gero, itxi ein genduzan, ze, karo, jan ein bihar ixaten zirin ta, ta harek erosi eitten zirian plaza merkauan. Eta ordun eitten gendun gero, brisko sasoia aillaa zanian, brisko hazurrakin, brisko hazurrakin. Briskua jan lehenengo ta gero hazurrak gorde, txikitxuenak ahal dala, handidxak barik. Eta handitxuak bazirian, ba, puntia gastaten eutsaun, ze harek puntak eukitzen dabez eta. On ez dao briskorik baiña. Ta txoloketara, karo, dzanga! Ta bestiak ez baeutsun... Iual joten bazenduan, kontraridxokua, ta sartzen bazenduan ha, ba zeutzako. Sartun dozun lez haren kontraridxuna, ba zeutzako ha. Ta gero kaniketara be bai; intxaurrak barik, ba, kaniketara gero. Kanikak holan barik, haulan joten genduan, iual, errazao joteko. Ta iñoix haulan geldittu, arra baten bidian, iual, ta arra bete, bigarren bidia eitteko, ba, arra bete. Zulua hamen badao, ba, arra bete. Hamendixek, orduan, haulaxe, tak, gorutz. Kauen, arra bateaittik [...], ta taka. Haxe ez galtzera. Boltsatxuan gordeta. Zein abillao zan intxaurrak edo kanikak, eta boltsatxu baten aparte. Balidxo gitxio eukenak boltsilluan, ta harek gastatera. Intxaurrak, intxaurrak pixkat feuo-eta edo bazirin, ustel tipua-edo, harek lehelengo gasta. Holantxenik ibiltzen giñian.

1.19. Salerosketa teknikak ondo ikasita umetan

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/068
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 01:46:18. **Bukatu**: 01:48:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

- **Laburpena**: Umetan erosketak egitera joaten zen azokara. Amak instrukzio zehatzak ematen zizkion salerosketarako. Erregateoko teknika ondo ikasita joaten zen eta aplikatu ere ederki egiten zituen.

Transkripzioa
"Ez juan han altzuan [eukitten dabezeana], e!" [...] Arrautzetan-ta hori, karua. “Altzokorik ez hartu, behien ganeuak hartun, behian daukozenak. Baiña esaten badotsu sei errial, esate baterako, zuk aginddu lau –pezeta bat–, aginddu lau, edo bost, ia emoten badotsu, baiña sei... seirak ez paga, jun beste bateana”. “Ta horrek altzuan eukitten dabezen lez, horrek karuo diraz ta bardin dirazen lez arrautzak, hangorik ez hartun, beti karuo kobrako dotsu ta”. Esnia be... Ta ikatza, sutarako ikatza, hornilluk ekauzen lez, beren aiztiak, holakoxe argala zan, altzo betekua zan, arrautzak eukitten ebazan altzun ipiñitta, ta beren aiztiak ikatza ekarten eban. Bai arrautzak-eta, ezta? Baiña guk hareri ikatza hartzen eutsaun. Sakua, ikatza, hornillorako. Ta " Hareana, [aiztiana] juten bazara, horrek karuo eingo dotsu ta, zu jun, ikazdunaana jun zu, bestela Mendexako hareana”, emoten eutsazan amak abixua, ta horretxeaittik [...] hainbeste ezautu nebazan.Ta on lantzin behin ezaututen nabe, Amorotoko horrek “Ene! Zu txikittan. Ene! Zu Amoroton ezautu ta Mendixan ezautu” ta “bai”. Karo, hantxen lantzin bateaz. Esnia kuartillo bat errila, “Zuk agindu txori handi bi –esaten eustan–. Bestelan, hamabost zentimo esan ta gero igual agindduko dotsu berak hogei zentimo ta. Edo emoteko ta, ba zeuk esan barik [...]” Ta halantxek erregateaten, ta erril bat. Erril bat, txori handi bi. “Ganera ez daukat txori handi bi, hamabost zentimo daukat”, “Hamabost zentimo, umetxua? Hogei zentimo”, “Amak ez nau... –baneukazan– amak ez nau emon ta, bueno, hareri esango dotsat ia emoten banau harek”, “Etorri zaiz, etorri zaiz koittadu hori!” Batzuk penia hartun, beste batzuk ez, asike, ba, emon be ez. [...] Bajatu bihar prezidxua ta emoten neutsan hamar zentimo eta kuartillua.

1.20. Aita portuan ito zen

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/004
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:02:39. **Bukatu**: 00:06:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Bere aitari Julin txato deitzen zioten. 1951. urtean, portuan ito zen, bere ontzia amarratzen zegoela beste batzuekin batera. Zortzi neba-arreba ziren sasoi hartan. Estrella del cielo ontziarekin pasatu zitzaion hori.

Transkripzioa
- Desizenik edo badaukazue?
- Bueno, guri beti aittari deitzen eutsien Julin Txato ta…

- Julin Txato?
- , baiña hori ya hori portun itto zan. Bapora amarraten juan ta, jun zin anaidxa bi, Anaidxa bi ta berori ta Asentzio ta Juan Uribarren juan zirian ya pasajeruaz. Aber, lehengo pasajaruak espartzua eukitten eben harek, espartzua ba txikota. Zan ha neuk atzamarrakin pasateko moduko txikota. Salta ebien bestiak, anaidxa bidxak eta horrek, Asentziok eta bestiak, ta amarratu eben txikot hori, espartzu hori ta ekarri ebana bridxade handi bat, ni Pasajesen nebillen orduan. Falta eutsan ta ein eutsen, kataiari agarrau. Pentsau eban, sosteniduko ebala berak eskuakin. “Hasta hoy”.
- Noz izan zan hori?
- “El año mil novecientos cincuenta y uno, cincuenta y uno, veinti nueve de diciembre. veinti nueve de diciembre” zan hori.
- Ta ze pasau zan, ba han gabaz?
- Han gabaz pasa zan, euan portua ba ordun ba Portu be txarto euan; espioiek-eta euazan. Ta gero barko kosteru bi be bauazan. Kosteru bi be bauazan barruan. Gero, bapora be asko: hogeta hamabi edo hogeta hamaika bapor-edo. Ei eban aurreko kataiek faltau. Aurreko kataiak falta ebanian, ba geldittu zan atzeko kataian ganian, han Aza bittartien. Aza bittartie da “entre” hau Norteko mollia ta Abadian mollia. Ta Aza bittartia harexei esaten jako. Ta hantxe ebillen bapora eta jun ziran, Trapero esaten eutsena pasajeruaz jun zirian. Ta justo-justo ba allega zirena baporana, harek txikota emoteko esperantzan jun zirian, txikota emoteko. Ta atara eben ha gaztia barrun ha eta bera gizona ha pasajerue, baiña txikota hartu eben, ha espartzua, berena pasajeruna. Baiña pasajeruna ekarri eban brisa aldidxagaz ta resaka falta eutsan ta. Harek esaten eutson, horrek hau Uribarrenek: “Tio, itxi ba pasajeruori ta kataia geuri […]”. Hantxe, pentsau eban, bueltauko eutsola kataiari-edo, enbarkaziñoia; haxe enbarkaziñoia ez galtziarren, han jun zan. Gehidxau ikusi be ez. Arrasterik bez!
- Eta zenbat neba-arreba ziñin? Zelan geratu ziñin?
- Gu ordun lau anaidxe ta lau neska giñian. Bueno, baiña danok giñian ya hazinikuak. Joseba be, Joseba zan txikiñena ta Josebak be baukazan hak galdu zanian, “treinta y tres”en jaidxu da? Oseake, “treinta y tres” zazpi, hamazazpigarren urtien-edo Joseba be. Bai, hazitta geuezan. Berak hirurogei urte eukazan. “Sesenta años tenía”, baiña euan gordiña ha. Hirurogei urteaz gure aitte hondiño ba mutil txikiñan moduan euan. Baporak zereko geuza onak eta zeharo geuza txarrak eitten ebazan.
- Ta bapore ta eukazuen.
- “Estrella del cielo” zan hori.

1.21. 'Estrella del cielo' hondoratu zenekoa

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/005
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:06:29. **Bukatu**: 00:10:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

- **Laburpena**: Bere aita Estrella del cielo ontzia amarratzen zegoela galdu zen. 1961. urtean, beste zazpi ontzik hondoratu zuten ontzi hori.

Transkripzioa
- “Estrella del cielo”?
- “Estrella del cielo”. Ta gero, hori beittu zelako, hori baporan kasuoi zelebria da gero. “Estrella del cielo”n, cincuenta y unuan aitta galdu zan beragaz. Ta “sesenta y un”uan, zazpi baporen artian hondora bota eben. Zazpi bat bapore “el dos de octubre de mil novecientos sesenta y un”uan eon zan biberukin. Oseake hoidxe zelan kristo da?
- Zelan bota eben hondora, ba?
- Ba eon zan biberuekin eon zan. Biberuk tonbolak esaten geuntsen; kubiretan-ta eukezena ordun hori, antxobi bizirik eruteko tanki, tanki modura. Ta euan guria beteta. Ta euan, han zuk ez zendun ezagututen ha Maribiteren aurrian euan renplia ta muturra. Malekoia ba muturra. Ta bestie euan hamen, hau “efectos navales”ena beste…
- Brugunuleko kantoia ez, bestia?
- Ez, Totunekun bestia euan. Ba Tabakua ta hamengua, Arranegikua, plantxiagaz euana muturra. Ba hantxe Arranegiko Zubirin hantxe parian. Ta egon zirian, guria karnatiagaz ba “era dos de octubre de mil novecientos sesenta y uno”. Euan ba gero ba kalmatakun itsosora jueteko. Ta eukitten eben, horrek mutiloia egurrezkua. Egurrezko mutiloia eukitten eben ba kataie amarratuteko aurrian. Ta kataiaz, kataikin beran kataiekin euan. Bera zan puntarengo eon zan hantxe, […] partien-ta. Euezan zazpi bapor amarraute berari, burruekin. Baiña klaro, zuk pentsa bez, udie ta oktubria, pentsa bez! Amarratu be ez ta goxeko bostak ingurun, sartu zan olatu ta gogorra. Haxe mutiloia, egurrezkua apurtu ta haxe mollin kontra bota ta hondora jun zan, portun barruan. Euan Bruno Anakabe entzutia eukozu Bruno Anakabe? Ez daukozu entzuterik?
- Ez. Nungua zan?
- Bruno Anakabe zan, ha. Hau, Bitoria Trapero? Haretxen gizona. Haretxen gizona zan ha, “segundo presidente de cofradía era”, mariñeruena. Haidxe barruan ta berau, Joseba. Joseba ta anaidxie, bidxak euzen barruan euazan. Ta ein eben aliña han, hor plazako aurrian, hondarra formaten zan han, plaidxa. Haraxe eruan aben ha bapora. Ta emon eutsen, ordun platanuk euezan, arbolak. Arbolari emon ta hantxe euki eben ha. Halakun altxa eben hara gora ta “c´est fini”. Ha barkue jun zan gero Bilboko erreidxora. Hau justo-justo, Faro Santa Katalina, orduntxe nobienbrin bota eben ha uretara. Oseake…
- Bata bestiaittik?
- Bai. Bata bestiaittik ez. Oseake, esperantzi eukagun ba bidxekin: Julian batakin eta bestian, Manolo ibiltxeko patro, baiña ni ordun sartuta neuan Baldesenian. Baldesenian nebillen orduan.

1.22. Valdesen enbarkazioak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/020
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:50:36. **Bukatu**: 00:51:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Valdesen yatean atunaren arrantza lehiaketetan aritzen ziren. Lau enbarkazio zituen guztira Valdesek, denak Lekeition. Gero Axpera eramaten zituzten, Erandio aldera.

Transkripzioa
- Ta Valdeseneko yatian zer eitten zendun arraiñetan?
- Valdeseneko yatian konkursutan ibiltxen giñian.
- Zetan?
- ”Concurso de pesca de atún”.
- A, beitu.
- Ta gero bueno belerua be bai baeuken handidxa, Maria Victoria, beste bat da Pierrekia, txikiñaua ta bestia Santa Moro, lau enbarkaziño eukezen harek.
- Baiña danak Lekitton ez?
- Bai.
- A bai, e?
- Ba barran eoten zirin laurak, bai, gero eruten genduzan erretiradan eruten genduzan Axpera, Axpera eruten genduzan.
- Nun Axpe?
- Axpe, erreidxora. Ez dozu entzun sekula Axpe nun daon?
- Ez.
- Zuk jakingo dozu.
- Ez.
- Zuk be ez? Ba Axpe dao Erandidxo [...] baiño pixkatxu bat beheratxuao. Erandidxo ta Axpe dator, itsasoratz zatozela, hurrengo datorren halakua. Axpe.

1.23. Enrike "Brujo" aparailuetan maisu

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/030
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 01:09:11. **Bukatu**: 01:12:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: 13 urtez aritu zen arrasteroan lanean Pasaian. Gero Valdesenean hasi zen motorista. Bere koinatua, Enrike, aparailuak jartzen eta arraina engainatzen maisua zela dio; `Brujo´ deitzen zioten.

Transkripzioa
- Ya hamazortzi urte eta ya etorten da halaku ta esaten dozu, koño! Hamen mariñeru baiño ze kristo eongo [...] beti hamen, ba? Ta ibili nintzan, hamahiru urtian ibili nintzan arrastreruan, Pasaittik. “El año kuarentaizinkon” sartu nintzan, “en los primeros del cuarentaicinco” ta urten neban zinkuentaiotxuan. Zinkuentaiotxuan urten neban.
- Ta gero bajuran edo?

- Gero, hortxe, Valdesenian. Hor be motorista ibili nintzan, baiña eitten neban komodin: motorista be bai, patro be bai, nonbramiento barik. Motorista be bai ta patro be bai. Ta gero, bueno, nik ez eutsaun aprobetxa hareri, e? Koiñatua neukan nik bat, [...] Enrike, “que era fenómeno, que era...” Doktoraua zan ha arraiñetako ofizidxuen. Harek eukan kapazidadia aparidxuk ipintzen ta arraiña engaiñaten, “era, era un tipo, pero un tipo de...” aparta paretik. “Le llamaban” handikidxak “El Brujo le llamaban”. `Brujo´ esaten eutsen, ze juten giñin iual zortzi- hamar [...] juten giñian, grano [...] heltzen, ta guria...Baiña amu be, amua be, amu be... Amu baakixu zer dan, ezta? Amu be ipintxen eban harek, esango dotsut ba: arraiñak be ez ikusteko modukua. Ta ehun killokuk-eta atrapaten genduzan, e? Haretxeaz. Baiña baten ha... hamen kabrak ebiltzezen [Eako hortxe parejian] gebiltzezen ta... Han gebiltzen ta zazpi-zortzi yate: Zorrilla, Lau, Polaris... Pillo bat ibili giñin. Ta goixeko sei ta erdidxetan, osea alban, sei ta erdidxak, seirak edo hor zihar. Grik-grak. Hiru aparidxotan heltzen gaittuzen. Baiña, klaro, hain zirin amu txikiñak ze, eurak kaiñaberia hartzen ebenian hamen, tinterun, ipiñi ta karreta hamen sillan, eitten eutsen esfuerzo gehidxei ta harek amuak iual solta igual eitten zirian. Ta tontokeridxak be sendo entzun ein bihar, e? “Anzuelos de panchitos, no se qué, no se cuantos”. Kabriaten juan! Koiñatuari esan neutsan: “Kuñau! Atarako dou honek “anzuelos de tiburón”, [botaixak]? “ “Bota, bota, bota! Honeri morroiari kaka burutik behera eitten be ez dotsau itxiko. Altza genduzan eurak aparidxuak, ta ordurako hiru barrun eukauzen, hiru zimarro, larogeta hamar killokuk-edo holakoixiak. Altza genduzan, bota genduzan beste aparidxuok ta hasi giñian. Ta etorri jaten anaidxa nagusidxa, Javier, etorri jaten ta: “Oye Pedro! Oye, Pedro, no nos agarra ahora”, “Y no nos va a agarrar ni ahora, ni mañana, ni pasau.”

1.24. Baltseoan neskek erabakitzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Etxaburu, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-012/009
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:17:04. **Bukatu**: 00:20:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Baltseoan neskek erabakitzen zuten norekin egin dantzan: gustuko mutilari baietz esan eta gustukoa ez zenari kalabazak. Gramola egoten zen plazan; hura amaitzerakoan, bandakoek pare bat pieza jotzen zituzten; eta, gero, parkera joaten ziren Tomasarengana.

Transkripzioa
- Ta gaztetan baltsiun genbiltzazanin be geuk nahi gendunakin eitten gendun baltsiuan, ordun neskak urteten gendun ta hori, ta ni beti izan naz neure lagunak baiño altatxuo ta klaro eruteko ba altiak, ta ba ni neu beti erutekua izaten nintzan eta klaro ikusten nebanin mutille pareji datorrena ta neure gustukue zana, eitten neban buelta emon ta bestiari enplia ta nik neu neure gustokuaz baltsiuan. Ta halakoren baten esan naben: "entzun eizu Mertxe, beti toketan jat neuri feuenagaz baltsiun eittia", ta: "bai? ez naz ni kargutu, e hurrungun ondo beittuko dot ia nor datorren, ta gustokue

ez badan ez dogu eingo". Ta halantxerik zan erutia. Ta ni handidxa nintzalez ba neuk nahi nebanagaz eitten neban ta nahi ez dabena bestiari enpliaten neutsen. Ordun korruan egoten giñian, eta etorten bazirin: "eingo dogu?" izaten zan preguntia, "eingo dogu?" ia zer ein bihar zan / bizan/, "eingo dogu?" ta "ez". Ta lagun bat neukan ta bizirik dao ontxen be, ba urteten gendun ta lekittar bi etorri dxakuzen, baiña gauza feorik ezin neike esan, ezta? ez noie esaten. Ez baia esan biher dotena, bai ignorantzidxan esan niku zan, gauzi dan modura, ze ez bazan izan ingnorantzidxan ez eban kontestako ha berbia. Etor zirin mutil bi ta, gu baiño zahartxuo, guk ordun hamasei bat urte-edo gehidxorik ez, ta: "eingo dogu?", ta nire launak esan eutsan, saladi zan e, neu baiño hondiñoko saladio zan, ta "tenia casa salida número uno", ta esan eutsan ze, "eingo dogu?" ta: "zoieze zuok amagana umiok, mokuk kentzen" berak, ta baltisun segidu ta halakoren baten batek dinotse: "nunguak? goikuak ala behekuak?", "nahi bozun goikuak eta nahi bozu behekuak, eta zuk nahi dozun tokikuak, baiña guri itzi bakian" hala ta hor. Gero, gero zirin kontuak: "Fulana, akordaten zara?", "egon zeiz isilik!". Karo, ordun nok nok, ze sentidutan esan eban? ez dozu, aittu dozu, ezta?, ze sentidutan ta harek oso-oso-osorik esan eutsan: "nahi bozu goikuak, nahi bozu behekuak, guri etxaku ardurarik nunguk kentzen dozuzen-ta", ta segi geuk baltseoan. Horretxek diraz lehengo kontuak, on ez dao.
- Ta baltsioan zer, plazan?
- Plazan bai.
- Eta ze egoten zan ba? bandie edo...
- Osake egoten zan gramolia honenbesten denporan gramolia, baiña danak zirin: "Franzisko alegre ole, Franzisko alegre ola!", holakotxiak. Ta gero amaittuten zanian izaten zan piezatxu bi bandan, bandakuk eitten genduzanian, dxuten giñian parkera, parkin egoten zan Tomasa, Tomasa parkekua, han e hori euan, zelan da? kopak, refreskuk-eta hartzeko, taberna modura mostrador bateaz, ta harxe dxuten giñien ta hantxe eitten gendun nahi beste baltsiu, ta ostera be plazara bandara. Ta halantxerik pasaten zan gure denpori, ta zinerako nonor ahal bagendun manga Eskolapin haratz eta hontz ibili, nahi dan beste pausu emon, etorten zirinin bien, ta ez bazirin tanbien, han ibiltten giñien lantzin bat mangaten genduan, baia laurentzako bakarrik, beste bidxak han geldituten zirian, ta halantxik.

1.25. Beti diru barik

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Etxaburu, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-012/010
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:20:56. **Bukatu**: 00:22:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Ez zuten dirurik izaten lagunekin irteten zirenean. Lantzean behin osaba ez zenari "tio" deituta lortzen zuten diru apur bat. Zinemarako sarrera mutilek ordaintzen zieten.

Transkripzioa
- Ez gendun eukitten, abellanetarako be ez gendun eukitten ta abellanak

lau-edo txori txiki baten ta txori handidxaz sei-edo ta eurak ezin janda, peniaz amaittuteko harek abellanak, bai. Ta eskaparati, pasetelen eskaparati mokoz beteten genduan: "ha neuria, hori neuria..." ta danak zirin geuriak. "Ez, ha neuk esan dot neuria dana". Bestik: "Ez, hori neuk zuk baiño ariñao esan dot neuria dana", halantxik pasaten gendun guk arratsaldia.
- Eta pagarik-edo eukitten zenduen?
- Pagia? lantzin tio ez danari "tio" deittu, tio ez danari "tio" deittu. Nundik norako tio, aitten ezaunen bat-edo "vete a saber", ta: "tio". Igarten eben kontixu diruagaittik zana eta txori txikiña edo txori handidxa, haidxe poza, harexeaz txori, baiña tio ez zanari e, asike... tiuak makinista nebazan eta kanpotik zirian ta tio ez zanari: "tio", lantzien bat, geuk fundaten genduzan tiuak be, halantxerik zan.
- Bestela zer, ziñera-eta mutillen konture edo?
- Mutillen kontura! nun geunkagun ba zinerako dirua ba? hola! gallineruan ganera, gallinerun ez gendun nahi izaten hara gora ion, ze pasun beti egoten zan. Ia nahiz ta [...] bakizu ba, pasun itzi ein bihar zan /bizan/ ta. Ahal dala lelengoko filatxun jesarri juten giñianian zinera, ahal gendunian.
- Nun?
- Goraburun. Ordun Goraburun, ontxen batzokidxa daon tokidxan Goraburu zan, ta egoten zirin aurrin horrek butakak ta atzin gallinerua gora artian, asike eske, hauri.
- Eta jantzan eitteko eta ordainddu ein bihar izaten /bizeten/ zan edo ez?
- Jantza soltia? holan eitten eben, egoten zan, baiña no.

1.26. Nobio kontuak

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Etxaburu, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-012/015
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:30:34. **Bukatu**: 00:32:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Etxera laguntzen zioten mutil asko izan zituen, eta bere senarra izango zenari egiten zion kasu gutxien. Nobioarekin egindakoak konfesatu egin behar izaten ziren; hala ere, hurrengotan berdina egiten zuten.

Transkripzioa
- Zortzi milla nobidxo, beti nobidxua baiña beti launa. Lekittarrak asko euki nebazan etxera lagunduten eustenak, baiña neuk hartun dot, hartun neban gizona hamalau urterako neure atzetik ibilli zana eta berari eitten neutsan kasurik gitxien, Jose Zumal, Jose Abaskal Zumal, ta gero ba beragaz ezkondu nintzan, baiña lelengo lelengo lelengo harek nik zortzi milla nobidxo, baiña berak nobidxa bat bakarrik, neu.
- Horretan be okerra.
- Bai okerra izan naiz, bai. Nire alabia barriz ez, nire alabia bat hartun eta beragaz geldittu zan.
- Eta nobidxotan eta zer? ezetakorik ez zenduen eitten, edo eitten zenduezan zuen kontuek, mosutxuek eta zirritxuek-eta?

- Bueno, lelengotan ez pentsa erreza izaten zanik e! ze konfesa ein bihar izaten /bidxaten/ zan-ta. Gero ba holan tokadatxuak " un poquito a la ligera" eta bai, beti egoten izan da zeozer, ezetz esaten dabenak be zeozer beti izan da. On, ongo moduko libertaderik ba ez zan egon, ordun be pasaten zirin gauzak pasaten genduzan modura, baiña "no, era diferente" diferentia izeten zan.
- Baiña holan etxerako bidien-eta sekule be ez ezebez ez zan, bueno zozertxu bai.
- [...] bizi zirin bizi giñian-ta, bai atetan mosutxuek emon, ze eingo zenduan ba? karo ba!
- Ta gero konfesetan?
- Konfesa? bai. Ta "hurrengun ez ein e!" esaten eben eta hurrengun bi gehidxo, hurrengun hiru gehidxao eta dxo aurrera, bai.
- Orduen ez ziñen hori, beste batzuk ez dotsien izten nobidxoari ezta ikuturik be ez eitten.
- Nik ezetz esaten da, baiña nik baietz pentsaten dot "poco más o menos" antziñakuak "al lado del culo lo tenemos", baietz, baiña "habra de todo", osake egongo zan danetarikuak, bai.

1.27. Mutilak pilotaka

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/022
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:26:29. **Bukatu**: 00:29:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Eskolan "sumar" ikasten zutela dio, "dividir" ez. Jolasaldian plazara joaten ziren eta mutilak kanpandorrearen eta bidearen artean pilotaka aritzen ziren. Pilotak artilezkoak izaten ziren. Neskekin ez zuten ezertan jolasten. Neskak mojekin zeuden.

Transkripzioa
- Mutillak dibujorik-eta pentsa be ez. "Sumar" ta horixe, ta "restar", "restar". "Dividir" jakin be ez iñok be.
- Ya, ya. Ta libururik-edo bai, eukitzen zenduen edo entziklopedidxek?
- Liburuk [...], baiña eskolan hartzen zirin liburuak, eta etxin ez euan libururik.
- Ta errekreoan eta kanpuan kalien-eta olge be eingo zenduen.
- Bai, errekreun bai. Errekreun eitten gendun plazara, eta juten giñian ta pelotan eitten genduan kanpantorrian. Kanpantorria badao ba? ta orduan ez ebillen kotxerik bat be, ta pelotan eitten genduan hantxen, kanpantorrian ta kamiñuan... Hau kanpantorria ta...
- Ya, bidian. Bidian, kanposantura [...]
- Hau [...] kanpantorria... Kanpantorria dao kamiñuan, hor ezkiñan, ba, haxe frontixak [...] bi, birentzako zan. Fronto bi. Harexe.
- Ta esku pelotan eitten zenduen?
- Esku pelotan.
- Ta pelotia zelakua?
- Lanazkuak. Ordun pelotak geuk eitten genduzan laniaaz.
- Ta lanie nundik ataraten zenduen, ba?
- Ba... etxien manga zaharren bat-edo holakoren bat solta ta...

- Ta horretan mutillek bakarrik?
- Mutillek. Neskarik ez. Neskak ez zirin... neskak, umik, andrakukin ta gauzakin.
- Ta alkarregaz olgeuko zenduen, ba?
- E?
- Alkarregaz olgeuko zenduen.
- Keba. Neskakin?
- Zeozetan, pelotan ez, baiña...
- Ezetan be ez.
- Ez?
- Dibision.
- Eskolan be batzuk toki baten ta bestik bestian?
- Bai.
- Prohibiduta eongo zan, ez?
- Ganera, han eskolan neskak monjakin egoten zirian.
- Ta zuek kanpotar maisuaaz?
- Kanpotar maisuak. Valladolid ta horrek... erdaldunok.
- Ta eurek maisuek nun bizi ziren?
- E?
- Maisuek nun bizi ziren, bertan eskolan?
- Ez, batzuk ez, bertan eskolan ez. Maixuen etxi euan han. Lau etxe-edo egon zien. Ta “maestro pequeño” bizi zan beste bat. Danak, etxe guztik [zeuan] maixuentzako, baiña baeuazen... eon zirin batzuk, etxik. Bueno, etxik edo... abitxaziño...
- Horixe, kuartuak eukiko ebezen.

1.28. Alondegia

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/042
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:52:16. **Bukatu**: 00:53:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Kobeaga Sesma, Ibon
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Ardoaren zergak Alondegian ordaintzen ziren, "Txantxiku"k kontrolatzen zuen dena.

Transkripzioa
- Hemen filatoa edo egon zan?
- Filatua edo hamen eon zan alondigan eon zan, filatua ez zan hori ta entradia ardauena-ta pasaten zan alondigan orduan, filato modura edo hantxe dao inpuestuak pagateko zeozer. Bai Eskolapian. Ta orduan ez zeuan ardaua ongo modura, baizik eta bakoitxak berena ekarten eban binoteru bakoitxak berena ekarten eben. Ta gero pasaten ebena Txantxibo izengo zan, Txantxibo famosua, harek pasaten ebazan, haixe zan aiuntamientoko jefia. Inpuestuak bai.

1.29. Marierrotatik Oletara

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/005
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:08:56. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Beraiek Marierrotatik irten ostean hutsik geratu zen etxea eta errota. Handik Oletara (Amoroto) joan ziren, "Papelerixara". Uriola (uholde) batzuetan bere anaia bertan hil zen.

Transkripzioa
- Ze pasa zan Marierrotaaz?
- Marierrota... ezer be ez. Han iñor ez da bixi ixan.
- Ta noix bialdu zaittuzen-edo?
- Han geldi egon zan ha, hutsik. Gero teillatu [...] bueno, barridxa ein zan ta gure aittek-eta. Ba, eukiko ebazen harek etxik, erreta eon zan ta, bai, eongo zan larogei bat urtin bai martxan, halakua, teillatua iñok arregla barik. [...] eukan harek. Gero zahartu zanian, baakixu.
- Ta badakixu zergaittik erre zan? Badakixu zergaittik erre zan?
- Noix erre zan? Ni jaidxo orduko. Ni baiño ariñao jaidxo zian anaidxa bat, Alfontso, arrebak beste bi edo hiru bai, behintzat, berton, ta neu lau; lau, bost neuaz. Handik bialdu euskun Oletara. Oletako ha papeleridxa baakixu nun don?
- Bai.
- Haraxe baserrira.
- Hara gora?
- Bai. Ha be gero ein daben aittak eusteko esperantzia eukan, baiña etxe ona, solo haundidxa, buztiñia. Baakixu zer dan buztiñia?
- Bai.
- Teillia eitteko. Haretxek eitten. Itsasuk, urek erun danak. Horma danak apurtute, danak. Itxi ein daben. Anaidxi be hantxen hil zan, zaharrena, hamazazpi urtekua.
- Udxola-edo?
- Udxolak, udxolak.
- Errekia, ez?
- Bai. Etxia goidxan dao ta ez zan aillegau. [...] Handik gero, aittak erosiko eban ha, udxolak apurtu ez baeban. Baiña, apurtu eban eta, ia, han ez zan [...]. Bedarrik be ez zan hasi ta, bedarrik be. Dana buztiñia. Ta gero ein zan... gero ein zanian harek kamiñuak-eta zabaldu, lehen kamiñu estu zan, zabaldu zanian, harek lurrak haraixe botaten zirian, goi partekuak. Kamiñuk zabaldu ein zirin hor eta. Kamiñu zabaldu ta lurrak hantxen bota, ta on solo bat dao. Behian etxik be ein zirian, bi. Han behian etxe bat, bixitxa bikua. Besterik han goidxan... beste barridxa beste bat ta lehengo etxia. Hiru etxe daoz han. Behiak... behiak saldu zirian.

1.30. Malutaz egindako koltxoi gozoak

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/026
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:36:55. **Bukatu**: 00:37:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Malutaz egindako koltxoiak zelan egiten ziren azaltzen du. Astindu egin behar izaten zen, etzandakoan dena zapaltzen zen-eta. Artilezko koltxoiak baino beroagoak ziren, ez zuten mantarik ere behar horrelako koltxoiek.

Transkripzioa
- Ta koltxoiak esan dozu. Zelan eitten zien?
- Malutiaaz, sartun haulako maluti ta bajatzen zanian ta gero hau ta astindu ta ostera be dzanga! barrura. Honenbesteko alturia bai, ta, gero, behe-behien geldittuten zan.
- Eta maluta hutsagaz eitten zan edo beste zeozer sartzen zan?
- Ezm ezer be ez, maluta hutsaaz. Gero fundia, haixe bete malutiaaz. Gero, lo eitten zanin, zapaldu eitten zan, ta, gero, astinddu haunetara ta eindda euan ohia.
- Jo be bai, ezta?
- Ez, harek ez, lania bai, ardidxena.
- Eta gero, arto bixarrak zetako?
- Ohirik beruenak malutiaaz.
- Lania baiño beruao?
- Baitta, baitta, asko be. [...] malutian ta bero-bero, mantarik be ez dozun idxa bihar, gaiñera.
- Lanian umedadia geratzen zan.
- Halako malutiaz, honenbesteko alturia [hartzen eban] koltxoiak, gero bajatu eitten zan.

1.31. Andrearen etxera ezkondu zen

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/021
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:27:59. **Bukatu**: 00:29:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Kaian ezagutu zuen emaztea, saregina zen eta. Salvbdorrek hogeita lau urte eta andreak hemezortzi ezkondu zirenean. Arreorik eta horrelakorik ez zuen eraman. Emaztearen etxera ezkondu zen. Dirurik ezin aurreratu, amari eman behar izaten zion erdia eta.

Transkripzioa
- Eta andrie?
- Andria?
- Zelan ezagutu zendun?
- Nire andria zelan ezagutu neban? Hamentxe portuan, saregiñen-ta, baakixu, harek beti sariak josten eta, hantxen hartun amistadia eta. Gazti zan, nire andria ni baiño sei urte da gaztiao.

- A.
- Bai. A, amistadiaittik, halakun ta, beti ixaten da.
- Orduen, gazte ezkondu ziñien? Zuk hogeta lau eta berak?
- Hogeta lau ta berak hamazortzi.
- Hamazortzi? Joe!
- Bai. Orduan gazte eitten zan.
- Ezkondukeran zuek arreorik-edo ein bihar izan zenduen?
- Ez, ez, arreua? Soiñian soiñekukin ta, norberen arropakin... Ni eurenera, andrien etxera jun nitzen.
- Eta ez zendun eroan abitaziñoa-edo, ixarak-edo?
- Ezta, ezta. Bergara kalera. Ez, horra, kalle Atxabalera.
- Kalle Atxabal.
- Bai.
- Aja. Eta ez zendun, orduan, ezer be ez eruan?
- Ezer be, arreua nok eukan, ba, dirua arreua eitteko, ba?
- Bueno, biharra eiñikua izan ziñan ya zu.
- Biharra eiñikua, bai, baiña diru gitxi.
- E?
- Ta neuk gastau.
- Dana gastau?
- Gastau. Amari be emon ein bihar, harek deskontua [...] amari.
- Amari dirue?
- Amari, erdi-erdidxa.
- Eta ezkondu ta gero andriari?
- Andriari gero.

1.32. Brouard familiarena zen autobus konpainia

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/025
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:32:33. **Bukatu**: 00:33:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: "Compañia de Automoviles Vascongados" eta "La Esperanza" autobus konpainiak izan ziren orduan. Lehena Brouard familiarena zen, atentatuz hil zuten Santi Brouard mediku eta politiko ospetsuaren aitarena. Frantsesak ziren jatorriz.

Transkripzioa
- Zein zan Lekittora, bueno, zuk ezagutu zendun lehenengo kotxia Lekitton?
- Ez dakit. Ez dakit. Ez dakit.
- Edo nok eukitten eban kotxie?
- Ni gaztia nitzanian, "Compañia de Automoviles Vascongadas", eta bestia hori euan, "La Esperanza", ha bestia. Ta hau "Compañia de Automoviles Vascongadas", horrek, Brouard, Brouard. Ha mediku, zelan ha hil eben? Haretxen aittak. Horrek frantsesak edo zirian, Brouard. Haretxek ein eben lehenengo. Hamen Lekitton bixi zirian. Hamentxe... hamentxe goixan bixi zirian.
- Eta, ordun, horrek?
- Ha be garbittu eben ta...

1.33. Andreei papardoak ostu saskitik

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/001
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Mutikotan papardoak osten zizkieten andreei saskitik. Gero frijitu eta jan egiten zituzten, neskekin batera.

Transkripzioa
- Etxetxu eukaun etxetxua ta han, San Pedropeko andrak ,e, papardukin. Orduan paparduk zuek ez dozue ezautu be ez eitten, paparduk ezaututen dozu, ba dendatik ezaututen dozuez “palomita”. Andrari ostu eitten eutsaun, “dza”, han buruan daroizela harrizko eskillarak, e, harrizko eskillarak honek daozenak San Pedrun aurrian, handixik “da” ostuten eutsaun bi hiru ta frixitu han, ta danok zuen aitten lehengusua Angel ta danok ta... neskari ta emoten eutsaun brixiduta jaten. Neska txikixak danok kuadrillan hantxe zortzi urteko ta hamar urteko enanuek giñian.

1.34. Lehortarrak eta marinelak beti borrokan

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/002
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:00:48. **Bukatu**: 00:01:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena**: Orduan lehortarrek ("lihortarrak") eta marinelek elkarri egurra ematen ei zioten. Besteen lurraldera ezin ziren pasatu. Oso basatiak ziren. Gerra denboran gozatu ei ziren gauzak.

Transkripzioa
- Ta lehengo Lekitto esan dozu? Zantarkerixek eitten, baiña zelakoa zan

biximodua Lekitton ba?
- Biximodu Lekittokua, e hamendik, Aiuntamentutik gora ezin giñin mariñeruk pasau. Gora pasaten bagiñian lihortarrak emoten gittuzen kristonak emoten gittuzen ta lihortarrak. Eurak bajatzen zirinin moillara, geuk emoten eutsun eurari gero! Halakoxe salbajismua. Salbajismua eon zan orduen.
- Zer eon zan, bi Lekitto?
- Bai. Gerrik ein gaittuzen asko halakotu, ha, gu espabillau. Gerra, gerran, gerri ein zanin, ba lagunak lihortarrakin ta halakua. Bestela, gure aurrekuk be, gure aurrekuk be bai. Gure aurrekuk, gu baiño zaharrauak be hona etorten zirinin, “leña” ta hara bajatzen zirinin eurari “leña” ostera be. Salbajismo mandua orduan.
- Zer eon zan, bi alde? Bat portalak...
- Bai ba, bai ba, portalekuak...

1.35. Eskolapean gora eta behera

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aizpuru, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Akarregi, Leire - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-054/018
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:21:04. **Bukatu**: 00:22:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Gaztetan, lagunak besotik hartuta Eskolapean zehar ibiltzen ziren paseoan. Eguena (osteguna) eta domeka (igandea) noiz helduko desiratzen egoten ziren dantzan egiteko. Dantzaldia bukatu eta segidan joan behar izaten ziren etxera; berandutuz gero, ama haserretu egiten zen.

Transkripzioa
- Gero txabalatxuo ein giñenian, Eskolapian, hamen, hau Eskolapi kamiñuan automobillik be ez zan pasaten, hiru ta lau neska ta lagunak “del brazo” haratz ta honatz, buelta hortxe, kamiñuan, allaten giñin haurra puntara arte ta buelta, buelta haurtxe pasitan, allaaten jakuzen igual mutillak be ta... haurtxe buelta-bueltaka.
Ordun ez eguan ezer be ta, eguenetan, eoten zan musiki plazan ta domeketan. Ta desiten eguena allateko baltziun plazara juteko, plaza erdixan... ta domeketan be bai “y teniamos...” musikia amaittu artian, ez dakit /eztait/ ze ordutan amaittuko zan ordun ba... beatzixak, hamarrak edo... ze gure aitten hori e? amaittu artian plazan musikan, amaittuten danian miñutturik bez, segixan etxera, ta gure ama berandu dala ta igual protestan, baiña gure aitta modernutxugo zan...

1.36. Apaintzea; beti diru barik

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aizpuru, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Akarregi, Leire - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-054/019
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:22:07. **Bukatu**: 00:23:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Apaintzea
- **Laburpena**: Bere aita ama baino modernoago zen. Ezpainak margotu zituen lehenengo aldian amari ez zitzaion gustatu. Lehen permanenterako 12 pezetak aitak eman zizkion. Zuten diru apurrarekin Mari Gebararen dendan, Guzurmendi dagoen tokian, hurrak erosten zituzten.

Transkripzioa
-Lehelengo ezpanak pintta nebazanian, ene...gure ama... ezpanak pinttata, gure aittak esan eutsan lagunak eta be, bai bai ba lagunak eitten dabelako ba lagunak eitten badabe itxi zeuk be beoneri be ezpanak pinttaten. Ta lehelengo permanenterako diru be, aittak emon eustazan hamabi pezeta lehelengo permanenti eitteko.Txori txikiñik bez e? Hamen buelta-bueltaka ibiltten giñinian txori txikiñik bez. Errial bat edo bi edo eukauzenin Mari Gebarenera juan, gaur Guzurmendi daon lekua, Mari Gebara. Ta abellanak emoten ebazan ez dakit errial bat edo errial bi ixaten bazan, tazan, tazi bete, bota papel de estrazara ta haretxek abellanak jaten. Gehitxuo baeukaun maspasa batzuk tartian. Zinerako dirurik bez... “dale vueltas ahí”

1.37. Mikel Laboa bertan errefuxiatu

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/026
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:32:22. **Bukatu**: 00:33:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra garaian Mikel Laboaren familia beraien ondoko baserri batean egon zen. Denbora askoan egon ziren bertan. Aita ihes eginda zuten eta Mikel Laboaren ama seme-alabakaz egon zen bertan.

Transkripzioa
- (senidea): Mikel Laboan familidxa be euren alboko baserridxan egon zan [...].
- A, bai?
- Katalin: Bai...
- Bai, hemen egon zala-ta bai.
- (senidea): Ba euren albuen.
- K: Ha neskatxue ta Begoñita ta danak ibiltzen [...] olgetan ta. Inddiarrak joten gu ta gero, hori, bere eraztuntxua galdu ta ezin topa. Ta indiarrak garbitzen gabizela topa, saltzeko inddiarrak garbittu ta hantxe topa gendun. Ba harek familidxa egon zirin. Bat bertan hil jaken, bertan daozela. Gero, ba, kanpaiek-ta abioik-ta, allkantarillapera aringa-aringe, ta han etorten zan ama be, ez dakit zein zan txikiñena, hartu arrelepun ta alkantarillapera danok. Bonbarik han jausi bazan, han jungo giñin be danok, alkantarilli. Bueno, bonbak be holakuk ixango zirin ta...
- Ta Mikel Laboagaz-ta ibiltzen ziñien?
- K: Bai. Bai, danok hantxe olgetan. Bai, bai, bai. Denporatxua ein eben

harek han. Garbiñe ta hori, Begoñita, Mikel ta Karmele, bai, bat, Karmele. Aitta eskapata euken.
- (senidea): Ta [...] kridxadi zan.
- K.: Bai.
- (senidea): Gardataku.
- K: Bai, bai.
- (senidea): Horretxeaittik.
- Klaro, hona etorriko zirian...
- K: Bai.

1.38. Txikotean, tabaka, txoloka... olgetan

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/048
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:57:22. **Bukatu**: 00:58:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Txikotean (sokasaltoan) erdarazko abestiak abesten zituzten: 'Al pasar la barca'... Tabaka, txoloka (intxaurrekin), aldaba joten... ere aritzen ziren. Erregenetan ere ez zuten jostailurik izaten.

Transkripzioa
-Teresa: Ba igual kantaten gendule, ene oin e...
-Kattalin: “Al corro de las patatas”... Ez, hori buelta-bueltaka izeten zan.
-T: Ez, baiña hori bestiori: “Al pasar la barca me dijo un barquero...”
-Erderaz?
-T: Erderaz. “...las niñas bonitas que no pagan dinero. Yo no soy bonita ni lo quiero ser, arriba la barca...” ta gero salta ta urten kanpora harek eta. Ondo, ondo. Kaniketara, kanikien honan ta hazurrak honan bueltaka, bildotsen orkatillakuk, “tabas” erderaz. Orkatillak holan buelta emonda gora ta. Intxaurrakin Kataliñek, zulua ein ta haraxe intxaurrak botaten ta. Bai, bai, bai, jokuan.
-Zulua?
-T: Zulo bat ein lurrian ta lurrera bera.
-K: [...] ta zulotxua ein ta...
-Ta mutillekin?
-T: Mutil ta neska.
- K: Mutil ta neska.
-T: Ta gero aldaba joten danok.
-Baiña mutillek be tabaka ta...?
-K: Ai ez!
-T: Harek tiragomakin gehidxo. Honako tiragomia ipini ta...
-K: Baiña horrekin bai, intxaurrakin ta hori bai. Txoloka, txoloka esaten eutsaun.
-Txoloka?
-K: Bai.
-T: Tiragomak bla! Lantzin bateri ta...
-Eta muñekarik edo...?
-K: Ez, Erregik be ez eben izten ta... Ezebez, muñekarik eta holakorik...
-T: Ezebez.
-K: Biharra bai.

-Erregenetan ez?
-K: Ezebez. Nik hori Gabonetako melokoto latia ta, zerria ta hori... sokia ta... Kontizu batenbatek emon eutson karretillatxua ta...

1.39. Bi kanpotar mota

- **Hizlaria(k)**: Goikoetxea Vazquez, Ander; Seijo Diez, Irati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: LEK-076/009
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:26:46. **Bukatu**: 00:29:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa
  Aisia » Oporrak
- **Laburpena**: Giro euskaldun baten bila eta Lekeitio errespetuz ezagutzera datorren turista begi onez hartzen dute Anderrek eta Iratik. Horietako batzuk bertako kuadrilletan integratzen dira. Eta badira euren kuadrillak osatzen dituzten beraneanteak.

Transkripzioa
- Ander: Baiña, bueno, ni –[lehen esan dotena]– bueltatu bihar gara lehengo... lehen, ez dakit lehen zelan zan, e? Baiña behintzat jente hori euskeraz edo Lekitxoko ohitturetara egokitzera. Eta hori ez da...
- Irati: Bai. Gero ez dou esan, baiña bai dou bereizten –osea– bi kanpotar mota.
- A.: Bai, bai, bai.
- I.: Osea, dira batzuk –ontxe arte komentaten egon garena– ba bigarren etxebizitzia ta hamen "a todo..." hor. Eta gero dao beste beraneante batzuk igual nik azkan urtitan igarten dotela gehixo dizela datozenak giro euskaldun batera, datozenak beste herri batera, hori errespetata, hamen sartzen, hamendik ikasten... Ez?
- A.: Bai, gero kuadrilletan be badauz batzuk. Adibidez, gure kuadrillan badauz beraneante bi. Beste... Iratin kuadrillan be egongo dia beste batzuk.
- I.: Bai, kuadrilla gehixenetan.
- A.: On, jente horrek bai. Horrek... gure kuadrillakuak euskera hutsin eitten dou berba beti eta... ba bueno. Baiña nik ikusten dotena be bai da beste batzuk itten dizela integra kuadrillara ta Lekitxoko realidadera, baiña ez euskeraz bizitxera. Ta hori fenomenua be bai da emoten, e.
- I.: Bai eta gero jente asko integraten da bertoko kuadrilletan, baiña gero beste askok euren kuadrillia sortzen dabe.
- A.: Baitta baitta.
- I.: Kuadrilla pillo bat dauz beraneantien kuadrillak. Edo, adibidez...osea, Lekitxon kuadrillen terminua mugatzen da potiña euki, antzarretan urteteko potiña euki, edo ez. Ta, orduan, ba, bai, beraneante batzuk juten dira ba beste herriko jente batzukin ba potiñian edo kuadrillan udan zihar, baiña gero daoz potin asko dizenak beraniantien kuadrillak.
- A.: [Ta horrek urteten dabe beti azkanak].
- I.: [...] beti azkan.
- A.: "[Zuek azkan]; gu lehenengo ta zuek [azkan]. Denpori bada, zuek azkanak, bestelan, ba, ez dozue urteten". Hori be askotan badaukau hori... ba baztetzerteko joeria –esan dozuna–, ba, lehenen lekitxarra ta gero bestia. Igual hori be ez dao ondo ta hori be igual aldatu in biharko dou hori

ohitturia. Helduko da eguna, joe, esaten dozuna "haulan be ezin dou bixi", baiña bueno... holan da.
I.: Bai, gero asko kitikaten dou, e, baiña...
- A.: Bai, geu be ez gara asko hurbiltzen...
- I.: Baiña udan hona nahi ixaten dou etorri edo nahi ixaten dou /ixateu/ hamen geratu horixe daolako, bestela ez giñen hamen geratuko.
- A.: Klaro, bai, bai.
- I.: Ordun... Osea, Lekitxon badao joeria "beraneantiak... beraneantiak... Bilborratak", baiña gero danok barrutik esaten dou: eskerrak udan hauxe daola, bestela...

2. Herria, azpiegitura

2.1. Lehenengo lineako autobusa Lekeition

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/008
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Badiola, Lander
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- **Laburpena**: Bizkaiko lehenengo matrikula. 1907an jarri omen zen lehenengo lineako autobusa Lekeition.

Transkripzioa
- Hor bai, hor topaten diraz, lelengo, Bizkaidxan [...] euken matrikulia hogeta zazpi, hamalau matrikula Lekittokuna eduki bana. Lelengo ipiñi eutsana Lekitton kotxiari kenduta, “autobus de linea” zan Lekittoko Delaia, hori be han dao “en mil novecientos siete”.
- Autobusa ipini zan baña? Alkilerreko edo linea zan?
- Linea, linearako.
- Linea.
- Bai. Etorten zan ha, hortik bat, Filipinastik lekittar bat han izanikua hamen aberasteko esperantzan, ta hamen gogor urte eutsan kutxeruk ta halan ta guzti be ze ein ban? Itxi ban beren kotxiori ta enpresa baten handidxo sartu zan, ta hori prozesuori argazkixakin ta danakin daukat ha...
- A bai?
- Hasi zanetik eta. Hon eongo da...
- Historixa guztia.
- Bai. Ta on ha, liburua nahi daben lez ein, batzuk hona ekarri dotez ezta, atzera eruteko neure tokira baiña. Ta on esplikaten naon hau gora beheriori hontxe agertzen da, dan hori.

2.2. Lekeitio: Talatik Portaleraino

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/004
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:11:31. **Bukatu**: 00:13:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Imaz Atxabal, Alan
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Bera umea zenean, Lekeitio Portalean amaitzen zela dio, Talatik Portalera. Kaleen izenak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Ta ordun zelaku zan Lekitxo zu gaztia zñanian, Jesusa?
- Lekitxo. Laun bat. Lekitxon Talatik Portaleraiño haraxe, Portalin amaittuten zan Lekitxo.
- Erraina: Alde zaharra eta kale zaharrak-eta.
- Kale zaharrak danak ekiezan harek kantoiak, bat hau, guria.
- Erraina: Txitxarro kalia?
- Ez, ez. Kolmenares guria. Kolmenares, baiña Komenaresera orduko ha Mataderidxara juten dana da, zelaku da? Ahaztu jat, lehen dan-danak nekidxazan, gero Atxabal, gero Bergara kalia, gero Intxaurrondo, gero Intxaurrondon atzetik Apalloa, Apalloen atzetik geure Gotzon eta bixi dixenak,
- Erraina: Apalloa da Gotzonena eta…
-Bai baiña Apalloa baiño ariñao Txapartegiheku dao, hori Resurresion.
-Ez hori gero dau, don Señor Azpiri
-Don Señor Azpiri, don Señor Azpiri, danak nekidxazan, baiña on antenatik junda doz.
-Ta lehen zer euazan, horretxek alde zaharreko kalik ta gero kamiñotik doiana?
-Ta gero, bere ganetik hori hori esaten eutsaun, geure tia ta bixi zirian, kamiñora kamiñora, Trinidade kalia, Trinidade kalia esaten eutsaun, baiña ixena be bai eukan harek. Ta hantxe bixi zan aitxitxa zuona, hantxe bixi zan, horreaz, tia Mariñeaz ta. Berak hasi eban, ba guk lehengusua ha.

2.3. Bizartegiak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/043
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 01:44:32. **Bukatu**: 01:46:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena**: Lau bizartegi inguru zeuden bere gazte denboran Lekeition, zeintzuk diren aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Eta holan beste, barberue edo horrek egongo zan, ezta?
- Bai, dana. Dana euan hamen.
- Ta nun?
- Bai, barberidxa be. Arrainegidxan be baeuan. Baeuan hamentxe, zelaku da? Hor tabernie dao ba? Hori daona? Kultur etxien han goidxan daona?
- Isuntza bai,
- Hantxe be, baeuan. Bai, barberu lau-edo baeuazan. Han beheian be bai.

Zelan euki dau horrek dendia? Dendia horrek, gure aurreko zelako izena dauke berak? Gero, baporin ibili da be ha? Hori. Fruteridxa. Hantxe be bai. Tabernie euan edo hori euan, barberidxa. Barberidxak baeuazan lau-edo. Han be bai, zelaku da bera? Medikue bizi zana? Arranegidxan, medikue bizi zan, hori.

2.4. Baserritarrak plazara astoz

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/045
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 01:47:44. **Bukatu**: 01:49:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Baserritarrak plazan egoten ziren egunero saltzen. Bertan erosten zituzten frutak, barazkiak, arrautzak... Astoz etortzen ziren. Asto-lekuak ere bazeuden.

Transkripzioa
- Plazara bajatzen zirian edo?
- Bai. Plazara frutatan-ta plazara.
- Diñot, baserrittarrak plazara bajatzen zirian?
- Bai, sendo!
- Ta plazie noiz izeten zan?
- Plazia? Goidxetik. Bederatzietako egunero, egunian-egunian. Porruk erosten-ta kipulak erosten-ta haraxe. Arrautzak be bai-ta.
- Oin plaza-merkaua dagoen lekura edo plazara bajatzen ziñian?
- Plazara.
- Aiuntamentuko aurrera?
- Bai.
- Ta nungo baserritxarrak etorten zien Lekeittora?
- Edonunguek. Ez dakit, nik nunguk izaten zien. Han be bai, geu bizi garen tokikuk be bai. Ispasterrekuk eta edonundik. Ha beteta egoten zan plazia. Amototik be bai-ta hortik be bai. Zelaku da? Milloittik eta hortidxerik-eta asko egoten zan plazia.
- Zelan etorten zirin?
- Astuekin.
- Ta gero Lekitxon baeuan be bai astuk gordeteko lekua, ezta?
- Bai. Han Txapartegiñeko kantoien euan astuen hori. Han be bai.
- Zeuen tabernako aurrien be bai?
- Geure aurrien, hantxe aurrien be bai, astuk gordeteko.
- Asto-lekua.
- Asto-lekua deitzen jakon?
- Bai.
- Oindik han daoz, grilletiak. Oindik, bistaran daoz.
- Bai.

2.5. Harategiak eta hiltegia

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/046
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:49:30. **Bukatu**: 01:51:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- **Laburpena**: Okela harategian erosten zuten; zein harategi zeuden aipatzen ditu. Hiltegia jubilatuen etxea dagoen tokian egon zen.

Transkripzioa
Bai, okelia karnazeridxetan.
- Eta eon ziren karnazeridxa asko?
- Bai. Asko... ba, horrek eukitten ebazan bi, zelaku da, Anita karnazerik eta. Harek euki ebezen bi. Gehidxo, han, kaballua daona, beheko kalian be bai. Gero... Halantxeik eoten zan burua iminitta. Gero, harek be bai, zelaku da? Portaleko horrek, Zerebinekuak, Zeberik be bai. Hortxe, han goidxan; hamengu gero imiñi eban.
- Ta ordun gaur egun mantentzen dire horrek karnazeridxek?
- Ba, ordun Lekitto [...], erdidxe be ez, laurena zan ha. Handik goittik daon jentia, nik ezagutu be ez dodaz eitten.
- Eta mataderua-edo eon zan?
- Bai, mataderidxe euan. Mataderidxe zan, horixe, zaharren tokidxa, jubilauena. Ha zan mataderidxe.

2.6. Lehenengo autoak eta autobusak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/070
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 02:34:30. **Bukatu**: 02:35:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Autoak baino lehenago autobusak egon ziren. Egunean bizpahiru autobus irteten ziren Lekeitiotik. Txapartegi txokolategikoek izan zuten gogoan duen lehendabiziko autoetako bat.

Transkripzioa
- Eta gero hamen Lekitton, lehenengo kotxiek nok ekarri eban edo lelengo...?
- Lelengo autobusak egon zirien, baiña autobusak urteten eben, bi edo hiru. Gehidxen be hiru.
- Baiña kotxe kotxiak? Kotxe txikiñak, lelengokua nok ekarri eban?
- Ez dakit nik.
- Panaderuek, pasteleruek edo, ez?
- Bai, holakoxeren bat.
- Kinkosanenekua lelengo ta gero behintzat, nik ezagutzen dodatenetik, Kinkosanenekua.

- Nik Txapartegiñeko horretxena be bai. Zapateriñakua.
- Horrek zer zirian? Horrek be dendia euken. Txapartegiñekuk, zer euken, txokolateridxa?
- Txapartegiñekuk, txokolateridxa ta beste gauzak be bai. Gure ama abilla zan handik gastaten, Txapartegiñetik. Tiak eukitten eben euron tiak-eta.

2.7. Argindarra eta ura

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/071
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 02:35:29. **Bukatu**: 02:39:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Argi bakarra zuten etxean, bonbilla bakarra. Ura tangartetan ekartzen zuten kanpotik. Bera gaztea zela, bere amamak sukaldea konpondu eta iturria jarri zuen.

Transkripzioa
- Eta gero argidxe zure etxera noz etorri zan akordun daukezu?
- Argidxa? Bat. Argi bat. Ta gurian eoten zan etxe baten argi bat bakarrik. Ta gurian hasten zan argidxa amatateN zanian: “Ene, itto! Ama, itto-itto-itto-itto!”. Gero danak danak mutillak guztik danak halantxerik txillidxoka. Itto-ittoka. Ta eukitten nebazan horrek mariposak, esaten eutsenak. Halako karto bat eta bertan hori, oridxuai imini ura, azpidxan ta bota oridxua ta haxe, imini biztuta ta haretxeaz. Trumoiak-ta euazanian ensegidako amatateN zirian ta haxe.
- Orduan zuk etxian, gazte-gaztetan ezagutu dozu argiren bat? Karburua-edo?
- Bai. Argidxa bai, ezautu dot.
- Honako argidxa, honakua?
- Honakorik ez. Hau… Halako bonbilla bat. Bonbillak.
- Eta ura?
- Ura bai.
- Ura beti? Itxurriko ura beti?
- Beti. Ura bai. Itxurridxa gero.
- Eta nun eukitxen zenduen etxien ba ura?
- Ura tangarrautan ekarten genduan ta han eukitten gendun. Tangarrutan.
- Baiña kanpotik ekarten zenduen?
- Bai.
- Horidxe be. Etxien bertan, ez?
- Ez.
- Ta zuk zenbat urte dekozuzela?
- Nik ez dakit ba. Etxe barrutan, etxe halakutan be, hasitte euazan. Nik ez neban eukiko urte askorik; ze hori ein ebenian, zelakue da? Koziñia. Koziñak bai. Ez zan egoten. Harek, hango harek baiño. Ta koziñia, amumen etxie zanez, koziñie-ta ein ebazanian, orduntxe imini eban itxurridxa ta dana. Bentanatxu bat eukan halako baten ta handik pasaten giñiezan, zueneko. Ezagutu dozu hori? Amumak nun eitten eben brezidu hori, atuna? Kanpoko ortuan. Halako bentanatxu bat eukan. […] baiña harek bestiak, halako haunakoxia. Ta zuen amuma baiño ariñao, bizi zan Margari, Margari

Simonaz zelan ezkondu zan? Harexen ama ta Josepa-ta bizi zirien, hantxe. Tia berena hantxe bizi. Handidxeik sartzen giñian bertara. Ta bertan ibiltten giñian olgetan.
- Orduan nahiko arin ezagutu dozu itxurridxa etxe barruan be? Ume gaztia zarela ezagutu dozu ya itxurridxa?
- Bai, ezagutu dot itxurridxa, amamak ein ebanin obria koziñia-ta imintteko, imini eban itxurridxa be. Harridxan itxurridxa.

2.8. Oso ona Trinidade kaleko iturriko ura

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/035
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:54:00. **Bukatu**: 00:55:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- **Laburpena**: Lekeitio inguruko baserrietan sagardo asko egiten zen. Baina ura nahiago izaten zuten; ur ederra zegoen Trinidade kaleko iturrian.

Transkripzioa
- Ta sagardaue esan dozu.
- Sagardaua, bai.
- Hemen inguruen nungo sagardaue edaten zenduen?
- Bertoko baserridxetan ta gero [...] be bai. Baserridxan hamen sagar asko eoten zan, Oletatik ta Ipasterretik ta Mendexa ta hortik eta, ba, sagar asko eoten zan. On, nun eitten eben gero ez dakit baiña.
- Zuek erosi eitten zenduen sagardaua?
- Bai, sagardaua erosi. Gustora, ganera, sartzen zan. Ataraten neban egarridxaz, han sareiñetik jun eguzki gorrittan ta egarridxaaz, ba, ura erateko baiña, “sagardau pixkat dao” igual gure amak, eta, ba, sagardaua. Baiña, bestelan, gehidxo eraten gendun ura, e? Ze ur ederra euan Trinidade kalian, itturri bat, on be badao itturridxa. Gure ama, etorten giñin etxetik, lehelengoko biharra eitten eustan, azunberdiko tangia emoten eustan ta Trinidade kalera. Ez dakit nungo, nundik etorri zan ura, baiña ur ederra hantxe. Haixe ur... litro ura, haixe eraten eban gure amak holan danga-danga. Iñoix ein eustan [...], baiña nik eraten neban lez han bertan, amari erun orduko, bertan eraten neban tangatik, ta “pixkat itxiko dotsut”, “Ez, ama, eran dot nik bertan, eran zeuk dana”. Litro ura, tangia, aluminiozko tangia. Haixe ura eraten, eguerdira orduko haixe. Gero etxin, ba, bat be ez, baiña haixe egarridxaz sareiñetik, urik ederrena haixe dala ta.

2.9. Lehengo Lekeitio

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Etxaburu, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-012/004
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:04:26. **Bukatu**: 00:06:22

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Herria asko aldatu dela dio, orain "Madril txikito" dela. Portuan motor txiki eta itsasontzi asko zeuden, gaur egun, ostera, ez. Bere senarra ere itsasoan ibilitakoa zen. Lekeitio bitan banatzena zen: portu aldekoa eta Atea portaletik aurrerakoa. Berbetan ere aldea zegoen, bere ustez portu aldekoak motelagoak ziren; gazteleraz ere ez zuten ondo egiten.

Transkripzioa
- Eta gero bestela Lekitto asko kanbidxe da edo...?
- Buf! Lekitto? ba zer esango dotsut neuk? Madrid Txikito on, ta lehen ein kontu Oleta zala, esakera baten. Beti izan da Lekitto ba herri politte izan da, beren portu politte, hogeta lau enbarkaziñoi edo hogeta sei edo zemat euki ebazan? ta oin bi daoz, ta gero motor txikiñak, neure gizona be zan itsasokua, mariñela, sotapatroi ibiltzen zan, baiña motor txikiña be baeukan, edo tximiñotan-ta eitteko hori. Ba haidxe zan gure bizimodua ba itsasotik izaten zan, baia neu hango partekua nintzan, orduan ganera esaten ebenaz gu baiño ariñagokuak, zelan da? eukitten ebela, aparteko hori, gure partia ta Arranegi partia ein kontuz erdittik bi endda egoten giñela, nik neuk ez dot ezautu, baiña halan esaten eben.
- Entzunde dekogu be bai, ezta? tonuen be bai, berbetan be, diferentzidxe dauela.
- Bai! Ez noia ezer esaten, baiña gure aldin motelak zirin mariñelak. "Ladero", "Crasto", esto... egon pixkat, "Saander" ta dana zan holakoxe berbetia, nire gizona lelengo dala e! Ta gero ya ein zirian por ejenplo izenak gizonezkunak be, nik dakit, on etxat akordaten, baiña neure gizonari bere lagun bateri nik ez dakitz zelan deittuten eutsan erderazko izena, zelan zan? Bueno, oin etxat etorriko gero etorriko dxadaz danak, baiña on etxat etorriko. Dana zan nahiku txarto eitten eben berba, ta erdera "no te digo nada", erdera ui!

2.10. Bainuen sorrera eta funtzionamendua

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/003
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:02:14. **Bukatu**: 00:04:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Bere aitak jarri zituen Lekeitioko bainuak martxan. Bonba bat erabiliz ateratzen zuten itsasoko ura depositu handi batera, lehenengo gasolinaz eta gerora, elektrizitatez. Depositu horretatik beste depositu batera pasatzen zen ura presioa eginez, eta presio horrekin bertan egoten zen galdara handi batean berotzen zen ura. Azkenik, bainuetara heltzen zen ur beroa, bost bainu zeuden. Askok

iododun goroldioa botatzen zuten kolorea emateko. Hondarrezko erlojua erabiltzen zen denbora kontrolatzeko.

Transkripzioa
Hori aittittek ein eban hori. Hori dao bonba bat dao itsasotik ata eutsen bonba bateaz “Club de pesca” don tokidxan, han eon zan txabolatxu bat, ta bonba bat egon zan han, handik eta oin taillerra daon tokira arte ataten zan bonba batek ataten eban ura beste depositto handi batera. Baia lelengotan ibilli zan horreaz gasoliñiaz ta gero etor zan elektrizistia, eletrizidadeko motorra. Baiña handik behetik ataten zan ronpeolasetik sotano batera, han euen depositto bat, ta hara. Ta handik depositttotik beste depositto batera, altura batera, atzeko hori indder hartzeko, pasateko beste beste poste batera. Ta kaldera bat egon zan berotzeko, ura berotuteko kaldera bat, ta harexeaz presiñoiagaz berotu ha ura ta gero ha ura pasaten zan baiñuta. Egoten zin bost baiñu, bost bañera, bost bañera, ta gero ohiek, handik urtetan dabenien sartzeko ohian barruan hori. Ta gero askok eitten eben horreaz, iodo, iodo, hori “¿cómo se llama este?” honek, goroldidxa goroldidxa, harek eukitten eban iodua eukenak, hareaz eitten eben baiñutara bota ta kolorie hartzen eban harek iodunak, “yodo de…” baiñutara boaten zan iodua. Ta harek eitten ban tintie emon, ta hareaz hartzen zin baiñuak. Ipintzen dxakon ha kantidadie denpori eitteko, holako honek “reloj de cristal”, “reloj de arena”, harek ipintzen zirian, hamalau hamabost, ordu laurden ordu erdikua ta harek “reloj de arena” ikusten zan eta amaittu zanian da! altxa.

2.11. Goroldio motak

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/004
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:04:22. **Bukatu**: 00:04:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
  Natura » Flora
- **Laburpena**: Bi goroldio mota daude, iododunak erabili behar dira, tintedunak; besteek ez dute balio. Tintedunak olatu-horma (rompeolas) inguruan batzen zituen. Olatu-horman ez zegoenean, Quinto kilometrora joan behar izaten zuen bizikletaz.

Transkripzioa
- Eta algak-eta, bueno goroldidxoa-edo, tipo diferentiek ibiltzen zien?
- Alga tipo bat dao, bi, batek ez deu balidxo. Hamen egoten da, hondarrian egoten dana, honek horrek ez deuke ez deuke tinterik horrek, iodo bestiek bestiek izen biher deue, barruen daukona iodua. Guk hartzen genduan ronpeolasen egoten zan behian, nik hartzen nabazan handik, ta han ez euenian han Quinto kilometrora, bizikletan hartunda.
- Ba zer otzaran ekarten zendun-edo?
- Otzaran, otzaran, bai.

2.12. Baserritarrak joaten ziren bainuetara

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/005
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:04:55. **Bukatu**: 00:05:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Batez ere baserritarrak joaten ziren bainuetara, erreuma eta gerriko arazoak-eta zituztelako; arrantzaleek ez zuten minik izaten.

Transkripzioa
- Ta nok ibiltzen bazen baiñuek ba? Baiñuetara nor joaten zan?
- Gehidxenian baserriko jentia. Gerrittik-eta dabizenak txarto, erreuma erreumiantzako zan gehidxena.
- Eta hemen portuko jentia-eta.
- Ez, portuko jentia ez. Gehidxenak baserrittarrak zin.
- Eta zerba bakarrik baserrittarrak?
- Bestik gerriko miñak-eta eukitzen ebezan harek negu guztidxan atxurregaz ibillitta ba.
- Arrantzaliek-eta be eukiko biezan gerriko miñek.
- Ez, arrantzaliek ardauagaz pasaten eben.
- A bai? ta zemat kobretan jakien?
- A hori ez dakitz zemat kobretan zan, ze kantidadia. Gauza gitxidxa izengo zan, baia ez dakitz ze kantidade. Orduen dirurik be ez zeuan-ta.

2.13. Bainuak mare bizietan; batez ere gizonezkoak

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/006
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:05:51. **Bukatu**: 00:07:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Iraila eta urria inguruan egoten ziren bainuak, mare biziak zeudenean. Olatuak indarra izan behar zuen; eta, ondorioz urak ere bai. Trapu zahar bat janzten zuten, sekula ez biluzik. Bezero gehienak gizonezkoak izaten ziren. Medikuak emandako paper bat izaten zuten osasunerako ona zela ziurtatzen zuena.

Transkripzioa
- Zenbatero-zenbatero joaten zan ba persona bakotza?
- Hori izeten zan oktubrian, oktubre, setienbre-oktubre egoten zin baiñuek horrek, ura daon bizidxen daonin, mare bizidxak dagozenian, ze esaten eben apurtzeko, olatuk apurtzeko indder gehidxo daukola horrek ur horrek bestik mari bizidxakin, horrek indder gehidxo eukola urak ta han eitten

ebezen, egoten zan setienbre-oktubre zan bainutzia, gero ez zan egoten.
- Eta zelan, paparroia-edo ibiltzen eben-edo? Traje de baiñua-edo ibiltzen eben-edo?
- Bai traje de baiñua, trapu zahar bat.
- Trapu zahar bat. Ta billuzik ez?
- Billuzik ez.
- Ez? Eta andrak eta gidxonak eta umiek-eta danak bardin?
- Umerik ez zan egoten. Ez, andrak, gidxonak gehixo e, gidxonak gehidxenak. Bakizu, baserriko jentie zan erreumiagaitzik-eta zera. Gero egon zan papel bat medikuena, "el autorizado", medikuk baimena emonda, ona dala ipintzen eban.

2.14. Bi bainuetxe egon ziren

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/007
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:07:19. **Bukatu**: 00:09:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Bezero gehienak baserritarrak zirenez, gehienak kanpokoak ziren, inguruko herrietakoak: Mendata, Munitibar... Beste bainuetxe bat ere egon zen Mendieta ontziolan, baina haiek errekatik hartzen zuten ura eta ez zuen presiorik; hori dela-eta, beraiena zabaltzerakoan bestea zarratu egin zuten. Banakako bainerak egoten ziren eta etxeko zerbitzua ematen zuten: toallak, oheak...

Transkripzioa
- Eta Lekitto kanpotik be etorten zan jentie-edo...
- Baserriko bueltie: Mendata, honek Munittibar ta hortik hortik bueltakua, horko bueltakua. Gehidxena kanpoku zan e!
- Orduen famie euki eban edo ezeune zan.
- Bai, bai. Ze hamen egon zan beste bat "Astilleros de Mendieta"n hortxe egon zan, beste lelengo hori baiñuetxia. Baiña horrek ez eukan, ure hartzen eban horrek erreidxotik ta ordun ez eukan presiñorik, ta hori ipiñi zanian ha zarratu ein zan, ze hau zan ur bizidxa, ur bizidxa "de rompeolas". Handik hartzen zan ta ni hara bajatzen nintzan ta ipiñi martxan bonbia martxan ipiñi, ta lantzien olatu handi bat goittik etorten zan.
- Ta ze egoten zien bañerak edo zelan? Zelakoa izeten zan hori barrue?
- Bañerak han etxien. Etxien bañerak, bañerak ontxe moduko antzekuak.
- Baia holan personak banan-naban baiñetako modukoak edo...?
- Bai banan-banan.
- Ta gero ze zerbitzu gehidxau emoten zenduen holan, baiñetien aparte... gero toallak eta hori zuek izten zenduezan edo...
- Bai bai etxekuak, etxekuak danak. Batzuk sikatu eitten zirian beste batzuk ohian sartu be bai, egoten zin ohia [...] lo dauenian haize berua botateko.
- Han geratzen zienak trankil-edo diñozu?
- Batzuk baiñuaz ohia nahi izaten eben izerdidxa botateko, handik urten eta bero dauelez han, urteten zendunian berotatik, ba sartu ohian ta ordu

laurden edo ordu erdi-edo.
- Izerdidxa botateko.
- Bai.

2.15. Ura berotzen

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/009
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:10:10. **Bukatu**: 00:11:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Bere ama ibiltzen zen mantenu-lanetan beharrean eta Josek goroldioak batzen eta ura berotzen laguntzen zion. Ura galdara bateko baporearekin eta uraren presioarekin berotzen zuten. Galdara arotzeria azpiko tailerrean zegoen. Jose bera arotza zen berez, bainuetatik gehigarri bat ateratzen zuten.

Transkripzioa
- Ta han mantenimientoan-eta ze ibiltzen zan persona bakarra biherrian?
- Gure ama-eta, holan berotuteko eta eukitten nebazan kalderia biztu eta kalderia ura berotu eta hori. Baiña ipintzeko gauzak-eta ama zan ha.
- Alaba: Baiña zuen aitta orduan kartzelan euan.
- Bueno bai kartzelan.
- Alaba: Orduan zeuk laguntzen eutsazun amari, ezta?
- Bai, neuk bakarrik.
- Alaba: Berak eitten eban horixe, baiñuk-eta martxan ipiñi eta zuk eitten zendun oraldidxen bueltia eta bonbi ipiñi martxan.
- Bonbia ipiñi martxan eta ura berotu.
- Alaba: Eta ura berotu,. Ura berotu zelan zan?
- Baporaz kaldera bat eta hareri presiñoiaz ura bero eitten gendun.
- Alaba: Ta biztu nundik eitten zenduan kalderia?
- Bertara junda.
- Alaba: Bertan ronpeolas azpidxan?
- Ez, ez, ez, hori egon zan taillerrian.
- Alaba: Taillerrian hori. Taillerra dao etxe horren azpidxan. Arotzeridxa hori, gaur egun arotzeridxa dana.
- Ze izatez zu arotza zara ezta, Jose?
- Bai.
- Hori zan ba konplemento bat, ekonomikoki konplemento bat, ezta baiñuana?
- Baiñu zan denbora gitxireko euki eban, setienbre-oktubre horixe, ez dao gehidxau.
- Alaba: Baiñuk egon zirin denporan martxan arotzeridxa ez euan martxan.
- Bai, arotzeridxa bertan. Zati baten zan ha baiñuna ta bestia. Han arotzeridxa gitxi euazan, orduen ez euan gaurko martxarik, [...] egongo die batzuk eta holakoxe arotzeridxarik ez zan biharrik ordun denporan.

2.16. Zapatuetarako dutxak

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/010
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:11:48. **Bukatu**: 00:13:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Garbitasunerako ez zuten ezer berezirik erabiltzen. Zapatuetan nahi zuenarentzat, edonorentzat, ur hotzdun dutxa-zerbitzua izaten zuten, etxeetan ez baitzen dutxarik egoten. Goroldioa eskuz batzen zuten. Iododun goroldioak ziren batu beharrekoak.

Transkripzioa
- Baiñuek-eta garbitzeko-eta zozer espeziala ibiltzen zenduen edo... ze jentien izerdidxekaz-eta...
- Ez dot, orduan ez zan osea.
- Horrek beste jente dabillen lekuen-eta.
- Bai ez dakitz ze mejunke botaten otsen baiña... Ta gero egoten zirian zapatuen dutxak egoten zirian, dutxak kanpokuentzako, ur gazizagaz e! Nahi ebenak kanpoko jentiak, orduan ez euanez hamen etxitan dutxarik-eta, ba zapatutan egoten zan dutxia, pagetan zan zozer baia ura, ur hotzaz e!
- Ta horra ya edonor etorten zan.
- Bai.
- Bakarrik baserrittarrak ez?
- Ez. Nahi dabenak. Garbi garbittuteko.
- Alaba: Mariñeruk-eta be bai.
- Mariñeruk ez dira izan sekula.
- Ur gazittan.
- Eta lehen esan dozu hori oraldidxe-eta batzen joaten ziñela, eta ze batzen zenduen eskuekaz edo zelan batzen zenduen?
- Eskuegaz, eskuegaz. […] honek e honek deukonak hori oroldidxori, bata, oroldidxo tipo bi doz: bata iodo daukona, ha zan nik hartzen nebana; bestik ez dau balidxo.
- Alaba: Ta ze koloreku da hori iodo daukona, berdia edo gorrizkia?
- Berdi gorrizka paraten da. Honako kolore bat.
- Alaba: Ta harek haunako, badaoz batzuk daukena zelan da? inddiarra lez, horrek ez?
- Horrek ez.
- Alaba: Lisuk zirian?
- Lisuk, barrutik iodo euki ben bakarrik harek.

2.17. Bizikleta luxua zen

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/050
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 01:02:31. **Bukatu**: 01:04:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea**: Petralanda Prados, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Bizikleta bakarra zuten neba-arreba guztientzako. Bizikleta zutelako aberatsak zirela uste omen zuten, oso bizikleta gutxi baitzeuden Lekeition. Aitak erabiltzen zuen beharrerako. Neba-arrebetan nagusiena zenez, berak erabiltzen zuen gehien. Alokairuzko bizikletak ere bazeuden herrian. Lehenengo kotxea don Karlos Solanok ekarri zuela gogoratzen du.

Transkripzioa
- Zuek bixikletarik euki zenduen umetan?
- Guk bixikletia euki genduan bat danontzako eta guk gero bixikleta bat, pentsaten gendun bueno, aberatsao garila, bixikleta bateaz eta gu domeketan juten, bueno, juten giñian Ondarrura juten giñin, eta ni zaharro nintzalez hartzen neban bixikletia, eta Koldok: “Zeuk eruten dozu beti bixikletia”. Ta aitxak erabiltxen eban ba biharrerako eta bixikleta bat ekarri eben, pentsa eben, bueno bixikletia orduan zan gauza bat zenbat bixikleta eon zirin Lekitxon? Aberatsenak.
- Alkillerreko bixikletak eon zien?
- Bai, eoten zan alkillerreko bixikletak eoten zian, honek han eoten zan Ramon. Ramon Arrindan aitxak eukitxen eban, zelaku izango da? Eruten eban eta zenbat ba? errial bat edo ez dait /eztai/ euken. Ta […] mariñeruk-eta hartzen eben bixikletia ta eitten eben […] jo eta bertan itzi ta […]
- Gero holan zuen inguruen nork ekarri eban lehenengo motorra edo lehenengo kotxie-edo?
- Lehenengo kotxia don Karlos Solanok, euren kotxia, Jose Mari Solanon aitxak.
- Alaba: kotxia! Eleantia ixango zan! Txofer ta guzti!
- Eta zer zan bera ba? Txoferra-edo?
- Hori zan “oriundo de vienen de” goitxik datozenak.
- Betiko famili aberatsa.
- Betiko famili, […] de Ayarza hortik datoz, […] de Ayarza…

2.18. Bide zaharra eta berria

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/010
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:17:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena**: Eskolapeko bidea, Gernikarantz doana, gerra aurretik egin zuten. Bide zaharra nondik nora joaten zen azaltzen du.

Transkripzioa
- Bidia egin ebenian akordaten zara?
- Bidia? Nora?
- Gernikatik datorren bidia, Eskolapetik pasa zanian.
- Ez. Hori gerria baiño ariñao ein zan.
- Ariño ein zan.

- Lehin euan bidia Goiko kaletik.
- Goiko kalin sartzen zan, bai.
- Bai, hamendik, telefoniko... bueno, lehenao gasoliñia eon zan elixa atzian, haren goittik zihar horra, zubira. Ha zubidxa bai [akorduan] daukat. Ha zan zubidxa ezer be ez, estua ta ezer be ez, automobil bateaz... Gero ein daben, ba, haixiak, haixia daonian, zelan barandauak egon zirian honek burdiñazkuak? Ba halakukin ipiñi. Gero ein daben, zabaldu. On zubi ederra dao.
- Bai, on zubidxa zabalduta.
- Bai. Ta tabernia ontxe daon lekuan eon zan, han zubidxan.

2.19. Lekeitio zaharra

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/013
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:18:45. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Gaur egun merkatu-plaza dagoen tokian erreka zegoen eta arropak bertan garbitzen zituzten. Pascual Abaroa alkate zela hainbat azpiegitura egin zituen herrian, merkatu-plaza, besteak beste. Asto-kortak ere bazeuden, autorik ere ez zen egoten-eta. Astoan eta zaldiak nondik nora joaten ziren kontatzen du.

Transkripzioa
- Ha on daon plazia, lehenao hori zan errekia erropak garbitzekua. Harek Tesok alkate eon zanian ein eban errekia kendu, urek ipini herridxan, ure nahi dan beste ta, gero, hori ein, plazia, merkaua ein. Lehein eitten zan aiuntamientun azpidxan plazia, euridxa danian.
- Bai [...].
- Aiuntamientun azpira. Ta elixapin be bai.
- Elixapin, ta bertan kontzidxopera etorten zirin?
- Bai.
- Astukin eta plazan ipintzen ebezen.
- Bai. Gero, asto-kortia hamen gora, asto-korti euan, itsuna. Zuk ez dozuzen ezautu, [...] itsua. Gorotxuo be eon zan, ba, asto-korti, hamentxe, hori bestiori, hori almazen haundi bat zan. Honek etxik...
- Konpañiko...?
- Ondun dozenak, honek, [baakixu zein dozen] harek. Harek... han eoten zan karrokotxiak. Honenak, zelan ixena eukan harek, ixena? Dana dalakua. Karrokotxik-eta eoten zin. Lehena ez euen automobillik be ez, ta ezer be ez, hori, karrokotxiak baiño.
- Zaldidxakin?
- Zaldidxakin.
- Bai, esnedunak...
- Goiko kaletik zihar pasaten ziran hona, zein da hori?
- Gamarra kalera?
- Kalle Artolara.
- Artolara?
- Artola. Handik zihar Zumatzetan gora, Antiguaneko han gora

Aldastorrera, Aldastorretik, Gardatako bide zaharra? Ha zan kamiñua leheno.
- Han be, ez zan egoten taberna bat?
- Hau gerria baiño ariñao einddakua da. Ez naz akordaten [...]. Eindda eon zan nitxikidxa nazela.

2.20. Hiru estanko zeuden

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/030
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:43:58. **Bukatu**: 00:45:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena**: Eskolarako liburua, katona, eta gainerako materiala estankoan erosten zuten. Hiru estanko ditu gogoan, non zeuden azaltzen du. Burko-azalarekin (almohada) egindako zakuarekin joaten ziren.

Transkripzioa
- Eta libururik-edo?
- Guk normalian erosi, halakuak, katona-edo lehelengoko ‘aeiou’ eta holakoixiak.
- Eta nun erosten zenduen ba?
- Estankuan.
- Estankun saltzen eben?
- Bai, lapixak-eta estankuan.
- Zenbat estanko euazan orduan, bat? Estanko bat?
- Lekitton? Bai hiru be bai. Goiko kalian bat, goiko kalian, ezagututen dozu Mari, Mari? Anton, bestia Arranegidxan. Ontxe hil da ha estankeria, Arranegikua. Eta beste bat eon zan auntxe pasteleridxa... zein da hori? Hori, loteridxak-eta saltzen dabena. Hantxe eon zan beste bat.
- Ta orduan bertan erosten zenduezen liburuak?
- Bai, estankutan. Lapixak-eta, baakixu. Txori txikidxa, iual, lapixa, baiña txori txiki... ia. Lapixa zorroztu ta, igual erdittik bi eitten zan lapixa.
- Kutxilluagaz, ezta?
- Bai, zepilluaaz.
- Ta eskolara gustora?
- Eskolara jun [...], poltsarik be ez [euan[orduan ta ezer be ez. Zakua.
- Zakua?
- Zakua etxin eindaa, almuada azalaaz-edo.
- Zeren azalagaz?
- Almuda azalaaz, almuda azalaaz.
- A! Almuda azalagaz.
- Ordun ez euan dirurik be. Ordun bost pezeta asko zan.

2.21. Errepublika garai ona izan zen

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/035
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:49:36. **Bukatu**: 00:53:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Bide asko Errepublikan egin zituzten. Ordura arte harrizkoak ziren. Bizikletan ere saltoka joaten zirela dio eta harriek salto egiten zutela. Espainiaren momentu onena Errepublika garaia zela dio: nahi zuena joan zitekeen eskolara, lan eginda kobratzeko arazorik ez... Abadeek garai hartan ez zuten indarrik

Transkripzioa
- Amorotora mendittik zihar. On Mendixako hau kamiñuau, Amorotoko kamiñua-ta arreglata doz, baiña leheno dana zan harridxa. Errepublikan ein dabezen arregla honek kamiñuak. Hamen Oletatik eta Milloira ta Markinara dana harridxa. Dana saltuak-ta, gaiñera, Mendixan, gaiñera, Errepublika baiño gero asko eindakua da. Mendixako kamiñu be dana harridxa! Bixikletan be saltoka etorri bihar ta goruntz ezin ion bixikletan. Harridxek-eta, dana harridxa, dana harridxa, kanteria dao hor Mendixan ta bota ein zan haxe harridxa ta. Republikan... Espainia onduen eon zana, bixi, eon be bai, Republikan. Hamalau urtetik aurrera danak geuazan halakotuta, eskolan danak, nahi dabenak jun, hamalau urte arte eskolan ibili nintzan ni. Ta gero aseguru be bai. Republikak obliga eitten daben, biharra eitten baozun. Kabanan edo han edo edonun eitten badau be, biharra, ba, obliga eitten daben. Fabriketan, behintzat. Hamen, gerria amaittu zanian, iñok ez eukan halakorik, sartzekorik. Republikakuk, biharra ein dabenak, hillabete ein dabenak be, kobra eitten dabe, ondiok bixirik doz, neure koiñatik-eta kobra eitten dabe. Aunke sea hirurogeita hamar milla pezeta edo hirurogei milla pezeta, dana dalakua, hillian. Nire andriak ez eban eitten biharrik kabanan, kridxada baiño, ta kridxada be lau txori txiki irabazi ta aseguru barik. Hamen don Pascual [...] ibiltzen zan, hillin bost ogerleko eukan kridxadak. Honek, Txirrin, Txirrin, Txirriñekuak eta hortxe ibiltzen zirinak. Bost pezeta edo bost ogerleko hillian, ez asegururik, ezer be ez.
- Ze gomutaten dozu zuk Errepublikakua?
- Ba, banderi be errepublikakua zuan Errepublikan. Eskolan be bai, gorridxa, marroia ta bestia horidxa-edo, ez dait zelan zan.
- Ta erretratuak?
- E?
- Erretratuak?
- Erretratuak?
- Ez zeuazan erretratuak ipinitta eskolan?
- Erregie kendu...
- Bai, banderia bai, bai, banderia altzau republikanua.
- Alfonso XIII. be kenduko eben?
- Ta lau urte [...] Republikiak, e? “Del año trenta y uno al treinta y cuatro”. Gero Republikiak irabazi eban, ostera be, botaziñoia. Askoaz, gaiñera, irabazi eban bigarrenian. Gerria atarau. Abadiak be Errepublikan ez euken sueldorik, karidadia. Ta baserrittarrak, ba, honenbeste gari-edo emon bihar, honenbeste, bost killo-edo, dana dalakua, ta baserri asko eoten zan lez, ba, pillua hartzen zuan. Elixan be abadiak pasa bir eban halakua be, bandeji be, eurentzako. On, abadia asko eoten zan Lekitton.

2.22. Don Pascual Abaroa

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/037
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:55:00. **Bukatu**: 00:55:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Laburpena**: Don Pascual Abaroa alkate zela eliza luzatu zuen. Bere estatua hori Errepublika garaian jarri zuten, 1934. urtean, eta Aureliok gogoan du une hura.

Transkripzioa
- ... altara daoz atzian, harek azkenengo einddakuak, honek, Abaroak. Don Paskual Abaroak ein daben elixia luzatu, ta elixapia be bai ein daben. Harexeaittik dao han, plazan, ipinitta beren halakua Ha ein daben, bere estatua ipiñi daben Errepublikan. Akorduan daukat, papelak eta periodikuak-eta sartu ebazen barruan. “El año treinta y cuatro”. Gerria hasi zan, trentaiseisian hasi zan.
- Zuk sasoi hori zelan gomutaten dozu?
- Gazti nazun ta, hamabi bat urte efo ha ein zanian, [artun ta ipini dabenian], hamabi urte edo, ez daitt, ba.
- Hamahiru, hamalau...
- Ba, bai.

2.23. Antzinako Lekeitio

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/002
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:01:42. **Bukatu**: 00:03:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Antzinako Lekeitio nolakoa zen kontatzen du: portua, alondiga, nesken eskolak, don Claudioren lorategia, tabernak... Eta goialdean, orain etxeak dauden lekuan, ortuak.

Transkripzioa
-Zelakoa zan zure umetako Lekitto?
- Lekitto joer... kontateko be, portua ta honek , hamen... honek etxiok ez euan, hamen monja ta honek, hamen alondigi behian ta goixan... emakumien... nesken eskolak, bai. Ta hor e... txinuen hor e... han eguezanak hamendiko alderdixan jardiña zan, Don Klabeliñona, jardin handixe. Ta aurrin be halaku... ezebez obra bat, gero ein eben, ortu be bai. Zulua badakixue nun daon? Ha tabernia? Han obra bat ta gero handik ortuak, ortuak ta ortuak zirian, bai.
-Orduen kale gitxi euezan hemen?
- Ez, ez, hamentxe kruzian hamentxe taberna bat ta goixan aurrin etxik barriduta daoz ta hori Manolo tabernia, hamen zelan daoz taberna bi? Ta gero hori, Batzokiko aurrian, Batzokiko aurria, ha dana zan ortua, ortu dana. Han euen dana ortua, dana ortua. On dana etxiak, lehen dana ortua.

2.24. Munduko leku askotan ibilia arrantza dela eta

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/028
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:36:11. **Bukatu**: 00:36:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
  Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

- **Laburpena**: Gehiago ibili da hegazkinean taxian baino. Iraken, Hegoafrikan eta beste leku askotan ibilia da arrantza kontuengatik.

Transkripzioa
-Gehixao ibilli naz taxixetan, baiña abionetan.
-A bai?
-Bai. Ia, Persikora ta juteko, Durbanera ta Ciudad de Cabon ta zihar eta…
-Persikoan eta egonda zaoz?
-Bai. Irakera juan, Corralsalen deskarga, gero gasoliñia abionen kargau, Durbanera ekarri. Durbanetik ostera be Nueva Orleansera. Gero bueltan ostera be han Ciudad del Cabon geldittu barkuan, gabarriaz ekarri biberak. Ia, halantxeik, gero ostera be Iraketik etxera.

2.25. Bizikleta bat denetzat

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/050
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:59:39. **Bukatu**: 01:01:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena**: Katalinek bazuen bizikleta, Teresak ez. Ondarroara zein Gernikara joandakoa da bizikleta gainean. Bizikleta bakarra zuten etxeko zortzi neba-arrebentzat, baina batez ere mutilentzat izaten zen. Baserritarrek bizikletaren behar gehiago zuten kaletarrek baino eta Katalin baserrian bizi zen.

Transkripzioa
- Katalin: A bai!
- Teresa: Bixikletan nik ez.
- K: Ai, zuk ez. Nik bai. Nik han sagarrak-eta dagozen, hantxe ikesi neban mutillen bizikletatik. Ta gero, ba, domeketan han gora pasietan urteten giñin [Kazintta]-ta halakun-ta. Ta Lekitton ixanda, mutillak, gaztiek, bixikletia eskun dabela, ta “itxiko dozu bixikletia?” “Bai”. Ta sartu tartin, tartetik, e? Ta bizikletan eta mutillak atzetik. Ta gero formalak mutillak be, e? Ez jat akordaten ezer daukonik.
- T: Gu dedikaten giñin aldabak joten. Aldabak jo, tinglau ganera juan, ujika, kantaten ta felix giñin, ganera, e? Lantzin bateri burla ta...
- K: Ondarrura artian junda gaoz, bixikleta senzillutan, e? Bixikletan. Ta Gernikara be bai e…
- (senidea): Jolin!
- K: Bai, bai, bai, baiña nesken bizikletakin ordun, e? Bai.
- T: Hau ni baiño gehidxo ixan da, bixikletan ibili da ta…
- Baiña baserrittarrak biherrixena eukitten eben bixikletiena.
- K. eta T.: Bai, bai, bai.
- K: Lehen bixikleti dana, Ispasterretik eta Lekittora-ta bixikletan.
- Baina neba-arreba danon artien zenbat bizikleta?
- K: Guk? Bat!
- T: Honek aillaga diraz... aiztak hil jakoz honeri idxa ehun urte einda, larogeta ta hamabost urte ta. Bai.
- K: Bai ta besterik ez. Gero Antoniok badauko...Niri ez jat akordaten Antoniok bixikletarik euki ebanik gero!

- Bueno, baiña zortzi ziñien eta bat.
- K: Bai, bai. Bat. Ta neskak pentsa be ez! Ta gero, ba, mutillek. Beraaz kontixu bidxek ibiltzen zirin, Claudio ta bidxek batera.

3. Aisia

3.1. Perretxikotarako zaletasuna inguruetan

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/012
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:17:15. **Bukatu**: 00:18:10
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elorza, Ander Marino
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- **Laburpena**: Inguruetan perretxikozale asko zegoen, baina berak ez du hainbesteko zaletasunik izan. Zizak egoten omen ziren gehien inguruetan. Arrautza-perretxikoak ere baziren, baina gutxi.

Transkripzioa
- Eta perretxikotan, eitten zan perretxikotan?
- Bai, perretxikozaliak asko zirin hamen inguruan.
- Bai?
- Asko... neu be iñoz jun naiz baiña ez doten lez ezagutzen, anguak eta... ee eoten zirin baiña... jatia gustaten jaten baiña... topaten baiña ez ezta launakin afiziño gehixao eukenakin.
- Eta zeintzuk zirin hamen egoten ziran hongo edo perretxiko normalenak?
- Gehidxen horrek, zelan deitzen jake eurari, ez dakit, ixena be ahaztuta daukat...
- Suzak-edo?
- Zuek suzak, guk sizak.
- Sizak esaten dozue?
- Bai, bai. Arrautza perretxikuak be bai asko ez ee...
- Arrautza perretxikoak be bai?
- Asko ez ee, horrek gitxio, horrek ez dira eoten.
- Horrek gozuak ez?
- Baai, “oola”. Da gaurko gaztik ee...
- Zer danik bez?
- Ee?
- Zer danik bez, arrautza perretxikoa, zer danik bez?
- Keba. Ez dakidxe ta... aldendu.

3.2. Lekeitioko jaiak; San Antolinak

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/022
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:27:15. **Bukatu**: 00:31:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Barainka Zabala, Leire

- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Lekeitioko jaiak zeintzuk izaten ziren: San Antolinak, Gorpuzti eguna, San Pedroak... San Pedro egunean kaxarranka egin izan da beti. Dantzako musikarekin abesten zen kanta. San Antolinetan ze ospakizun egoten ziren. Lehen ez zieten uzten emakumeei antzarretara joaten. Antzarren jokoa nola aldatu den. Zazpi eguneko jaiak egiten ziren San Antolinetan. Lehenbiziko egunean "Anteroren jaitsiera" egiten da. Dantzaldian neskak dantzan egoten ziren eta mutilak dantza eskatzera joaten ziren. Lehen ere etortzen ziren kanpotarrak Lekeitiora. Autobusean inguruak erakustera eramaten zituzten. Antzar egunean ere etortzen zen jendea, beti izan da ezaguna eta.

Transkripzioa
- Eta lehen jaidxak eta zelakuak izaten zirian?
- Jaidxak, San Antoliñak aparte, ezta? Gorpuzti euna, Santa Pedro euna, San Juan euna... hor [...]. San Pedro egunian kaxarrankia, eta berena holako kantia holako [...] “Zeure bular arteko krabelin [...], zeure begirada horrek [...], ai ze leku ederra pilareen onduan, hantxen ixango duzu laurak inguruan”. Jantzako musikian, ezta? Hori andren dantzi ixaten zan andrena, ontxe be eitten dabe hamen andrak, lehenotik datorrena da hori.
- Ta San Antoliñak zelakuak ziran, ongoak modukuak-edo?
- Bueno, San Antoliñak guztiz aldatu dira gauzak, ezta? Baiña bai, pelota-partiduak ordun denporatan ta gero kanpotik banda pare bat joten zirin, hortik kanpora gero ba antzarrak-eta... danak antzerakuak ez da? Baiña on beste jokaera bateaz, lehen ez zan ixten emakumiari juten antzarretara. Gizonak baiño. Lelengo lelengo, gidxonak abantian, baiña “a toda vela” juten zin. On ganora barik, beste [...].
- Lehen ze zan? Gogorraua?
-Bai, lehen deportibo, baiña on beste era batera, on neskak eta mutillak, esku sartzeko moduan.
-Eta ze egoten zan? Zeoze espeziala San Antoliñetan? Zeoze eitten zan?
-Ba ez, zazpi eguneko jaidxak eta eon diz ba.
-Zazpi egun? Ondo orduan.
- Lehen modu batera, bizperatik, bajadia eitxen da on, lehen eitxen ez dabena. Ta elidxako kanpadorretik bajatuten da Anteron. “Anteron Txamarrotia Francoren bigotia, harexek ei dauko preso Euskal Herridxa” esaten da da. Ha bajatzen da on, [...] ta gero ayuntamientun urteten dau eta gero plazan batzen da gazteridxa, eta eitten dabe erromeri itzala.
-Eta gero ze egoten zan? Bailia-edo?
-A, hori baili bai oño, baili bai, baiña ongo modura ez, neskak urteten eben [...] ta mutillak: “Jungo gara?” [...] Juten gara ta, “ondo banatuta daoz, bueno ondo dao”, lagundu ez. Jungo gara beste batera ta, harek “bai”. Ta ezer ez zan pasaten.
-Normalian ze izaten zan, baietza edo ezetza?
-Joe, ez bazan gustaten mutilla ezezku, ze herrikuk giñilez danok.
-Danak ezagunak?
-Bai! Ta kanpokuk bakizu, kanpokukin beti gustorago.
-Ta kanpoko jenterik egoten zan hamen?
-Bai bai! Ba ongo beste ez, ongo beste ez, baiña bai. Herri ingurutatik eta beti. Gure autobusakin ekarten genduzan-eta. Gero gabaz hamabidxetan eruten genduzan.
-Ta nora?
-Ba gehidxen bat aldiara. Ta gero aldiatik, beste aldetik ba Markiña

ingurura eruten zirin. Azkanengo, ariñao be noz [...]. Ekarri be bai Antzar egunian, antzar egunian... Antzar eguna famosu ixaten zan beti.

3.3. Zinemara

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/069
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 02:32:13. **Bukatu**: 02:34:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Zinemara askotan joaten zen. Ezkondu aurretik ostean baino gehiago joan zen. "Mascara de hierro" pelikula ikusten zeudela, bere lagun batek kaka egin zuen aldean. Bi zinema-areto zeuden Lekeition: Goraburu eta Beitia.

Transkripzioa
- Eta zinie, ziñera...Zuk, ziñie ezautu zendun?
- Zinera be bai. Zinera, uf! Ziñistak giñin.
- Baiña ume-ume ziñanian edo geruao?
- Geruo, geruo.
- Baiña ezkondu aurretik, bai?
- Ezkondu aurretik be bai. Ezkonduta jun nitzen ni.
- Ta nun?
- Amak esan eustan ze. Zinie zan, sekule ez jate ahaztuten zinie be. “De hierro” zan beñipein.
- “Máscara de hierro”?
- “Máscara de hierro” pelikulie.
- Lelengo pelikulie ikusi zenduna?
- Ez. Lelengua ez. Ederra dala-ta haxe ikusi bihar dogula /bioula/-ta. Ta “Bai eruten badozu umia. Hau neskia. Gotzone” edo Gotzone, nik?
- Daria, izengo zan?
- Daria! Hauxe gaztena. Nesketatik gaztena. Ta Daria, ta halako baten “Máscara de hierro” urten eutsan kakak. Ta: “Aaaa, hamen da hatsa! Eneee, haxe hatsa!”. “Máscara de hierro” edo ikusi barik, hiru txori txiki pagatuten neban. “Aquellos de tiempo de cuplé”.
- Ta ziñie nun egon zan orduntxe?
- Zine bi, zine bi euzan Lekeitton. Bai, handidxak ganera. Goraburu ta Beitia.
- Eta zenbatero juaten ziñen ziñer, zuek? Noizien behin edo? Askotan juaten ziñien?
- Bai, askotan. Nahi dot esan domeketan.
- Merkie zan ala domekero juateko?
- Ba, hiru txori txiki. Eskatu ein bihar amari-ta edo. Emoten eutsun tiok edo horrek zinerako.

3.4. Plazako dantzaldiak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/073
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 02:39:18. **Bukatu**: 02:42:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Dantza
  Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Plazara joaten ziren gaztetan dantzan egitera. Domekero plazako kioskoan egoten zen banda; horrekin lotuta, aratusteetan kantatzen zen erdarazko abesti bat kantatzen du. Mutilak joaten ziren neskengana dantzan eskatzera.

Transkripzioa
- Hoba ez! Baltsiuan domekan-domekan. Batzuk handidxek parte baten eta gu txikidxok. Baiña ikasi guk, guk eurok baiño hobeto.
- Hori plazan?
- Plazan.
- Eta ze egoten zan, gramolie edo...?
- Ez, musikia.
- Jentia etorten zan musikie joten?
- Bai. Berton euan hamen musikie.
- Bandia-edo?
- Bandia. Bandi beti egon da Lekeitton.
- Ze, han plazako kioskuan?
- Nire denpora guztidxen egon da. Kantie, kantetan eben:
“Estaba Dolores en el mirador, haciendo las señas, haciendo las señas para el director. Su madre le dice: Dolores, por dios que tú eres muy joven, que tu eres muy joven para el director, para el director”. Ta gero karnabaletan kantaten eben hori. Hori pentsatzen dot nebak asmau eutsela arrebiai. Ze harek abillak zirian euren. Erre jakun Manolito, hau baiño ariñagokua? Harena zan bertoko Manolon hori, besutakoa. Beti pinttaten eban hori. Jun hara kanposantura ta beti. Manolito pinttata.
- Ta ze izeten zan, domekero egoten zan bandie plazan? Domekero-domekero?
- Bai, domekan-domekan bandia.
- Ta ze ibiltxen ziñien, neskak alde batetik, mutillek bestetik edo zelan?
- Bai. Mutilla etorten jatzun eskatuten hori. Ta ez ekidxela ondo, aittu zer eitten genduan? Ya hazitxuk giñila? “Honek ez dakidxe ondo ta atara bez zapaldu eitten dabe-ta”. Hori jentia ba, han be, pisadan ta dana beteta. Jentie begira, ta: “Fulana!” Ta “zer?”. Ta mutillak: “dza”, ein dabe bueltia, ein dabe bueltia. “Ez da izen izebe, ez da izen”, geuk. Ta haxe eitten genduan; geuk nahi ez dounaz. Bestela arpeikue inkaten eutsuen. Haxe eitten eben, jo.
- Ezetza emon ta jo? Ezetza emon ezkero...
- Ezetza emon ta beste batzuekin ikusten bazaittuzen, eitten eubena baltsiuan: “blas” arpeidxan.

3.5. Oilar- eta untxi-harrapaketak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/075

- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 02:43:28. **Bukatu**: 02:44:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: San Antolinetan oilar- eta untxi-harrapaketak egiten ziren plazan. Antzar-jokoko antzarrak lehen bizirik egoten ziren.

Transkripzioa
- Leheno be baltsiuan ta erromeri handidxak eoten zirinin. Oillarrak imini han-ta atrapaten oillarrak-eta. Gurin Enrike zan […], ezkonduta daola. Zemat konejo atrapa bazan? Haunbeste konejo atrapa bazan.
- Plazan soltaten ebazen ta…?
- Bai, solta ta nok atrapaten daben harexentzako. Ta zazpi-edo atrapa bazan konejuk.
- Eta gero antzar- jokoa eta? Zuk zelan ezagutu dozu?
- Antzarrena? Antzarrak beti. Bueno, bizirik be atrapa eitten eben lehen.
- Zuk, holan ezagutu dozuz?
- Bai, ezautu dot bizirik daozela.
- Neuk be hori ezautu dot.
- Bai. Gero hil eitten dabez horrek.

3.6. San Pedroak eta San Juanak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/077
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 02:45:33. **Bukatu**: 02:47:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: San Pedroetan jai handia egiten zen, itsasoan zeuden enbarkazioak ere portura sartzen ziren. San Juan bezperan, merkatu-plaza ondoan zegoen errekan egiten zuen sua; sasiak-eta ekartzen zituzten sutarako.

Transkripzioa
- San Antoliñek ezagunek die, baiña ze beste jai eukitxen zenduezan zu gaztie ziñenien? San Pedroak edo…?
- Bai, San Pedruk be bai. San Pedrutan be jaidxa. Ademas ganera, kanpun egoten bazirin enbarkaziñoik be porture sartu bihar izaten eben. Ta abidxua sartunda dagozala, mariñeruak, mariñeruak. Bai.
- Eta ze jai eitten zan? San Antoliñetan eitten ez zana edo ze, diferentzidxeten zan San Pedro San Antoliñetatik?
- Erraina: Ze gauza edo zertzuk gauza egoten ziren ikusteko edo eitteko, zertzuk gauza egoten ziran?
- Lehen, egoten zirin, horretxek. Baitta bizikletak be bai. Imini ta harek atrapaten. Zinttak atrapaten, eitten zirian.
- Erraina: Baiña hori San Pedrutan be eitten zan?
- Ez, San Antoliñetan.
- Eta gero San Juanetan, suek-edo?

- Sua, San Juanetan.
- Nun eitten zan?
- Ba Arranegidxan be bai. Nahi dot esan hamentxe. Arranegidxan be bai ta beste nun eitten zan? Hondarrin be eitten eben.
- Erraina: Baiña zeuk pentsa. Zeure sasoian, zeu gaztia ziñanian-ta ez on?
- San Juanak nun eitten zirian zeu gaztia ziñanian?
- Hamentxe errekian aurrien be bai. Hortxe. Eitten ebezen ekarri sasidxak. Harek mutillak ekarri sasidxak ta gorde eitten ebezen. Ta kaja zaharrak-eta eskatu, otzara zaharrak-eta dana. Zeiñek su handidxo ein.

3.7. Santa Ageda

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/079
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 02:50:04. **Bukatu**: 02:51:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena**: Baserriz baserri Santa Ageda eskean ibilitakoa da Jesusa. Abestia abesten du.

Transkripzioa
- Santa Ageda bai, neuk be Santa Ageda baserrixetara-eta dxuten giñan Santa Ageda kantaten.
- Ta ze kanta kantetan zenduezan?
- Santa Ageda?
"Santai Ageda, Ageda,
bixar da Santai Ageda,
bixar da Santai Agedai eta
gaur dala bizpera gaba".
Gero,
"Zemat sufridu zenduan,
[...]
zure gorputza kristau Ageda
arraspatau ebenian".
Baitta guk hori Santa Ageda:
"Santai Ageda, Ageda,
bixar da Santai Ageda,
bixar da Santai Agedai eta
gaur da bizpera gaba".

3.8. Aratusteak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/089
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 03:04:51. **Bukatu**: 03:07:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen

- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena**: Frankismo aurreko aratusteak xelebreak zirela dio. Orduko istorio bat kontatzen du.

Transkripzioa
- Karnabalak lehen be ospatuten zien ala?
- Bai, hamen bai. Lehen bai eitten zirina karnabaladak, karnabalak Franco baiño ariñao. Gero, gero iñor bez. Zer izeten zan ha karnabalak ba! Baten, ene ene, nik ein neban beste barre! Egoten zien andrak ikusten. Botikia, beheko botikia, esaten gontsaun guk honeri. Bakizu zein dan, ezta? Hantxe. Ta jesarritta jentia, sillak ekarritte ikusteko karnabalak, ikusteko-ta. Maskarak saltzen ebezan han. Ta bat hor jantzitta hiru gizon. […]. “Hau, Fulano dau beitu”. Fulano! Ta hasi idxoten. Ene! esan konta neutsanian hori. “Zuon aittak markia ein dau” esan neutsan hareri. “Ze ein dau, ba?” […] andra guztidxek negarrez bota gaittuzen etxera. Hasten da, bakizu zelan jun zan Petra Karolin. Beren aitta zan, beren aitta han Talan bizi zan-ta. Ta hasten da ittoten barrezka. Ene! Neuk ikusi dotelako, kontaten dotsut ba! Esan ein dotsat: “Beitu hari, zelan”. Hori jantzitta, baserriko jantzitta.
- Baiña orduan batez be, gizonezkuak janzten zirian orduan?
- Bai, andrak ez. Brusak jantzitta. Lehenao brusak eruten zirien; honako brusak, baserritxarrak. Ezautu dozu? Ta haxe jantzita etorri zirin hiru gizon ta andra batek ez. Ez dozu ikusten? Zelakua zan bera? Izen bikue zan beñipein. Aitta horrena, Jose Leon. Jose Leon jakon izena. Haren […]. Aitxitxa.

3.9. Antzerkia eta gau-eskola 'Acción Católica'n

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/009
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:10:50. **Bukatu**: 00:12:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Antzerkia
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Acción Católican antzerkiak egiten ziren gaztetan. Lokal ederra zen. Gaueko eskola ere bazen etxe horretan.

Transkripzioa
- Lehengo egunien komenta zendun gero Eskolapian “Acción Católica”.
- “Acción Católica”, bai. Hantxe Banko Bilbao daon tokidxan “Acción Católica”. Ba mutil gaztiak, neskak ez, mutillak eoten zian han gehidxo. Abade bat euken eurakin eitten zana kargu-edo berton. Bueno, ta eitten zirian antzerkidxak, lantzin antzerki bat eitten zan. Polittak, ganera, eitten zirin, e? Ta haulantxek beteten zan enseidako “Acción Católica”n teatru dola ta, ba, danak “Acción Católica”ra.
- Bertan, lokalan?
- Bai, lokala ederra da ta, ezkatza be baeukan lez, [...] ezkatza, gero eszenaridxuen tokidxa be bai, zelako teatro polittak eitten ebezen! Neska itsu batena, zelako politto eiñ eben. Lekittarrak. Auntxen be gogun daukat, Jose Mari Aranburu, hil zan baiña, ta neskia ez dakitt, ba, beren andri bazan ala… Baiña, karo, [haxe kontateko] ta neskak. Mª Luisa Gabiola, hor

konpaiñian be kantaten dabena, abos fuertia; bueno, koruan be badao. Harek be [....] kuadrillia. Niri iñoix esan eusten juteko, “ez, ez. Ez daukat astirik”. Gu ordun “Acción Católica”n barik eoten giñian, nahi dabenak, baeuazan ni baiño zaharrauak etorten zirinak, umetan dotriñarik ikasi ez ta, ba, dotriñia ikasten. Emoten eben, ba, dotriñia hantxe, [astetia], ba, hantxe, “padre nuestro” ta, ba, nik banekidxazan, ezta? Baiña gero beste gauza batzukin ta ba. Ta gero ez zekidxenak, eskolan ibili ez zanak-eta, ba, emoten eben lekturia, leidu, eta guk eskribidu. Ta ez zekidxenak eskribiduten ta, bat eukitten eben alboko aldian. Karo, ni jun nintzan eskolara, baiña harek, eskolara bakuak zirinak-eta, ba, leiduten ta eskribiduten, ta hantxen, gabaz, hantxe ikasi eben, behiñik behin.
- Ta gabaz?
- Bai, gabaz eukitten gendun, zortziretan edo.
- Gabeko eskolak edo?
- Bai, gabeko eskolia. Ta edozenbat neska eoten zirian. Mutillak “Acción Católica”n eoten zirian, ta gu haraixe eskoli... Bueno, mutillak bertan emongo eutsen ta... Gu, neskak, lantzin [bat] hantxe, ontxe Don Benito ta bixi dizen tokidxan. Karo, han bertan kalian, bertan euan eskolia.

3.10. Goraburu eta Beitia zinemak

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/010
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:12:53. **Bukatu**: 00:14:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Zinera asko joaten ziren gaztetan; zine mutua zen hasieran. Gustura joaten ziren "beltzen" gorabeherak ikustera. Goraburu eta Beitia ziren herriko zinemak.

Transkripzioa
- Ta habitaziño baten. Karo, on horrek [...], baiña lehen beste etxe batzuk zirin ta on barriztuta daoz, ta lehen hantxe euazan eskolak. Ta juten giñin umetan be, emoten ebezen –ta haretxek ikusten pozarren gu– baltzen zinia, indidxetako baltzen zinia. Ume koittaduk ikusten genduzanian ortozik eta ba. Mutuak zirin, ganera, osake “peliculas mudas”. Baiña haretxek ikusten pozarren. Gerorutz atara ebezen berbak ataraten ebezenak, baiña mutuak. “Guazen mutun pelikula politta [...]”, beti haretxek baltzenak ikusten, seminaristak. Monjak juten zirinak bertara ta hori. Ta politto ikusten genduzan arratsaldian haretxek ziniak, besterik ez daukaun lez, ba, haixe. Ha debalde ixaten zan lez, arratsaldetan eoten zan, domeketan, hiruretan, seiretan ta bederatzitan, ordun txandan. Gero, hiruretakua ez dakitt bostetan ipintten baeben ala kendu eben, gero zazpiretan ixaten zan, behin arratsaldeko zazpiretan, ta gero bederatzidxetan, gero bederatzi ta erdidxetan, gero hamarrera aillaa zan, baiña, bueno, on hamarretan ixaten da antzanekuak.
- Ta hori nun ixaten zan, bertan...?
- Han, Goraburun, hortxe batzokidxa don tokidxan Goraburu zinia, ta Beitia daon tokidxan Beitia zinia. Ta gero atara eben ontxe zine barridxa daona, gero hori ixan zan. Bestelan Goraburu lehelengo beti, Goraburu zinera. Gero Beitia. Beitia be zaharra zan, e?

3.11. 'Sagunto' eta bere lagunak tabernaz taberna kantari

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/018
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:28:33. **Bukatu**: 00:29:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena**: Begoñaren nebaren taldea kantuan ibiltzen zen tabernaz taberna. 'Sagunto' esaten zieten familia guztiari, Saguntotik etorritakoak zirelako.

Transkripzioa
- Bai. Neure nebia egon bazan, bueno. Eurak zirian kuadrillia eta eurak ipiñi eutsen nebiari kantetan 'Los Manis'. Ta deittuten otsen: "Hamen...". Tabernetan sartzen zirinian, tabernakua ba euazan kantaten edo koadrilla handixa ordun txikiteuan. Txikiteua baiño, bai eitten zan txikiteua bai, baia ongo moduan txikiteua ez zan eitten lehen. Lehen, hamaiketakua-ta jaten ebezen, zaharrok zirinak hamaiketakua [...]. Kuartillo bat ardau atara sei lagun-bost lagun, zenbat daozen. Gitxi egoten bazirian, ba koartillo erdixa, basotxun ha edateko. Nok galtzen daben, haretxek paga. Ta zeuzer [...] bazuezen ba kuartuillo bat. Ta holantxe egoten zin tabernetan kartetan. Ta sartzen zirian igual batzuk kanta batzuk ba berba [...] latxeik. Ta sartzen zirin: "Ixi-ixi! hamen datoz kantoriak, hamen datoz kantoriak!". Jakindda zozer kantako dabena, ze beti egoten ziran kantaten-ta. Eta horrek kantak kantaten ebezen ganera [...]. "Abillak diz honek mutillok ba!" mariñeruak. "Abillak diz honek mutillok ba! Edozein kanta ataten dabe. Eingo neuke posturia, harexek Fernandok eingo bazan, harexek Saguntok". "Ez da Sagunto" esaten otsan beste batek. "Antsotegi da-ta". "Ze Antsotegi?". "'Sagunto' Saguntotik etor ziren horrek-ta". "Ba, baia bera Lekittokua". "[...], baia handik etorri zan". Hauxa diskusiñoia gizonak.

3.12. Lekeitioko taberna tipikoa

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/024
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:37:05. **Bukatu**: 00:38:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena**: Lekeitioko taberna batez. Gizonek beren jakiak eramaten zituzten etxetik eta han jaten zituzten, edaria aterata. Tabernaren deskripzioa.

Transkripzioa
-Saregiñen eoten nintzan lez ni, mailla bakarrak ya sareiñen. Ta ordun taberna bat euan, Primenekua dago on be bat, ezta? Bat dago, harek

kanpotarrak daukona, gero Primenekua ta gero dago beste bat, ezta? Beste bat dao on, bai, Gau Txori-edo, ez Gau Txori hamendiku da. Ta hor euan taberna bat Maria Santonio ixenekua. Maria handi bat zan, semi be halakoxi ta Mari, alabi, be bai. Baiña, tabernia, osake, han taberna-tabernia, lehenaoko taberna-tabernia, beren mostradoraaz ta beren eskatzaaz-ta, ba, eitteko. Ta hor egurrezko banko luziak, bankukin mahaidxa luzia ta gixon asko eoten zirin han [...]. Ta ordun ibiltzen zirian askok hamaiketakua, igual [...] lauretakua, hamaiketakua be, lauretakua be bai, tarteratxutan hori, epelin jateko edo bestelan be bai, tartera, tarteri ta ogi zatidxa. Gixonak han juten zirin tarterakin tabernara, haxe lauretakuaz, [...] gero kartetan ein [hantxe] ta. Han doiaz euren jakidxaaz, baiña derrior, gizonak, derrior jakidxa erun bihar. Haxe. “Jakidxa arratsalderako”. Osea nahidxao eguerdidxan, zeozer ganetik baeuan, andrik esaten baeutsan “ez daukat jakirik, ez dot erosi gaur jakirik ta ez dot... Arrautzia eruten ez badozu, ba”. Iñoix, iñoix toka jat gixonak, saria hantxen ta, arrautzia eskun ta ogi zatidxa bestian. Karo, arrautzia apurtu barik erunda, ta arrautzia eruten be. Ta, bestelan, edo arraiña edo etxin zeozer eindda edo kolaidxua prejidu [...]...oOdun kolaidxuak egoten zirin asko ta, ba, ahal dabenak ahal dabena, baiña jakidxa, makaillaua bada be edo zer dan, baiña jakidxa. Hoixe, tarteriaaz.

3.13. Taberna zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/014
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:20:40. **Bukatu**: 00:22:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Gardata auzoko tabernako nagusia Antonio zen. Sagardaua saltzen zuten. Moilan eta herrian ere pare bat lekutan saltzen zuten.

Transkripzioa
- Taberna bat egoten zan.
- Bai, bai, bai. Hori... Antonio eoten zan han. Tabernia, aizta bi. Ha ixaten zan taberna bat, txikitxu zan, baiña haraxe juten zan sagardaua eraten dana jentia, sagardaua saltzen dabela han ta. Zubidxen be sagardaua saltzen daben, moillan, moillan be bai, hiru lekutan-edo. Leku [gitxittan euan] sagardaua. Hamen be bai [Moeteneko] tabernan, han beheian, han Bizkalian, batzokidxe baiño haratzatxuao. On etxe barridxek doiaz han, asto-kortan. Asto-korti zan lehenao han.
- Hori Agarrenekuk euki ebana fruteridxa?
- Fruteridxa? Ha Agerreneku zan. Etxe barridxek eindda doz han. Ha [...] etxiek, teillatuk eta hormak eta itxi detsez eta eitten, eitten daoz han etxiak.
- Ta hor zan, hori zan asto-kortia be bai?
- Bai, bai, asto-korti hortxe be bai. Haretxekin bixi zin harek. Ondik bixirik daoz harek. Harek asto-kortia euki eban. Jauregi, Jose Mari Jauregi.

3.14. Jatetxe, hotel eta zinema-aretoak

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/031
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:45:25. **Bukatu**: 00:46:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Zinema
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena**: Eskolara goizez eta arratsaldez joaten ziren. Bazkaltzen etxera joaten ziren. Ez zegoen jatetxerik inon jan ahal izateko. Lekeition Leihope dagoen tokian zegoen hotela. Beitia hotela dagoen tokian zinema zegoen. Goraburun ere bazegoen zinema-aretoa.

Transkripzioa
- Jatekua eruaten zenduan eskolara?
- Nora? Ez.
- Zenbat denbora egoten ziñien eskolan?
- Ba, goixian, goixin beatzitan sartun ta hamabidxetara arte-edo, eta, gero, arratsaldian ordubidxetan sartun ta arratsaldeko bostetara arte.
- Ta bazkaldu?
- Bazkaldu, etxera. Han ez euan restaurenterik lehenao, Lekitton restauran, baakixu zer eoten zan leheno? Hamentxe kalin daona, Klementenekua, Leihope. Baakixu nun daon? Haixe zan lehenao hotela. Hotel Beitia, on hotel Beitia, ze lehenao txikidxa zan ta. Zinia hantxe eoten zan. Ha zinia be [gerran] hau eindda dao on, alkilla [...].
- Gero Goraburun be eoten zan zinia.
- Goraburun bai, bermitarrak. Ha bostetaku zan. Ha bestia zarratu ein daben, ta ein daben zine barridxa, han, Zumatzetan, zinia. On be hantxe dao, txiki bat.
- Bai, bakarra.
- Gero, ha Beitiakua zarratu eban ta ondik han dao ha, iñor ez da sartun barruan, automobillik be ez, ta ezer be ez.

3.15. Praka zaharrak bainujantzi

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/018
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:23:00. **Bukatu**: 00:24:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: San Antolinetan Ondarrean egiten zen jaia. Ez zuten bainujantzirik, praka zaharrak ziren bainujantzia. Kaitik Karraspioraino igerian joaten ziren. Emakumeak ez ziren bainatzen.

Transkripzioa
- Ta ze eitten zenduen San Antoliñetan?
- Ba ahal dana. Hortik edo hemendik-edo ibili ta... hondar, hondarrera.
- Hondarrera?

- Bai, sarri ein dou, han Txitxarro kaleko, on, han grua dona ha moillan? Ha sikatu eitten zan. Ha portua ni gazti nintzanin sikatu eitten zan. Ta bertan itxi, jantzi praka zaharrak. Ordun ez euan trajebaiñuk erosteko dirurik be, ta etxetik, ra, juan ta Karraspidxora. Ibili han eguerdira artian ta igiri, ostera be, etxera.
- Eta trajebaiñurik-edo bai?
- Nok eukan trajebañu erosteko diru ba? Zer? Praka zaharrakin-ta, atara.
- Baiña ze, praka laburrek?
- Bai, bai, bai. Ordun iñok be [...] harek eta itsasunak zien. Itsasuan zabixenian ba, baiña bestela laburrak.
- Andrak?
- Ba, akostunbra eitten da haretan.
- Baiña andrak joaten zien Karraspidxora?
- Andrak? Gitxi.
- Hondar txikiñera?
- Gitxi, gitxi. Gure gazte denboran andrak gitxi. Kridxadak-edo udan etorten zien aberatsakin. Bai, umeren batzukin juten zirin bat edo beste, baiña gitxi. Honek gero diraz, gero. Ondo eitten dabe, ganera, [aprobau] ixatie.

3.16. Kaxarranka San Pedrotan

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/019
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:24:42. **Bukatu**: 00:27:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: San Pedrotan Kofradiak ordaintzen zuen ardoa. Ez ziren itsasora (atunetara) irteten uztailaren batera arte. Kaxarranka eta ezpata-dantzariak egoten ziren. Murelagatarrek urte askoan egin zuten dantza hori

Transkripzioa
- San Pedrotan, ze gauza?
- San Predrotan? San Pedrotan emoten gaittuzen bakotxari litro biña ardau kofradixan, baiña gu gaztik giñin artian, ta etxekuk, etxera eruten genduen. Baiña gero ba, geu irabazten hasi giñenin be geuk eukitten gendun ta etxera altzaten eben, bai, ta kofradixak pagaten eban, baiña on eitten dana San Pedruk ta San Pedro Txiki eguna ta... Guk urteten genduan San Pedro Txikin gabeko hamabixetan. Jentia bakixu hasi ta mozkorraz juten ta gero hori kendu eben, San Pedro Txiki egunian gabeko hamabixetan urteti itsasora, bai.
- A bai?
- Bai.
- Ta ordurarte ez ziñien urtetan San Pedro egunez?
- Ez, gu hurrengo, juniua, juliun batian urteten genduen.
- Ta ze egoten zan?
- Atuna, atuna.
- Atuna?
- Atuna.

- Baiña San Pedrotan zer egoten zan gaztientzat herrixen?
- San Pedruak ezebez, e kaxarrankia ta plazan jantzan, hor, zelan da… Ezpata jantzarixak, ezebez.
- Nor ibiltten zan, nor igoten zan kaxarrankara?
- Ba ni gazti ixan nintzanin hori zan, askok, askok igon/ ion/ dabe ta, hori zan neure lagun baten, Kazorren aitta zan, Iñazio, Iñazio Murelaga, haixe zan. Gero ba etorri diaz, euren razia Murelagatarrak ixan diraz. On azkanengo dagona /dona/ Mendexarren seme bat da, Mendexarra, gaztia, baiña urte askuan bertako familiko razi ixan da. Jakin ein dabe /iñddabe/ jantzan ta.
- Ta beti Murelagatarrak ixen diez?
- Bai, asko, urte askuan.

3.17. Ortozik pilotan

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/035
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:47:02. **Bukatu**: 00:48:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Pilotan asko egiten zuten. Ortozik, ez zegoen abarketak erosteko dirurik eta. Eurek egindako pilotekin. 1906an egindakoa da Lekeitioko frontoia.

Transkripzioa
- Gero frontoin asko pelotan be bai.
- A bai?
- Bai… oin ortozik para ta… ez zeuan abarketak erosteko dirurik eta kendu abarketak eta.
- Ta zelako pelotak zien?
- Ba geuk eiñikuak, geuk eiñikuk ahal dan modura, gomiaz barru ein eta, gero harixakin […], laniaz ta.
- Zuek eiñikuek. Eta nun olgetan zenduen? Frontoia nun euen ba?
- Bertan, gu jaidxo giñin… mil nobezientos seisin-edo eiñikua da eta… frontoia. Gu baiño asko ariñau eiñikue da.
- Lehengo frontoie?
- Bai.
- Hor kontzejupien-edo ez ziñien ibiltzen?
- Ez!
- Ez? han ez?
- A hori frontoian.

3.18. Bi seme zesta puntako jokalariak

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/037
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:48:32. **Bukatu**: 00:49:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Lekeition pilotari onak izan dira. Akarregi eta Mendieta famatuenak, eskuz. Bi seme zestako pilotariak izan dira. Bat Ameriketan bizi da eta bestea Milanen. Milanen ere egon zen frontoia.

Transkripzioa
- Ta hamen, frontoi eukindde, Lekitton eongo zin ba pelotari onak.
- Bai bai bai, egon diraz, egon diraz bai.
- Zeintzuk?
- Asko jokatute, bueno baiña, badakixu ze eguan? Jateko dirurik ez eguan, ta danak itsasora, hantxe eguan ta, baiña pelotan ondo jokatuten ebezenak be baeguan e? urten Akarregik bakarrik urten eban, bai Akarregik ta Mendieta bestie.
- Ta zure semiek be esan dozu...
- Ez, harek, zestakuk diraz, zestakuak, Ameriketan daukat bat ezkonduta, urtin urtien etorten da. Ta besti Italien. Ha be urtin urtien, udan.
- Ta Italian nun dau ba bestie?
- Milan.
- A, Milanen.
- Han badau euskal etxie frontoi ta guzti, Milanen!
- Ez. Harek ez dauke.
- Ez, Milanen dauela euskal etxie fronto ta guzti.
- Egon zan, eongo da zestakua.
- Bai baiña...
- On ez.

3.19. Pilotara jolas-orduan

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/019
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:18:58. **Bukatu**: 00:20:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Eskolako jolas ordua ordu erdi izaten zen. Frontoira joaten ziren leihotik salto eginda. Maisuak berak ere errazten zizkien jokoak.

Transkripzioa
- Ta eskolan ikesi bai, baiña olgau be eingo zenduen, olgeu.
- Bai bai bai bai, errekreue beti. Errekreua ba igual hamaika terdixek edo ixaten zan, ordu erdi, ba hamar terdixek bueltaria, ze hamabixetan urten eitten gendun ta, hamabixetarako urten eitten gendun ta. Ta ariñao prontora allaten giñin ta bentanatik saltata juten giñien ta prontora. Kofradixa hau atzin baakixu bentanak dekoz ta eskolia, bajatu behera ta salta fabriki dagon /don/ lekutik eta danok prontora pelotan, "ordue da" aiiiii aiiiii igo /ion/ ostera be /ostabe/ gora ta bertatik bentanatik ostera be, gora ostera be, juten giñian bai, bai, bai.
- Ta bertatik kofradittik zihar frontoira?
- Bai, ta gero berak, berak Don Paulinok, ba sare zaharrakin eindda, haunako erroberak berak ein eitten [gaittuzen], sari jositta ta gero berton be ibiltten giñin haukin, jokuk, jokuk eitten ibiltten giñian, haunan ibiltten giñian Alonsoaz, maixu ona zan, maixu ona, ona.

3.20. Jaiak San Antolinetan eta Ama Birjinaren Egunean

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/021
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:21:22. **Bukatu**: 00:23:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: San Antolinetan egiten zen parranda, herriko jaietan. Ama Birjinaren egunez ere egiten zen festa. Festa-egunak aldatu ziren diru asko galtzen zutelako. Ez zen gauza berezirik izaten jaietan.

Transkripzioa
-Ze egun izaten zan parrandie eittekoa?
-San Antolin, jaixak zirinian. Jaixetan. Bestela ez, bestela buruhaustik eukitten ginduzen ta, holakoxe bat edo bat iual e besigutan neguen ein gendun modura ta halako, halako bat edo bat, baiña bestela San Antolin jaixetan, San Antoliñetan.
Gero ordun Ama Birjiñien euna be eoten zan orduan. Ama Birjiñen euna be zelebraten zan, on ha gero kendu ein zan, Ama Birjiñen eune kendu ein zan eta San Antoliñetara pasa da. Horrexeaittik ipiñi eben San Antoliñetan Ama Birjiñen eunerarte “el día ocho” arte, Ama Birjiñen eunerarte, bat kendu ta eunak gehittu San Antoliñetan ein eben orduntxe. Geuk ein genduen, mariñeruk geuk ein gendun hori kofradixan. Ha kendu ta, dirua sobratzen zan ta, diru asko eitten zan e halako, txarto eitten zan ze, hamabost egun barruko gauzi zan lez, "quince de agosto y hasta dos septiembre” ba hamabost eguneko bueltari ixaten zan, ta asko, asko galtzen zan orduen, arrantzan asko galtzen zan. Ta pentsa genduan ba ha kendu, ta mariñeruekin e? Mariñeruk berba eindda: “Gixonak ba hauxe ta hauxe e jaixak ta” Mariñeruk, Lekittoko mariñeruk "Jaixak kendu? Ezta pentsa be! ". "Bueno ba mutillak hauxe pasaten da eta hauxe halakua, ta San Antoliñetan eingo dogu /eingogu/ ba". Hillen bosterarte eitten zan lehin. “Ta San Antoliñetan eingo dogu /eingogu/ ba hillen zortzira arte, egun gehixo, hiru egun gehixo”. Ta orduntxe mariñeruk konforma zirian ta.
-Eta zer egoten zan han e Ama Birjiñen egunien eta San Antoliñetan eta?
-Ezebez, gauza bat ezebez, haixe jaixa bakarrik, Ama Birjiñen eguna dala

ta ba, lehinddik eon zan lez hori, lehenagotik, gure aittittak ta gure aittak eta Ama Birjiñen euna ba, beti haxe, eruten zan. Jaixa eindde euken ta, eurek jaixa eindde euken kofradixan ta.
-Baiña ze gauza egoten zien kalien eta?
-Ez ezebez, ezebez, ezebe ez zan egoten. Ezebez.
-Zozer egongo zan diferentie!
-Ba diferenteik ezebez, egun diferenteik ezebez. Ama Birjiñen egunin ezebez, zeozer igual, ez dakit eoten bazan prozesiñoren bat edo, eoten bazan edo, ez jat akordaten ondo, ta [...] prozesiñoren bat edo. Egun baterako, dana egun baterako.
-Barkilleruek eta barrakak eta holan?
-Horrek San Antoliñetan etorten zirien, San Antoliñetan, Ama Birjiñan egunian ez zan eoten barrakarik, San Antoliñetan.

3.21. Gerra aurretik inguruko bandarik onena Lekeition

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/023
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:25:53. **Bukatu**: 00:27:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Musika
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: Baltseoan egiten zen plazan, gramolaren edo dultzainaren soinura. Gerra aurretik banda ederra zegoen Lekeition. Neskarik gustukoengana joaten ziren dantza eske.

Transkripzioa
-Haunexek, Juan aguazillek ipintten eban hori diskua, diskuak, altaboza, altaboza handik e..
-Gramolie edo?
-Bai, gramolia ajuntamientotik, ta eitten genduan. Ta gero gure nire aittaiñarreba ta horrek gabiolatarrak, horrek dultzaiñiaz jo be bai, harek be dultzaiñiaz ta joten eben sanantoliñetan joten eben ta eitten gendun baltsiuen. Gero gero bai gerra aurretik ez, hau diñot posgerraku esaten neon e? gerra aurretik banda ederra eguen Lekitton, bandia... baia kategorixako bandia euen Lekitton.
-Bai.
-Gerraurrian ingurun hamen eon danik bandarik onena igual Lekitton. Ta ordun ba gu ez giñin, gu umiak giñien ta, baiña geu gazte denporia geuria ba Pranko horrek zantar horrek danak kendu gaittuzen ta, bandia be kendu ta danak kendu.
-Ta zelan hasten ziñien baltsioan?
-Ba norberari gustaten jakon neskiana jun, gustaten danagana /danana/, nora jungo zara ba? Gustaten danagana. Zeu noana jungo ziñatekez? Mutilla gustaten jatzunana, ezta? Bai [ziñien] jungo.
-Ta zuek neskaiñe edo neskak zueiñe?
-Geu, beti geu, gixonezkuek beti neskiana, beti orduen denporan juteko. Gaur ez, gaur harexe neskia gixonezkuana ezta? Egixa da horixe ezta?
-Beste iñok kendu orduko!
-Bai, bai.

3.22. Antzar jokoan errekorra Julianek

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/025
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:28:31. **Bukatu**: 00:30:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Antzar jokoan errekorra du Julianek: sei bandera. Ilobak ere onak izan dira baina gehien duenak lau ditu. 1949an lortu zuen azkena.

Transkripzioa
- Antzar jokue?
- E?
- Antzarrak?
- Antzarrak... [nahiku bandera neuk daukat atrapata], neuk. Haunan ez ein. Nire etaparik iñok bez deu ein. Lobak be abillak ixan diraz. Danak dauke launa, "Balenziak" be lau dauko, neuk bakarrik atrapa dodaz sei. Sei bandera, han daoz etxian.
- Ta antzar jokue?
- Banderia, banderiori, palun eoten da banderia, palukua, masta puntaku esaten deutsune /esatetsune/.
- Bai, Masta puntakua.
- Bai, sei daukadaz neuk.
- Ta zer da, errekorra?
- Errekorra neuria, ez dago /do/ Lekitton, iñork ez dauko errekorrik. Hori errekorrori ez dauko iñok bez /iñope/.
- A! Ta zein da trukoa ba?
- A! neuk neukan abillidadie ta!
- Tragoak hartu barik joango ziñen!
- Klaro ba, trago barik, trago barik ba!
- Ta ze urtetan ibil ziñen zu han ba?
- Ba.. “hasta el mil novecientos cuarenta y nueve” arte, “cuarenta y nueve” arte. Atzanengo banderia atrapa neban, kuarentainuebin atrapa neban. Ta launari esan neutsen, gehixorik ni ez nator antzarretara e! Zeuek nahi dozuena /nahizune/ ein, baiña ni ez nator gehixorik. Orduntxe hasi zirian, emakumik halakora, pasakerutara ta, dana nahastia ibilli zan. Desitxuratu ein eben antzarrak, antzarrak eleantiak ixaten zirin orduen ta. Batzuk moro jantzitta ta. Oseake, ikusi nebanin hain desastria, lagunari esan neutsen, bueno mutillak, banderia atrapa neben, hau da azkanengo banderie e?, ni ez nator gehixorik. Segidu baneban han beste hiru urtien be, beste hiru urtien be neuk atrapako neuen banderia.

3.23. Gaur egun zeharo desitxuratuta dago Antzar-festa

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/026
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:30:18. **Bukatu**: 00:31:32

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Zeharo desitxuratu zen harrezkero Antzarren Festa. Lehortarren erruz zati bat. Txalupa eroaten ez zekien jendea sartu zen, eta kanpotarrak ere bai. Azkenengo urteetan behin bakarrik ikusi du. Ez zaio batere gustatzen.

Transkripzioa
- Eta andrak desitxuratu?
- Ba… andrakaittik bakarrik ez, andrakaittik ez, horrik lohorrekuk hasi zirian, lihortarrak hasi zirin eozer, edozelan txalopia ezin erun ondo eta, desastre bat, orduntxe esan neban. Ta ontxe be bardin-bardin, ni alkatia ixango banitzan ez zan eongo hainbeste traiñerorik, e? Pentsa bez.
- Lekittarrak bakarrik?
- Bai jauna, geuk eitten gendun modura, lekittarrak, lekittokuk, guk eitten genduan por ejemplo hogei bat edo…hogei bat txalopa edo, hamazortzi-hogei txalopa preparaten [genduzen] eta nahi ebenak, bilbotarrak etorri, geure launak, geugaz, danak geugaz, baiña on etorten jatzu Bartzelonatik eta edonundik dator jentia , euren kontura antzarretara, ongo antzarrak ya… […] nik ez dot ikusi e… “cuarenta y nueve”tik ikusi doaz antzarrak, baten bakarrik, bai bai bai , baten andriaz eta umin motorraz “ aitta eroan egizu /eruixu/ umikin” “bueno bai guazen ba”, jun giñian eta esan neutsan: Andria, gaur [erun doz] ta hurrenguan nahi badozu semikin zeuk hartu motorra eta zeu jun, ni ez nator eta.

3.24. Gelditu barik igo behar bandera harrapatzeko

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/029
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:34:52. **Bukatu**: 00:35:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
  Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Abila izan da bandera harrapatzen. Erritmoan igo behar da, gelditu barik. Familian hainbat daude hiru edo lau bandera irabazitakoak.

Transkripzioa
- Abil izan naz ni banderia atrapaten.
- Ta.., ba..., trukoa zein da?
- E?
- Trukue?
- Bai, bai abillidadia, bizkorra izan naz ni ta...
- Baiña... laban ez zendun eitten ala?
- Bai baiña, (...) neuk jakin [nuen] zelan juen. Han..., han ez da jun behar / biar/ geldi-geldi, han jun bihar da: `di-da, di-da´... ta segixan jun bihar da, banderia atrapa nahi dabenak, para barik, edo uretara edo banderiana. Segixan jun bihar da, paraten bazara... Ekilibrixua galtzen dea ta, segixan: `da-da, di-da, da´...

[…] daukoz lau, Pelotonek daukoz beste lau ta gure lobiak, bestik honek be […] be beste lau…Pamilixian laukuk dagoz /doz/, hiru edo lau edo daoz baiña tioana iñor ez da aillaga gero!

3.25. Inauteri itzelak gerra aurretik

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/030
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:35:44. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena**: Itzelak izaten ziren Inauteriak gerra aurretik. Txalupak gurpilekin kalean zehar, eta horrelakoak. Mundu guztia mozorrotzen zen. Gero Francok debekatu egin zituen.

Transkripzioa
- Ze Lekittoko karnabalak be, Franco aurretik be, famosuek izen zien?
- Ufff…bai, itzalak, gu umik giñenien itzalak, bai…Harek, marmu guztixari, han juten giñian, geu han, sakaka igual, e, txalopia, lihorrien erroberak imini eta geu sakaka ta. Gu, ume guztik sakaka. Harek, konpitxak botaten ebezen: `dza´ karameluek ta (…) jan ta saka beti, Moillan zihar, batera bestera, karnabaletan, bai. Hamen daukauz estudiantina onak ta, bueno, estudiantinak be edarrak egoten zirian. Erretatuk hamen eongo diz, estudiantinakuak, hamen behian… eongo diraz, orduko estudiantinakuak…, bai…
- Eta…,holan disfrazau eta eitten ziñien?
- Haur disfrazaten zin danak, iñok be ezagutu bez nor dan, bai.
- Ta ze erropa edo ze…?
-Ba, gu umik giñin ta gu ez giñin jantzitta juten. Gu gero gerra, posgerran ia…Francok ez eban ixten ia…Francok ez eban ixten halakorik, jazten, hamen.

3.26. Karnabal martitzenez gertatutakoa

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/031
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:37:00. **Bukatu**: 00:40:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena**: Behin Karnabal martitzenez arrain asko harrapatu zuten haitzetan, 'sabaixak', bisiguaren antzekoak. Bera eta laguna Ondarroara joan, arraina saldu eta diru asko hartu zuten. Sudur postizo luze bat zeraman Julianek. Aguazilak kenarazi nahi zion, baina ez zuen amore eman. Egun handia izan zen. Esaera zen sabaixa jaten zuenak ametsetak izaten zituela. Arrain ugaria zen, goroldioa amuan ipinita harrapatzen zena. Ez daki nola den erdarazko izena.

Transkripzioa
- Hauxe be anekdotia zan, hauxe politta kontako deutsut /kontakotzut/ auntxe. Pedro Juanen anaidxia, neure burua ta koiñatua ta koiñatuen anaidxia Mateo, laurok. Haitxetan hor, San Juanen. Handixik atrapa genduzan berrogeita zazpi [...] sabaidxak ixaten zirin, haulako bixigun modukuak ixaten zirin harek, sabaidxak, oraldidxaaz atrapaten zirian. “Martes de carnabalen” atrapa genduan, “Martes de carnabalen”. Euki doun, ba, han euki genduan jana, bazkan, bazkan, zuek horrek ez dakixue, baiña bazkan euan jana. Han jan gendun bildotsa ta, ta, zelan dauko izena? Angulak eta edozer jan genduan, ta juergan ibili giñian. Arraiñak euki genduzen ipinitta, otzaretan ipinitta, geure bodegan euki genduzen ipinitta, zazpi kinttaleko sabai atrapata. Ta Ondarrura jun bihar garila / bigarila/ koiñatuak, ta, ba, “jungo gara, bidxok jungo gara” esan neutsan koiñatuari. Ta honenbesteko surra bai, surra [...], surra neukan ha, lehengusu batek ekarritta euki neban surra, pinotxok baiño sur handidxaua. Ta han jun giñin bidxok. Aillaa giñin Ondarrura, zubi zaharren, Ondarruko zubi zaharren han euan bentia orduan. Ta guk, ganera, lengusuak euki douz han, parientiak. Aitten lehengusuen alabak-eta. Ezagutu naben ta “primo zer?”, ta “hamen” ta berak “ekarri-ekarri”. Guk ez gendun pentsaten balidxoko dabenik be. Atara genduzan arraiñak, “balidxoko dotsue”, arraiñik be ez euan Ondarruan. Hamen dator aguazilla, haulakoxie, Demetrio esaten eutsien, txiki-txiki. “Hi, `Lekitto´, kendu hori sur hori!” Haulantxerik esan neutsan: “ze kristo daukazu zuk on? Neuk hau surra kendu? Ta atzo Lekitton egun guztidxan erabili neban, ta neuk Ondarrun hau surra kendu?” esan neutsan. “Ba bakixu proibiduta daola”. “Nok prohibiduta dao ba? Nok proibiduta dao, ba? “Holan ibili zara Lekitton?” “Bai naz ibili” “Kendu [...]” “Ez dotsut kenduko” esan neutsan, “ez dot kenduko”. Ein eben bentia, ipini eben bentia ta, zazpi pezeta killoko sabaidxak [ein euskun]. Mekauen la pi...! Haixe da, hauxe da... bidxok dantzan, koiñatua ta bidxok, dantzan bidxok. Han geuazan surraaz [...], hauxe anekdotia pasa jakun. Ta harek aguazillak kentzeko ta “pentsa be ez” esan neutsan “pentsa be ez”. Bai. Sabaidxak. Haulako arraiñak zirian, bexigun modukuak. Ames... jan ta ames [eitten...], amesetan jentia. Ha jaten ebana egun guztin amesetan. Exajeraziñoi [...]. Sabaidxa.
- Sabaidxa erderaz zelan da? Badakixu?
- Ez dakitt zelan, “sopa”-edo esaten jako, “sope”-edo, holakoxe esaten jakon hurrian “sopa” edo holako zeozer, sabaidxa. Hori bedarraaz atrapaten da. Bai, amuan bedarra ipinitta, erridxuko bedarra ipinitta.
- Oraldidxa...
- Oraldidxa, bai, haretxek, oraldidxa. Bueno erridxora juten zirin horrek, jaten, mariaaz juten zirian ta hantxe oraldidxa jaten eben harek, ta gero hamen atrapaten, rompeolasetik-eta jentia. Orduan gosia euan sendo, ta jentiak, itsasoraterik ez zanian egoten, sabaidxak atrapaten.
- Frijiduta, edo.
- Saltsan, saltsa gorridxan ipinitta. Bai. Bai, jentiak esaten eban ames ein ebela, jaten ez dabenak bai ames!

3.27. Mozorroak bi tabernatan saltzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/032
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:40:53. **Bukatu**: 00:42:25

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- **Laburpena**: Maskaraz mozorrotuta ibiltzen zen jendea Karnabaletan gerra aurretik. Pare bat tabernatan saltzen zituzten. "Marmuak" esaten zitzaien. Jendea ezin izaten zen ezagutu.

Transkripzioa
-Eta karnabaletan jentiek maskarak eta ibiltten ebazen?
-Ah .. bai, bai gero bai. On azkanengo bai.
-Eta lehen?
-Lehen ezta pentsa be. Prankon denboran..
-Franko aurretik?
-Aurretik bai, aurretik danak maskarakin. Ezagutu bez inok be.
-Ezagutu bez?
-Ezautu bez nor nor dan be.
-Ze maskara edo ... nun erosten ziren?
-Egon zirin, taberna bi egon zirin. Bat Drunguluneku esaten eutsena, Drungulu. Ha bestia, zelan esaten eutsen bestiai? Petralake edo, Petralake edo esaten eutsen. Arranegidxan. Arranegidxan, Arranegidxan gora zozela, hantxe eguen tabernia. Petralakeneku esaten eutsen. Horrek e horrek Arrasate zirin. Arrasate. Hantxe egoten zin maskarak. Marmuk hantxe jazten zirien. Marmuk esaten eutsauzen, marmuk esaten eutsauzen horrei, marmuak. Jazten zirian, hantxe jazten zirian. Bertan erosten ebezen maskarak eta gauzak eta hantxe jantzi ta bestiak Drungulunien. Bi euazen,taberna bi maskarak saltzen ebezenak. Bai, ta nok ezagutu? Ezta pentsa be. Eta gero Prankon denboran ez dakigu ezta […] ba gure gazte denporan ba horrek karnabaletakuk eta...

3.28. San Juan Eguneko ospakizunak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/038
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:47:06. **Bukatu**: 00:47:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: Aurreskuak egiten ziren San Juan egunez. Sua san Juanen eta Ondarrean egiten zuten. Lehortarrek Portalean.

Transkripzioa
- San Juanetan ze eitten zan zure gazte denporan?
- Aurreskuak, bai aurresku eta… dana.
- Nun?
-Lekittoko plazan. Plazan aurreskuk eta… Lekitto holako gauzetan ona ixan […]
-Sua?
-Sua be bai, sue eta… mariñeruak… bertan San Juanen, San Juanen bertan. On ha Ekaitz daona, Ekaitz traiñerun, dana esplanadia euan han, hori ein orduko eta hantxe eitten zan sue eta hondarrin be bai, hondarrin be bai eta lihortarrak eitten eben, ba, portalien eittten eben […].

3.29. Neska gazteen "zirkua"

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/040
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:49:20. **Bukatu**: 00:49:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Antzerkia
- **Laburpena**: Gazte batzuek, tartean "gure malageña" deitzen dionak, "zirkua" egiten ei zuten. Eurek asmatutako esketxak, dantzak eta abar.

Transkripzioa
- Ta zer zirku edo zer zan?
- Eurak jantzan ta teatru eitten eben euren kontura. Euren kontura. Gaztik zirin harek [...] hamabost urte edo hamalau urte edo hamabi urte eta eukezenien. Ta patroia, gixonak itxoten patroiari, patroia, barkua euken ta, eurena euken barkua presidentiak. Murelaga, horrek Tia Franeneko horren aittitta zan, aittitta.

3.30. Santa Ageda eskera mutikotan

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/042
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:50:32. **Bukatu**: 00:51:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena**: Santa Ageda bezperaz baserriz baserri ibiltzen ziren mutikotan. Sagarrak, taloak eta horrelakoak ematen zizkieten. Nahiago zuten baserria kalea baino.

Transkripzioa
- Santa Agedak bixi zirian hamen, kantaten, kantaten kuadrillan, neu be junda nao ta, umi nitzanin-ta, baserrixetara. Ogi, ogi zati bateaittik kantaten gendun guk, ogi zati bat emon eta, ba, horrek. Gardatara-ta juten giñian, bai, [...].
- Ta baserrixetatik?
- Bai.
- Kalian ez?
- Kalin be bai, baiña baserrixetan lehenengo. Han ha, han jateku eoten zan eta! Jatekun billa-ta. Sagarrak-eta emoten euskuen ta, taluk eta emoten euskuen ta, pozik gu!
- Mutil zein neska?
- E, mutil hutsak, mutil hutsak juten giñin gu, bai, mutil hutsak, neskak be kantaten eben. Ba, mutil hutsak.
- Eta , zeozer, erropa...
- Ie ie, normalian gu, normalian, e bast palu ipini ta... txitxiliña txiliña hamen, atarateko zaratia, atarateko, txiliña, bai ba.

- Eta, dirurik ez? Ez zenduen eskatzen?
- Bai, emoten gaitxuzen, txoritxiki bat edo, txakurtxiki bat, txakurtxu bat, bai.

3.31. "Zinema berdea" eta zentsura

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aizpuru, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Akarregi, Leire - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-054/021
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:24:23. **Bukatu**: 00:26:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Zineman ikusi zuten pelikuletako bat "La hija de Juan Simón" zen. Goraburuko zineman "La Dolorosa" ikusi zutenean, lagun batek zinema berdea ikusi zutela esan zioten, baina beraiek ez zuten "zinema berdeak" zer esan nahi zuen. Gero, elizan jarri zuten zinema eta zentsuraren arabera egoten ziren sailkatuta pelikulak. Mojek ere zigorra jartzen zuten eskolan, ikusitako pelikularen arabera.

Transkripzioa
-Ze pelikuli ikusten zenduen?
-Asko dakit neuk, zertzuk, orduan “La hija de Juan Simon” ta beste baten hau, ez, ordun debalde euki baiño arintxugo zan gerri amaittu ta ensegida zan. Goraburun. Zein zan, “La dolorosa”, ta Jesusa Mendia, ta jun giñian ba zini ikusten: “La dolorosa”. Bueno, urten gendun zinetik eta nun topaten dogun neure launa Anita Jauregi: oohhh…”La dolorosa” ikusten jun zarie… berdi da gero. Berde, zine berdi da gero. Berdia? Ezta! Betiko mouko kolori euki dau ta! Zelako iñuzientzixe, ta dana zan berdia porque “La dolorosak” solteratan euki eban umia, ta nobixuk itxi ei eban ta holakoxe españolada drama bat zan. Ta berdie. Gero bai, gero bakixu, elixan eoten zan gero ipiñitta, e hamazortzi urtetik eta beherakuntzako o iual erreixa bikua, batekua, ta hiru baeukazan, iñontzako bez. Bai, klasifikata eoten zirin zinik.
-Elixan ikusten zenduen?
-Elixan e..bai, papela ipiñitta eoten zan, ta klaro, debaldekua eualez ziñi, gure Konsuelo zinea juten zan…ta ordun Konsuelo kolejixun ebillen, monjakin. Ta beti eoten dan lez pikoteraren bat, ba konta, Konsuelo ez dakit ze zinen eon da ta zinera jun da. Ta monjak kastigata, Konsuelo. Ta Konsuelo ez pentsa Monjia izan danik e monja-monjakixa e? Gure aldin espabilladi baiño, en todo!

3.32. "Este año por carnaval, Lekitto bai politta" abestia

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/053
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 01:02:37. **Bukatu**: 01:03:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak

- **Laburpena**: "Este año por carnaval, Lekitto bai politta" kanta. Inauterietan ez zuten aparte ezer egiten.

Transkripzioa
-K: Bai, karnabaletakuk eta...
-T: Bai, bai.
-K: Batzuk erdera eta beste... “Este año por carnaval, Lekitto bai politta” ta...
-Zelan da hori?
- K:

“Este año por Carnavales
Lekitton bai polittak!
Zergaitik? Urten dau kalerik kale
nuestra gran Estudiantina
alegrateko zaharrak eta gaztiak."

Ta gehidxao be baauko, politta da.
-T: Bai, kanta polittak daoz Lekitton. Bai.
-Karnabaletan zer eitten zan?
-Guk Karnabaletan? Ezebez guk! Eguazten edo holakuan hautsa hartun elizara junda.

3.33. San Juan eguneko aurreskua eta gatzatu jana

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/063
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 01:10:00. **Bukatu**: 01:11:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juanetan prozesioa egoten zen. Plazan aurreskua egiten zen eta gatzatua jaten zen. Urteren batean Lekeitoko plazan elurra kendu ei zuten aurreskua egin ahal izateko.

Transkripzioa
-T: Eguanian prozesiñoia jai hartzen zan lehen.
-K: Lehenao...
-T: Lehenao bai.
-K: Lehenao Eluntzetara juten ei zirien aurreskua eindda plazan, hori jaten... zelan da hori? Ene? Eitten dana bildotsen edo ardidxen horreaz.
-Gatzatua.
-K: Gatzatu jaten.
-Bai e!
- K:Bai.
-Entzunda eukiot zerbait.
-K: Bai, gure...
-Ta arkuk eta be...
-K: E?
-Arkuk be Eluntzetan...
-A! Eitten ebezela? Bai, bai. Baiña aurreskua ta... Ei dao Lekitton, esan eitten dabe, San Juan goizien edurra kendu ebela aurreskua eitteko

Lekittoko plazan. Bai. Ez dozu iñoiz entzun?
-T: Bai, bai. Entzun dot neuk be hori, bai.
-Ta nun eitten zan plazan?
-K: Plazan. Ta gero geu bizi garin... bueno, bizi izen garin —on be han daoz konejuk eta, edo oilluk eta, gizona juten da baiña...— haraxe etxera juten zirien ta han gatzatu jan ta gero etxera. Aurreskua einda gero haraxe.

3.34. San Pedro eguna

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/065
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 01:11:29. **Bukatu**: 01:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Zezen-plazara joaten ziren gaztetan. lehen San Pedro eguna elkarrizketa garaikoa bezalakoa zen: prozesioan eroaten dute San Pedro kilin kalia eta ostean kaxarranka dantza egiten da.

Transkripzioa
- Katalin: Bai, erretratua han dakot nik neure... nobidxuk garila atarata.
- Teresa: Neuk be badaukat hantxe argazkidxa holakua, bai.
- K: Bai, gero eoten zan, aber, korridak eoten zirien.
- T: Plaza de toros, bai.
- K: Ta partikularra zan lez, gero etxik ein ebezen han, bestelan politto.
- T: Horixe bakarrik falta gendun, Lekitton zezenak eukittia.
- K: Hola! Ondo politto eongo zan. Hola! Nahitte...
- Eta gero San Pedruak, zer?
- K: San Pedruk, gero, ordun, ia!
- T: Jai polittak ixaten diz San Pedruk, e?
- K: Kaxarranki ta...
- T: Kaxarranki-ta polittak ixaten diz.
- K: Baiña lehelengo hamarretako mezie. Ba, juten direz agintaridxek, ba, hara.
- Baiña lehen-lehen gura dot jakin!
- K: Lehengu, ontxe be bai eta lehen be bai.
- T: Bai, beti usa da.
- K: Ta gero prozesiñoin juten direz, ta San Pedruaz, ha eraitxen dotse, ba, kilin-kali esaten jako ta danak haixe ikusten juten gara.
- T: Baiña birrittan jausi jake uretara be San Pedro, San Pedroko aurrian [...].
- K: Ta gero haren ondorik, hori, kaxarrankia.
- T: Bai, kaxarrankia. Ezin altza gero San Pedro uretatik. Urak bedeinkatuten.

3.35. Domeketako musika, gramola...

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/066

- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 01:12:30. **Bukatu**: 01:14:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Domeketan musika egoten zen herrian. Hilabeteko hirugarren domekan eria (azoka) egoten zen eta "Tio Juan" eta gramola egon zen. Baltseoan aritzen ziren. Garizuman ez zen egoten musikarik, paseoan ibiltzen ziren.

Transkripzioa
-Eta erromerixe edo zeozer egongo zan?
-K: A ba gero fiestie beti egoten da, bueno lehenao gehidxao.
-T: Lehenao... Juan..
-K: Musikia Lekitton domekan-domekan egoten zan e! Lehen. On ez da eoten.
-T: Hillen hirugarren zapatuan eoten zan, portalean egoten zan feridxia eoten zan, ta eoten zan Don Juan ta zelan da? Anaidxa bi, ezta? Batak kordeoia eta bestiak turuturu. Tututu turuturutu... Ordubeteko piezia joten eben.
-K: Tio Juan.
-T: Tio Juan, bai.
-K: Kordeoia baiña nik ez dakit...
-T:Beren anaidxia zan kordeoia, Gabiolen aitta. Joten eban holan Tututu turuturutu... Pieza bat luzio joten eben harek, ordubeteko piezia. Gero gramolia, gramolia gero.
-K: Gero bera ensaidxaten edo... Gu biharrin soluen han ibiltten giñien ta [kanta dana txarakantan edo joten] eban harek.
-T: Bai, ta gero gramolia hasi zan. Gramolia emoten eban Maite... Maite zan bera. Tabernia hori, tia Fran dana Maite zan hori, Frigo zana. Ta neba bat eukan harek handi-handi-handidxa ta “[…] gramolia” esaten genduan. Ta gero gramolan danok baltsiuan. Ibili nahi dan beste baltsiuan ta gero danok txizeitten kanpillora. 20 lagun edo txiza eitten kanpillora, txiza eitten danok. “Los tiempos de...”
-K: Baiña Garizuman ez zan eoten musikarik, pasia Eskolapian...
-T: Prozesiñoko musikiak poz emoten eban.
-Eta debalde zan? Jantzan eittia debalde?
-T: Bai, plazan debalde. Baltsiuan eittia ta dantzan ta dana.
-K: Bai, bai, bai, musikia debalde.
-Baiña gramolie ez, baiña batenbat joten eon ezkero?
-T: Gero bandie, banda ederra...
-K: Bandie debalde, bai.
-T: On banda ederra dao Lekitton e! Banda ederra dao.

3.36. Zinera

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/068
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 01:16:25. **Bukatu**: 01:17:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Zinema

- **Laburpena**: Mutilekin ibiltzen hasten zirenean, kakahueteak erosi eta zinemara joaten ziren. Hiru zinema-aareto zeuden Lekeition.

Transkripzioa
- Katalin: Bai, gero mutillekin hasi giñan kakauesak erosi ta zinera gero. Kakauesak jan ta zini ikusi.
- A bai? Zinera, nora?
- K: Zinie? Hiru zine euezen Lekitton ordun.
- Teresa: Guk zinerako dirurik be ez [gendun eukitten].
- K: Batzokidxekue, hori, Beitia ta hori. Bai.
- T: Bai, hiru zine euazan.
- (senidea): Gero barridxa.
- K: Bai, gero barridxa, bai.
- T: Haxe neski zan asmaten ebana...
- K: On bera geldittu da bakarrik.
- T: “Zinera jun bihar dot”. “Zinera? Zelako dirukin jungo gara, ba?” Ta emoten eben ordun komuniñoikin txartela garixuman elixan, ta haxe gordeteko. “Harek gorde zetako?” “Gorde egizue /gordeixue/”. Gorde, ta eurakin jun giñin. Hiru grupotan ein gendun kuadrillia, hogeta hamar laun, hiru grupotan. Bat sartu zan, baiña bigarrena geu giñin, ta haxe da lotsaridxa!
- K: Klaro!
- T: Atrapa gaittuzen ebaite ebanak. Haxe da lotsaridxa pasa genduna!
- K: Zeuek be...
- T: Komuniñoko papelakin zinera. Edozer! holakoxe okerrerak eitten genduzan.

3.37. Antzar Eguna

- **Hizlaria(k)**: Goikoetxea Vazquez, Ander; Seijo Diez, Irati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: LEK-076/014
- **Iraupena**: 0:07:36. **Hasi**: 00:38:04. **Bukatu**: 00:45:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Lekeitioko Antzar Egunean ez dago adostasunik gomazko antzarra eta hildakoa erabili nahi dutenen artean. Anderrek eta Iratik gaiaren gaineko iritzia ematen dute, eta egoerak berak biziarazi dizkien bizipen zenbait kontatzen.

Transkripzioa
- Ander: On gabiz kuadrillan... burruka hori aurten goleadiaaittik galdu dot, adibidez. Nik... bueno, nik esan neban nik uste dotela /usteotela/ antzar egunin ondo pasateko, ia zer bihar doun, ez? Gomazko antzarra ixan edo benetako antzarra ixan, ia aldatuko balitzateke zeozer gure jaixen ikuspegi hori, ez? ba jaixak bizitxeko modua. Ta jentik esaten dau "Ez, baiña nik ez dot nahi kanbixa". Ta nik esaten neban: joe, ba, ez dakit /eztait/ nik, igual txipa aldatu bihar dou eta ostra! torerun kontra bagaoz, hamen be igual... Baiña beti topaten dabe –nire kuadrillan behintzat beti topaten dabe– argumento bat [...]. Ta nik esan neban: "Bueno, ez badozue nahi hori ikusi....". Ein gendun bozkaketia ta ez dakit /eztait/ 14 kontra bi edo galdu neban ta ixilik. Baiña, bueno. Hor badaoz kuadrilla batzuk erabaki hori

hartu dabenak eta nik esango neban horrek ausartak ixan dirazela eta, ganera, jente horreri alde batzutatik in jakezela... Jo, ni gogoratzen naz zozketia bera ein zan egunian, zenbakixak eta zenbagarren doian bakotxa esateko ta, komenta eitten zan "ba honek gomazko antzarra [...]" ta jente batek txistu ta dana ein eutsen jente horreri.
- Irati: Eske hori be ixaeriaz lotuta egongo da. Balorien aldaketia hamen oso.... bai.
- A.: Bai, hor tradiziñoien kontura doia. Ta nik, adibidez, nik etxian be nik eta arrebik, ba, normal, natural pentsaten gendun txo, ba, gomazku bada gomazku da. Osea, aldatu ein bihar da ohitturia. Osea, nik esaten neban kuadrillan be bai: "On dala 20-30 urte antzarrak bixirik euazan ta on hilda daoz. Ta hori aldaketia ondo ikusten dozue eittia?", "Bueno, baiña ohitturak aldatu ein biher [...] dira denporiaz", "Ba hau be aldatu biherko da /bikoda/ denporiaz! Atrebitzen bazarie, ipini bixirik". Nik esaten neban: "Tradiziñoien alde ta kulturin alde –bueno, kulturi ez da–, tradiziñoian alde daon horrek bazarie, antzarra bixirik ipiniko dou /ipinikou/. Ta listo. Tradiziñoia horixe zan benetakua. Eta andrak ez dira etorriko; hara jungo gara mutilak, antxiñako modura".

4. Natura

4.1. Itsasoan ibiltzen diren txoriak

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/014
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:18:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elorza, Ander Marino
- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna
- **Laburpena**: Itsasoan ibiltzen diren txoriak: kalatxoriak, potorroak... Potorroak nolakoak diren azaltzen du.

Transkripzioa
- Ee itsasuan eta ze txori ibiltzen dira?
- Kalatxorixak, zantzia eh... ta gero potorrua.
- Potorrua zelakua da?
- Baltza ta zuri antzekua, eoten da ur ganian da dzanga eitten dxau daa... eruten dau toskun arraiña da gora ostera be.
- Holan txikitxue?
- Bai, potorrua, askori ez jake gustaten.

4.2. Itsasoko txoriak

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/017
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:19:40. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elorza, Ander Marino

- **Gaia(k)**:
  Natura » Fauna
- **Laburpena**: San Pedroetako antzar egunean inoiz beste hegazti mota bat ere jarri izan omen da haien lekuan, baina hark lepo gogorra du eta zailagoa omen da kentzea. Itsasoko beste txori-klase batzuk.

Transkripzioa
- Eta, beste txori batzuk edo gogoratzen dozuz? Holan ee... itxasuan ibiltzen diran beste txori batzuk?
- Hamen ee... San Antoliñetan kopliaten zirin ee... on be eitten diraz Antzarrak.
- Ah bai!
- Koplia ekarten eben, koplia jakon ixena, ta eukitte eban kokota gogorra. Ta iñoz ipintten dabe ha baiña ezin kendu gogorra...
- Antzarran lekuan?
- Bai ba, antzarran lekuan koplia... baiña on ez dao...
- Eta karrabazua?
- Karrabazua be bai. Karrabazuen sasoiku da. Koño, karrabazua.
- Hori zein da, bal-baltza-edo?
- Ez jat gomutaten ee, karrabazua.
- Eta hamen beste batek esan zestan zerela txiki batzuk baporien ostian eta joaten diranak. Txikitxo batzuk... Matxiplanak-edo?
- Matxiplakia? Matxiplakia.
- Hori ikusten zan hamen?
- Bai matxiplakia baiña gitxitxuo, ezta? Honek gitxio. Matxiplakia ixen politta ee?
- Bai, eta gero beste txori batzuk holan ee... itsasertzian eta egoten diranak?
- Asko diraz da...
- Holan moko luziaz eta?
- Ez jat akordaten...
- Kurlink... edo, kulinkak-edo?
- Kurlinkia, kulinkak, kulinkak.
- Kulinkak?
- Eta zelakuak dira ba horrek...ee holan ee?
- Kulinkia... hamen gitxi ikusten da hori ia e...

4.3. Itsas txoriak eta kalatxoriak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/036
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 01:18:17. **Bukatu**: 01:22:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Natura » Flora
- **Laburpena**: Itsas txorien izenak: kaioa, santza, txirrina, karrabasoa, antxeta... Kalatxoria kanpotik etortzen den espeziea da, ez da itsas txoriaren berdina. Txirria, potorroa... Txirrina atuna egoten den tokian egoten da.

Transkripzioa

- Eta, hemen, klaro, itsas txoridxek-eta mordue dauz, baiña zuek zelan diferentzidxetan dozuez?
- E?
- Itsas-txoridxek.
- Itsas-txoridxari ze esaten dotsagun guk?
- Karo, baiña itsas-txori asko dauz diferentiek. Zuek zelan deitzen dotsazue? Ze Lekitton era batera deittuko jakie ta beste herrixetan...
- Hori hamen [dabillenori] santzia esaten dotsau. Kaidxua. Kaidxua da lehelengo ta gero santza eitten da. Lelengo baltza daonian da kaidxua, gero zuri eitten danian santzia. Gero, txirriñak. Daoz gero karrabaxuak ta milla txori jozak. Antxetia esaten [...] hori, kalatxoridxa, kalatxoridxa. Lehin etorri eitten zirin horrek, e? Atrapa eitten ebezen, jateko.
- Ta [...] ta kalatxoridxa zer?
- Kalatxoridxa da, kalatxoridxa da beste espezie bat da. Kanpun, kanpotik etorten dana da hori. Ta hori da, ganera, jaten be gozu da. Guk makiña bat bidar jan dou.
- Baiña on nahasta eitten da asko be bai, ez?
- (senidea): Bueno bai, eske on...
- Baiña...
- On danari esaten jako.
- On kalatxoridxa danari; santzari be kalatxoridxa esaten jako.
- Osea, santza ez da kalatxoridxa.
- Ez, ez, ez, ez.
- (senidea): Hamen gehidxen kalatxoridxa esaten douna da santzia.
- Gero txirridxa. Txirridxa esaten dotsau. Txirridxa dao beste bat.
- [...]
- E? Ez dozu ezautzen txirridxa? Txirridxa da horixen kalatxoridxen-ta espezieko tipoko halakua, baiña hamentxen ibiltzen dana. Hori hamengoxe, berton ibiltxen dana da hori, txirri esaten dotsauna. Gero txirriña. Txirriña, ha bestia txikiña dao, bestia. Gero daoz potorruak. Potorruak uretan ibiltzen dixenak.Ta ez dakit ba, ez dakit ba /eztaipa/.
- Arraiñetan ibiltzen dizenak-eta... ze txirriña ibiltzen da, ezta?
- E?
- Txirriña, atune dauen lekuen-ta.
- ”Eso es” atunen peskorrixa, atunen jatekua daon tokidxan, hantxen dao txirriña. Haixen da, harek, zaharrak lehenao: "kolpe ein dau txirriñak". “Y se iban” haraxe, aparidxutan atuna kentzeko.
- A bai?
- Bai! Txirriña. “Es un pajaro”... listo-listua da. Gero [...] marikua dao beste bat, txirriñari ataraten eutsen ta zuk jan ta berak atara ta jan. Hori, marikua da hori. Ez dakit zelan daukon. Guk marikua esaten dotsau.
- Bai, bai, bai. Ta holan beste txori batzuk ibiltzen dizenak edo antxua, antxoak dauzen lekuen edo atune dauen lekuen edo?
- Antxoentzako ez dao [gehidxa]. Hor antxoia... lehen blankurara juten zirin, baiña on blankuria nok ikusten dau, ba? Blankuria? Blankuria lihorrian, kaja barruan daonian. On ez dao blankurak, ez dot nik aspaldidxon, ez dot pentsaten iñok ikusi dabenik itsasuen ganian.
- [...]
- Arraiña azalian eoten da blankuran daonian, blankuran. Honek, bitu, hau txoridxau, santzia, hamen sekulan ez zan bat ikusten. Bat edo bat noix edo noix, hamen ikusten zan. Danak eoten zirin Otoidxopian. Hori mendidxa, Otoidxo?
- Bai.
- Hortxen azpixan eoten zirian. Horrek eitten ebezen umiak hantxe eitten

ebezen danak, Harrizuri esaten geuntsena. Hantxe eitten ebezen umiak. Ta ein eutsen azeridxak habidxia topau. Azeridxak topau eutsenian, hau txori listua da, e?, handik eskapa. Han granorik be ez dao on. On hamen eitten dabez umiak. Hamen Santa Katalikako hamen magalian ta islan. Islan eitten dabez.
- Ta gaztetan kaidxua da?
- E?
- Gaztetan kaidxua?
- Kaidxua. Gaztetan kaidxua da hori.
- Ta gero zurittu eitten da.
- Ta gero eitten da zurittu. Zahartzara zurittu eitten da.

5. Euskara

5.1. Lekeitio eta inguruko herrietako euskara

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/020
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:23:35. **Bukatu**: 00:24:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elorza, Ander Marino
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Lekeition eta Ondarroan hizkera desberdina egiten dela dio, doinu desberdina. Ispasterren ere baserrietan desberdin hitz egiten omen dute, izan ere arrantzaleen hizkeratik baserrietakora aldea nabaritzen du.

Transkripzioa
- Eta, lehen konta dozu Rufo, lehen Lekeittion eitten zala bakarrik hamengo euskeria ez?
- Bai.
-Pixkat sartu ta...
-Bai, bai.
-Diferentia.
-Aaa, Mendexan modu batera, ez dana. Hau ispastertarra da, hau lekittarra da, ondarrutarrak eta lekittarrak diferentzi handidxa. Ez soiñun ta, euren tonun, ezta? Bai halantxerik da.
- Eta Ipasterren?
-Ipasterren, ba baserrixetan hamengo beste bat [...] Ariñei igarten jakun arrantzalin berbetia ixan edo... Hori pentsa [...].
-Eta baserritxarrena diferentia?
-Diferentia bai, ez dot nahi esan [...] bata bestiena, baiña doiñu diferentia bai.
-Ta lekeitxiarrak bertakua.
-Lekittarrok geuria, esate eben euskera bastante garbidxa eukaula.
-Bai.

5.2. Berorika medikuari eta abadeari

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/005
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:07:12. **Bukatu**: 00:08:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Tratamenduak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
  Euskara » Tratamenduak » Berorika
- **Laburpena**: Berorika egiten zitzaien medikuari eta abadeari. Ondarroan gehiago Lekeition baino. Orain zuka egiten dio don Benito bikario zine zaleari. Adinkideak dira.

Transkripzioa
- Lehen esan dozu medikueri-eta “de usted” eitten eutsazuela erderaz.
- Bai.
- Ta euskeraz?
- Beori. Beorreri, beori, beorrek esaten dabenari, beori, ba [...] badaz, ba, beori.
- Orduen, abadieri be bai?
- Abadiari be bai, beori.
- Ta hori beti?
- Hamen baiño gehidxo eitten zan, ganera, Ondarruan. Gu be lehelengo, baiña “Ondarruan beori esaten dabe, usted esan barik”, eta, ba, ba, gu be ez gara gitxio eta. Baiña ez, hasitta euan berton be beorika medikuari esaten, ta” ama, beori esan bihar jako /bijako/ medikuari”, ”bai, usted esatia moura, ba, beori”. Beorrek emoten banau, beorrek eitten banau, ba, beori. Ta abadiari be bai. “Egun on [...]” ta “bai, beorreri be bai!
- Ta danok eitten zenduen? Umiek, nausidxek... danak berori eitten eutsazuen?
- Bai, abadiari-ta. “Egunon” ta “bai”. Zeozer kontestaten eban berak ta “beori be bai” ta, ba, “beorrek be bai”. Erdera, ba, “sí señor” abadiari, baiña. Ordun errespeto guztiaaz, ganera, abadiak be saludaten zenduzan. On ez dao holako saludorik, abadiari on "baf", gero lepotik agarrata igual eruten dotsue mutillak eta bale.
- Baiña oin be berori...
- Ez, on ixenetik. Ez, on ez. On zu, zu ta zu, don Benitori be, bikaridxu ixan arren. Neu beste urte dauko. Egun bat, egun biren aldi daukau. Abuztun hamahirukua ha ta ni hamabostekua.

5.3. San frantziskuak, urdinak, bost kantoiak, urtebeteak... sagar gozoak

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/070
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 01:48:40. **Bukatu**: 01:51:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Lexikoa
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak
- **Laburpena**: Sagar mota bat zuen oso gustuko: San frantziskua. Arropan orbanak uzten zituen. 'Urdinak', 'bost kantoiak', 'urtebeteak'...

ere oso gozoak ziren labean erreta. Orain ez ei dago halako sagarrik. Labe publikoa zegoen Lekeition eta jende askok erretzen zituen sagarrak han. Behin berak eramandako kazuela aldatu eta txiki bat utzi zioten. Berreskuratu zuen.

Transkripzioa
- Ta "sagarrak honenbestian". Karo, altzokadia ipintten eban. Ibiltzen zan lez sakutxuak edo ipiñitta bertan halako baten. Niri gehidxen sagarra gustaten jaten, gazak, "Sanfrantziskuak". Halakorik ez dao on, e? No existen, hamendik behiñik behin. Urtiitan be ez. Gazak zirian, baiña jaten zaozela erropara-edo, beren gotik-edo, olvídate, ha mantxi betiko, ez jakon kentzen.
- A, bai?
- Lejatan ezin zendun sartun erroparik, koloraurik, erraidxa eon zala edo loria eon zala-edo, erropia ezin sartun, koloriñetakua lejatan, ta mantxiaaz beti. “Mantxia ein dozu?”, “Bai, sagarrak ein nau”. Ta handik egun bidxera edo, kanbidxa, iual, erropia ta “[...]”, “eske zoridxoneko sagarrak, Sanfrantziskuak, gehidxen gustaten jat eta hantxe beti mantxia”. [...]. Ta bestiak, "urdiñak”, garratzak. Gorridxak zirin, baiña “sagar urdiñak” esaten eutsen. Ez dakitt ba zer [sasoikkuk zin]. Halakorik ez dao on be. Ta gero “boskantoiak”-eta bai, horrek garratzak, Gabonetakuak eta, “boskantoik” eta “urtebetik” eta horrek garratzak, bai, horrek laban erreta. Etxitan eitten zan, baiña asko eruten genduan, gu Bergara kalia baiño harutzo, Txirristen onduan daon kantoian, han euan labia, oseake, artuk-eta eitten ebezen. Ta libre ixten eben jentiari, kazularan, baiña markia erun bihar norberak, kazularak erreteko laban [...]. Lekitto erdidxak bai eruten ebazan sagarrak edo madaridxak edo [...] sagarrak haraxen. Ta, karo, igual indiarren hori, ganeko azala, ta askko, iual, indiarrena ipiñi, ta gero kazularia igarri bihar norberak. Ta niri egun baten ein eusten, txikiña itxi ta handidxa eruan. “Ene! –esan neutsan eurari– hau kazularia ez da niria”. “Ez dozu ekarri inddiarraaz, horrek?” diño berak andriak. “Bai, baiña niria haunako handidxa ixan da, hau txikiña ez da ixan niria”, “Auntxe be haretxek lotsabagiak eiñ dau”. Andriak ezautu eban. Ez zan ixan estreiñia. Ta “ixan da [...]”. Bai, ixena esan eustanian, urten neban: “Emete, Emete, Emete! itxon pixkaten!”, “Zer pasaten jatzu, maittia?” diño harek. “Neure kazularia da hori, zuria han dao. Itxi [...], hori neuri da”, “Zuria? Holakoxerik be!” diño. “Bai, neuri da hau. Kazolaria ezautu...", "Kazuelaria ezautu dozu ala?”, “Bai, ta markia be bai, popan be markia dauko ta”, guzurra zan. Ez eban nahi emon, ta neuk be... Harek, han, panaderiko, labako andria han euan beira kantoian, ia emoten banau, ez banau. Ta erun neban ta han igo eban.

5.4. "Arraidxuetarikan!", galdutako espresioa

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/072
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 01:51:34. **Bukatu**: 01:52:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Lexikoa

- **Laburpena**: Gogora datorkio orduan esaten zen espresio bat: "arraixuetarikan!". Orain ez ei da esaten. "Arraixuetarikan, sekula ez dot holakorik entzun!" Lehen esaten zen berba asko galdu egin da.

Transkripzioa
- “Horraitiñok, arraidxuetarikan!”. Hori lehenao [...] gure amak eta be bai. Ez dakitt zetatik. “Arraidxuetarikan! Halakoxerik be ez dot ikusi” esaten eben. On ez da esaten, baiña ordun “arraidxutarikan”. Zeaittik zan? “Arraidxua” ba, bai, baiña “arraidxutarikan”. “Arraidxutarikan! Sekula be halakoxerik ez dot entzun”, iual, [...] zeozer: “Arraidxutarikan! Handidxa pasa da, gero!” [...]-edo, “arraidxutarikan”.
- Bai, bai.
- Bai, berba barridxa.
- Bueno...
- “Arraidxua!” hori bai.
- Lehen asko ibiliko zan.
- Lehen bai, lehen asko. Goixin be pentsaten eon naix: “Nik [...] amaandik nik berba asko jakin nebazan”, esaten ebazanak holan, soltin esaten ebezanak, baiña... Horixe etorri jat neuri gaur goizin.
- Gaur egun galduta asko. [Hortaiko berba asko egongo zien].
- Bai, bai, holantxe gauza asko.

5.5. Itsasoko berbak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/035
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 01:17:30. **Bukatu**: 01:18:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- **Laburpena**: Itsaso zatarra dagoenean "denboralia" dagoela esaten dute. Olatxu txikieri "agiyoya". Itsaso handi dagoenean "bagia". Itsaso lasaiari "bare".

Transkripzioa
- Itsasoko... Itsaso zatarra dauenin eta, ze berba ibiltten dozue?
- Ba, tenporalia. Gure berbia tenporalia ixaten da.
- Ekaitzari be?
- Tenporal, tenporalia.
- Ez, holan, ardidxak-eta daozenian, holan zurittasunak-eta ikusten dizenian, olatu txikiñak-eta daozenian?
- Horretxeri bai esaten dotsagu bildots zuridxa, ba.
- Baiña itsasuari, itsasoko olatu txikidxari, zelan esaten dotsazue?
- Agilloia. Agilloia esaten dotsagu horreri, agilloia. Gero itsaso handidxa daonian, ba, bagia ta.
- Ta trankil daonian eta?
- Trankil daonian, geu gozen modura, ha be bare. Bare ta trankil.

5.6. Erdararik ez; eskola gutxi

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Etxaburu, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-012/006
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:07:27. **Bukatu**: 00:11:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gorostidi Vázquez, Jone
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Lehen gazteleraz txarto egiten zuten. Etxean ere ez zuten inoiz berbarik entzuten. Eskolan ikasi zuten zerbait. Mojetan ikasi zuen, konpainiako mojetan. Edozer egiten zuen eskolara ez joatearren.

Transkripzioa
- Lekitxon erdera askorik orduan ez zan entzuten, lehen zuen gazte denporan.
- Ez, ez, ezta! Benetan e, badiñotsut. “Gixonak-eta nun sartu diraz?” ta igual, “Bai! Santanderren sartu ei diraz denpora zantarraz, Laredon ez dait zenbat /eztaizemat/ antxoa erun daben”. Osake dana zan, txarto eitten zan berba, on onguak? Sasiletrauak diraz ongo mariñeruak. “Saben mucho”, bai bai.
-Ta zure ama ta aitxak erderia Bai?
-Nik zer esango dotsut aittena ta amena, hamazortzi hillebete neukan, baiña ordun erderarik ez genun eitten, gauzia dan modura. Ni neu etxian, hamen be gurin erderarik pentsa bez ganera, osake dana euskera, eztakiu zelan eskribiduten dan “huevos o con “h””ta ipiñi beste zozer ta listo zaoz. Asiske…
-Ta eskolan ikasiko zenun ba?
-Ba eskolan neuk esango dotsut. Ixan naz dibujuan, “número uno” ta negozidxuk eitten eskolan. Denderi neukan laguna ta enkomelauk eitten ebazan ranbla. Ta nik eitten nebazan labañiaz tajadak tajadak eta “marili marili” juten nintzan saltzen txori txiki bateaz. Pentsa zelako eskolak! Lotsabagia. Ta gero ba hareaz eitten genduzan haridxak erosi punto kruzerakuak eta bueno. Gero ba, ta gero badiñotsut gero emoten gaitxuzen lelengo katona zan, katona: a, e, i, o, u, kartilli lelengo ta gero katonera pixkatxu bat loditxuao zan liburua ta gu pozarren liburu lodidxa daukaula ta, baiña berari beiratu ta zer? Justo-justo esaten gaitxuzenak bidxar hauxen e preguntia eingo dou ta, justo-justo bera ikasi . Gero hasten zanian atze partetik ta zuri ez jatzunin tokaten ha preuntia ez nun jakitten. “Cateo. ¡A estudiar!”. Monjetan ibil nintzan, hamen zelan da berau? karidadeko zeintzuk zirin eurak? konpañiko monjakin ibili nintzan ni. Ta bueno gero ba, osterabe ez genun ikasten, baiña osterabe etorten zan beste liburu loditxuo, enziklopedidxa pasa, ta estudixa barik bestia. “La cosa es” erabili beñikpein liburua badaukazula-ta. Ba handik osterabe, ba handik denporatxura, hareri badiñotsut preuntak ikasi lantzin kateo bat hartun da “ a barrer […]” horixe noznahi. Ta konejuntzako bedarreran beti prestaaten nintzan ez eotiarren eskolan. Entzuten dabenian gure umiak esango dabe: “Amuma politxa euki genduan guk!”. Ta gero ba, juten giñin zerraiñetan be neu lehenengo, bedarreran be neu lehenengo kuestiñoi da eskolatik eskapatia. Tonta-tontia ez nitzan ixan, baiña ez neukan eskolarako amorru handirik. Ta gero ba entziklopedi handidxa. Ta atara ein bihar zan dirua ia han euazan monjak, harek enkargata dozela ta, haren dirua nun atarako, baiña bueno halan edo holan erosi neban neure entziklopedixa handidxa. Zemat hoja estudixako neutsazan nik hareri,

baiña erabili eitten neban, erabili bueno! Harro gañera. Ta halantxerik zan gure eskolako kontua.

5.7. Lekeition euskara hutsean bizi ziren

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/033
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:47:45. **Bukatu**: 00:48:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Lekeition inork ez zuen egiten gaztelania eta zigortzeko arrazoi nahikoa zen. Bere gurasoak ez zekiten gaztelaniaz. Lekeitioko lehenengo erdaldunak zeintzuk izan ziren aipatzen du.

Transkripzioa
- Erdaldunak ibiltzen zirian.
- Igual euskeraz zuek berba?
- Ta guk euskerarik, ez gendun eitten herri guztidxan iñok erderarik, danak euskera baiño. Hamen erderi zer zanik be ez ekidxan iñok. Gure amak ez ekidxan, behintzat.
- Ez?
- Ta aittak be ez euskerarik, edo erderarik. Gure aitta Ameriketan eondaku zan ta harek amerikano bai, amerikano amerikanun modura. Zortzi urte ein dabezen ta, Nueva York-en etxiak eitten.
- Etxiak eitten Nueva York-en?
- Bai. Gure amak eskolarik ikusi be ez kontu egizu /kontixu/. Partikular euskeraz, partikular. Baiña euskera, ba, erderarik ez akixen iñok eta, hamen [ez auen noregaz ein ba]. Hamen eon ziran, Lekitton, erdaldunak, gazte zuri bat. Petra `Kakamerke´n gixona lehenao etorren ta bestia, hori, Angel barranderua lehenao esan dotsona. Ezagutuko dozu iual, Nikasio-ta.
- Nikasio, bai.
- Haretxen-ta aitta.

5.8. Gerra aurreko euskara-eskolak

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/005
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:07:08. **Bukatu**: 00:08:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
  Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena**: Euskarazko idazlan batean saria irabazi zuen gerra aurrean. Saria zelan jaso zuen kontatzen du. Eskolapean aritu zen euskaraz idazten ikasten.

Transkripzioa
-A! Euskera… hori… euskeran.

-Upiña.
-Ipuiñe ez, eskribiduten. Ipuiñe emon gaitxuzen, ba... jun giñilako. Ipuiña ta gero diru be bai. Ez dakit nik, 5 pezeta esaten dot baiña 5 pezeta baiño gitxio izango zan, ordun 5 pezeta asko zan ta. Ta liburutxue ta ipoiñe. Baiña ha gero desaparezidu [ban], haixe penia eukitten dot. Baiña gerra aurrian zan e! Gerra aurrian. Hantxe ayuntamientun hantxe goidxen. Ta zelan izaten zan ha eskribiduteko? L-n ganian ñ ipintten genduzan baiña zozeren hori. [Ta hantxe ein gendun] ta borra.
- [...]
- Bai, hantxe zozer ipintten zan ta [...], borra. Lehelengo ikesten ibili giñin berton Lekitton [hara orduko], hamentxe Eskolapeko hortxe, hamentxe ibili giñin... eskolak... euskera ikesten eskribiduten.
-A bai?
-Bai, bai, bai.
-Hori be gerra aurretik?
-Gerra aurretik zan, bai. Horrek gero [gerraostin] ya ez zirin holakorik.
-Gerra ostian ya eskolara ez ziñin jungo, edo bai?
-Eskolara bai!!
-A bai?
-Gero ez dakit ba gerran, gerra-gerran zelan eoten giñin eskolan. Ha naparra bialdu gaitxuzen. Noiztik? Ez daukat horixe gomutiori. Gerri daola eskolara juten bagiñien... Gero bai horrek kantaten genduzan `Cara al sol ´ta.

6. Ohiturak eta bizimodua

6.1. Ondarroar eta lekeitiarren kontuak 1922ko Kontxako estropaden inguruan

- **Hizlaria(k)**: Atxurra, Rufo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: LEK-001/023
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:34:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elorza, Ander Marino
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- **Laburpena**: Lekeitiar eta ondarroarren arteko kontuak. 1922an, ondarroarrek Donostiara estropadetara joatea pentsatu zuten. Lekeitiarrek ere Isuntza izeneko trainerua egin zuten, baina ez joatea erabaki zuten, hara joaten zirenak baino gutxiago zirela eta. Ondarroarrek trainerua eskatu zieten lekeitiarrei, eta haiek baldintza jarri: Donostiara ere traineru harekin joatea. Horren inguruko kontuak. Azkenean, ondarroarrek irabazi egin omen zuten. Bere garaian, ez du ezagutu Lekeition estropadarik, baina aurretik egiten omen ziren.

Transkripzioa
- Eta ondarrutarrekin hartu-emona zelakua izaten zan orduan? Ondo konpontzen ziran lekitxarrak eta ondarrutarrak?
- Beiratu, lelengotan pentsa eban, ondarrutarrak, Donostiko estropadetara jutia ta lekittarrak, konde bat euan hamen, harek eiban traineru bat bertokuak ibiltteko nahi badabe juan gero. Dxaukon izena “Isuntza”, oin

daukaun “Isuntza”. Ta ondarrutarrak preparau zin “en el año veinti dos”-en juteko ta ondarrutarrak gogorrak ixan dira ezta? Ta lekittarrak sekula ez diraz Donostin ixan. On juten diraz baiña orduan ta preparaten euazan ta lekittarrak esan bez: “ez goiz gu, ze gu baiño gehidxao diz”[...]eta. Ta ondarrutarrak ikusi ebelez triñeru barrixa eukela ba itxi eutsen traiñeruari, osa eurari, eurak eñiko traiñeruan jungo dizela ta, baiña kondiziño bateaz e? Haretxeaz juteko Ondarrura, edo Kontxararte. Baiña ze etxeben, itxuria danez, euren entrenamentutan erabili ta harako bestia eruten eben ta orduan kendu eutsen lekittarrak eta aurrera. Ni gaztia ixango nitzan ordun.
- Hau noz esan dozu, hogeta bixan?
- Hogeta bixan bai horixe, bai nik aa... hamar.
- Hamar.
- Ba ondarrutarrak jun zirin ta irabazi eiben, irabazi eiben ondarrutarrak. Gero kantan ta jantzan eitten eben ba! Kantautoriak edo? Mekauen...
- Eta hartu-emona, zelan za, ondarruarrak ze ziran lekeittiarren lagunak edo pixkat...
- Ez, ez ,ez,ez. Ezebez. Ezta sekula ez da eon e, beste herrijakin hartu emon handixo, arrantzale aldetik, ezta? Lihorrian aa gero gauza batek besti nahasta eitten dau, bai bai.
-Eta estropadarik eta eoten zan hamen?
- Lekitton? Ta baiña leheno bai, egoten ei zan. Baiña ongo denporan da on a[...]
- Bai baiña.
- Bai.
- Da traiñerurik bez?
- Traiñerua gaur egun baukauz, traiñeruak.
- Baiña lehen?
- Lein be...
- Baiña zure sasoian da eitten zan?
- Lehen be eiben, Isuntzan euki ben, bai eiben, horixen, Isuntzan. Ondarrutarrak juteko zirin baiña gero ezin jun...

6.2. Eskolan ez zuen askorik ikasi

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/002
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:10:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Imaz Atxabal, Alan
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena**: Eskolako moja baserritarra zen, moja hark eskola askorik ez zekiela dio. Euskaraz hitz egiten zien Sor Josefak. Idazten-eta etxean ikasi zuen.

Transkripzioa
- Zenbat denbora ein zendun eskolan?
- Eskolan? Ezebez, haidxe han […] iñori be ez eutsen emoten eskolarik, berak be ez zekidxan kontixu harek monjik, baserrittar haundi bat zan-ta.
- Bertoku zan? Euskalduna?
- Euskalduna zan ha, eta haxe geuaz, harek ez zekixan neure antzian eskolarik. Sekula a,e,i,o,u-rik ez gaittun erakutsi.

- Baina euskeraz eitten eutsuen?
- Bai, euskeraz zan, berba bai.
- Ta nungu zan?
- Ez dakitx nik nungu zan, Sor Josefa Jaingoikuk daki ha nungu zan.
- Zenbat urte euki zenduzan?
- Nik zemat urte orduan ? bost urteaz sartu gaittuzen ta seigarrenerako kanpun neuan, asike...
- Zeozer ikasiko zendue, ezta?
- Gero etxien-ta. Nebari ikusitta nik be ein hori ta. B edo V-az bazan be B imiñi ta halantxerik eitten neban eskribidu. Pedro Juaneri eitten neutsan.
- Ordun etxin ikasi zendun zuk?
- Bai, neuk nebiaz, Donostira handik etorritta ganera.
- Ordun gero ikasi dozu, nagusiagoa ixan zarenin?
- Bai, ikasi neban neure moduz B, V-az tokaten bazan B-az ein, eta B-az tokaten bazan V-az be bai bardin. […] Entendidu eitten eusten.

6.3. Frantziara heldutakoan, mediku-azterketa

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/009
- **Iraupena**: 0:04:24. **Hasi**: 00:26:54. **Bukatu**: 00:31:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Laka Sesma, Maria
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Frantziarako bidean, Santanderretik Saint Nazaire-ra heldu ziren lehenengo. Familiako asko joan ziren elkarrekin; beraietako ume bat elgorriak jota egon zen. Lantegi handi batean egon ziren bizitzen; eta, heldutakoan, medikuek artatu zituzten. Medikuekin zeudela, gizonezkoek zelan begiratzen zuten gogoratzen du.

Transkripzioa
- Santanderetik. Santanderetik urten gendun lelengo.
- Noruntz? Frantzidxaruntz ein zenduan?
- Frantzidxara, eta han urten gaitxuzen. “Ai ene, atrapata goz!” geuk. Han urten gaitxun dana banderia ta harek zirian, harek inglesak geu dxaoten. Baiña, gu sartunda geuazalez Frantzidxako uretik barik beste uretara, harek desaparezidu zelako ixena eukan berak? ene! Zerbera, Zerbera. Franco ta Zerbera zirian. “Harek atrapako Zerberak atrapako gaitxuz!”. Eta atrapa ez gaitxuzan atrapo, erun gaitxuzen lelengo Saint Nazaire-ra, Saint Nazairen urten gaitxuzen yata batek bandera horidxaz.[...] daroiala ta, gaixua daroiala ta. Guri be kendu gaitxuzen umia elgorridxagaz, hauxe neuk altzun daukatena, neuk altzun daukatena. Hori erun gaitxuzen elgorridxagaz ta aurrera. “Ai!” berak, “Ai ene” gure amak, bera geldittuten doila. Entregako dotsela juteko trankil beste umikin. Gero jun giñin hara, Manolo atzetik oillun modun jun giñin, danok juteko esan gaitxuzen oillo-oilloka, oillo-oilloka ta desaparezidu Manolo, hau desaparezidu ein dxakun. Ama para zan zorun moduan ta esan eutsan /esautsan/ gixon batek, Herrera, ez dala sekula umerik falta ta eoteko trankil. Zan fabrika handi bat zan., hantxe geuazan. Ta titidxak dardaraka altxa ta ikusten harek merikuak. Ta andrik kurika, kurika halako tartetik, halako zan, itzala! Eta

gizon txarridxak handixerik beira. Esan eutsan /esautsan/ gure lengusiñiari: “Beitu, badakixu zer egingo dogun /baizeingoun/?” bakixu, iminitxa euazan medikuak, medikuak eurek harekin. “Bakixu ze eingoun/baizengoun/. Horrekana, gaztikana barik zaharrakana dxun”. Eurak txarrao. Gure Teresa eta ariño itxi ebezen, gu erabili eta erabili koño! Ikusi gaitxuzen dana, txarridxak, frantses txarridxak. Eta “Zuek ez ziñien jun bir gaztikana, gu laster bialdu gaitxuzen”. Guk pentsaurik gaztik edo zaharrak ariñao bialduko gaitxuzela. Harek gaztik jun zirian gaztikana eta gu zaharrakana, zaharrak arin bialduko gaitxuzela eta. Ze batzuk tarda egiten eben / etxeben/-eta, bana-banaka juten giñin-ta.
- Ze zeuazen, jente asko?
- Jente asko, jente dana, baiña medikuak be asko . Beidxak, lelengo beidxak errekonoziduten eutsuen, gero hori dana kaltzarpe guztidxak, titidxak, ia granorik baukau eta dana, dan-dana ein gaitxuzen.
- Eta zemat denpora eon ziñien hor?
- Nun, bertan? Bertan ezebez, horixe errekonoziduta.

6.4. Merkatu-plaza ondoko errekan garbitzen

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/023
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 01:07:48. **Bukatu**: 01:09:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Donostian neskame ibili ostean, 20 urte ingururekin bueltatu zen jaioterrira, Lekeitiora. Amari etxeko beharretan laguntzen ibili zen. Bere aitak eta nebek itsasoan egiten zuten lan eta haien arropak merkatu-plaza ondoan zegoen errekan garbitzen zituen.

Transkripzioa
- Ta zenbat urtegaz etorri ziñen bueltan Lekittora?
- Ba Lekittora etorri nitzanien, hogei bat urte-edo baneukazan. Hogei bat urte, hortxe izango zan.
- Ta Lekeittora bueltau ta zer hogei urteaz?
- Gero, harek aiztak ezkondu be ein zirilez, amak etxien ostera be bihar eban nonor. Ta neutzako ostera be kargia. “La carga”.
- Lau mutil arrantzan ebiltzazan. Lau mutillenta arropak-eta euazan.
- Bai. Bat neukan ganera, hangua Gazoikua. Ha handik ibiltten zan-ta. Pedro Juan, ezautu dozu? Julian, Julin motorista, aitta patroia ta gero, ezkondu nitzanin be…
- Harek arenaten?
- Bai. Ezkondu nintzanin be, Gotzone txikiña. Ta ni harek eitten, harek lepoko hazurrak be apurtu ein bihar. Han sartu eskobilla, eskobilla garratzaz ta barrun sartzen zan ha.
- Nun arenetan zenduen, etxian edo errekan?
- Ez, errekan, errekan, errekan. Errekan eitten gendun.
- Nun euan errekia?
- Errekia oin plazia zelan dao? Plaza merkaua? Hantxe erreka edarra.
- Beste iñun baeuan Lekitton?

- Beste bat hor portalian.
- Fraillien albuan, ez?
- Haren beheian juzgau daona? Baiña bera zan hori. Ta gero arbolategidxan. Ene harek arbolak emoten ikaria.

6.5. Don Isidro medikua eta Juan aguazila

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/050
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 01:55:25. **Bukatu**: 01:58:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Bi haginlari egon ziren Lekeition Jesusa gaztea zela; okulistarik, ostera, ez zegoen, Gernikara joaten ziren. Medikurik onena don Isidro zela dio. Jesusak dio Pascual Abaroak duen moduko monumentua jarriko ziola don Isidrori, baina bere nebak Juan aguazilari jarriko ziola. Juan aguazilak eskolara joatea derrigortzen zien, kalean aurkituz gero, eskolara eramaten zituen umeak-eta.

Transkripzioa
- Eta gero zure sasoien, egoten zan, ez dakitt, edo okulistarik edo dentistarik edo...?
- Bai. Dentistia... bi eoten zirian hamen. Don Luisen semia, ta hori, dentistia hau bestiau, Arranegiko harena... Pascual.
- Baina horrek igual, zu gaztia ziñinian baino gerotxuao, ez?
- Bueno ni...
- Zu ezkondu ta geruao igual, ez?
- Ez, ariñao. Ariñao.
- A, bueno, ez, ez, eske nik ez dakitt...
- Ariñao, horrek bidxok behiñik behin.
- Eta okulistarik eta...
- Okulistarik ez.
- Okulistie ez, dentistie. Ta diruz ordaintzen jakon dentistiari edo jeneroagaz?
- Diruaaz. Eskatuten eutsuna paga bihar. Gernikara juten giñian, okulistiana.
- Ta medikue? Lekeittioko medikue zein zan?
- Lekittokuok, baeuazan Lekitton medikuak. Bai.
- Ezaunena nor izan da?
- E?
- Ezaunena.
- Ez da onena?
- Ezaunena.
- A, nitzako Don Isidro.
- Don Isidro.
- Don Isidro zerun do.
- Ta beragaz gustura orduen?
- Ene, Don Isdro. Ene. Haren modukorik ez zeuan Lekitto guztin ta iñun be ez da eongo, kontixu! Gure nebik esan eustan ze... Haunek, ez hamen ez

do. Esan eustan ze, “hermana”... Ai! Hamentxe do, hamen bestian. “Hermana, nor ipiñiko zenduke zuk... –hamen Frantzidxen geuazan tokidxa– Nori eingo zenduke zuk hori, Don Pascualen moduko halako bat?”, ta “Nik? Don Isidrori”. “Ba nik, Juan aguazillari”. “Zeattik ba?”, “Ze hamen eskolia dakidxenak, Lekitton...”. Bera be atrapako eban kontixu ta. “... dakidxenak eskolia Lekitton, Don Isidro, edo haregaittik, Juan aguazillaaittik”.
- (erraina): Derrigortuta eskolara juten.
- A, bale, aguazillak zer eitten eutsuen, obliga eskolara juten?
- Aurria atrapa, eskapaten baeben, jagon harek, nor doian eskolara, ta atrapa ta eskolara sartu. Ta haren ikariaz, Juan aguazillen ikariaz juten zirian.
- Ez amen eta aittena.
- Amen eta aittenaaz ez. Keixa be ez ama eta aitta.

6.6. Don Isidro medikua, Lekeitioko bigarren jaungoikoa

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/002
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:01:53. **Bukatu**: 00:04:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Don Isidro medikuak emagin lanak ere egiten zituen. Ume asko jaio zen harekin. Ondarroatik ere etortzen ziren umea izatera. Matrona batek laguntzen zion. Oso mediku ona izan zen; behartsuei ez zien kobratzen. Ondarroarrek zioten don Isidro zela Lekeitioko bigarren jaungoikoa.

Transkripzioa
- Ta hor eon zan Don Isidro. Baiña hartu eban fama handidxa, partero. Ze, karo, umik... umetan jaidxo zan Arranegidxan ordun Don Isidroaz! Niriak jaidxota euazan, baiña niriak euki ta gero hasi zan. Ondarrutik be halantxeik etorten zan jentia, Don Isidroana. Bestelan, mediko be eitten eban lez, baiña partero be, hantxen, bai. Mari `Kartero´ esaten eutsen, Maria, ez jat akordaten apellidua zein eukan, alabia Amparo eukan ta seme bat be bai. Ta Maria egoten zan “como matrona” berari laguntzen.
- Beran alabia zan?
- Ez, bestelan, andra bat matrona modura ibili zana hori, partutan laguntzen. Hori Maria ibiltten zan, Don Isidronera juan arren, etxian –nik be etxian euki nebazen hiru ta nire modura beste askok etxian lehen. Gero, Don Isidro hasi zanian Arranegidxan, ordun asko haraxe juten zirian. Ta, bestelanik, Mari `Kartero´az.
- Eta gomutan dozu zelan pagetan dotsazuen, diru emoten otsazuen medikuari edo matroniari?
- Ez, beraaz eitten eban lez biharra, karo, asegurotik zan lez, asegurotik. Don Isidrok askori, pobriari, bateren bateri, bestela bisittan junda be, askori, ezagututen ebazanak asko igual ez eutsen kobraten konsultia be. Pobrien modura. [Bera ya] herritar [...] bera... Familidxa danak ez zirian bertokuak eta, berari, karo, ezagututen ebazanak... Gure gixonari egun baten rayuk-eta ataratia ta golpia hartunda itsasotik etorriik ta Don Isidrongana. Ba hara jun barik ambulatoridxora, ba, Don Isidroana. Ta

“Hombre Santana”. “Santana” esaten eutsen. Mutrikokua zan aittitta. Ez dakitt aitta, aitta berton [...] jaidxo, baiña Mutrikutik Santa Ana baserridxa, Ondarroara orduko, han eskumatara. Ta ipintten eutsen horretxegaittik hori, mote modura, neuri “Sagunto” ipinttia modura, hareri be “Santana”. Manuel “Santana”, Santi “Santana” ta Fausto “Santana”, ba danak zirin “Santana”k. Gurian, Santik, ingresata egon zanian Crucesen be, bost bat urte-edo ibili giñin ta, baiña ya einda eukan medikuaaz ta esaten eutsan “Cuando vengas a Lekeitio no preguntes por Santi Arrizabalaga ¿eh? Tu pregunta Santi Santana” medikuari esaten eutsen, “tu”-az. Esaten neutsan “medikuari `usted´ edo”, “Ze `usted´? Berak be `tu´ esaten nau, ta neuk be `tu´ berari. `Usted`az hasten banaz, ganera, ez dot azertako ondo” esaten eban. Lepotik-eta agarreta: “¿Qué tal, qué tal majo, Miguel? ¿Qué, qué dices?” eta esaten eutsazan medikuari. Bost mediko grupo bakotxian, eta bera jefe, hori [...] grupokua [...]. Ta hamen Don Isidrok, bueno, famia hartu eban. Ondarrukuk etorten zirian. “Zuek daukazue suertia, daukazuez Jaungoiko bi: bata zeruan, ta bestia Lekitton, Arranegidxan, Salinas. Bigarren Jaungoikua. Lekittarrok suertia daukazue”.

6.7. Erreuma eta umorea

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/004
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:06:22. **Bukatu**: 00:07:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena**: Medikuak amari erdaraz esan zion "reuma" zeukala. Alabak ea hori zer zen galdetzean, amak azaldu zion "umorea" zela (horrela esaten zitzaion garai batean). Begoñak ere badu amak utzitako herentzia hori.

Transkripzioa
Ta hurrengoko egunian be jun giñian, ta hurrengoko egunian erderaz esplika eutsan ta “reuma tal y cual”. Desietan neuan handik urteteko, despatxotik, amari preguntateko ia reuma zer dan. “Ama, zer esan dau daukatela, zer da reuma?” “Reuma? Umoria. Zuk [eukin...]?”. Eske ordun "umoria" esaten jakon. Umoria daukola, umoria, gero neuk be umoria. Besua beti geldik egoten jakon hamar-hamabost egun be bai, ta neri be halantxeik geldik egoten jaten gero. Hamar urteaz ez, baiña gero, hamazortzi urte daukatela-edo bai, neuk be holantxek, amak eukitten eban modura, eskua zirkiñik be ez, erantzi be ezin ein. Hamendik ebai tirantiak eta [eten] ta amak-eta lagundute. Bera balitz be launtzen eutsaun ta. Ta hamen umoria. Hamen... "Amak ez nau itxi erentzidxarik –gero be esaten neban txiste modura–. Amak ez naben itxi erentzidxarik, baiña umoria itxi naben”.

6.8. 'Lekeitioko San Pedropeko iturriaren aurrean' kanta

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/019
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:29:50. **Bukatu**: 00:31:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena**: Lehen kanta asko zekien, baina orain ahaztuta ditu asko. 'Lekeitioko San Pedropeko iturriaren aurrean' kanta abesten du.

Transkripzioa
- Nik lehen asko, baia oin batzuk ez lehenguak. Amak-eta kantaten ebezenak asko ahaztu jadaz.
- Zeintzuk dekozuz gomutan?
- Ointxe gomutan gitxi, ointxe kantaten dizanak 'San Pedropeko' eta horrek. Eta 'Kalian gora kalian behera' ta horrek, ointxe bat daukou barrixa atarata, bat atarata dauko izena... Guk kantaten doun koroko baten nebiak. Ta bestelan, lehengua ontxek:"Hasi Talatik eta Portaleraiño". Horrek beti kanta diraz. 'San Pedropeko" hori.
" Lekeitioko San Pedropeko iturriaren aurrian,
hamalau atso atso despeskan dagoz,
'Askatasun' baporian"
Despiskan zan, antxoatan juten zirinak. Ta 'Askatasuna' bapora zan 'Astakasuna'. Ta hortxe familixari [...] 'Askatasunekuak' esaten eutsen, 'Askatasunekuak'. Ontxe be bai. "Miren 'Askatasunekua' doia" eta beste bat euana "Nanusenekua". [...] hareri 'Nanusenekuak'.

6.9. Txandalaren prakak jantzita baporera jaisteko

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/026
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:40:20. **Bukatu**: 00:42:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Gizonek mahoizko prakak janzten zituzten normalean. Andreek gona, jertsea, bata... Prakarik ez berandu arte. Saregile zebilela, baporera jaisteko-eta txandala janzten hasi ziren, gizonak gora begira zer ikusiko egoten zirelako.

Transkripzioa
- Bera elegante janzten zan.
- Elegante.
- Zuek zelan janzten ziñien?
- Ha elegante. Baiña gixonak haren modura ez, behiñik behin Lekittokuak. Arrantzaliak, ba, eukitten baeben jakia baten batek, edo jertsia edo... En jeneral praka mahonezkuak ixaten zirian.
- Domekatan be bai?
- Bai, barridxauak ipinitta. Iñoix bai, lanazkuak, haunen modura, antzeko lanazkuak, grixak-edo, domeketarako, ba, zeozer jantzidxaua eukitteko,

jake bateaz edo. Segun zeaz edo, kertsiaz bazan, ba, ,kertsiaz edo alkondaria, ba, bestelan mahonezko.
- Eta andrak?
- Andrak batatxukin, edo goni ta mariñera bat edo jertse bat edo, segun ze sasoi zan.
- Baiña prakarik ez?
- Ez, harek sasoian pentsa be ez prakarik.
- Zuk noz jantzi zenduzan lehenengoz prakak?
- Nik prakak jantzi nebazan sareiñen nabillela, baporera-ta bajatu bihar ixaten /bixaten/ nintzan lez josten, ba, hasi nintzan jazten... zer da hori? Txandala. Bestelan prakakin ez jantzitta, baiña amantalaaz juten giñin lez, akostunbra nintzan, ba, prakak erabiltten sareiñin gaozen artin, ba, txandala. Goikuaaz, ba, iñok be igarri be ez. Ta baporera bajatuteko-ta, hantxe eoten dizen batzuk espabillauk, ba, eskilleretan behera bajatu bihar, hantxe iztarrari begira egon ein bihar, bapora [...]. Ba ez, ba, hasi giñan ba prakakin, errezao igon be gora, ta errezao bajatu be baporera txandalakin. Ta halan gero akostunbra nitzan kanpora be. Igual gero baporak itxoten banao ta ez badao... amantal barik eon banitzan igual, amantala iñoz kendu, lotsatuta lehelengotan, ta amantalaaz tapa. Baiña akostunbra nintzan gero praka... txandalakin.

6.10. Abarketak, oinetakorik ohikoenak

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/027
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:42:02. **Bukatu**: 00:42:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Abarketak erabiltzen ziren asko; gizonek domeketan abarketa zuriak. Zapatak eta plaierak ere erabiltzen ziren.

Transkripzioa
- Gero, ba, ya prakakin ta, ba, jo aurrera.
- Eta oiñetakoak, zelako oiñetakoak eukitzen zenduezan?
- Oiñetakuk korrientiak, betiko baltzak edo marroik edo.
- Eta abarketak eta holakoak?
- Abarketak bai. Abarketak usaten genduzen, gehidxen abarketia, gixonak be bai. Gero zan honek plaierak urten ebenak, baiña, bestelan, abarketak gehidxo. Ta gixon askok, ganera, abarketa zuridxak, pixkat holan elegantetxuk zirinak, janztekuak, abarketa zuridxak domeketan. Bestelan, ba, zapatak.
- Domekatarako zuridxek?
- Bai, holan udan ta. Ta bestelan, ba, zapatak, zapata batzuk marroik, baltzak edo, ba... Hor Fresnedok eukan zapateridxan, ta bestia han goidxan Margaritak be.

6.11. Chimbo xaboia eta "bolas maravillosas"

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/028
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:42:46. **Bukatu**: 00:45:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Arropak eskuz garbitzen ziren harrian, etxean. Ura beti izan dute. Amak, Saguntotik etorri zenean, obrak egin zituen etxean. 'Chimbo' xaboia erabiltzen zuten, baina baita "bolas maravillosas" izenekoak. Sosazkoak ei ziren. Behin burua garbitu zuen bola batekin eta ederto geratu zitzaion.

Transkripzioa

- Eta garbittu zelan eitten zenduezan erropak?
- Eskuz.
- Eta nun?
- Harridxan.
- Etxian berton?
- Etxian, harridxan.
- Tau ra euki zenduen beti?
- Bai, euki gendun. Gure amak, lehelengo etorri giñinian Saguntotik, lehelengo biharra ein eban. Erdiko sua euan, bajua, baserridxetan ixaten dan modura, egur suaaz erdi-erdidxan, erdiko sua, bajua. Gure amak lehelengo-lehelengo ein eban haxe altza, behekua itxi euan modura ta ladrillo batzukin gora altza, ta hornillo bi atara, ta erdiko sua bertan erdidxan. Ta urik ez euan lez, ba, ura hamen hauna [gu jun giñian karin kara]. Atian sartun ta karin kara, ba, han pasillotik be ikusten zan harridxa hamendik [...] ta. Ta harridxa kendu eban ta ura ipini.
- Orduen, zuk beti euki dozu itturriko ure etxien?
- Bai.
- Hori da suertie!
- Handixeik etorritta, bai. Ta, karo, harridxa be ederra, harrizko, harrizko... Ez marmola ta horrek, harrizko hori, ta harridxa, beheko harridxa, ganera, honenbesteko harridxa bai. Gero sua hortik. Ta hantxe, hantxe txabona ta txabona. Ta gero barrizta eban amak. Bertan tangarro baten, hor ipintten gendun beratu igual erropa [...] zirian, tangarro barruan ipintten genduan ta berton harridxan txabona, txabo Chimboaz en jeneral edo, bai [lohidxa] asko bazirian, “bolas maravillosas” esaten eutsen, bolak, bola zuridxak, txaboi [...] ur berotan sartunda. Ta mahonezko prakak-eta [...] marabillosuk zirian desde luego be. “Bolas maravillosas” zirian. [Ez dakit euskeraz haulan zirian, baiña]. “Bolak, ekarrixu bolak garbittuteko, ur berotan ipintteko” ta urteten zirian [ein kontu] sosak zirila. Sosia be usaten eben iñoix, lohidxao baeuazen erropak. Sosia, “sosa cáustica” esaten [...], sosia. Baiña harek bolakin ederto. Halakoxe bolakin eun baten buru garbittu, ule asko nik. [Tarzanena baiño]. Kabanan biharrian. Ta “Begoña, hauxe da daukazun..., ulia gehittu ein jatzu, ba!”. “Bola marabillosaaz garbittu dot uli”. “Boliaaz? Txaboi emoteko boliaz?” “Ba, haretxeaz garbittu dot”. Ez neban topa txaborik, bai txabo Chimbo bai, horreaz, baiña “hori, txaboi emoten ta hori, amak eitten nauena da. Ta “haunetxeaz eingo dot, ama biharrian dao”. Ur berotara bota neban bera bolia, ta beraaz gero garbi-garbi ein, arrastra-arrastra, aklara itturriko ur hotzaaz, betiko modura, nik ur hotzaaz beti aklaraten dot eta on be bai, ta haretxeaz. Ule asko neukan lez, ganera, pixkat [ondulaua] –ongo modura rizaua ez, hau permanentia

da-ta baiña. Ta hori: “Begoñak ein daben lakorik! Erropak garbittuteko boliaaz ez dau garbittu ulia, ba?”. “Ta, zer dotso, ba? –esan eutsan andra batek– Ederto ez dauko, ba? Ondo ule ederra dauko behiñik behin. Hoba zeuek be eingo bazendukie haurixen”.

6.12. Ardoari tragoa jo eta iturrira botila berdintzera

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/031
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:46:36. **Bukatu**: 00:48:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Behin Begoñak ikusitakoa: ardo bila joan zen emakume bat dendara, gero, kanpoan, tragoa jo zion botilari eta iturrian berdindu zuen, ama konturatu ez zedin.

Transkripzioa
- Ardaua edo iñoix ez neban [...], ba ardau pixkat, ba, mutillari emoteko ta, ba, hantxe. Gure hango kantoian euan taberna bat. Tabernia baiño, bueno, dendia be... tabernia zan ixatez, baiña ardau zaragidxak eukezen mahaidxan ta ardaua jentiak asko haraxe, Martzeliñenera ardautan. "Han neska bat ikusitta daukat egun baten –konta neutsen, kantaten entsaidxuan gaozela, hantxe kontuk esaten ta, ba, ardaun kontua ez dakit zer, tranpak eitten zirinak eta horrek esaten–. Bai, neu nao ikusitta neska bat –esan neutsen–, on ez dotsut esango nor dan”, “Ez esan be ein”, “Eske ez dotsut esango –esan neutsen, ez jaten akordaten ta–. Eske ez dotsut esango, ze bozak arin korriduten dau ta”. Martzeliñenin hartun ardaua kuartillo erdi; tragu ein otsan atetan. Ni beherutz netorren kantoian, Bergara kalian netorren ta karinkara euan hori dendiori. Ta han, atetan tragua. Haunan beitu otsan botelliari, ta Arranegira itturrira. Ta atzamarraaz apurtxu bat marka eban berak nora arte egon dan ardaua, ura bota eban [hantxe], beitu otsan ostera be, gehitxuo kontu egizu / kontixu/, ta bertan itturridxan ein otsan ostera be, ta han jun zan etxera.
- Uregaz beteta.
- Bai, tragotxua. Trago... bueno, kuartillo bat ardau. Kuartillo ta erdiko botelli zan, ezta? Ta kuartillo bat ardau. Ta, klaro, harek ha tragu emon otsen ta ha tragua etxin amak igarriko eutsan lez, ba harekin marka eban nora arte egon dan, ta itturrira. “Hauxe da /haixa/ martingalia –esan eusten– ta zuri ez jatzu horrek... ha okurridu?”, Ez, niri ez jat okurridu, baiña ikusi neban zer ein eban”, “Zeuk be ein bir zendun haxe!”, “Ez neukan gogorik hori eitteko. Berak euki eban gogua ta ein eban, ta listo”, “Ta amak ez eutsan esan...?”, “Nik dakit ba amak zer esan eutsan, ba! Nik ikusi bakarrik ein neban hori, ni ez nintzan jun haren etxera esaten zer ein daben”.

6.13. Emakumeek alkoholik ez zuten edaten tabernetan

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/033
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:49:32. **Bukatu**: 00:52:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Ardoa edaten zuten etxean. Berak ere bai tragotxo bat. Kalean ez. Lehenengo aldiz sagardoa san Antolinetan edan zuen txosnetan. Ardorik eta bestelakorik ez. Garagardoa, berriz, senargaiarekin batera, Saguntoko lehengusina etorri zen batean.

Transkripzioa

- Ardaue norentzat erosten zenduen? Aittentzat?
- Guk, ez, ez neukan aittarik nik. Nebak euazan ta ama ta geu. Ba, tragotxua, hantxe.
- Ta andrak be edaten zenduen?
- Guk umiak garin artian,...baiña gero bai, gero edaten gendun ardaua.Tragotxu bat, e?
- Etxian bai, baiña kalian ez.
- Etxian. Ez, pentsa be ez, pentsa be ez kalian! Kalin lehelengo eran nebana kuadrillan, kuadrillan gebizen, baiña kuadrillian sekula be ez. Juten bagiñan be jaietan-ta be Leku Ederrena edo holantxeik, baiña hori, zer, sagardaua-edo eraten edo ura eskatuten ta zera. Ardaurik-eta pentsa be ez. Ongo modura, ba, kubalibrik eta mostuk eta horrek... Ez, mostorik be ez guk, ganera. Okurridu be ez daonik be, ganera.
- Andrak tabernara sartu be ez.
- Juten bazirian on, jaietan-edo, ba, kafitesnia erateko. Baiña, ipintten ebezen lez holako txiringituak plazan lehen, baiña ipintten ebezen, onbre, ardaua be eoten zan, ezta? Baiña jeneralian, Lekittoko jentia, andrak eta umikin-ta, behiñik behin, sagardaua eoten zan lez, sagardaua, jarrak hareri atara, jarroia edo jarra erdi edo segun zenbat lagun dozen. Jarria ta iual abellanak edo gaztaia edo intxaurrak. Abellanak edo intxaurrak edo. Jan [haregaz] umikin hantxe, San Antoliñetan-ta. Haretxek mahai handidxak, txiringo handidxak ipintten ebezen harek tolduagaz, mahai luziak, ta hantxen jesarten [...]. Han, ba, gurasuk eta iñoz hantxe umikin familidxan, hantxe, San Antoliñetan, ba, haxe. Ta pozarren, ganera, haxe daola ta. Klaro! Sagardau haxe edaten. Ta zerbezia ikasi neban eraten gixona dot... nebana ezautu nebanin. Bueno, ezagututen neban ordurako, ezta? Baiña, bueno, ya hasi giñan konfidxantzaz, e, nere lehengusiña bat etorri zan, lehengusua, neba-arrebak etorri zirin geu ezagututen urte baten, San Antoliñetan. Tratua baeukaun, ezta? Baiña etorri [ezin]. Ta eurak abixa eben etorriko zila eta etorri zirin. Harek pasa eben Sagunton, bueno! Ta nere gixonen laguna, Patxi. Begoña zan bera be, Mari Begoña [...] “ni Begoña, e? Hau da Mari Begoña, ni Begoña naix” . Nik Maria ez neban soportaten-eta, ez dakit zegaittik, manidxa. Ta honek, Patxik, erun gaittuzen Puertora. Bueno ordurako esan eban ze: “Vamos a tomar un trago”, “No, no, las mujeres no bebemos tragos. Agua, un vaso de agua”, “¿Cómo un vaso de agua?" esaten eutsan bestiak. Gusta ein jakon neure lehengusiñia. Esaten eban “Hauxe da... urrunekua da ba”. “Berau be urrunekua da ta neuk badaukat ba” neure gixonak esaten eutsan, orduntxe hasi barrittan geuazan gu ta. Ta “Nik badaukat urrunekua ta, zeaittik ez? Gustaten bajatzu [...]”, “Eske neska politta da, ba”. Ta “Oye, me gustas mucho, ¿eh? –esaten eutsan– Oye, Maria Begoña, me gustas mucho, ¿eh? Pero igual que la prima, te voy a llamar yo Begoña, me gusta más Begoña”

, “Pues lo que tu quieras“ esaten eutsan bestik eta “Pues me gustas mucho. ¿No nos arreglariamos nosotros?”, “ Ah, pues no sé de qué quieres hablar de arreglarnos” ta bestiak [...], baiña ez eutsan klaru esaten berak, lotsatu be [...] erdera. “Gu, beitu, gu separako gara ta esaixu erderaz berorreri nahi dozuna” esaten eutsaun guk. Ta gusta jakon asko, baiña ez zirin ein. Bera jun zan [bi edo hiru egun pasa ebazanian] ta listo. Ta orduntxe ikasi neban zerbezia eraten eurakin.

6.14. Prozesio egunetan balkoiak apainduta

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/040
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 01:00:44. **Bukatu**: 01:02:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Corpus, Aste Santu eta horrelakoetan egiten ziren prozesio egunetan balkoiak apaintzen ziren izara dotoreenekin. Kalean aldarea ipinita egoten zen, eta han zeremonia egin ondoren prozesioa elizara itzultzen zen.

Transkripzioa
- Kortiñak bai, eitten genduzan kortiñak be. Nik gitxi botaten neutsan, ez jaten gustaten, gero kosta eitten zan gehidxao ta. Ta iñoix [izaten zanian] dezentio-edo, Corpus Christy eguna ta, por ejemplo, edo San Pedruak dirazela ta. Korputz egunian be Bergara kaletik pasaten zan prozesiñoia. Eta, klaro, horretarako be kortiñak beti ipiñieran ta, ze ixarak ipintzen zirian balkoitan. Bergara kale guztia ixaraz beteta eoten zan. Ta atetak be bai, [...] atetak be tapa eitten ebezen. Corpus ta beste bi be bai, hiru zirian, “Corazon de Jesus”ena ta Eguen Santukua edo... Zein? Hiru prozesiño-edo pasaten zirian, ta balkoiak beti engalana bihar, klaro, ixara polittenak harakoxe.
- Ta zelako ixarak ekarten zenduzan?
- Zuridxak, en general, horretarako beti eukitten eben danak...
- Baiña hutsek? Zuridxek?
- Zuridxak, bai. Hombre! Ixena baeukan bordanikua amak, ba, beren ixenakin, baiña en general danak ordun bordaniko [...]. Bai hori, puntilla edo bordau eukenak be bai. Ta askok horretxek, igual, eukitten ebezen balkorako eukitteko, usa barik ohian beti, eukitteko. Geure amak be bai halantxerik eukitten ebazan, puntilladunak edo bordaudunak.
- Gordeta apropos]?
- Bai. Ze hiru-lau prozesiño eitten zirin lez Bergara kaletik, beti Aste Santutan ta Niñuna ta hauxe Corpus Christyna-ta, ba, klaro, kaliak engalanaten. Corpus Christy egunian, hantxen behian, esan dotena tabernia, ardaua erosten genduna, hantxe eitten zan. Bentana bat dao han, atetia-edo, baiña hantxen bentanako [...] altaria ipintten eben, Corazon de Jesusen [....]. Paliua etorten zan, ta horreaz, abadia, barruan hareaz, barrun sartunda. Harek esaten ei eban, on berbia atzeratuta, Francok esaten ei eban ondiñoko faltaten jakola paliuan barrun jutia bera. Hareaz, beraaz, ezin naz akorda bere ixenaaz, Jesus, sagraridxua-edo, hareaz. Eta hantxe altaran eitten eben lehelengokoxe erreberentzidxa eta

gero oraziñoiak hantxe, ta igoten eben gero gorutz eta igoten zirian Trinidade kaletik Konpañiara. Elixatik urten ta hamendik, Bergara kaletik, gora ta gero tak. Ta gu balkoian, kurika handik.

6.15. 'Kolaixua', arrain lehortua, oso gozoa geratzen zen

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/042
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 01:04:05. **Bukatu**: 01:05:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Barikuetan bijilia egiten zen. Arrain lehortua ("kolaixua") izaten zuten behar zenean jateko, uretan beratuta gero. Oso gozoa geratzen zen patatekin egosita edo beste modu askotara. Arraina nola prestatzen zen.

Transkripzioa
- Eta Aste Santutan bijilixe eta.
- Bijilidxe baridxakutan, hasikeratik bera zazpi aste.
- A rajatabla, ezta?
- Bai, baridxakutan jan be ez okelarik. Bestelan be ez gendun asko jaten, asike igarri be ez egun bat gehidxoaittik. "Total..." esaten eutsaun amari. “Gaur ezin leike jan okela gauzarik” esan eban ta "Total, ama –esaten eutsaun guk–, aste guztin ez dou jaten igual ta”. Ba hori jakia, baridxakutan ez jatiaittik, ba, igarri be ez.
- Arraiña izango bazan, bai.
- Arraiña bai.
- Problemia ixango zan.
- En jeneral baridxakutako hortxen jendik asko makaillaua-edo, harek kolaidxo sikuak-eta. Kolaidxuak, ez dakit badakixun zeintzuk dirazen. Momak eta kolaidxuak. Kolaidxuak asko eitten zan, asko atrapaten ebezenian, errepartidu eitten eben mariñerun artian. Ta garbittu, hamendik ta hamendik zabaldu, palua ipiñi hamen, zabalik eoteko, sikatuteko, ta gero balkoitan eseitten zirin. Ta gero, sikatutakun horrek, neguan, ba, jakidxa eukazun, noixnahi ez badaukazu apariri, zer ipiñi edo, “ene! Kolaidxua”. Ta sikatuta eoten zirin, ta uretan ipintten zenduan beratuten, ta beratuten zirin lez, gero egosi ta harek patatakin jateko, ba. Edo zopia ipiñi dozula edo koliflora ipiñi dabela edo, eta ganetik, koliflor hutsa gitxi dala ta, egositta, piper gorrixa berakatzari bota ta hori eta “¡a comer colayo!” Prejiduta be bai da gozu, e?
- Arraiñe zelan preparaten zenduen? Gaurko antzera?
- Ongoxe antzera. Bueno, on plantxan ta ipintten diaz gehidxo. On erreta ta plantxan ta gehidxo daoz ta.
- Eta lehen?
- Lehin ez, lehein txapa ganin-edo. Txapa ganin lo uniko lehin eitten zana kontu egizu /kontixu/ horrek, arenkak. Arenkia erreta hantxe txapan. Horixe akordaten jat bakarrik.
- Txapako labien ez zenduen eitten, laban?
- Ez. Gabonetan-edo amari okurriduten bajakon pastelen bat eittia edo. Gure ama abilla zan pastelak eitten.

6.16. Gabonetan karakolak eta turroi gogorra

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/043
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 01:05:58. **Bukatu**: 01:07:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena**: Gabonetan karakolak jaten ziren falta barik. Eta turroi gogorra, motrailuan zatituta. Gaileta surtidoak ere bai.

Transkripzioa
- Gabonetan, Gabonetan ze jatordu eukitten zenduen?
- Gabonetan karakolak falta barik, behiñik behin. Nik pentsaten dot ontxen be haretxek gehidxenetan, karakolak. Hori falta barik, karakolak. Ta batzuk eitten eben aza lapikokua be ipiñi aurretik, karakolak eon arren. Ta gero

okelia edo bildotsa edo oillua edo, zer daon, ba, bakoitxak berak zer pentsa daben, edo arraiña, ba... Baiña lehelengotan karakolak, behiñik behin. Ta haixe.
- Ta postria?
- Postria turroiak. Hori falta barik.
- Bai, beti?
- Zatitxu bat bada be, behiñik behin, turroia..
- Umetan be bai?
- Turro gogorra! Bai. Gogor-gogorra ixaten zan, ganera. Ongo modura ez zan apurtzen ha, on eskukin apurtzen da, baiña ez. Ta listo eukitten eban [...] matraillotxua gure amak, ta kutxillua, gero zatidxak ebaitteko. Gogorrak zirin ta! matraillua hantxe jo ta jo. Handitxuo urteten ebana, “ez –ba, karo, aillaateko danari–, itxon pixkaten” edo nagosidxenari hori emoteko handidxaua edo. Ta, ba, txikittuten hantxen, danari bana emoteko. Ta egun baten galleta surtiduk be bai, soltian saltzen zirin galleta surtiduak.

6.17. Kinkirrikoia, Lekeitioko ardo gozoa

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/045
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 01:08:26. **Bukatu**: 01:10:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
  Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Gabonetan ez zen 'kinkirrikoia' faltatzen, ardo gozoa. Hala esaten zaio Lekeition. Bi klase zeuden, dultzea eta mikatzagoa ('arrantzixua'). Bollarren dendan erosten zuten.

Transkripzioa
- Horrek, kinkirrikoia be ez gendun faltaten e?
- Zeintzuk?
- Kinkirrikoia. Zuk ez dakixu Lekitton zer dan kinkirrikoia? Ardau gozuari.
- A.
- Kinkirrikoia, bai. “Kinkirrikoia ekarri bihar dou gaur”. Atzanengo kanpuan, jubilauetan, kanpotarrak zarienari, zeozer meridxenda-edo euki gendun-edo ta... “Gaur kinkirrinkoia eran bihar dogu”, “Ba, hoba ez...!", "Ha tragotxua ondo eoten da ta” batzuek; “Zer esan dau, ba, ekarriko dabela?”, "Kinkirrikoia, eguardidxan jan ta gero", “Kinkirrikoia? Zer, pastela-edo?”. Ez zekidxan harek zer dan, kanpokuak. Ta kinkirrikoia esaten eutsaun dultziari.
- Baiña hori Gabonetan?
- Bai, Gabonetan, ardau dultziari. Gabonetik gabonera, gabonetik gabonera, kinkirrikoia. Baiña euazan, ardau gozua, bueno, mistela, ta arrantzidxua. Nik nahidxo ixaten neban arrantzidxua. Baltzao, baltzao zan. Ta, baiña mistela zan, dultziao, suabio ta argidxao ta haulako kolorekua. Baiña dultzio hau, nik nahidxao arrantzidxua. Baltza. Ta gurin en jeneral arrantzidxua eruten genduan ta igual hurrengoko jaidxian, ba, bueno, ba, mistela. [...] kuartillua bat erun bihar dana, kuartillu erdi ta kuartillu erdi bidxak.
- Hori be, ze erosten zenduen, ardau normalan lekuan?

- Bai, hori han, denda baten. Dendan, osea nahi dozun /naixun/ dendan, baiña denda bat eoten zan beheko kalian, Boillarrenekua esaten eutsiena, Boillar eukan apellidua ta. Boillarrenekua. Ta haraxe, ze, al por mayor [...] eitten zan lez saldu han be, ba, han bidoiak euki ebazan berak, haunako barriltxuak, ta hantxe ixenak ipinitta eukitten ebazan. Kinkirrikoia.

6.18. Oilarra Ribadesellatik Lekeitiora arraste-ontzian

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/022
- **Iraupena**: 0:04:19. **Hasi**: 00:51:46. **Bukatu**: 00:56:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- **Laburpena**: 12 urtegaz sarearekin antxoak harrapatzen hasi zen. Gero, 13 urterekin, aitarekin atunetan hasi zen Gijon eta Santander aldean; arrain asko saltzen zuten Santander aldean. Behin Ribadesellan aitari oilar bat tokatu zitzaion azokan. Eta gero itsasoan, 500 kilo hegaluze hartu zituzten. Ontzi bat ibiltzen zen handik zebiltzan Lekeitioko ontzietako arrainak batzen Lekeitiora eramateko, eta oilar hura ere ekarri zuten Lekeitiora amarentzat. San Antolin egunera arte izan zuten oilarra.

Transkripzioa
Ni ibilli naz, lehenengo tioaz hamabi urteaz sariitan, maillan. Antxoia, saria bota uretara ta mailla eitten zirian ta gero desmaillau. Andrak eitten eben ekarri portura eta andrak eitten ebezen desmaillau harek. Gero, ba, aittagaz jun nitzan hamahiru urteaz ya, ya atunetan gero. Gijonera ta Santanderrera. Ordun, [...] baporak Santanderrera juten zirian. Han saldu arraiña eta eitten zan gero Ama Birjiñin euna ixaten zan fiestia “el dia quince de agosto”. Etorten zirin baporak han kanpaiñia einda eta juten zirin, ba, juniuen, ekaiñen hamabostin hamaseidxan-edo... ekaiñen hamabostin-edo juten giñin hara ta ez giñin etorten agostora artin. Baten, anekdota bat kontako dotsut politta. Sartun giñin Ribadesellan. Ribadesellan sartu giñian, ta feridxia, feridxia euan. Ta aitta jun zan haunako feridxara ta suertan, oilarrak eukitten ebezen [...] oillar handi batek urten eutsan. Oillarra. Urten eutsan. Ta urten gendun itsasora. Urten gendun itsasora eta atrapa genduzan, “en aquellos tiempos era mucho eh?”, bostehun killo hegaluze, bostehun killo hegaluze. Eta ibiltxen zan handik arrastero bat Lekittora ekarten ha, hori, gure atunak, bapora guztin atunak, hamengunak. [...] arkadak ipiñitta eukezen euren departamentuk eindda, ixenakin ta ekarten eben Lekittora saltzen. Hori hartu eben hori determinaziñoiori, ba, koño, ez zala kofradidxan ixten dirurik eta ia kofradidxan piskatxu bat halakotuten bada. Eta, klaro, bota eban harek “Sarrillo” eta “Zorion paittero” ta ibiltten ziran han barkuan ta bertan mariñero, horra... hor barkun, karriaten eban barkuan. Ta, klaro, bota eutsan. Eta, klaro, ba, oillarra gero amari entrega behar eutsen /bieutsen/, ha oillarra aittena zan ta gero amari entrega bihar eutsen. Ta aillaa zan ha barkua eta patroiak, patroiak, bista guztidxagaz, hametik tinglaua einda

euan orduan, tinglaura heltzian, gure amari aurria atrapaten. Klaro, “Paula, oillarra daukau sortiateko ta billetia, numero siete-edo”. Ba numero... berari urten behar eutsan /bitzan/ ta. Egin eben /eieben/ ta halako baten ein eben sorteua ta “Hauxe da andri ditxosia –beste [llamadorak]– atuna be gehidxen ta oillarrak be beoneri urten dotso”. Ba, oillarra han euan, gure amak txarridxa hazten eban haur, Santa Katalinako bidian, txarridxa hazten eban, ta hantxe eukan oillarra San Antolin egunerako, aitta datorrenerako. Zer da kontua ta etorri zan aitta ta euren kanpaiñia, Ama Birjiñan egunian aillaa zanian: “E, Julian, oillarra ekarri dabe honek arrasteruak eta sorteuan neuri urten nau”. Ta aitta segidxan barrezka. “Zegaittik egitten dozu /etteozu/ barre?”, “ Hau oillarrau neuk bialduniko oillarra ixan da”. Ta eurak ardaua erateko, ardaua erateko deitzeko guztieri diru kendu, baiña neure amari oillarra.

6.19. "Trabola, trabola" kanta laburra

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Etxaburu, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-012/025
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:51:47. **Bukatu**: 00:52:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Trabola, trabola" kanta laburra abesten du.

Transkripzioa
Trabola, trabola, trabola,
jujia,
itsasorako treotzaria.

Bagoiaz danok estrepezuan,
bakoitxa bere tostara,
tostara!
Andra ederrak ohian itxitta
txaputxeruen kontura.

6.20. Bainuak zabaltzeko ideia

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/012
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:13:40. **Bukatu**: 00:15:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Eiguren, Josu
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- **Laburpena**: Bere aitona eraikuntza-lanetan ibiltzen zen eta ideia onak izaten zituela dio, beste bainuen funtzionamendua ikusita bururatu zitzaion bainuak martxan jartzea. "Club de pesca" azpian zegoen

bonba, eta tailerreko depositura lurperatutako hodi batetik eramaten zuten ura. Joseren aititak egin zituen eraikuntza-lan guztiak.

Transkripzioa
- Zure aitxitxek bakixu zer dala ta jarri eban hori martxan edo nundik etorri jakon ideie-edo?
- Ba ideia etorri jakona zan ba, bera zan bastante konstruktoria ta eitten ebazan ba etxe, egurrezko etxiak eitten ebazan harek, ta bera be bastante intelijentia. Ta ikusi eban bestia konpetentzidxa orduan, bestiari... Mendietari ba hau ipini eben, baiña handik eindda. Han “Club de pesca” daon tokidxan onduan bonbia eon zan, “club de pesca” bakixu nun daon, ezta?. Hantxe bonba bat, ta gero tallerrera ta altzateko, tubua, hamar zortziko tubua-edo, behetik gora, depositto batera, handik kamiñuan zihar pasateko lain.
- Alaba: Bide azpitxik? Bide azpitxik edo bistan euan tubua?
- Ez ez, enterrata.
- Alaba: Enterrata bide azpitxik.
- Auntxe be eongo da bertan tubua.
- Alaba: Hori ba.
- Bide erdidxan.
- Bueno kendu zirian danak.
- Ta hori dana zure aitxitxek altza eban? Zure aitxitxak altza eban hori dana?
- Bai.
- Konstruidu eta berak
- Bai dana, ta gero etxia be baiñu-etxia be berak ein eban. Ontxe daon modura, ontxe daon modura, edifizidxua ontxe tipuan dao.
- Alaba: Baiña mirador barik.
- Bai miradorerik ez euan, baiña pisua be bateko pisua gero.
- Alaba: Bai altura batekua.

6.21. Botikek ekarri zuten bainuen gainbehera

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/014
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:15:19. **Bukatu**: 00:17:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Eiguren, Josu
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena**: Gerraostean bainuen gainbehera etorri zen. Josek 16-17 urte zituela zarratu zituzten bainuak. Botikak ugaritu ziren heinean beherakada igarri zuten. Hala ere, sasoi hartan, jendeak etxean dutxa barik jarraitzen zuen. Ondarroan ere bazegoen bainuetxe bat, baina hango urek ez zuten beraienak zuten beste indarrik.

Transkripzioa
- Ze traiektori euki eban edo zuk zelan ikusi zenduan?
- Nik dutxatia ordun gerria etorri zan gero, eta gerratik eon zan, ta gero azkanian idxa galdu ein zan. Noiz arte? Nik ekuiko neban orduan hamasei

urte edo hamazazpi urte. Ta orduan bai martxan euan, baiña geruo ta gitxiao, gero honek botikak eta be gauzok kendu ein eben. Botikak eta euren indeziñoiak-eta.
- Orduan medikuntzia aurrera juan zan ta zuek negozidxua...
- Etxe partikularretara be ura geruago ta gehidxao, eta dutxak, baiñuak edo etxitan hasiko zirian.
- Etxitan bueno, etxeetan hamen gitxi, hamen ezta eon dutxarik, e, herridxan, e, Zapatutan egoten zan dutxia, kanpotarrentzako libre, baiña “agua sal, aguas dulce” .... Batzu juten zirian, "hombre"... ahal dabenak haxe be, dutxia hartzeko bertan. Ez euan dutxarik hamen ordun.
- Alaba: Txaboi barik? Ur hutsa, txabo barik?
- Bai txabo barik.
- Ordun esan dozu gerraostian hondiño funtzionatzen eban ta, ondo edo?
- Gutxi.
- Alaba: Hori ze ixan zan, gerri etorri zan ta ia, hor gelditxu zan “no”? Ta gerraostian “nada”.
- Bai badiñotsut ba medikamentukin kendu eben, eon zan autorizaziñoren bat mediko baten, ona zirila ta ez dakitx /eztaitx/. Orduan baiñu etxiak “eran”, Ondarrun be eon zan bat. Baiña urak zirian makalak harek. Erreidxoko urak ez euken. indxarrik, ta gurin eon zirinak, ur bizidxak dira, ganera ordun “septiembre, octubre” bizidxenak da.

6.22. Maisu erdaldunak

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/020
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:23:17. **Bukatu**: 00:25:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra sasoian bederatzi urte zituen Josek. Garai hartan ez zuten eskolarik. Gerra aurretik joan zen eskolara; irakasle guztiak ziren erdaldunak eta beraiek ez zekiten erdararik. Bere lagun batekin izandako anekdota bat kontatzen du. Zigorrak.

Transkripzioa
- Gerra aurretik, nik gerran euki nebazan beratzi urte, ta ordun, ba, ez euan eskolarik be ez. Ezer be ez euan.
- Ta gerra aurretik diñot, gerra aurretik?
- Gerra aurretik...
- Eskolara juten ziñian, ez?
- Eskolak [...].
- Hor ez zeuazan, ba, lehengo korreosen?
- Bai, hantxe euazan eskolak, ein zirin gero, gero. Baiña eskolak, gero etorri zirin eskolak, honek [...] zirinian. Maixu, maixu, danak zirin maixuk Valladolid [...], danak zirian. Ta gu euskaldunak, erdararik bat be ez. Ta lagun batek, Modesto, Modesto Robles, Robles ez, Moldesto...
- Bai, Robles.
- Robles ez zan. Modesto Meabe, Meabe. Modesto, ondiñoko bixi da. Ta guk eukitten genduan abadia, etorten zanian astin behiñ-edo, eskolatik,

handik, on daona Atea, Atea ez, elixatea...
- Elixatea, bai.
- Konstruiduta daona, handik ikusten zirian elixako urtekeria. Ta astin behin etorten zan abade bat, ta erdera eitten eban harek, euskera barik, erdera. Ta etorri zan ta harek, Modestok: “señor maestro, viene, viene, viene la cura, la cura”, bam, “se dice el cura y tal”. “Se dice la cura”. Ikusi eban harek, espabillaua bera: “señor maestro, viene la cura” ta “¿cómo la cura? El cura se dice” ta plisti-plast emon.
- Txarto eittiaittik.
- Txarto esatiarren.
- Bai.
- ”El cura” barik “la cura” esan ebalako.
- Ze, klaro, zuek han sasoien dana erderaz, ezta? Eskolan.
- E?
- Eskolan dana erderaz?
- Erdera eitten eban harek. Maixuk harek danak zirin erdaldunak. Ordun zan idea bat Francona, euskeria galtzia. Haxe zan basia.
- Baiña zuek euskeraz eingo zenduen halan ta be.
- Guk euskeraz, baiña han eskolan ezin eiñ euskeraz.
- Ta kastigurik-edo eukitzen zenduen?
- E?
- Kastiguek.
- Bai, bueno, hori belauniko-ta, liburuaaz-ta? Normal. Belauniko ta liburuak hamen ipinitta.
- Jarritta.
- Bai.

6.23. 1912ko galerna

- **Hizlaria(k)**: Alzibar Arregia, Modesto
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erkiaga, Josu
- **Erref**: LEK-018/001
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: 1912ko abuztuaren 12an ikaragarrizko galerna egon zen euskal kostaldean. Bermeotar asko ito egin ziren, guztira 143 arrantzale; lekeitiar bat bakarra salbatu zen, San Nikolas itsasontziko patroia: Lekeitioko Juan Daniel Ezkurza. Handik hiru egunera, Pasaia parean aurkitu zuten bizirik; eta, Donostiara eraman zutenean, Espainiako errege-erreginak joan zitzaizkion. Emaztea umedun zuen eta errege-erreginek eguneko ogerleko bat eman zien; harrezkero, bizimodu ona eraman zuen. "Fakun-tuzin" Alfonso XIII.aren yatean hasi zen lanean eta asko egoten zela bertan dio. Ezbehar horretan horrenbeste bermeotar hil zirenez, Bilboko ume asko adoptatu zituzten garai hartan Bermeon, eta Modestok dioenez, "Bilbao" abizena horregatik da hain ugaria herri horretan. (Jatorrizko transkripzioa mantendu dugu pasarte honetan).

Transkripzioa
Urte' beni´n txalopak itxasora sartu san galarrena illen amabijjan, galarrena, da lekitxarrari ei eutzen buelta eraiñ da lekitxarrari morun bermi’tar askori. Ordun bermi’tar asko gelditxu sirian, ba, gixon barik, eun da ogeirero geijjo' itxo sirian. Da lekitxar txalopan euana, Juan Daniel Eskurza, san buelta eiebana. Da buelta einjjakuan, denporale andijjaas, mariñeru' laundu eutzen patroiari, da amarratu' ben palu’n krutzijju' einjja, amarratu' ben. Etorri san algarete onutz, algarete onutz, algarete onutz, da txori askok persegiru eitxe'besen. Da orrek eieutzen txarto txorijjakin. Ta Lekitxoko parera allagaga zanin ikusten zan Lekitxoko Otaijjo ta, ...ikuste'basan arek, da kalma ebales denpori' Lekitxoko alturara ezkero, ba, beren laun bat euan patro bapor baten -ordun bapor txikitxu' zirian- da bapor baten, da deitxu eitxe'utzan arek beren launari: Pintto jjakon ixena, «PINTTOl›› baiña e'eutzen entzuten da pasa zirian. «Adios ni». Pasaiko alturara alla’zanian, Pasaitxik urteniko arrasteru'k kalmata, sarati' eieutzan, bera jjo bia eben da, ...saratia, ...saratia, «nonor dao emen» esa'ben arrasterokuak. «Nonor do emen, altza gizonakl». Topa eben ori, Juan Daniel Ezkurza, topa eben, paluan da esa' eutsan: «Beste launak?» «Es to' besterik, illen amabiku’kara ta; illen amabijjan aaa ondora, ...buelta ein gendun guk eta». Erua eben Donostiara da Donosti'tik, erregi’ta entera ziri'n da erregiñia..., erua eben da artu eutzeni'n aaa referentzijjak, artu eutzenian, ba, eurentzat artu'ben gixonori. Ordun andria zinttan eukan, ...Bitor, ezagutukosue danok lekitxarrak, Bitor Eskurza. Amendik gero arek aa... Da orduan salba eben da ordun ipini eutzen errei’k eta erreiñi’k – erreiak- ipini eutzen, ba, oorlekua egunian da asko san ordun oorlekua eguni’n da eieban biximoru ona andik aurrera da... beti euan «KUN-TUZIN» (Alfonso XIII.aren yatea) san aita eukana erreiak da antxe euan beti beraas mariñeru, errei'n semi'kiñ ibiltzezan da ondo arreglatezan da...
Bermion orduan gixon asko itto san, egun da ogei ero geíjjao. Da gero, ordun, andrak eta falta ebeseles gixonak Bermion, mariñeruak eta palta ebesen da ordun ekarri besen ume gaste asko Bilbotik. Da orretseatxik dao or ixena on. .. askok, ...Bermion apilleru'k daukes «BILBAO>. Beste apilleru”k eseuken da... <<BILBAO›› orretxe tias. Gero, ondarrutarrari ordun etortejjaken Santa Klara, etorri jjaken, da... or salva sirian ondarrutarrak; beren egunin galarrena ekan'i'ban da salba síri”n ondarrutarrak asko... da orreaitxitabe maitxe Sama Klarako fi'stia.

6.24. Alondegia eta eskola

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/009
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:15:07. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola zaharra jausi egin zen. Gero alondegian goian zegoen beste bat, Txalaparta taberna dagoen tokian zegoen alondegia, Eskolapean.

Transkripzioa
- Gasolineridxa.
- Bai, jausi zan ha be, eskola barik geldittu zan. Gero, Zumatzetako

hortxe... zera, [sozidadiak... zianian] hortxen eskolak. Besterik ez da eon eskolarik. Gero ein zin harek eskola txikidxak, han, portalian.
- Portalian, bai.
- Jausi ein zan. Iñor atrapa be ez, ganera. Jausi zan bere kontura, zaharren-zaharraz, bom. Hortxe, korreosen, hortxe parian.
- Bai. Eskolapin ez zan egoten beste bat?
- Bai, bai. Alondigin goidxan.
- Alondigia egoten zan hor?
- Bai. Txalaparta-edo, zein da?
- Bai. On Txalaparta...
- Hantxe goidxan eskolia.
- Behian alondigia eta goiko aldian eskolak.
- Lehen behian alondigia, ardauek eta horretxek.
- Ardauak eta saltzen.
- Ardauek Lekitto guztikuk hortxe egoten zin leheno. Alondigia.

6.25. Eskolan zigor gogorrak

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/032
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:46:36. **Bukatu**: 00:47:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena**: Eskolako zigorrak gogorrak ziren: belauniko jarrita jotzen zieten atzamarrak odoletan utzi arte.

Transkripzioa
- Eta eskolan, kastiguek-eta eukitten zenduezan?
- Kastiguak bai, bai, belauniko parata. Ta halako regliaaz atzamarrak zabaldu ta jo, ta, ba, odoletan atzamarrak be. Maixuk gaiztuk zirian. Erakutsi niri bat be ez, hantxen jesarritta eon ta emoten eutsuen pizarra zati bat. Pizarrarik be ez zan eoten, apurtu eitten zan ta, ta pizarra zati bateaz hantxe, pizarra zatidxaaz.
- Kuadernorik be ez zenduen eukiko.
- Ez, kudernua, bai beren... berak eukitten zittuan kuadernuk eta halakuk. Ganetik haxe, ixena eitteko, ba, berena markateko, ta hantxe ganetik, tintiaaz. Tinteru eoten zan, ha beteten dan tintiaaz ta potua mahaidxan ibiltzen zan. Tintia be, lapi... haulaku, tinteru be, haulako puntakuaaz, tintiaz.
- Plumia-edo, zelan zan?
- Bai, plumiaaz.
- Ta horrek kastiguek, zer dala ta?
- Ba gaiztuk garelakuan, eurak zer esan be ez ta...

6.26. Dotrina euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/034

- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:48:51. **Bukatu**: 00:49:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena**: Dotrina elizan, sakristian, ikasi zuten. Eskolan ez zuten dotrina jaso euskaraz ikasten baitzen eta maisuek ez zekiten euskaraz.

Transkripzioa
- Dotriña?
- Dotriñia, abadiana jun bihar elixara, sankristidxara.
- Eskolan ez?
- Ze erakutsi? eskolan bat be ez. Esan dotsut, ba, han dotraiñi euskerazkua ixaten zan; harek ez ekidxen euskerarik. Ikesi be ez. Zelan ikesiko eban, ba, erderaik iñok ez eban eitten ta!
- Ta asko juten ziñien elixara?
- Bai, Amorotora.
- Amorotora?
- Amorototik handik zulutatik papeleridxa, baakixu nun daon?
- Bai. Handixerik gora, Amorotora, ta gero ostera be bazkarittan etxera, arin-aringa, arin-aringa goruntz ostera be.
- Jolin!

6.27. Aldare bakoitzeko abade bat

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/036
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:53:11. **Bukatu**: 00:55:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Lekeition aldare bakoitzean abade bat egoten zen. Lehen meza goizeko bostetan edo seietan izaten zen. Meza nagusia beranduago. Guztira 14 bat aldare zeudela dio.

Transkripzioa
- Horixe, zenbat abade egoten zirin? Asko, ezta?
- Lekitton? Altar bakoitxian bat. Zortzi altara badaoz, zotziren baten eoten zirian. Altara nagusidxan ez zan eoten ezer, meza nagusidxa bakarrik, ta akabo. Bestin danian.
- Hori domeketan ixaten zan meza nagusidxa?
- Meza nagusidxa, bai, domeketan.
- Domeketan eta jai egunetan, ezta?
- Bai jaidxak dizenian meza nagusidxa.
- Ta ze orduten?
- Ordua, ez dakit ba, hamabidxak edo.
- Bai?
- Bai, berandu eoten zan; ez, hamar ta erdidxak.
- Baiña armosua, armosau barik juateko, berandu?
- Ez, meza nagusirako... mezetia hasten zan goixeko seiretarako, mariñeruntzako, goixeko bostetan, iual. Jun biharra papardutan ta, ba,

goixian, alban.
- Eske goixetan...
- Bai, bai.
- Mezi entzunda jun bir ixaten zirian.
- Baiña [...] bat eoten zan, bakoitxa altar, hamen mezi emoten, han mezi emoten, bat amabirjiñenian ta bestia ez dakitt zein dan, bestia San Antonion, danak martxan.
- Altar guztidxetan euazan?
- Bai, bai, bai. Lekitton altarak [...] asko. Lekitton danetara badaozen hamalau altara-edo, eta on ez doz hamarrik be, kontu egizu /kontixu/. Etxin atzin daukauz hogeta [...].
- Kapillak diñozuz?
- E?
- Kapillak diñozuz?
- Bai, kapillak.
- Santa Ana.
- San Antonio, amabirjiñia dao atzeko, elixin atzeko partian, altar nagusidxen atzian.
- San Pedrona.
- Ta hiru edo lau.

6.28. Bikarioaren etxeko eskola

- **Hizlaria(k)**: Goitia Izurieta, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-043/003
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:05:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerra Zibilean herria ebakuatu zutenean, aitak alde egin zuen eta etxeko umeak amumagaz geratu ziren. Eliza atzeko bikarioaren etxeko eskolara joaten zen domekero.

Transkripzioa
- Gero ixan zan ba, desalojua etor zanian, desalojua etor zanian aitta eta jun zirian horra desalojaten jun ta nik e aittari "neuk be jun, neuk be zeuaz nahi dotela juan" ta "ez, ze laster etorriko gara gu, zu geldirik amumaz, zu geldirik". Geldittu giñian amumaz ta gero hor... elixi, elixi bakixu nun dagon /don/ ezta? Hantxe atzeko partin eguan bikarixuen hori etxia. Ta domeketan emoten eben hantxe eskoli, domeketan. Nik itxiko neban eskoli ba? Domekan domekan juten nintzan eskola. Ta hantxe ikasi neban pixkat, asko ez baiña, eskribiduten ta leiduten be zeozer, handixak, letra handixak, baiña erdera bapez, erdera bapez, ez neban urten injenieria ta. Nere aiztak bai, nere aiztak jakin eben erderaz, kolejixun eon zirin ta, baiña nik ezer bez, hamen neguan ni neure kontura, bakarrik.

6.29. Eskolako maisu-maistrak

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/003
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:03:17. **Bukatu**: 00:04:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eliza atzeko eskolan ibili zen. Fraideetan ere egon zen eskola. Gernikarra zen maisua, "Txatua" esaten ziotena. Bere maisuen izenak. 'Maistra Surrandi' esaten zioten beste bati.

Transkripzioa
- Eta esan dozu hemen eskolia egon zala.
- Hamen? Bai, hamen be bai ta... bai, ezagututen dot.
- Zu hemen ibili ziñen?
- Ez, ez, ez. Ni han, elixin atzian euan eskolia. Hantxe ibili nintzan, harik eta, haurixe, 13 urtera arte edo.
- Elixa atzian?
- Elixa atzian, bai. Baakixu nun daon elixia?
- Bai.
- Ta lehen gasoliñia [...] halakua? Hantxe [altzata dozen] etxiak? Han eoten zan, ba, abadien etxia ta eskolia mutillena. Ta fraillietan eoten zan beste eskola bat, partikularraaz. Horrek, gernikarra, `Txatua´ esaten eutsena, maixua. Fraillik.
- Ta zuen maixua?
- `Txatua´ esaten eutsen, `Txatua´. On hil da, baiña semia bixi dau, haurtxe moilla partian bixi da semia.
- Ta zuen elixa atzeko eskolako maixua?
- Ni ibili nintzan Don Julianeaz, Don Julian esaten eutsena. Ta bestia Don Anestasio. Haretxegaz.
- Euskaldunak?
- Ta beste bat be, gaztiao ixan nintzanian, honeaz, orduan `Maistra surrandi´ esaten eutsaun. Zelako ixena? Ez dakit ze ixen eukan be. Ha urte asko ein eban harek, [...] urte asko [...].

6.30. Eskola erdaraz, dotrina euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/004
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:04:52. **Bukatu**: 00:06:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Gazteleraz zen eskola. Bakarrik kofradia gainean erakusten zuten euskaraz. Dotrina sakristian ematen zuen abadeak astean behin. Gaiztoak omen ziren abadeak; batez ere nazionalekin batera sartu zen bikarioa, "Zapataundixa" esaten ziotena.

Transkripzioa
- Eta euskeraz dana?
- Bai, bai. E, erdera horrek. Gu ya... erdera, maixuk erdera eitten gaittuzen

”en aquellos tiempos". Euskera kofradixan eukitxen eben, kofradidxan [...], kofradidxa zaharrian eoten zan, goidxan, eskola bat. Ta haretxek be, lekittarrak emoten eben han, kapittanak eta mariñero tartekuai eskolia. Harek bai [ein eskuen].
- Baiña zu eskolara errepublikan hasiko ziñen?
- E? Bai, bai.
- Errepublikan hasi ziñen eskolara?
- Bai, ba zenbat urte eukiko neban ba? Ba sei bat urte edo, bost ero, sei edo, Errepublikan.
- Errepublikan.
- Bai , bai.
- Ze gomutaten dozu errepublikakua?
- Nik Errepublikakuk... Ai ! Gazti nintzan ta nik ez dakit /eztakitx/ horrek bape.
- Ze, eskolan ez zan katolizismorik eta... emongo edo, edo bai?
- Bai euan.
- Bai?
- Bai. Berton [...], eskolan barik, auntxe akorda, eskolan barik, eskolin euan, albun euan sakristidxa esaten eutsena habitaziñoiak. On be... Elixiana zan. Hantxe euazan, habitaziñoiak, eta hantxe emoten eben katezismua, abariak. Lantzin... astin behin-edo emoten eben. Abarik be gaiztuo...! Bai.
- Ze abade?
- Bai, bai.
- Ze abade zan gaiztua?
- Bo! Gero azkanengo eon zana, ha bikaridxua, haunek nazionalakin sartu zana. Harek, "Zapata handi" ta bikaridxua, harek bai gaiztuak, reketiak.

6.31. Eskolan piper egiten bazuten, egurra

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/006
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:07:26. **Bukatu**: 00:08:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eskolako materiala doan zen, baina bertan utzi behar izaten zen. Egunero joaten ziren eskolara. Eguen arratsaldez eta domekaz jai. Piper egiten zuten sarri. Gero, etxean eta eskolan egurra.

Transkripzioa
- Eskolarako... ze eroaten zenduen zuek eskolara?
- Eskolara?... eskolak bertan emoten genduzen, ee... Kuadernu ta lapixa , ta liburuk be bertan leidu ta... gero kanporatzian itxi. Bertan. Bai, kuadernu ta debalde emoten [gaittuzen] .
- Eta eskolan egunero?
- Bai. Eskolara egunero. Eguen arratsaldian bakarrik, ta domekan , jai.
- Eta biharra eguenien be eskolara?
- Jaaa..., hori... segun. Ta lantzin behin e... eskolara ... E eskolara noia , ta hor zihar! Eskapata , gero ba... papela amari eruan ta “egueldixa “ edarrak gero... Lehenengo etxian ta gero berak , maixuak.

6.32. Don Luis Zeniga, mediku bikaina

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/007
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:06:03. **Bukatu**: 00:07:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Anaia gaixotu egin zen pleurarekin. Mediku oso ona zegoen, don Luis Zeniga, eta hari eskerrak salbatu zen. Batzokian operatu zuten. Ez du ulertzen zergatik ez duen gizon horrek kalerik herrian. Gerra etorri zenean fusilatu nahi izan zuten nazionalista zelako.

Transkripzioa
- Pleubia etorri jakon anaixiari, Josebari , ta hamen eguan, mediko bat eguan hamen ona, nik ez dakit zelan Lekitton ez dotsien hareri ipiñi kale baten ixena. Egixa da e? Egixa da e? Ha, ha ez zan ixan Leketton eoteko medikue.
- Ze mediku zan?
- Don Luis Zeniga, Don Luis Zeniga. Esan eutsan aittari, gure aitten laun handixa zan. Aittari esan otson /esatson/: "Julian, semia... ez dau egun birik eingo e? Ta nahi ba dozu /bozu/ neuk operako dotsut". Ta aittak esan otson: "Ba opera". Batzokixan opera eben. Hortxe batzokixen. Han daoz begi bi, zuluek. Neu eoten nintzan , zera ba "pruebia", neskakin, bertan eoten zirinak, Solanonekuak eta Carmen ta... eoten zien, Nieves ta horrek aiztak ta Carmen "Antzarra" ta. Geu be kurak eitten anaixiari. Ta hurrengoko egunin esan eutsan berak Don Luisek esan eutsan: "Julian, semia libre dao, salbata dao semia" Ta, klaro, atara eutsezan harek danak ta hainbeste egunin ibilli giñin, kurak eitten eutsezen anaixiari, Josebari. Han dao [...]. Ha medikua ez zan ixan Leketton eoteko medikue. "Era, eminencia era aquel". Don Isidro ta modukua, eminentzixa zan ha. Ta begiratu /beittu/, kale bat be ez deutse ipiñi hai gixonari, ta afusilla nahi ixan eben ha. Francok, Francok, afusilla nahi. Bai.
-Ze ba?
-Ba, nazionalisti zalako. Afusilla nahi ixan eben ha, ta botuk eta firmak eta bota ta jentik eta para eben.

6.33. Don Isidro Salinas, beste mediku bikain bat

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/009
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:09:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Don Isidro ere oso mediku ona izan zen. Bilboko Guimón mediku ospetsuak esaten zuen Isidro Salinas bera bezain ona zela.

Transkripzioa
- Don Isidro modura, eta. Don Isidro ez zan ixan Lekitton eoteko medikua, "era un médico de catego..." Kategorixakuan zan ha.
- Don Isidro?
- Hombre! Eta Juan Calle, Calle, Isidoro, ha riñoikuaz ibilli zan, riñoi ta txizakuaz ibili zan ha neure albuan. Eta esan naben: "Txato, lagunduko nazu aittaz Bilbora?", “Bai ze!” Jun giñian Guimóneana, don Julian Guimón, " otra eminencia". Jun giñian eta, hareri be,errekonozidu eban, eta esan eutsan: "Isidoro, ez etorri gehidxo nigana, e?", "Ze ba, don Julian, ba, eta?" "Nire besteko mediku edo hobiao Lekitton daukazu eta". "Nor da, ba?" Eta "Isidro Salinas" esan eutsan, berak, don Julianek, bai don Julian, Isidro ixan da kategorixako medikua.

6.34. Don Paulino maisua, maisu ona

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/013
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:13:32. **Bukatu**: 00:15:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Don Paulino Alonso izan zuten maisu; bermeotarra. Oso ona. Espainia guztiko oposiziotan hirugarren irten zen. Erdaraz zen eskola. Hantxe ikasi ei zuten ikasi zuten erdara apurra. Don Paulinorekin ibili ziren guztiek aurrera egin zuten ofizioan.

Transkripzioa
- Kofradiko eskolan ze maisu edo ze euki zenduen?
- Esan dotsut ba, Don Paulino Alonso, Alonso, Alonso.
- Kanpotarra?
- Bermiotarra.
- Bermiotarra.
- Baiña, ona e, e ixango zan ha, e, ez dakit ba “treintai” “treintaiuno” edo “treintan” edo, ha eruan eben e, maisu guztik erun ebezen, horrek, ataraten, oposiziñuk ataraten. España guztin hirugarren atara eban harek gero, España guztian hirugarren. Hamentxe ibiltten da semia harena, Manolo, bai Alonso apellidu eukan, Manolo Alonso, Manolo Alonso, hamentxe etorten da beti, kanpuan bixi da baiña, domekaro, domekaro etorten da.
- Bai?
- Lekittora, bai. Andria lekittarra eukan ta.
- Eskolan, erderaz edo euskeraz?
- Erdera, erdera, ikasi genduan apurra hantxe ikasi gendun, eskolan ikasi genduen.
- Republikan be bai?
- Bai, bai, erdera, erdera, eon zirin eskolak euskera eitten ebenak be, egon zirian, horrek e partikularrak egoten egon zirian, partikularrak.
- Kofradikua zer zan, nazionala, eskola nazionala?
- Bai, eskola nazionala zan, bai, nazionala, bai, ta gixona listua, listua zan. Danori, hareaz ha ibilli garin umiak guztiak, danok atara dogu patroia, edo makiñista, edo danok, ibilli giñin guztiok. Asko erakutsi [gaittun], asko.

6.35. Don Julian Zabalak patroi ikasketetan asko erakutsi zien

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/018
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:18:00. **Bukatu**: 00:18:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- **Laburpena**: Don Julian Zabalak ere asko irakatsi zieten itsasoko gauzetan. Hark ere monumentua merezi ei du.

Transkripzioa
- Zabala, Don Julian Zabala, hamen Leixopekua, Leixope? Arantza? horren aitta. Harei be, hareri monumentua harei be ein bihar /bi/ jako, harei be. Haurreana juten giñian gero ba itsasoko badakixu sestantienak eta graduak eta horrek ikasten, ba horreaz jun, eoten giñien. Donostira jun giñian ta laurok aproba genduen patro.
- Patro?
- Bai, “tercera de altura" atara genduen guk orduan. Orduko denporarakoba halako handixa zan titulua. Gaurko ez da ezer be, baiña ordun denporan bajurako patrointzako, ba halako handixa zan hori. “Tercera de altura" atara genduen. Horreri be bai, hauri be, hauri be gixon ona, Arantzen aitta, haurixen, Arantzen aitta, Leixopekue.

6.36. Mahoizko prakak eta arrain-usaina dantzako orduan

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/024
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:27:34. **Bukatu**: 00:28:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena**: Ez zioten inportantziarik ematen arropari. Mahoizko prakekin joan zen behin baino gehiagotan andregaiarengana, arrain-usainarekin. Neskek ere antzera.

Transkripzioa
- Baltsiorako eta zer, elegante janzten ziñien edo?
- Ba ahal dan modura, ni han nobixiagana /nobixiana/ mahonezko junda nao beti, itsasora junda, mahonezko jantzitta gaur daukaten andriaana, baltsiun mahonezko, ordun ez gendun pentsau be eitten holako gauzarik guk.
- Bixarra kendu eta kolonia apur bet eta...
- Hori koloniarik tantarik bez, horrek. Arrain arrain usaiñaz igual.
- A bai?
- Karo ba, arrain usaiñaz, ordun ez euken , lehenu be.
- Arrain usiñiaz andrak eskapeu?
- Keba!

- Ez?
- Eurak be arrain usiñaz ibiltten zirin, despeskan ta ibiltten zirin ta pabriketan salazoi eitten ta ibiltten zirin andrak eta. Bai arrain ta arrain hori exagerauta baiña, ni neu behiñik behin sarri jun mahonezko nobixiaana, itsasora jun aurrien.

6.37. Potinetan arraunean ibilitakoa soldadu joan aurretik

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/047
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:04:36. **Bukatu**: 01:05:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
  Aisia » Kirola » Arrauna
- **Laburpena**: Potinetan (bateletan) ibilita zegoen Julian soldadu joan aurretik. Oso patroi ona zuten, Bakeriza donostiarra. Estropada guztiak irabazi zituzten. Cartagenan amaitu zuten soldadutza.

Transkripzioa
- Lekitton, sekule erremutan ibili bakoa?
- Bai, erremutan ibilli giñin gu, baiña ez traiñeruan, bateletan ibilli giñin gu, regatak Lekittora, San Antoliñetan ta eitten zirian. Ibilli nintzan ni San Antoliñetako lau laguneko bateletan, potiñak, potiñetan. Ibilli nintzan, ibilli nintzan.
- Eitten zin txapelketak eta orduen?
- Bai! Lekitton be eitten zirian. Baiña batelak ez, traiñeru ez, batelak ez zirin harek, potiñak, potiñak, potiñak. Ta, hau... gero bera patroia eukagun ona, patroi zan ha ume-umetatik Donostin patro ibilliñikua, Bakeriza, Jose Bakeriza, ha gazte-gaztetatik ibilli zan ha patro. Ta danak irabazi genduzan. [...] Gero Cartajenan be ein genduen, ta Cartajenan be enbarka han be ta Cartajenan kunplidu genduen. Cartajenan kunplidu gendun... Handik ba, etxera gero, Cartajenatik.

6.38. Galarrenan hildakoak

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/022
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:18:05. **Bukatu**: 00:18:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Galarrena (enbata) izugarri batek eraginda hainbat itsasgizon desagertu ziren, baita lekeitiarrak ere.

Transkripzioa
Eske geu be talan eon giñian orduan, hil zirian, Lekittarrak be galdu zirian.Ta gero esaten eben, zelan yata bat denbora zantarrak kanporatz ta,

kanporatz ta, kanporatz.Ta pentsaten eben jentiak, igual, Frantzidxan edo, kontako eutsuen beste nonorek be ta, hamen edo, hor edo egongo zala, baiña lekittar bi hantxe galdu zirian; Likona eta Iñaki. Gero, geure aurrian bizi zan Manuel, Manuel bizi zan geure aurrian; ha be hantxen, Sokorro baporin edo galdu zan ta...nHorrek danok e! Gauza trist... Holako tristiak izan zirian horrek, denpora tristiak.

6.39. Gardatako eskola

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/004
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:07:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Umetan, eskolak irten kafesnea hartu eta etxeko beharrak egin behar izaten zituzten. Gardatan zuten eskola eta bertara joan zen. Lekeitio aldetik ere batzuk bertara joaten ziren. Donostiako maistra bat zuten gerra heldu zen arte, gerora maistra nafarra izan zuten. Ez ei zuten askorik jotzen, baina lantzean behin kanaberarekin igurtziren bat bai. Neska-mutilak elkarregaz joaten ziren. Erdaraz ikasi arren, euskaraz jolasten zuten. Gerraostean asko aldatu zen euskararen egoera.

Transkripzioa
-Umetan, bufa! Umetan olgaz be bai, baiña biharra be bai ta danak e! Eskolatik urteten gindunean ipintten gaittuzen amak meridxendia, cafe con leche zopakin tangatxutan, han beheko sue, ta hantxe bueltan, ta gero txokolatie ta ogidxe. Baiña etorriko zarie harexe...? Ta bedarra, ta bedarra ze ekarriko gendun. Ta egurra ekarri handixerik ta ure ekarri tta... horrexek gauzok eitten.
-Ta eskolara?
-Eskolara, bertan barriadan egon zan eskolia gurasuk einda. Barriadan, bai, Gardatan bertan. Ta orduan hara bai, beti. Gaiñera, maistria euki genduen... guk ikesi genduen honek baiño gehidxao, Lekittoko [honek] baiño gehidxao e, maistra ona [dekogun] ta. Honek be, ez diz [...], baiña Lekittotik be etorri eitten zirin batzuk bertara ikesten.
-A bai?
-Honek Tanborreinikuk eta honek... zelan da hori? Hanguk, Arropainguk eta. Bai. Donostiako maistra bat dekogun ta gero gerria etorri zan ta ha maistrie kendu eben ta gero naparra ipini gaitxuzen, majie zan baiña.
-Ta lehenagokue, Donostikue, euskalduna zan ala?
-Bai euskaldun gogorra, bai gogorra euskaldune. Ta erakusten bebai gogor. Bueno, gu ordun bakizu... bueno, ni sekula ez nindun jo, baiña, bakizu, mutillek-eta gogortxuo ta kaiñuberiaz emoten otsen /emotentsen/, asko ez otsen emongo ze bestelan ha...
-Mutillekin batera?
-Bai, mutil ta neska. Banan egoten giñin e! Neskak hamendik ta mutillak handik, hori bai, baiña batera. Olga be danok eitten giñin batera, bai, bai.
-Zetan?
-Edozer, “baleka” ta. Zelan da... “itsu-itsuka” ta... Danok batera. Ta gero

hori, ba, euridxe zanien, kuartun olgaten ginien, ta hantxe, “itsu-itsuka” hantxe eitten genduen. Ta gero zer da hori bestia... “zer ikusi” ta... “ikusi makusi zer ikusi” ta... horretxek kuartun barrun.
-Ta euskeraz olgaten zenduen e?
-Bai, bai. Bai, dana euskera. Ikesi erdera dana, baiña hori, horrek euskera eitten genduzan. Gero gerria etorri zanien, Escuelas de Barriada ta gero euskeraz han behien, ta dana [...] pikatxoiaz edo horreaz apurtu eben euskerazkua. Escuelas de Barriada bakarrik itxi eben. Gero Diputaziñoiak bialtzen gaitxuzen liburuk eta danak e. Ta gero geure esposiziñoiak eukitten genduzan urtian-urtian e, dotore eindda, ta hantxe etorten zirin inspektorik eta, ba, danak ontzat [emongo eben].

6.40. "Goizeko sei ta erdixetan izurdak brankaraka" abestia

- **Hizlaria(k)**: Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/052
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 01:02:04. **Bukatu**: 01:02:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena**: "Goizeko sei eta erdixetan izurdak brankaraka" abestia kantatzen du bere azalpenagaz batera.

Transkripzioa
- T:
“Goizeko sei ta erdidxetan
izurdak brankaraka
Ke ta ke, talaidxerua,
Ke ta ke, talaidxerua...”

Talaidxan talaidxeruak botaten [zan] bolanderak eta honek, ez euan radidxorik eta.
-K: Ikusten ebenin arraiña...
- [...] ta bapora guztik arin-aringa.

"Lelengo bapor Klotilde,
Lelengo bapor Klotilde,
Lelengo bapor Klotilde,
Etxaria eitteko.

Botata gorri ederra,
Botata gorri ederra,
Botata gorri ederra,
Txikotetik eskapa.

San Pedro, botaik azpittik,
San Pedro...”

Kantia, bueno...

6.41. "Julitxu eta Martintxu" kanta

- **Hizlaria(k)**: Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/055
- **Iraupena**: 0:00:13. **Hasi**: 01:03:34. **Bukatu**: 01:03:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena**: "Julitxu eta Martintxu" kanta.

Transkripzioa
Julitxu ta Martintxu
ezkondu zirian,
denpora gitxi barru
hasarratu ziran.
Julitxuk irabazi,
Martintxuk gastatu,
holako parejarik
ez juat ikusi.

6.42. "Lekeitioko San Pedropeko" kanta

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/056
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 01:03:47. **Bukatu**: 01:04:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena**: "Lekeitioko San Pedropeko" kanta.

Transkripzioa
-K: “San Pedropeko… Lekeitioko San Pedropeko itturridxaren aurrian…”.
Hor asko.
-Zelan da hori?
-T:

“[Lekeittioko] San Pedropeko itturriaren
itturriaren aurrian
hamalau atso despiskan dagoz
Askatasun baporian.”

Ez da holantxerik ba?

“Prieto dogu alkate eta
Agustintxu da konzejal,
Juan eta Antolin aguazil dira,
Rebeka dauke kartzelan.”

6.43. "Nobixua topau ezinda..." kanta

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/058
- **Iraupena**: 0:00:19. **Hasi**: 01:04:31. **Bukatu**: 01:04:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- **Laburpena**: "Nobixua topau ezinda..." kanta.

Transkripzioa
“Nobixua topau ezinda
dabiltzaz ernegaten.
Topau nahibozue
itxi melenia,
da eukikozue
suerte hobia.”

Ta gero tralaratralara ta ala salto... Ba asko polittak...

6.44. Mutilekin baltseoan

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/067
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 01:14:25. **Bukatu**: 01:16:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Domeketako arropa berezia izaten zen, baina beti bera. Mutilekin baltseoan ibiltzen ziren. Teresak bere lagun bat mutilei adarra jotzen aritzen zen. Ez zuten dirurik izaten, ezta beharrizanik ere. Teresaren lagun batek beti izaten zuen dirua.

Transkripzioa
- Ta... jantzarako ze? Erropa...
- Teresa: Danok baltsiuan, normal jantzita.
- Katalin: Baiña on ez, on ez da urteten. Bueno, on geu be ez [...]
- T: Amantala soiñian eta bata bateaz be baltsiuan. Bai. On ez dao plazan eze, Katalin.
- Baiña domekatako erropak diferentik ixango ziren, ba?
- T: Ai klaro, domeki sagradue zan, domekan domekakue bakarrik.
- K: Beti bat.
- T: Beti bat.
- K: Gordeta hantxe euki [...].
- T: Gorde domekarako ostera be,.Bai, bai.
- Eta mutillekaz, zer?
- K: Mutillak...
- T: Mutillakin baltsiuan ein, ta harek esaten gaittun mutillakin ez eitteko baltsiorik. Ta gero mutillak, ein baltsiua mutillakin... joe! Nik ligiten gauzak

kontako baneukoz... Kuadrilla bat giñin ta bat eukaun zelebre hutsa. “Hareri mutillari gaur guk ernegau erain bihar dotsau”. “Zer egin behar dogu /enbiodu/, ba?”. ”Neuk gero pentsako dot”. Goiko kalian ateta bi daukon etxia dao, bat Kanpillora eta bestia Goiko Kalera. Tia bat daola gaixorik eta haxe bisitta bihar dogula, ta mutillak geuri lagunduten. Mutillak itxi bertan atetan ta baltsiuan plazara, etorri giñin bueltan ta ordubete mutillak itxoten, ujika hasi danok eta danok deklara zer ein genduan. Ene! Baiña ondo pasaten gendun. Dirurik be ez iñok be boltsilluan, baiña ondo, ondo.
- K: Bai, dirurik ez, e?
- T: Ixaten zan bat, esaten eban: “txirrist ein ta beti bosteku karteran”. Trini, Trini [...] zan. Ta “txirrist ein dot ta bosteku topa dot”. “Bosteku? Esaixu nun ein dozun txirrist, geu be juteko”. Ta euken, bapora euken lez, ama deitzekua, kajatik hartzen eban dirua. Ta iñok be ez dirurik, hogei lagun ta grano batek be ez, ta bera bakarrik diruaaz.
- K: Baiña bosteku barik, ba hori ixango zan...
- T: Bost ogerleko.
- K: Bost zentimo ixango zan.
- T: Bost zentimo? Gehidxo ekarten eban harek.
- K: Bost ogerleko asko ixango zan orduko gero!
- T: Harek asko ekarten eban.
- K: Bai?
- T: Bai, bai, bai. Asko ekarten eban harek.
- K: Gitxitxuo ixango zan, ezta?
- Pezetak be...
- K: Bai, pezetak be asko...
- T: Ordun asko zan, ta guk ez genun dirurik eukitten, karamelorako be ez ta ezebez.
- Ez. Kakauesak be ez?
- T: Etxeko jatekua dana gozua ta...

6.45. 'Peru eta Marixa'ren ipuina

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/070
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 01:19:30. **Bukatu**: 01:20:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: 'Peru eta Marixa'ren ipuina kontatzen dute.

Transkripzioa
-K: Zelan zan lehenagoko ipuiña kontaten ebena gure aittak eta amak? “Peru eta Maridxa”.
-T: “Peru eta Maridxa”.
-K: Horixe, besterik nik ez dakit lehen txikittakorik, harexek kontateko astirik be ez euken gure amak eta.
- T:
Peruk eukan oholezko etxia, Maridxak eukan gatzezkua.
Peruk Maridxari: “Emon nazun gatz pixkatxu bat” eta “Ez!” Ekarri eban euri zaparrada handi bat. Urtu jakon Maridxari etxia ta gero Perun etxera jun

zan, oholezko etxera.
Ta ez eban hartun. “Zeuk be ez nazu gatzik emon, ezta? On ein lo kalian.

Horretxek...

6.46. Ume-kantak

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/072
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 01:20:43. **Bukatu**: 01:21:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Umeak lokartzeko kanta batzuk dakartzate gogora.

Transkripzioa
- K:
“Lo, lo, lo aingeruak
zeruan ze barri?
Zeruan barri onak
orain eta beti!”

Ta besterik ez dakit.
-T: Nik honen umiari:

“Ababatxoa loteritan
Ez egin lorik basuan
otsoren batek jan ez zaiezan
erbitxua zarielakuen”.

“Amuma kanta bestia!”, “Ze kanta [...]?” ta zelan da bera?

“Lotan nago,
begidxak itxita
rin eta rin
ezin lorik egin”

Ta “kanta ostera be!” Honen alabik eitten [nitxu] horrek gauzok. “Kanta ostera be”.
-K: Neuk be beti harexek, indidxunak, ez dakit. Baiña orduan akorda eitten jatezen... baiña on...
-Ahaztu be eitten dira gauzak eta!

6.47. Txiliren ipuina

- **Hizlaria(k)**: Azkue Aberasturi, Resurreccion Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: LEK-074/001
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:00

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena**: Azkuek 'Bein da Betiko' izeneko bere liburuko ipuin bat kontatzen du, kondaira batean oinarritua. Txilik beste norbaitekin izan zuen berriketaldia du ardatz. Txilik itsasoaren eta eguraldiaren berri ematen die itsasoratu behar diren itsasgizonei. Goiz batean irudi beltz eta handi bat antzematen du portuan. Irudi hori ardatz duen istorioa da hau.

Transkripzioa
Gauza andi ta bere moduko bat ikusi eban Txilik Tala Goikotik beraganutz etorrela; baitzen baltzaz ilunetan be gerixa eitten eban. Urreratu jakonian:
- Gabon adiskidia -esan eutsan Txilik-, goixetik gabiltz, goixetik.
- Nai goix, nai berandu, iri zer?
- Asarrez dator mutil au; geu be ba drogarako ezkaittuk txarrenak.
- Nor aix eu, tximizta ori?
- Enakusk?
- Nik ez ondo, eure eskutzar onetako zigorra ixan ezik. Tema egingo neuke Damutu eruen bategaz diardudala. Nundik nora abil eu?
- Eztaukat barriketan iarduteko astirik; baina itaune geijago ez eittekoz erantzungo dauat. Gau guztijan nundik nora eztakidala ta neure gerixia baino beste lagun barik, ibili nabil; egun-sentija baino lenago Oiz-barrenera juan nai neuke, nundi' paneki.
- Egun-sentija baino lenago? Mau-mau, ezta inpernuko diabrua baintz be.
- Lagun on bat baneuko, bai
- Ori ikustiarren...
- Ator
- Baina nik-i...
- Orretara ezkero berba biko gixona aix i
- Ez ni
- Bart euk ezeuan eskiñi edozein damuturi lagun eingo euskijola?
- Baina...
- Atxakijak daukazak ik
- Eta zein tximiztak dei eingo dau itxasoraterik badago?
- Eguraldi txarra, txalupak jaso ezinddakua balego, jarraittuko eusket?
- Bai, zegaittik ez?

Au esanaz ezeban Txilik puzkatxu baten aurreko laguna ikusi. Agertu jakonian, modu onetan jarraitu eben lengo autua.

- Orra or mendebal gogorra ta isla ori gainako baga ta olatuak.

- Tximizta gorrija! Ni baiño igarle obia aix.

- Baator ala ezator?

- Tira.

Perrandesek, asarrezko autu labur au entzun ebanian ezer adittu ezarren, Txiliñ alde urten gura ixan eban, baina egiñala eiñda be, ezeban bere burua lokatu al ixan: orma-kontran norbaittek inka ta lez eukan gorputza. Bere paretik irago zirianian, Txiliri oles eittia otu jakon, baina, ekandu txarrekotzat euki ezeijan, isilik geldittu zan. Bera jagi-orduko Txili ta laguna San Pedron arkupera eldu zirian. Aiako irudijen aurrian damutu guztijak

eskuetako zigorraz gorputza astinddu eroien; bekijan Txilik ekandu au, ta bere laguna aurrera joiala ikusi ebanian:
- Adiskidia,esa eutsan, irudi santu baten aurrian ago. Lege oneko Damutua baaix...
- Eta i ri zer?
- Niri neuri ezer ez, baina...
- Bilddur aix.
- Bilddur, zegaitik? Jarraittuko daustak?
- Noranai.

6.48. 1912ko galarrena

- **Hizlaria(k)**: de Arrizabieta, Antonio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: LEK-075/001
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:00
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- **Laburpena**: Aurreko urtean, 1912ko abuztuaren 12an ekaitz handi batek euskal kostaldea astindu zuen. Lekeition bizi izandakoa kontatzen da pasarte honetan.

Transkripzioa
Lekittotik urten eben txaloparik zartxuen baten urten eban Juan Daniel patroiak beste zortzigaz, danak marinel inddartsuak; eta ikusi ziran txarto ta galdu biar ebela egin zituen asmaualak: txalopien aurrian masta, berga eta erremu tabelakin ei eben zeozer, txalopara orduko, olatua makalduteko; baiña alper-alperrik; eta azkenian sekulako agurrak bata besteari egin, Neure Jesukristo Jauna ta beste errezu asko egindda, iruntzi zituan... itxaso... [erruki bakuak geijenak.]
Txalopa batekuak danak itto zirian eta bestekuak geldittu zirian ondiñok iru marinel: Juan Daniel ta beste bi; onek irurok, nik eztakit zelan, lotu zittuen masta bi edo berga bi alkarregaz eta egin eben kurtzijo bat eta an[txe jezarri zirian irurak.]

6.49. Eskoleroak eta ikastoleroak

- **Hizlaria(k)**: Goikoetxea Vazquez, Ander; Seijo Diez, Irati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: LEK-076/020
- **Iraupena**: 0:04:23. **Hasi**: 00:58:56. **Bukatu**: 01:03:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: "Eskoleroen" eta "ikastoleroen" arteko pikeak askorako ematen omen du. Txisteak, irainak, anekdotak... Denetik omen da. Anderrek eta Iratik horietako batzuen berri ematen dute.

Transkripzioa
- Eta bai? bueno, umore gai bezela hartzeraiño edo txistiak bere hortan ere egiteraiño? Ez, txisteak ez dituzute egiñak eukiko ikastoleroen eta eskoleroen...
- Ander: Ba, adibidez, bat dao oso ona dana. Bueno oso ona edo... ba guretzako, ikastolakuntzako, zana kriston –ez?–... ["as en la manga" esaten] daben modura, ba, lehen karnabalak ospatzen zirinian Lekitxon, ba, joe, ikastolatik itten zan kriston prestakuntzia. Super serixo hartzen zan: ba antzerki bat eitten da...
- Irati: Herriko frontoian...
- A.: ... herriko frontoian, jostunak daoz trajik eitten... [...] eitten dabezenak ta kurrada eitten da. Ta eskolan saso baten, ba, urte bat kuadra zan, uste dot behin izan zan ein ebela /eibela/, ba, askok urten eben ba basurako boltsakin eindako dsifrazakin. Ta ya hortik, behin itten dozunian, ya badakizu zer dan hori...! Osea, ya Lekitxon, ganera, behin eitten badozu hori, bixi guztian [ein bazendun moduan zan]. [...]. Orduan beti da, karnabalak allegaten dizenin eskoletakuari beti bronki, brometan, ez? "ze aurten be basura poltsiaz urtengo zarie?" Beti, urtero-urtero-urtero-urtero. Eta eon dira... eon dira disfrazak be Lekitxon, jentiak, eskolero jantzitta, ba, basurako boltsa bategaz urteten daben jentia.
- I.: Ez, baiña gero ya adin kontua be bai bada. Osea gu ya da fase bat superata daukazuna ta [txisterak] darena, alde bixetatik. Baiña on ikasliak dizenakin da gai... osea, gai landu biharrekua.
- A.: Identidade kontu bat da be bai.
- I.: Osea... bai, ez na... osea on gu nastaten gara, ez dakit zer dan, gauza natural bat. Osea, daon gai bat da, baiña ya txiste gai bat da. Baiña nire nebiak ondik hori bixi ein dau. Osea, bixi ein dau: ni nire kuadrilli da ikastolaku ta ez hurbildu eskolakuagaz, bestela kanta-paperak aterako nabez. Osea, dao... bai. Eta eremua: ni ez noia Gaztegunera, ze hor eskolakuk daoz, nire tokixa hau da... Bai, osea, hori badao, ta oso gordiña da, baiña... Ta gero ya adin batetik aurrera txisti da ta konsziente zara ze tontokeri dan, ez daukola zentzurik eta hasten zara... Guk, adibidez, kuadrillan erdixak eta erdixak gaoz, osea, gu nastata gaoz.

7. Politika

7.1. Gerra hasiera Lekeition

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/005
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:13:36. **Bukatu**: 00:16:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Kobeaga Sesma, Ibon
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra Zibila hasi zenean, Jesusak 16 urte zituen. Hasieran ez zuten askorik igarri, baina gerora, bonbardaketetan, ezkutatu egin behar izaten ziren. Hildako lekeitiar batzuk aipatzen ditu. Lekeition bota zuten lehenengo bonba talaian izan zen. Bere amak-eta, lapetan zebiltzala, gerrako obus bat aurkitu zutenekoa kontatzen du.

Transkripzioa
- Ta zuk gerria aillaga zanian Jesusa zemat urte?
- Nik gerria aillaa zanian “mil novecientos sesentan” edo hamasei urte neukazan gerria estrella zanian.
- Ta zelan bixi ixan zenduan hori? Ze klaro hamen Lekitxon gauza gitxi igarri edo…
- Bai, Lekitxon lelengotan ezebez. Bonbardeua daola ta ezkutaten danak. Hil zirian Lekitxon fontanerua be, Mariñenekuak, lobia ta beste neska bat beren aman partekua hil jakon. Beste neska bat, hori esaten eutsen harei, apelliduak ez dakitxetez-ta, Mari, Mari, zelan esaten eutsen eurari? “Gixon ilustraua” esaten eutsen kantan be, zuen amak jakingo dau, esan! Amak, amumak, amumak. “Gixon illustraua” esaten eutsen hareri, “cantame”, kanta etxen bazan da. Gure aitxitxa zan, gixonen aitxa, Soilo Paitxero. Hori be ez dozu ezautu? Ezautu ez, entzun eingo zendun.
- Paitero?
- Paitxero, Paitxeronekuk.
- Ta zeuk zelan gomutaten dozu hori gerra epokia ba?
- Gerria ba etorri zan gerria ta danok…
- Baiña zelan entera ziñien zuek? Ze ordurako ia hamasei urte ta nagusitxua ziñian.
- Bai baiña, entera zelan ein giñian? Gerri datorrela ta hasi zirilako bonbak botaten. Bonbak bota ebezen Lekitxon, lelengua bota eben Talaidxan, ta gero beste bat han. Jesus! Zelan esaten eutsen berari?
- Erraina: Moilla partian-edo?
- Ez, moilla partian gero zan, atzerao.
- Marierrotan? Erreidxuan?
- Erreidxoko hantxe.
- Auntxe topa dabe, atzo, topa eben.
- Topa dabe?
- Gerra zibileko obus bat topa dabe, ta ondik ez dakidxe funzionaten daon edo ez.
- Bai, baitxa topa eben geure amak eta lapatan junda, zelaku da bera? Ondarruko kamiñotik zelan esaten dotse berari? Artzabalen hantxe topa eben. “Ene!”, Agustiñatxu: “[…]”, geure Juliñeaz-ta junda “ez ikuturik ein gero geru bonbil hil barik” ze asko, beste batzuk han hil ein zirian.

7.2. Asterrikatik zetozen erasoak

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/006
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:16:57. **Bukatu**: 00:19:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Koskorrotza Madarieta, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Asterrikan egon zen frontea. Handik egindako erasoen ondorioz zauritutako eta hildako herritar batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Zelaku da? Bertatik junda dao, haratzao.

- Ondarrurutz?
- Ondarruratz. Elixia dauko harek. Zelako ixena esaten dotse baiña berari?
- Erraina: Baordo alderantz eindda- edo? Ez, Baordo Mendixaratz igonda dao.
- Baordo baiño haratzao.
- Erraina: Kinto ta horrek pasata?
- Bai, Kinto ta pasata. Haunan gora juan...
- Erraina: Ah! Hor, Jesus, esango dot.
- Elixia.
- Erraina: […] Baordo, ez, beste holan, gidxan gelditzen dana.
- Goratz eindda. Mendixatik handik, aurrerao...
- Asterrika.
- Erraina: Asterrika! Asterrika.
- Asterrika da, Asterrikan be bai. Eske frentia euan Asterrikan, ta Asterrikan hil zirian umiak halakoixiari agarrata. Koixo gelditxu zan gure Bingenen aittitta, hantxe. Ta beste lehengusu bi hil.
- Erraina: Ah! Bingenen aitxagiñarreba.
- Aitxagiñarreba, barberua!
- Erraina: Barberua, zelan barberua Eskolapekua, gorantz, ha koixo euana horrexeaitxik.
- Bai, horixe, Asterrikakua. Ta Esperantza, zelan hamen dauko iminitta hori, periodikuk eta saltzen dabena, haren aittitta koraiñak eitten dagola, belarrittik odolostu zan, han botata itxasuan. Ta gure amari esan eutsen Kuliñek ein dabela salto, ta Kuliñek ez dabela urten baporetik. Bidxak, ta bestia be bat geurian ibilli zana, “Martín con pelos” esaten eutsena.
- Zuek baekixuen Asterrikan frenti daola ta?
- Jakingo ez gendun ba! Kaiño zahar bat ekarten eben gorantz, kaiño zahar bat gora ekarten eben.

7.3. Gerratik ihesi Frantziara

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/007
- **Iraupena**: 0:04:21. **Hasi**: 00:19:17. **Bukatu**: 00:23:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Ladron de Guevara Markuerkiaga, Almudena
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Gerra Zibileko indar nazionalak Lekeitiora sartu zirenean, beraiek ebakuatuta joan ziren Frantziara baporean. II. Mundu Gerra hasiko zelakoan bueltatu ziren handik herrira. Jende askok egin zuen ihes itsasoz. Frantziatik bueltan, Lekeitiora bueltatu aurretik, Santurtzi inguruan egon ziren. Han eta Lekeition, soldaduen arropak garbitzen zituzten.

Transkripzioa
- Ta Lekitxo hartu ebenian zu berton zeuazan?
- Ez, urtenda gu Frantzidxara.
- Lekitxo noz hartu eben akordaten zara? Ze urte zan?
- Horixe ez, ez jat akordaten ez […] ze, gu hartu ebenin Lekitxo gu Frantzidxan eon giñian ta etorri ixan bihar ixan genduan ze han be estrella

eingo dala mundiala. Handik denporara ein zan, handik urte bira-edo mundiala, baiña gu etorri giñian, etorri giñinian ez eukaun besterik. Frantses txarridxakin ibili garila, Agirren keridak garina, dan horixe. Andrak, andra zaharrak, makaillau bateaittik erositta euazan andrak, makaillau bateaittik zirin harek geure antzekuak, geu baino txarrao, hil be txarrao hil zirin.
- Ta zueri zelan esan eutsuen ebakuateko? Lekitxo hartu…
- Guk…
- Treinta y sietian zan…
- Guk bezperan.
- Maidxatza ixan zan.
- Maidxatza. Ta urten gendun guk….
- Erraina: Baiña zeaittik, norek esan eutsuen urteteko?
- Danak eskapando! Harutz. Beherutz. Eskapando.
- Oiñez eskapa zenduen?
- Bai zera! Baporian. Aitxaz, aitxa ta Mate. Motoristia eruan eban. Bere ezagun bat eruan eban motorista ta juan giñian Franko, Franko esaten eutsen. Hor dagona. Franko. Frankua. Portu frankora. Hor dago hori. “Pilar” esaten eutsen bertara allaa giñinian “¡tu tienes mucha labia y no hables nada e!” etorri giñinian. Handidxerik Puerto franko. Bertora allaga giñian Bilbo baiño, Bilbo joten dago Santurtziko, Santurtziko hantxe, handi bat da, hantxe egon giñian. Ta gero handik erun gaittuzen, ibili giñian gu biharrian txabonadurak-eta eitten horreri. Baitta hamen be bai, Lekitxon be bai. Soldauari. Lekitxon be bai. Lekitxon eruten genduan neure aizta Teresa ta ibiltxen zirian han, ta beste sei andra, sei andra txabonadurak eitten. Ta haretxen txabonadurak eitten, hori zelaku da? Matilde, Matilde honen aiztia. Zelako ixena dauko berak? Lehin esan baneutsun danak akordun neukezan. Dan-dan-dan-danak akorduan neukazan.
- Erraina: Ba! geldika geldika bazoiaz.
- Baiña, hori zer da? Gerria orduko egon ziñian txabonadurak eitten be bai?
- Bai gerran, gerran, gerran. Gerran eruten gaittuezen. Hartzen genduan, diruagaittik-eta. Ia, zegaz jango zenduan ba?
- Ta zeintzuk bihar eiñ zenduezen ba hamen gerria, zeuek Frantzidxara eskapa orduko? Berton zeintxuk bihar eiñ zenduezen?
- Horixe, esan dotsut: txabonadurak eitten, trastiak eruan horreri andrari, garbidxak ekarri sikatuta Cruz Rojintzako euazan. Ta gero, jun giñian hara, presenta giñin gu hor, zelakua da? Presenta giñian, ha hilda dao, ta hantxe ebillen Mauri be bai, Mauri horrek botaten, eitten ebazan indisiñoik emon, ta hantxe ezagutu genduzan harek.

7.4. Sant Nazaire-ko etxeetan bizitzen

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/010
- **Iraupena**: 0:03:16. **Hasi**: 00:31:18. **Bukatu**: 00:34:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Petralanda Prados, Oihane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Frantziako Saint Nazaire-ra heldu eta mediku-azterketa izan ostean, bakoitzari hizki bat jarri zioten paparrean. Bere ama ume gaixo batekin gelditu zen, eta gerora batu ziren berriro. Bi etxe desberdinetan banatu zituzten.

Transkripzioa
- Ta gero gure amak... Gero imiñi gaitxuzen, “be” ez dakit, “be” ala “uve” bazan, on ez jat akordaten, papera danori, hamen hareaz ta imiñi gaitxuzen bakotxari ba ixena, osake abezedaridxua imiñi eben ta guri ez dakit “be” ala “uve” zan toka jakuna. Geuazan danok hori ta geure amak ez dabela berak urtengo, ha mutilla. Nearrez danok, danok nearrez, ama barik ez gendun nahi geuk urten-ta, geu be gelditxu eingo garila ba bera gelditxu eingo dala, berak umia ez badau topaten, bera be gelditxu eingo dala. Halako baten harek: “Paula Aboitiz que se quede”, grazidxa txikiña barik zaharraua zana hau, Manolo. “Que esta llorando, que el niño esta llorando y que se le va a poner asi ojos bien”. Nearren-nearraz lehin gorridxak eta gorritxuta. Ta ama jun zan gero bertara, gero ama eskatuten eskatuten, hau, ekarri eutsen umia, hau bestia, ta gero hasi zan ostera be ama, amak topa gaitxuzen, guk ezin giñian esplikau. Ez gaitx, gu urrun ein giñin-ta. Joten hori Alemaniko fronteran harek eurak eon zirin ama-ta. Fronteri, beste fronteri zana, harek [lagartinetz]-edo ibiltzen eben. Haunako zapatakin-ta txokuak lantxerik ibiltxen zirin.
- Frantzidxan zenbat lekutan eon ziñian?
- Ba berton, berton bakarrik.
- Zelan deitzen zan?
- Saint Nazaire, Saint Nazaire. Itxon ba Saint Nazaire bi daukoz harek, herri txikiña zanez, handitxik txikira erun gaitxuzen itxik imiñitxa. Saint Naz... ene! Ahaztu jat. Saint Nazai...
- Erraina: Baiña herridxan ixena nik ez dotsut entzun iñoz, seguru iñoz ez dozu jakin. Bueno nik uste dot kontaketetan beti dudia euki dau.
- Ta? Zer egin eutsuen, familidxetan errepartidu? Nun etxen zenduen lo han?
- Lo? Etxia imiñi gaitxuezen, etxia, etxe bi, bateri deituten eutsaun “Markes”. Lehengusiñia zan ba Markes, ta Markes, “Casa Markes”, “y casa” besti ez dakit zelakua zan, on ahaztuta daukat, esaten eutsaun.

7.5. Frantzian elkar ezin ulertu

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/011
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:34:34. **Bukatu**: 00:38:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Torrealdea Gabiola, Gotzon
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerra garaian, Frantziako Saint Nazaire-ra joan ziren ebakuatuta. Etxe ingurua zelakoa zen azaltzen du. Okinarekin izaten zituzten ezin ulertuak azaltzen ditu. Bertakoek ondo hartu zituzten hara joandakoak, baina ez zekiten ezer euskaldunei buruz. Guztira hiru hilabete egin zituzten han.

Transkripzioa
- Ta gero hori be pasa jakun! Gu han panaderuan han etxian, geurin etxian, elixia hamentxe, etxia ta hori, panaderuak esaten eutsan esateko guri, harek hor ibiltxen zirian hortik, zelaku da? Espaiñitik-edo ibiltxen zirian bestia ugezaba-eta. Eta: “¡Qué mosas mosas!”, esateko “¡Qué hermosas mosas!”, eta gu txidxa eiñian ze entendidu eitten eutsagun-ta, barrin

barriaz eta gure udxidxak ikusten ebezen hametik eta nora esango dot / esangot/? Hametik eta hara hara beste artian barberidxa. Eta handik ikusi eitten gaittuzen zelako panaderuaz zelako barriak eitten genduzan. Ta gabe baten, banao ni puntua eitten eta atia ta: “¿¡Quién!?” ta “¿¡Ponchu!?”, eta “¡Sí!”. “Ene! Ez da Ponchun boza!” nik ohetik, hori Julinen ohia, Julin eukagun aparte, nebia, hau hazitxuagua zalez aparte hori eta guk goidxan eitten gendun lo. Ta beren ohien ganian neuan puntua eitten, goixa zan hondiñoko, nahiku goidxa. Ta atia eta erain eben, Julik eta nik; harek sakatu eta “Ene!”. Han neuana lelengo, ohian ganian eualez neuana lelengo. Sakatuten dotse Julik eta nire aizta bat Juanitak, eurak erain be ein eutsen. “Zeuek erain ein dotsazue!”. Julinek hartzen dau botilla bat ta handik bentanatik, igon arin-aringa eta bentanatik bota. Nik ez dakitz azerta be egin ba eban. Gu beñikpein ondo hartu gaittuzen e! Gero etorri jakuzen, etorri jakuzan dirua ekarten hortik batun dabela-eta, “Frente Popular”etik. Eta gu ganera, harekin ikurriñakin gu. “Qu'est-ce que c'est?” esaten gaittuzen. “El Vasco” “¿Qué es Vasco?”, “Qu'est-ce que c'est?”. Eta erreza dala, baiña iñok be gaittuzen entendiduten, Euskera orduan iñork be entendidu bez. Ta guk eitten gendunin berba, hori maistria eukitten genduan, eta harek politto ekidxan erdera eta: “Qu'est-ce que c'est?” berbetan ia zelan gagozen eurak-eta. “¡Vasco!”, “¿Qu'est-ce que c'est? Vasco?”. Orduan inork be ez ekidxen honek! Geuk ez dakiguzen moduan horko barruko harek. Eta gero, etorri giñinian, on esango dotsut bertora etorri giñinian...
- Noiz zenbat denpora egin zenduen? Urtebete edo egin zenduen?
- Ez! Ez genduan hiru hillabete, hiru hillabete ein genduzan.

7.6. Hiru hilabeteren ostean, etxera

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/012
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:38:20. **Bukatu**: 00:41:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Frantzian hiru hilabetez egon ziren ebakuatuta, baina II. Mundu Gerra hasiko zela-eta, etxera bueltatu ziren. Lekeitiora heldu zirenean, bertako askok txarto hartu zituzten. Berak ez zituen Lekeitioko erasoak ezagutu, lehenago egin baitzuten alde.

Transkripzioa
- Ta zelan etorri ziñien?
- Etorri giñian bueltan, zabaldu zan bertan estrellako dala hori, “Guerra mundial”. Ta ia "España de Franco o España de rojo". Ta guk atrapata eukauzan, kartia hartu genduan, lutozku, ta lutuan ipintten gaittuzen Hillari, ez dozu ezautuko igual, Hillare, bueno dana dala, Hillarin ama hil zan, gure amen aiztia. Ene entzun ebanin amak! Ez ekixan.
- Hasieran ez eutsazuen esan. Hasieran ez eutsazuela esan.
- Ez, ez eutsaun esan. Ta ez ekixan ta allaa giñinian horra, Juan konpitteruneko haraixe, ordun automobil bat ibiltten zan, Juan konpitteruneko hantxe geldittuten zan. Zuk ez dakixu Juan konpitterun...
- Ta zelan etorri ziñian Frantzixatik, automobillian?

- Ez, trenin lheenengo eta gero ekarri gaittuzen, automobillian. Lehenengo hara eruan ta gero ostera be bardin-bardin. Klaro, apurtuta euan Gernika eta, Gernikatik ez euan lez pasorik, ba ostera be eragin gaittuzen bueltia, hametik ekarteko, Ondarruko hortixerik. Handixerik bajatu gaittuzen etxera.
- Ta zelan topa zenduen Lekeitio /Lekitto/?
- Lekeitio /Lekitto/? Lekeitio /Lekitto/ urten ginduñian, hamen datoz puta txarrixak, hamen datoz zantarrak, ibilli-ibilli frantsesakin ta ene... niri zoratu eitten jaten. Ene... txarrixok eta zertzuk esaten gaittuzen ba!
- Herrixa ez zeuan holan apurtuta eta ez? Herrixa.
- Ez, herrixa ez zeuan apurtuta, herrixan ez zan apurtu. Lehenengo bota eban hantxe, gero errekako hantxe, horrek ziren lehenengokuk, gero bota eben moillan. Moilli be ez eben apurtu.
- Ta aeroplanuak nundik sartu zien? Itsasotik edo barrutik?
- Harek? Gu, Gernika ikusi gendunin, guk, jun giñian.Gernika lehenengo geu . Lehenengo geu, osake ein giñian prepara. Aitta atara gu, aitta atara gu, atara gu Lekeitio /Lekittotik/. Ama be hasi zan... ta atara gaittuzen ta lehenengo Bilbon sartu giñin, esan dotsuet ba, Puerto Prankora. Hantxe. Ta gero handik ein gaittuzen danok koloka. Batzuk hara eta bestik horra. Gallarta eta horretxetatik zihar, Gallartatik zihar.

7.7. Otoio eta Kalbarioko banderak ikusterakoan ezkutatu

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/013
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:41:26. **Bukatu**: 00:44:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Lekeitioko herriari eraso egin zioten hegazkinak itsaso aldetik sartu ziren. Otoion eta Kalbarion banderak altxatzen zirenean, jendea ezkutatzen hasten zen. Lekeitiora heldu zirenean, bertako askok txarto hartu zituzten.

Transkripzioa
- Baiña bonbak esan dozu bota ebiezela moillan eta, eta aeroplanoetatik botako ebiezen ala nundik?
- Abionetik.
- Baiña nondik sartu zien abionetak, itsosotik etorri zirin?
- Itsasotik etorten zirian ,e, bandera bat egoten zan han Otoixon eoten zan ta harek harrapaten eutsenian ,e, elixara, ez, Kalbarixora. Kalbarixun eoten zan beste batzukin. Ta altzaten eutsenian harek Kalbarixora, harek altzaten ebenin banderia, ze eitten eben bestiak, altza ta orduntxe Lekeition / Lekitton/ ixaten zan ,e, ezkutaten.
- Sirenak edo kanpaiak?
- Sirenia, sirena barik , e, banderi ikusten gendunerako, banderi ikusten gendunerako gero sirenia joten eben, kanpaik be bai.
- Eta nortzuk egoten zien banderiagaz?
- Banderiaz gixonak ta gero harek be ezkuta eitten ebezen banderak, allaa orduko, ze urrunetik ikusten ebazan katalejukin horrek eta. Ta [...] ta baiña dan-dan-dana enterata eoten zirin, osake alkauetia non edo non /nuunun/

baeuken.
- Halakoak be danian eta sasoian eta.
- Bai
- Hori ez da aldatzen asko.
- Baiña pasa genduan, beti. Baten aiztia, zuk ez zendun ezautuko Dolor, entzutia bai baiña ezautu ez, Dolor ‘drungulu’ ta ez dakit nor zan hirugarrena, hirugarren, hiru, laugarrena ez dakit nor zan, ez jat akordaten. ‘Drungulu’ badakit Dolorez dana. Ta hantxe kontuk esaten gaozela," hamen doaz honek puta txarrixok, erre-erre etorritta Prantzixatik". Haretxek [erriak] niri zer pentsaua emon eustan, zer dan [erria]. "Ama, ama", ta, ama ohian euan, ama ohian ia tien handik, ohian euan ama. Ta "ama, esto, zer da erria?" "Zer ba?" Ta "Hauxe ta hauxe esan gaittue, puta txarrixok, erre-erre eindda etorri garila". "Bera", esan neutsan “nor?”, "bera, bera etorri da erre-erre eindda, bera, zantarra" esan eustan amak. Sekula [...] holakoxe berbarik, "berak euki ebazan ume ustelak eta". Umerik ez eukan harek. Gero kajatik ekarri eban, berak. Ta berak eukazan.Ta orduntxe neu be konturatu nintzan ez ekiuna gauzia, ba hori. Gehixaurik preunta bez amari ezer.

7.8. Herriko etxeak garbitzera zigortua

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/014
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:44:54. **Bukatu**: 00:47:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Sei hilabeteko kartzela-zigorra izan zuen, baina azkenik herritik ezin irtetea izan zen zigorra. Herriko txaletak, batzokia... garbitzera behartu zituzten; garai hartan batzokia errekisatuta egon zen.

Transkripzioa
- Eske erre erre baia zer entzun genduan. Erabilli gaittuzen "de la seca la a lameca. A! Sei hillabeteko kartzelia euki genduan, ta erabilli gaittuzen.
- Erraina: kartzelan ez ziran egon.
- Erabili gaittuzen. Kartzelia osake, ez, herrittik eukagun herrittik ez urteteko eta erabiltzeko geu lantzien txalet bat garbittuten. Batzokixa, lelengo-lelengo erain gaittuzen hori zan elizin ondun dona, Aroztegiñekua, haixe etxia, sei laguneri. Ein genduan, edarto imini genduan garbittu-ta ederto imini genduan eta handik urten genduan. Gero, hori, batzokixen azpixa hori, ta topa eban ikurrin ederra batek, "Bitu Jesusa, neuk erungo dot etxera", imini eban haulan barrutik, eta "neuk erungo dot etxera ta neuk gordeko dot". Akordaneko zuk ez zendun ezetu-ta, hil ein zan gero, Akordaneko Pilar.
- Etxe zemat etxe, ze eitten zenduen egunero-egunero ipintzen eutsuen?
- Egunien-egunien haurra juten ta sekule emon bez ogi zati bat be, horra, zelaku da? "Café Puerto", Marina, Marinan. Haraxe patatak zurittuten, saarrak zurittuten, ta hantxe, sekule emon leike ba. Ta geure tia bertan e, tia! "Zeuek zarie" esan neutsan zelako [...] ein neban. Ez dxaten ardure

orduan nigaittik be."Zeuek zarie" esan neutsan "gure kontrarixuk " esan netusan "zeuek ez gu!".
- Erraina: Han egoten zirin andrak nunguak zin? Falangistan barik zelan esaten jaken hareri?
- Txapel gorrixaz ibiltzen zirinak, txapel gorrixak.

7.9. Emakumeen zigorrak: ilea moztu, erretxina-olioa irentsiarazi...

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/015
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:47:47. **Bukatu**: 00:50:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Politika dela-eta, Lekeition jendeak ikara zuela dio. Emakume asko umiliatu zituzten: ilea moztu zieten, erretxina-olioa eman botaka egiteko... Bere izekoari eman zioten erretxina-olioa, hura edan eta botaka egiteko.

Transkripzioa
- Lekeittio zer euan, errepartiduta euan?
- Lekeittion ikaria jentia. Lekitton ikaria, ze edozaittik ezin kontesta. Beitu zemat […] ezin kontesta.
- Egon zirian neskak be bai uli-ta ebai eutsezenak, ezta?
- Ariño. Hori uli ebai eutsenari, Ariño zirin. Gu baiño ariño allega zirin harek.

- Baten batek kontaten dozu rezinoko olidxua ta?
- Geure tia, bai. Tia Klaudiari, amumen aiztiari ein eutsen: potu bete hori emon azeite rezino koittadua. Ta gomittoka. Hori gu baiño ariñao zan, gu allega orduko. Tia Klaudia. Klaudia azeite rezino ta bialdu. Ganera nahi izen eutsen ostabe ura ganetik emon. Ta hartu be ez ein ei zeban ein.
- Ta hori zer dala-eta edo?
- Zer dala-ta? Ezebez! Haxe. Semia eukan harexek be ez dait, barkutan ibiltten zirinak zan. Semie eukan ba barkuko, ez dait motoristia edo hori.
- Baina gudari modura ibiltzen zan.
- Gudari bai. Gudari moduan. Ha gogorra zan ha. Tio be bai. Gogorrak zirian harek.
- Ta neskena ulie ebaitxiena ta hori kontue, zein da?
- Neskari ulie ebai, ariñao ein eutsen.
- Baiña zer dala-ta ein eutsan?
- Eurari gogue emoten eutselako. Kastuguan moduan. Karmen Antzarrari ein eutsen bat. Bestie Rosario Akordari be bai, bi. Akordari bi. Bestie nor zan? Danak nekidxazan. A Miren Ponponeri be bai, Miren Ponponeri be bai. Ta nor zan bestia? Seiri edo zazpiri ein eutsen beñipin. Baiña gu, hori zan, gu aillega orduko.

7.10. Antzerkia prestatzen zeudela salatzeko ahalegina

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/016
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:50:27. **Bukatu**: 00:54:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Zigor modura, emakume batzuk herriko etxe batzuk garbitzen zebiltzala, Talako etxean gertatu zitzaiena kontatzen du: antzerki bat egiteko prestatzen zebiltzala, Larrea (salataria) azaldu zen egiten zeudena salatzeko.

Transkripzioa
- Ta zuek sei hilebetien euki zaittuen biharrian, hau garbittu, bestia garbittu?
- Sei hilabeterik be ez gendun ein. Bai…
- Ta ze pasau jatzuen Talako etxian?
- Talako etxian ein genduan eta ikusi eban, ta zer ein genduan? Bueno, on ein bihar dotsagu /biotsau/ hori teatrua hareri. Dauko albuan harek, bakizu? Uretara begira dauko albotik, honako alhaja haundi bat, terraza bat. Ta hantxe terrazan jantzi giñian ta jantzitte gaozela, bakizu harek eitxen. Guk teatruk-eta guk ez zekiun. Bueno, baiña azkanengo, gero hona etorri erain bihar dotsau ba /Bissau/ ba. Ta justo-justo, nik ez neban ikusi, “kar-kar-kar” barrie sentiten neban, baiña. Neu eitten […] eitten nebillena eta aiba! Ta preguntau eutsen hareri: “¿quién es esa?”. Ta: “andaluza”. “Andaluza” ez. Zelaku zan bera? Horkoxie beñipein. Ta “no, es malagueña”, esan eutsan bestiak. Ta harek Malagakue nazelakuen-edo harek. Ta halako baten: “ra” presenta zan bat, “ra”! Gaiztuaua zan diabrue baiño be. Larrea, ez daukezu entzutia? Amari, klaro zuen ama […] berandu zan-eta. Berandu zirin honen ama ta aitta hasi zirinian. Ta Larrea ikaria, jentiari, ikara handidxa. Berbarik be ezin ein. Ezer ez. Beitu bez ta ezebez, ikaria. Gizonak guztik be ikaratuta. Ta han klaro, guk eitten gabiltzazenen artian ikusi ebezan andrak. Haunan euan hori, banko bi aurreko partian. On zelan eindda dao hori, han zaharren tokidxan? Zelan da? Hantxe onduan, banko bi edo hiru. Kofradidxako, baiña ordun, ez euen kofradidxarik be. Kofradidxa zaharra zan. Ta hantxe harek dana ikusten. Harek enterata euazan, ze nik eskatu neutsan. Ia itxiko gaittuzan Rosari. Rosa […] zan. Inperiala ez daukazu hau entzutia, pelukeridxa? “Imperial”.
- Inperial, ez. Zarzoso ta honek.
- Zarzoso. Hildde daz haretxek be danak.
- Ta oin daukana tabernia, Gautxori? Haretxen tia-ta.
- Ta haretxei eskatu neutsan ta baietz itxiko nabela. Itxi naben ta bakizu, han nebillen ni jitana jantzita. Jitana jantzitta nabillen ta bestiak, bestik ittotten barrezka. Ha ikusi ebenien, ha brigadia ha be barrezka brigadia. Ta gero brigadiak ein eutson goratz ein ein ei zeban. Nik ez neban ikusi, ze ez neban segiduko bestela eitten.

7.11. Zigorra kenduta, salbokonduktoaren jabe

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/017
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:54:35. **Bukatu**: 00:56:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Zigor modura, emakume batzuk herriko etxe batzuk garbitzen zebiltzala, Talako etxean gertatu zitzaiena kontatzen du: antzerki bat egiteko prestatzen zebiltzala, Larrea (salataria) azaldu zen egiten zeudena salatzeko. Horren ostean, salbokonduktoa lortu zuten, herritik ezin baitziren irten aurretik ezarri zien zigorra zela-eta.

Transkripzioa
- Ta gora ta dana errekonozidu eban, etxe […] ta guk ikusi gendun Larrea sartzen. Hori algarrobue batzen-ta danok. Nik kendu naben arropia arin-aringa algarrabo kentzen. Ta badiño horrek: “¡quieta quieta!” horrek brigadiak. Urten eban harek, bestiak. “¿Ya habéis visto a Larrea?” Ta “sí, señor. Ha venido a denunciaros. ¿Qué hemos hecho ahora también? Nosotros ya hemos hecho lo que nos ha mandao y es que….”. “Pues, les he dicho: que vayan a las mujeres que dan allí, que vayan a sus casas”, esan eutsan berak. Ta halako baten: “espera, espera”, berak. Egon giñien ta bagoiezan ta zilarrezko pezeta biña bakotxari.
- Paga ganera!
- “No crea que, que es esto el sueldo. Esto es porque habéis portau muy bien”.
- Ta Larrea zer zan?
- Larrea? Ez dakit. nik. Ondarrutarra eukan andria. Txarri bat. Hara kortako txarri bat.
- Txibato bat, bai.
- Txibato txarri bat. Ta gero ein gaittuzen harexe berak. Ta bidxamonin llamadia ostara be. “Ene, ointxe be ederra daukau!” Jun giñian ta […]: “el que tiene…”, hori sei hillabeteko hori daukaguna? “Ya pueden salir”. Salbokonduktue emon gaittuzen. “Ya pueden salir a Bilbao o a San Sabastián o a donde quieran”.

7.12. Baporeen euskal izenak gaztelaniara aldatu behar

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/032
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 01:24:11. **Bukatu**: 01:25:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Zeruko izarra izeneko baporeari Estrella de cielo izena jartzera derrigortu zuten.

Transkripzioa
- Ariñaukuak diraz horrek eta beitu. Neu naola imini eutsen euskarazkua "Zeruko izarra" eukagun, imiñi erain eutsen "Estrella del cielo" gero, horrek Franconak zirien horrek. Ta hori be jun giñina esan dot zein. Esan dot izena?
- Alaba: "Lekeitio número uno".
- Ez.
- Alaba: "London" edo hori?
- Ez London hangu de. Erun gaittuzena.
- Alaba: Erun eittuena zein zan?
- Haixe baporena urten gaittuzen harek bestiak, London ez zan. Esto izena zan berena, ta gero London imintten eban.

7.13. Aulestira jenero bila gose denboran

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/047
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 01:10:55. **Bukatu**: 01:12:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra denborako ogiaz, txuskoaz. Txarra. Zopak egin eta hondora joaten ei ziren. Aulestiko baserri batetik ekartzen zuten jeneroa gose denboran.

Transkripzioa
Gerra denporan panaderidxia euki eben. Ta txuskua, haunakoxe txuskuak zirian. Nik harek txuskuak... zereaz eiñikuak zirian [gerran]? ze ze, bihar dan moduko uruna ez zan behiñik behin. Zopak eitten genduzan kafitesnitarako, ta hondora juten zirian. Zopia nahi bazendun armozutan, hantxe koillariaaz eurak ezin topata, hondora juten zirian. Esaten eutsaun: zeren urunaaz diz eze? Arto-uruna balitzateke be, [...] baiña... Arto-uruna, artua, jaten genduan. Morokilla jaten genduan. Ta artua be bai. Baserrittik eindda, hor ekarten genduan. Guk erun arraiña, aiñia eukaun bat, Allustian. Neba zaharrena, hil zana, bueno, zaharrena ez, bigarren mutilla zen hil zana, harek eukan aiñia Allustian. Ta juten giñian, baeukan lez gure amak amistadia, hamar mutil euki ebazan berak, koño! Nahi ixan eustan / naixaustan/ itxi eurenian, amaaz eun baten jun nintzanian arraiñak eruten, ta handik ekarri biberak: indiarrak, arto-uruna, ogidxa, artua, ba, sagarrak-eta, ba, ekarri genduzan. Guk eruan arraiñak eta…

7.14. Karabineroak kontrabandoa zaintzen

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/050
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 01:13:07. **Bukatu**: 01:15:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak
- **Laburpena**: Kanpotarrak ziren karabineroak. Bat zital-zitala ei zen, beste bat jatorra. Honek harreman ona zuen herritarrekin. Kontrabandoa zaintzea zen haien eginkizuna. Tabakoa, kafea, sakarina eta horrelakoak ziren gaiak. Donibane Lohizunen erostenei zuten jeneroa.

Transkripzioa
- Ta karabiñeruak nungoak ziren?
- Ba! Kanpokuak danak. Jaeneku dala edo Valenciaku dala edo Andaluzak. Andaluz-andaluzak etorten [...] “Poque le dice que [...]?” Nok entendidu batzuri!
- Ta zelako hartuemona euki zenduen lekittarrak eurekaz?
- Ba, batzukin ondo, e? Baeuan, bat euan zittal-zittala. Ta beste bat ona ta hain mariñerukin-ta, ba, ondo portaten zan lez bera, karabiñerua, emon eitten eutsen. Eskuaaz bada be, aunke sea, karruari igual sakatuten eutsen harek eta lagunduten, osake, ona bera; jende guztidxaaz: “Buenos días, y ¿qué tal?”, “¿Qué tal la pesca?”, “¿Qué tal la noche? y tal”, ta, hartun-emona eukan mariñerukin. Bera holaku zan lez, mariñeruk be bai beraaz. Lantzin atun bat-eta emoten eutsen. Baiña beste bat eoten bazan, ha raruo zan lez, hareri ez eutsen emoten. Ta orduan harek eukan, beori. Ta gero be keja eiñ zirian han, harek arraiña eruten dabela ta, “tal y cual”. Ta egun baten esan ei eutsan “Es que compro más barato, les compro, no me dan, les compro, pero más barato”.
- Bai, bai.
- “¿Y por qué no...?¿No me darán?” “Si compras ya te darán”. Bestik be, ba, ezin esan ba “Me han dado”. Hareri emoten eutsen, ta besti... jenidxoduna zan.
- Eta badakizu, holan, karabiñeruek eukitzen baebien prolemarik holan, kontrabandoa dala itsasotik edo... entzunde dekozu?
- Eoten zan, horretxeaittik eoten zirian karabiñeruak. Eoten zan hori, Frantzidxatik kafiak-eta, ordun kafik-eta ixaten zirian. Ez dakit gero droga konturik ordun, baiña ordun kafia-ta ixaten zirian. Lanak-eta be bai, honek, jertsik-eta eittekuk-eta. Ta, ba, haulantxeik, azukrik- eta be, gauza asko. Aspirina, honek, aspirina barik, e, bestiak, horrek, dultziak, azukre barik, usaten ez dabenak, diabetisa-ta daukenak eta.
- Sakarina.
- Sakariñak-eta. Ba, estraperlun [ein kontu], ta karo, baiña kafik eta hortixeik beti.
- Estarperloa?
- Estarperlua. Ta, karo, harek bijilaten eben Ondarruko kamiñotik, beti bijilaten eben enbarkaziñoia [...] honek be atento eoten zirin.
- Baporietan-eta mobiduten zan?
- Batzuk jun eitten zirian, enbarkaziño txikidxagaz, igual. Ba, jun haraxe, ba, hara doila ta, ba jun San Juan de Luzera, jeneralmente, San Juan de Luzera [...] haxe don lez, ba. Haxe, Donostittik jun dalakun, ta hau ta bestia, ta ekarten ebezen. Lihorrez be bai asko juten zirian San Juan de Luzera. Lihorrez be jentia. Bihar ebanak, holantxeik emoten eutsezen apuntiak, zer ekarri, ta bi juten bazirian, igual sei launentzako-edo ekarten eutsezen gauzak [...].
- Ta entzunda dekozu holan inoiz, baten bat harrapa baebien [kamioneru] edo...
- Bai, iñoix. Lekittokorik ez jat akordaten, baiña... susmua bai. Eon zan,

fitxata eon zan, hamengo lekittar bat. Handixik bixi zan, gerra denporan junda ta baiña harek asko, harek estraperlu asko.

7.15. Hondoratutako ontziko gomekin aberastu

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/006
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:10:22. **Bukatu**: 00:13:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: 1943. urteko apirilaren 3an, II. Mundu Gerrako gomaz beteriko ontzi bat hondoratu zuten. Lekeitio eta inguruko hainbat ontzi hurbildu ziren bertara gomak batzera. Beraiek, hiru ontziren artean, 60 tona jaso zituzten. Jende asko aberastu ei zen. 15 pezetatan saldu zuten kiloa; estraperloan, ordea, 300 pezetatan. Estrella del cielo ontzia diru horrekin erosi zuten.

Transkripzioa
- Ta zelaku “Estrella del cielo”? zelako bapor tipua?
- Ba hori baporan historidxa da […]. Paga eban gomatan beran burua.
- A, bai?
- Bai. “Goma vírgen. El año mil novecientos cuarenta y tres, en tres de abril” ekarri genduzan hogeta bat tonelada. Neu be barrun neuan.
- Aberastu!
- Aberastu, batzuk bai. Batzuk aberastu ein zirian. Ze aberastu ez, beitu: zelako halakuk euezen, estaduko hemengo kuadrilla zantarrak, e! Ekarri gendun. Bueno, jun giñen konpañia Socorro, San Jose […] izena ta geu, jun giñen. Hirurok jun giñen konpañian. Ta ekarri gendun hiruron artian, hirurogei tonelada ekarri genduzan. “Sesenta toneladas”. Paga gaittuezen hamabost pezeta killua ta estraperlun ebillen hirurehun pezetan. “Goma vírgen” zan, ha. Ta lekeittarrari kendu eutsena honeri, hau Ramon Irritxari-ta bi edo bapore, submarinuk alemanak. Kendu eutsen, hartunda eukezen piezak. Harek ez euen hartun askorik, ze abalantxa bat sartu zan. Lelengutan […] euan gomia. Guk klaro, gehidxau nahi gendun sartun-ta. Ta kendu ta pagau eutsen hamalau pezeta harei.
- Baiña nortzuk, alemanak?
- Alemanak.
- Urten ta azalera?
- A, bueno. Alemanak, alemanak harek batzen ibiltzen zien ta gu…Urteten eben harek… Hondora bota eben harek hori barkuori merkantia. Eta urteten ebillen, urten eitxen eban hak kanpora. Guk ha kajoiek-eta euren kaoba ta guzti. Joder, euren gantxuk be preparau barik, jun giñian. Ni ibilli ein nitzan, eukiko nebazan hogeta bi urte eitxeko hondiñoko, hogeta bat urte pasata. Azkanin tunba ein nitzan. Hartu gendun ganera, elidxiek korridu gaittuzen-ta. Koruan ta “pal y palabanza” hartu genduzen danak. Ta hari be kendu geuntsen ha itsasuan hurrengo egunian, hurrengo eguna

o bueno, gu harek entradan etorri giñian ta urten genduan handik egun bira-edo kendu eutsen ha aleman submarinuak, ta guri pagau […] hamabost pezeta eta harei, hogei pezeta killua. Hogei Hariri, marki marki da hori gero! Ta gerria allagatzen euan. Ta guri hamengo zangano kuadrilliak hamabost pezeta killua. Estraperluen ebillen hirurehun pezeta killua. “Era goma vírgen”.

7.16. Gomen bila joan zirenekoa

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/007
- **Iraupena**: 0:05:04. **Hasi**: 00:13:13. **Bukatu**: 00:18:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Gomazko hondoratu zirenean, bertsio desberdinak egon ziren. Berari gertatutakoa kontatu ziotenean, aitari esan eta aitak hasieran esan zion ez pentsatzeko horretan. Hala ere, azkar topatu zituen bertara joateko laguntzaileak.

Transkripzioa
- Eta submariñuk-eta ikusi eitten zenduazan, ala?
- Submarinuak derrrigor ikusiko ez genduzan, ba? Aber. Ba niri beittu, ze beittu, kasu zan hori: igual hori bapori, hau Faro Santa Katalina, ba euan ha galdara-makiñan sartzen zan sarreran. Hondora bota ebena, halaku sartzen eon zan. Bueno, pentsa eben. Guk eukagun Bermeon erosiniko bapora eukagun. Ta haretxek bapora, haxe be hondora jun zan sardiñero […] barran.
- Baiña hori galdara-makiñekin ebillen?
- Bai, baiña galdara-makiñan zan hori. Hori ya “Estrella del cielo”. Gero, eukaun motorra. Gero ipini eutsaun motorra, baiña hau, “Estrella del cielo”, “Estrella del cielo” ein zanian, ez euan esperantzarik hori, […gi] izeteko. Osea, gure aitte-ta hildda egon zirian; Pedro Astilleruko ta Paulo ta gure tio Gabriel, geure aittan soziue; laurak zien soziuak. Klaro, hau hondora jun zanian, aber hori kaskuori-ta Pedro. Hori kaskuori ein euana beren […] ta baten batek bakizu, arotzak be ordun ez euken [joajarik] enbarkaziñoia eitteko be-ta. Zeozer ein ein bihar. Ta orduan ein eutsagun, ba keridxia sartu haundidxaua, konuaz ein eutsagun; oseake, kaskillo bateaz. Ta eon zan muelle kontran ta aittek esan naben, hamen, ha tabernie eukagun hamen, Domingenian. Dominda zuk ezautuko zendun Dominga? Ez, koidxia zan ha. Bueno, bai koidxeke, bai koidx eitten eban gero.
- Kanpuan eon zan ha.
- Kortazar apellidua. Bueno, hor eoten zan aitta, gure aitta, jaki jaten eben lehengo zaharrak. Eruen, tarteran eruen jakidxa ta esan naben ze: “Txo semia, zoiez ha”, Arranegidxan euan komandantzidxa, Komandantzia Marina euan Arranegidxan euan. Esan naben ze: “Semia, jun ta […] despatxau” esan naben. Ta Sotilesa y Peñarriba zirian. Ta Sotilesa ein zan enbarranka goma ta guzti hori Frantzidxan ein zan. Esan eben hamen,

submarinuek hondora bota ebala. Ez, ez zan asma hori, asma ez zan ein hori. Ze harek Franco Varela euken ta nahi eben harek, beste barkuk ha aprobetxau harek gomak. Franco Varela euken harek baporak. Ta haretxek aprobetxateko hau bestiau, submarinuk hondora botara dabela. Ta Arranegidxan euan komandantzidxa ta jun nitzen, ha […] despatxaten. Ta euan “un tal Julian Mujika”, euan “ayudante marina”. Egon nitzan ta ein naben, ha, Margarittek ein aben ha despatxua. Ta ein naben despatxua: “Oye chaval, ven aquí”, esan naben. Ta jun nitzan ta “¿No quiere ir a por bombas?”, “¿Quién pudiera ir?” esan neutsan. Ta esan naben,¡ ze: “Pues tenéis a treinta y cinco millas de aquí, al nordeste, clavao. A treinta y cinco millas tenéis gomas, todos los que queráis”. “Aiba Dios! ¿Cómo has dicho que…?”, “No, no. No ha ido, ho ha hecho el submarino porque está embarrancao en Biarriz”. Biarrizko plaidxan enbarkau zan ta galdu ein zan barkua goma ta guzti. Bueno, jun nitzan aittagana bertara, ba hona tabernara. Ta: “Txo aitta: hauxe ta hauxe esan dau aiudantik eta…”, “Pentsa bez” esan naben. “Dios, pentsa be. Neu jungo naz”. Urten neban kanpora, topau neban Gillermo Abaskal, topa neban, Sokorron ebillen patro. Ta: “Txo, Gillermo, gomatan jungo gara konpañian?”. Ta segidxan apunta. Bidxok berbetan gaozela etorri zan belarri motxa, hau Santo Dominidxeko Imanolen aitta, Manuel, ta geu be bai. Hirurok prepara giñian. Ointxe guk ikatz […] bodegan, hamen bakizu bodegi nun geunkegun Txitxarro kalin, honen, bueno saldu gendun bera.

7.17. Gomekin 20 urteko jornala beste jaso zuten

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/009
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:21:26. **Bukatu**: 00:23:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Gomekin jende asko aberastu zen. Beraiek baporea erosi zuten, baina 20 urtez lan egin barik egoteko beste irabazi zutela dio. Gomak zeramatzan ontzia Alemaniara zihoan.

Transkripzioa
- Horrek esaten ei eban, geure tabernan eoten zan, Nikanor?
- Nikanor?
- Akordaten jatzu?
- Nikanor, ez dot ezautuko ba!
- Ta haretxek esaten ei eban, karo, gabanak-eta, jentiak erropak-eta, bazterrak erositta ta. Beti gora begira, noiz egueldi eskasa eingo, gabana jazteko.
- Bueno bai, trintxerak eta gauza asko erosi zirian.
- Jentiak gauza asko erosi bihar ebazan /birbazan/.
- Aber, ia, ba hamar milla pezetan zan ha, baiña gaur hamar milla pezeta diru handidxa zan. Baiña guk, guk ekarri gendun materidxalagaz, ekarri gendun materidxalagaz, guk han, ein bir genduan, bapora pagau ez, e? Bapora ez, e? Guk ekarri gendun materidxalagaz han, ba, hogei bat urtin

biharrik ein barik bizi ixateko beste bai. Pantxok.
- Bota barrura estaduak.
- Estaduak, estaduak “bete a saber” horra zenbat mangante, zenbat mangante zirin, atara kontuak harek Alemania, Alemania gerria galtzen ta hogei pezeta paga eutsen hareri killua ta guri, bertora ekarritta, hamabost pezeta, “ya esta bien!”.
- Bai, bai, bai, lapurretia.
- Lapurretia? Lapurretia [...] “además” ganera, bazan be ekarritta, itsasun topaniko gauzia, topanikua, han ez eban erreklamaten iñok be. “Unicamente” erreklama zeinkiena berak alemanak, ze alemanentzako kargia zan ha.
- A bai, e?
- Ha Frantzidxara joien ha, baiña bota eben bidxen bittartian honek, inglesak bota eben ha merkantia hondora.
- Ordun alemanak zirian?
- E?
- Nortzuk zirian? Nunguak zirin baporak? Jesus, merkantia nungu zan?
- Merkantia? Merkantia Alemanirako, ha materidxala. Karo, Alemanak euan hartunda Frantzidxa ta. “El año mil novecientos cuarenta y tres, el tres de frebero era eso”, hillen hirua.
- Sumariñuenak itxi nau konkortuta, sumariñuk ikustiena. Ta zer eitten eutsuen zueri?
- Ezer be ez guri, ezer be ez. Niri gero niri...

7.18. Gerra Zibileko ebakuazioa: Bermeora eta Bilbora aitarekin

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/011
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:25:11. **Bukatu**: 00:28:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Bere ama, ume guztiak hartuta, Bermeora joan zen San Roke baporean. Bermeon, Bilbora joateko agindua jaso zuten. Bere ama eta neba-arrebak Bilbotik Muskizera joan ziren; bera aitarekin gelditu zen bertan. Ama eta neba-arrebak Santanderretik Frantzia aldera joa ziren, La Rochelle-ra; gerora, haiek ere banandu ziren.

Transkripzioa
- Bertoko gerrako konturik-eta? Ebakuaziñoik-eta?
- Ebakuaziñoia?
- Akordaten jatzu zelan sartu zirin nazionalak-eta?
- Nazionalak akorda? Hori ez da, “eso no es de contar”. Gure ama hainbeste umeaz, bapora San Roke, zelako tenporala euan, ganera, mendebala euan. Lehenengo, Bermeora jun giñian.
- Umik guztik hartunda?
- Umik guztiak, koltxoiak eta ez dakit zer. “Aquello era ya… lo que pasa es que” nik ez dakit ze pentsa eben edo, ez dakit ze pentsa eben. Ta jun giñian, ta gero Bermeon egon giñin zati baten, ta han zirin Bermeon be italianuk-eta, aiba Dios! Han be kristolakua. Ta zafarrantxua-ta, emon gaittuzen ordenia urteteko Bilbora.

- Nok emoten eban ordenia?
- Ordenia ez dakiu ba, ez dakiu ba mandua dabena, peskatero batek emon eban /emoban/ ha, ez dakitt zelan esaten eutsen lehen ebakuaziñorako. Haretxek emon eban. Hamen datoz ha, Franco edo nik ez dakit zer kristo. Bueno, en fin, ba eon giñin Bermeon, hamendik urtenda, baiña denporalia e! Ta urten genuan gabeko zortziretan urten genduan hamendik, portutik. Jun giñian puerto frankora, ordun puerto frankon han plaia eoten zan han, on nabik-eta egoten dizen tokidxan, hondarra euan han.
- Ta nun dao hori ba?
- Hori hamen Bilboko halakuan, superpuertuan? Lehen ez euan ha superporturik, gu jun giñinian. Puerto franko esaten eutsen hareri. Ta hantxe, haratz pasa giñian, ta ama-eta pasa zirian, ama ta Julian ta famili guztia San Julian de Musquiz. San Julian de Musquiz dago, on petrolerak eta zelan dagoz harek?
- Bai.
- Hantxe dago hori, San Julian de Musquis. Ta ni aitxagaz geldittu nitzan. Gero, han eon giñian, ta gero Bilboko tomi etorri zanian, “Santander no será Bilbao” harek, montañesak, ta, “Santander no será Bilbao?”. Egun bidxan hartun eben /hartuben/ dana, Burgosetik hasi ta dana hartu eben. Gu Laredon eon giñian. Laredon. Ta ama ta aitta, edo, ama ta famili guztia monta zirian han, Santanderren, ta jun zirin La Rochelle-ra, Larrotxelle. Gero handik, ume... Joseba elgorridxagaz, ta kendu eutsen /kendutsen/ amari. Ta berak ezetz, bera umiaz jungo dala, ta Alemaniko fronterara eruan ebezen. Alemaniko fronterara. Ta honek, Julian ta Manolo ta `Malageñia´ ta David ta Teresa ta danok egon zirian Chato Gutier, Frantzidxan, panadero baten etxian.
- A, beitu.
- Bai, ondo, e! Joe, nik ez dakitt /eztait/ zelan ez eben tratu euki harekin. Han daukez fotografidxak-eta, ta nik ez dakitt ha…
- Penia.
- Hartu ebezen, ba… Ni aittaaz geldittu nitzan berton.
- Zeu ziñin zaharrena?
- Neu, mutilletatik zaharrena, bai. Neskak ni baiño hiru zaharrao.
- Teresa zaharrena?
- Zaharrena Teresa, Juanita, `Malageñia´ ta gero neu.

7.19. Lekeitiora heldutakoan dirua farolan ezkutatu

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/013
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:32:44. **Bukatu**: 00:35:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- **Laburpena**: Gerra sasoian, Santoñatik Lekeitiora bueltatu zirenean, dena kentzen zutela-eta, zuten diru guztia ezkutatu zuen farolaren barruan. Hala ere, ikarak jota, entregatu egin zuen. Zuten guztia txalet batera entregatu behar izaten zuten.

Transkripzioa
- Bueno, e… enfin. Han ni geldittu nintzan ta gero etorri giñin hona. Etorri giñin hona handik, Santoñatik. Kendu gaittuzen trastiak eta etorri giñin hona ta hau, Ganboeneko txaleta, hamen daona, hortxe euan kuartel bat. Hor eon zirin, eitten ebezen, gure gauza guztiak, guri danak kendu gaittuezen: hamen Lekittotik erundako ixarak eta kristo guztik, danak kendu gaittuzen. Ta dirua, entzun nebanian diru kentzen dabela, ein neban, baporak eukitten eben kandelazko farola, farola kandeliaaz eukitten eben. Han, kendu kandelia ta farolen barrun sartu nebazan diruak. Ba igual “en aquellos tiempos” igual ixango zirian, ez dakit ba /eztaipa/, hamar milla pezeta edo gehidxo igual.
- Dirutzia!
- Bai, dirutzia. Ta aitta difuntuak, gure aitta, hil zanak.
- Itxon e, umin billa jun bihar dot nik ikastolara. Hain nao gustora… Baiña segi e, segi. Aittak ze eitten eban /eitteban/ diru [...]?
- Aittak. Mekauen la puñeta, entrega ein nabezen.
- Entrega ein zenduzan? Ikaria?
- Ikaria, ikaria. Ze gero hamen eon zan defensa batzuk, abionentzako-eta ipiñi ebezen zakukin-ta, toki batzutan, ta haretxek kendu bihar zirin gero. Haretxek kentzen ibili giñian. Mekauen la letxe! Hori morroiori, ganera, niana Las Arenasen, Las Arenasen euan atrapata hau, hori, Pascual Aldazabal. Hondarra karriaten trintxerak eitteko erabili eben gorridxek. Erabili eben, bai.
- Ordun harek eukan haxe...
- Joe, harek? Harek eukan, mekauen la puñeta, Dios! “Era un tio de...” Bueno, nik ez dot euki problemarik hor ganin. Horra ez dot euki problemarik, ze edaderik be ez neukan ta hortik libra nitzan.
- On ha, moillara salta zendunin...
- Moillara salta gendunian, han danok horraxe, moilla muturrera, atraka bihar ixaten giñian. Ta trasti guztik dana horraxe txaletera ekarri bihar. Haurixe txaletera ekarri genduzan barrun euazen trasti guztiak, ixarak eta danak. Hori be nada. Dana desaparezidu. Kandido be horrexeaittik esaten eutsagun. Kandido zan ondarrutarra, “Kandido fui, ostuniko erropakin” esaten eutsaun guk gero. “Joder, era el…” bueno, bueno.
- Eurentzako ixan zirian.
- Eurentzako, ez dakit ba /eztaipa/…

7.20. Umeentzako "Asistencia social"a, batzuentzat bakarrik

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/014
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:35:28. **Bukatu**: 00:38:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: "Café Marina"n umeentzako "Asistencia social" zegoen, jatekoa-eta ematen zieten umeei. Pedro Juan joan zen jateko bila, baina handik bota egin zuten. Jendeak "jaka" oso erraz aldatzen zuela dio. Hala ere, inori ez dio gorrotorik eta ezinikusirik izan.

Transkripzioa
- Gero hamen euana, Kafe Marinan euan, zelan esaten otsen horreri? Umintzako-ta halakua, asistentzia soziala, asistentzia sozial.
- Norena zan Marina ba?
- Marina ez dakitt, hor ez zan ixango horren familidxakua? Karlos Solanon-ta familidxakua ez zan ixango hori?
- Ez dakitt ba.
- Solanonekuak ixango zirin horrek, pentsaten dot neuk, e.
- Bai ta gero zer, ze ein eutsen?
- Ba gu, ba jatekua emoten eben han umiari. Ni juan ta ostikuaz botaten naben kanpora.
- A bai e? Emon be ez.
- Bai, gorridxen arpegidxa [esaten naben niri].
- Ta lekittarra.
- Kanpora, kanpora. Bai, lekittarra ta aurrerao neuk badakit nun ibillinikua, lekitxarra ta neuk aurrero badakitt nun ibillinikua. Nik ez dotsat renkorrik iñoreri be, ezta? Baiña jakia kanbidxa eben bueno, bueno, eguzkirik ez zan bihar, ez zan bihar eguzkirik jakia kanbidxateko. “Aquello era terrible”; batzuk, bere seme batzuk auntxe aidian dabiltzazela be. Bateri esan neutsan, bateri, txo. Niri gerria estailla zanian, Santanderren, portuan neuan, San Roquen. [...] hamalau urte eitteko neukazan, hamalau urte eitteko. Ez, hamalau einda, hamabost eitteko, hamabost eitteko. Ta, baakixu, bandera gorridxakin-ta han Sardiñerora pasaten zirian barkuak, harek, kotxiak. Ta aitta para jaten holan begira ta, analfabetua zan gure aitta e?, “Era analfabeto”, [...] “Txo –esan eben– zeri begira zaoz?” esan eben, ta “ni zeri begira naon? Hareri” esan neutsan. Baakixu ze esan eben? Ez jat ahaztu be ein sekula! Esan eben seridxo: “Semia, politikorako balidxo badozu, hasi ontxe segidxan, baiña ez badozu balidxo, partillarik ez daon /ezdon/ tokidxan eskuk garbittu”. Ez jat /etxat/ ahaztu sekula be, sekula be. Ta morroi bateri esan neutsan horixe, “zuen aitta batzokidxan, Irigoien etorri zanian, estatutua erria atzeko estanpatik eta atunak atrapata, txaluak eta txapel gorridxa ipinitta-ta. Txo, gure aittak-eta ez dabe ipiñi, e! Analfabetua ixango dira, baiña gure aittak ez dau ipiñi, e?”, esan neutsan, “gure aittak ez dau ipiñi. Sentimentua, barrun euki bir diraz. Ez resalta ta gero hau datorrenian “donde calienta el sol”?, holan ez dau ixan bir pertsoniak, e? Nik badakitt hori, ni ta zu askuaka hasten garina hau hamen postuan ipintteko. Hasten gara kriston halakuan ta hau koinzididuten dou hamen ipinttia, postun ipinttia, zu ixango zara Fulano ta ni Zutano, “y fuera de ahí nada”, hortik fuera ezebez”, esan neutsan, aurduntxe konturatu zan, baiña txakurren modura, “aiba dios”, txo-txo, zertzuk? Holan ez diz gauzak, ez diz holan gauzak.

7.21. Errazionamenduan bakoitzarentzako opil bat

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/017
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:42:16. **Bukatu**: 00:44:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena**: Beraien ardura bakarra etxerako ogia lortzea zen, oso garai gogorrak bizi izan zituzten. Gerra osteko errazionamendu garaian, bakoitzari opil bana ematen zieten. Ogiarekin izandako anekdota bat kontatzen du.

Transkripzioa
- Ogirik be ez, ogidxa, haunakoxe ogidxa emoten eben. Kolmenaresen bizi giñin gu. Hauna, Kolmenares, ez dakit, bigarren atetia-edo. Hori da haunako, prolongaua dauko eskilleria, eskillara prolongaua, ta juten zan Sanmielera, Sanmieleko hona. Ezagutzen zendun ha panaderidxia?
- Ez.
- Ba hara juten zan ta zenbat pertsona euazan, haretxen beste bollo emoten ebezen. Oseake, gurian zortzi ume ta aitta ta ama, hamar ogi. Eskilleretan gora ta zimeria esaten eben ha, ezta? Astadun zimeria, andrak. Zuri be, haregaz ez zara akordauko, zimeria. Ta zelako gabiroik, e! “Dios, zelan ostuko dotsat nik amari ogidxa? Dios”. Bere atzekaldian juan ta, ha eskillaria prolongau zan lez, atara otzaria ta, dza! hartun ogidxa, hartun ogidxa, gora orduko ogidxa janda, gora orduko, eskillarak igon orduko. Haulakoxe bat, zerriñaaz eiñikua edo nik ez dakit zelaku zan. Bota uretara eta harridxak baiño andara handidxauaz [...] hondora. Ta aillaa gora ta halako baten amak erain eban otzaria ta “Ene, beratzi ogi”. Ta “Ama, Pauliak emon dotsu ogi bat gitxio”, ta neuk tragata. Hori gogorra da hori gero, e?
- Atzera bertara? Atzera panaderidxara?
- Ba, ez. Borra eitten gendun ha, halako libretia, e? Eitten genduzan marabillak eitten genduzan, marabillak. “Había que...”

7.22. Olioa txitxarroaren tripekin

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/018
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:44:07. **Bukatu**: 00:45:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra ostean, olioa txitxarroaren tripekin egiten zuten. 1942an margarina bidoi bat aurkitu zuten itsasoan eta horrek asko lagundu zien.

Transkripzioa
- Ta gero oridxua bat be ez, oridxua eitten gendun txitxarrun tripako barruko koipiagaz.
- Bai.
- Haretxeaz eitten gendun jatekua ta... Salba eban asko kuarenta y tresa orduko, kuarenta y dosian atrapa genduzan, Julian ebillen motorista, bapora eiñ orduko Julian ebillen, ta topa genduan Sokorro ta orduntxe be Sokorroaz konpañian Julian. Ta topa genduan hogeta ez dakit zenbat goma ta barril bat margariñia.
- Aiba!
- Margariñia [...] bidoia egurrezko haulakuagaz topa genduan.
- Aiba!

- Mekauen, harek emon eban /emoban/ exitua, dios! Patata brijiduak [...]. Baiña gogorrao pasaten zan, brijidu ta marmittakua be beragaz. Ta marmittakua einda, hasten giñin jaten ta igual atuna kendu igual, atuna kendu ezkero ha erretira, erretira ein bir zan pixkatxu bat. Ta halako baten atuna barrura [...] zanian, ba.
- Atunak barrura ta.
- Atunak barrura ta preparaten gendun jaten ta sikatuta dana.
- Karo, hotzittuten zanian.
- Hotzittuten zanian, dana koipia halakua, ostera be berotu ta “a comer. Era, era momentos de...”
- Aldi makala?
- Desde luego e...

7.23. Gerrako ezkutalekuak

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/028
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:33:19. **Bukatu**: 00:35:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Lejardi Plaza, Jon
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerran, kanpaiak jotzerakoan, frontoian eta karabineroen etxean ezkutatzen ziren batzuk. Frontoian hondarrezko zakuak jartzen zituzten babesteko. Gipuzkoar asko egon ziren Lekeition, Mikel Laboa tartean.

Transkripzioa
- Eta gero, frontoian be bai, eta beste batzuk egon zirin hamen karabiñerun etxik eon zirinak hamen, zubi zuridxen onduan .
- Ta ze eitten zenduan sirenia hartun ta, hori entzun ta anaidxen billa ibili edo arin-aringa eskapa?
- Danok genkidxen nora jun bihar gendun ta kanpaiak joten ebezenian, danok eukaun, bata hara, bestia hona besti ha. Ta han gu frontoitik juten giñian […] han danak “sacos de…” honek hondarren zakukin pilla bat. Baiña ez dakit orduan, iñoiz pentsau dot harek hutsik, han aguanta ta zelan ez giñin zapaldu danok. Harek hondarra, baiña ez euken kalkulorik iñok einda, bota ta bota tapateko, bota, bota, ta ba hainbeste, hainbeste killo han ganian. Ta iñoiz pentsau dot nik han: “Zelan salbau giñian gu handik?” Harek forjauk, harek forjauk–eta ez euan gaurko tekno teknikarik-eta. Forjaua behian, baiña zelako forjaua? Hondar zaku pillo bat ganian ia. Ta iñoz pentsau dot: “Zelan hau ein dabenak?” Ze juten bada apurtxu bat forjaua, forjauak apurtzen diraz errez ganera ta zapaldu danak. Ta giputxa be eon zan hamen!
- Giputxa? Nungo giputxa?
- Gero hau be egon zan… Eskapata bai, Hau “el cantautor” edo zelan da hau?
- Bai Mikel Laboa.
- Bai Mikel Laboa, hori Gardatan egon zan.

7.24. Ebakuatutako jende asko

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/030
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:35:22. **Bukatu**: 00:37:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Lejardi Plaza, Jon
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerran bapore asko bete ziren ebakuatutako jendearekin. Egoera tamalgarria zela dio: askok ez zekiten nora zihoazen ere, ume asko zeuden, jendea goseak zegoen... Soldadu italiarrak kontzejupean egoten ziren; harreman ona zuten beraiekin.

Transkripzioa
- Ta jente askok Lekitxotik alde egin bihar ixen ban ezta?
- Alde? Ni akordaten jat urten giñen baporak. Urten, nonora urten baiña, baiña deskalabrua. Ta umik-eta [...] aitta etorri zan Gernikatik ta: “Geldi! Ez mobidu iñora, ez mobidu hamendik iñora!”. [...] ez genekiuen nora doian, “aquello era...”. Gero holan baporak soiñu joten, batak salta bestik. Bata Laredora besti ez dai /eztai/ nora ta iñork be ez jakin nora, ta umetxuk-eta. “Aquello fué un desastre” .
- Ta salbokontuktogaz-eta problemarik-eta egon zan?
- Guk ez gendun salbokonduktorik.
- Eta baporitan jun zirinak-eta?
- Harek bez. Harek zirin hamar urtekuak eta bost urtekuak-eta. Batzuk jun zirian Bilbora, bestik Santoñara ta horixe, urten, urten nonora. Baia ia, jan barik eta gosiaaz-eta zer? Klaro, gosia eguan orduan handidxa, ez zeuan . Ze akordaten naz ni, honek italianuak etorri zirian, italianuak eon zirin hamen . Hamen eitten eben lo hamen, ayuntamientun behean, “cómo se llama” hori? Ayuntamientun azpidxan.
- Kontzidxopian.
- Kontzidxopian han egoten zirin eta han jaten genduan sardiñak. Sardiña latak pillo bat ta guri emoten gaittuen sardiña-latak eta guk erakusten eutsaun honek [Madalenako] honek babak, babie gordiñik jaten eben babak italianuk ta guri sardiña-latak emoten gaittuezen.
- Alaba: Ta zuek eurari babak?
- Erakutsi haidxe!
- A erakutsi. Baiña jan eitten ebezen horrek?
- Eurak, eurak bai.
- Zuek ekarri eurentzako ta sardiñak...
- Guk erutan genuzan haraxe solora.
- Nun euan? Nun euan? Ta laguntziarren solora ba emoten otsuen sardiña latia. Ez dao /ezto/ txarto!
- Orduan ondo konpontzen ziñien?
- Bai, bai, derrigor, gosik gosi espabillaue da.

7.25. Txapel gorria sutara

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/032

- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:37:51. **Bukatu**: 00:40:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Marquez Luis, Beatriz
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
  Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena**: Frankistak "Sociedad recreativa"n egon ziren, eta erreketeak batzokian. Erreketeek txapel gorria eman zieten; eta amumak, ikusterakoan, hartu eta sutara bota zion txapel gorria. Bere amuma gogorra zela dio.

Transkripzioa
- Gu giñian frankistak ta erreketiak hamen: frankistak eon zirian “Sociedad Recreativa”n ta erreketiak batzokidxan. Ta elegantiao ta formaten giñian harekin egurrezko fusillakin eleantio [...] “eran los dirijentes” eta Kandido Fito ondarrutar bat be bai zan “los que manejaban la patrulla” ta emon eutsen txapel gorridxak.
- Reketiak
- Reketiak ta gu Santiñin jaten gendun orduan. Ez geunkaun guk Talan-eta ezin ama ta [...] egon zirian danak, ta han noia txapel barridxaaz, elegante neu, amumak agarraten nau ta gure amuma gogorra zan! Ta agarraten nau ta: “Ez zara lotsatuten aitta kartzelan ta honeaz?”. Hartun ta sutara! Kauen, on zer ein bir dot nik? on zelan formako dot nik ba? Ta nik ikusi neban, guk eitten gendun lo hor...
- Alaba: Txokolate, bertan kantoian
- Bertan kantoian
- Alaba: Txokolateridxa euan aurrian nire aiztia bizi dan hor. Txaparronako aurrian Azpiri kalian.
- Ta txapel bat euan hainbeste urtetan ta eitten gendun lo hamen. Olatz dagon tokidxan.
- Alaba: Txokolateridxako aurrian.
- Ta nik ikusten neban hainbeste denporan egon zan hantxe txapela, [ustelduniko] txapel bat txapel gorri bat, baiña [...] handik ikusten genduan-ta. Ein neban [...] Hartun, horman gora idxon, txapela ipini eta presenta ein nintzan. Txapelak usaiña euki eban txapelak ba, hainbeste denporan han botata egonda. Baiña gure amuma joe! Bera gogorra zan, italianuari be “Señora” esaten dotsen italianuari: “¿Usted, nosotros damos plata y usted nos da papel?”, “No no tener más, no tener más”. Hori ba, ogerlekua zidarra harek, ta honek papela [...] eoten zirinak gerrako dirua.

7.26. Aita kartzelan eta langile-batailoietan

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/035
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:43:47. **Bukatu**: 00:46:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Koskorrotza Madarieta, Ane
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Bere aita batzokiko atezaina zen. Atxilotu eta langile-batailoira eraman zuten: heriotza-zigorrera kondenatu zuten. Kapitainak indultua eman zion, antza, egunero elizara joaten zelako-edo. Bitarte

horretan, etxean ez zuten aitaren berririk izan. Bueltatzerakoan, arotzerian jarraitu zuen lanean.

Transkripzioa
- Aitxe kartzelan zer dala ta? Edo zelan harrabe ebien? Bueno zer dala ta imajinetan dot baiña…
- Porque gure aitxak dana euki eban. Batzokiko konserjia zan, "conserje de batzoki". Ta orduan euki eben danak ganera “pena de muerte”az euki eben. Ta gure aitxa beti elidxakua ixan dalez, ta beti elixara, ta ba deitxu eutsan kapitxanak-edo ta: “Hay una denuncia para usted, o lo que sea. ¿Usted que ha hecho?” “Nada, yo he sido conserje del tal, conserje de batzoki.” Ta solta ebala ta : “¡A trabajadores!”. Ta solta ebala: “¡A trabajadores!”. […] urte askuan
- Ta zer da hori, “trabajadores”?
- “Batallón de trabajadores”.
- Ta nun egon zan? Nungo trabajadorietan?
- Bueno nun ixan zan, hortik, Katalunia bueltatik hor ziher.
- Beti be beste lekitxar batzukaz edo?
- Ez, trabajadores danak.
- Ta lekitxar gehidxo euazan beragaz? Ez dakixu…
- Bai, batzuk bai baiña, danetariku, danetarikuk. Trabajadoriak zirian “trabajadores” ba biharra ein bihar ebenak han, zubidxak apurtzen zirinian ba zubi barridxak ein-ta.
- Ta denpora askoan egon zan?
- Bai, ez dakitx urte bi edo ein babazan han kartzelan..
- Eta indultua zelan etorri jakon-edo ba? Ze “pena de muerte” euki baban?
- Ba gero ein eben. Iksui eban eta kendu eutsan.
- Alaba: Horretxek kapitanak edo horrek kendu eutsan?
- Bai.
- Alaba: Ezaguna zalako edo?
- Ba ikusi ebalako elixara juten zala egunero komulgaten-ta. Ta ba bera be kontixu izango zan.
- Ta zuk bitxartien aitxagaz hartu-emonik-edo?
- Bapez
- Bapez, karatik ta bapez?
- Alaba: Nun daonik bez.
- Bi […] hortxen egon zan, baiña.
- Ta nork esan eutsun hor euala ba? A bueno gero berak, etorri zanian. Ta halako baten agertu ein zan.
- Bai. Gero aamitxu zanian ba…
- Agertu zan eta gero zer ein eban? Arotzeridxan segidu eban?
- Ze eingo eban ba. Ez euan biharrik, ez euan on Lekitxon daon, bueno ontxe bajonazua dauko, baiña ordun […] muellia arreglatia ta holakoxe zozer.

7.27. Gerraostea: gosea, errazionamendua, estraperloa

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/037
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:47:35. **Bukatu**: 00:49:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Bilbao Larrea, Patxi

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerraostean, jendeak gosea pasatu zuen Lekeition. Baserritarrei sagarrak osten zizkieten. "Auxilio social"en, Marinan eta "Nautica"n ematen zuten errazionamendua. Estraperloa dirudunek kontrolatzen zutela dio, horretarako dirua behar zen-eta; harakinak-eta ibiltzen ziren estraperlista.

Transkripzioa
- Ta hamen gerraostian Lekitxon gosia pasa eban jentiak?
- Joder, gosia, gosia, ez euan ezebe ta ezebez. Sagar ta madari lapurretan ta sagar lapurretan hortxe, hortxe sagarretan, hortxe sagarrak ostu ta baserritxarrak ikaria eukitxen gaitxuen guri ba.
- Mendidxara ta Ispaster ta.
- Bai.
- Bueno baiña ostutie behar danien jatekoa ostutie ez da pekatu.
- Ez da, baiña zuk badaukazu arbola bat ta ostuten baotsuen zeuri zeozer pekatua ez da, baiña […] hori?
- Baina razonamentu eukiko zenduen ba?
- Ez guria emoten eben, auxilio sozialian ta hori emoten eben zelan da?, emoten eben, bai Marinan be bai ta, horrek, hamen bestian be bai, nautikan be bai, ta han eoten giñin plater aluminiozkukin bumba ta bum jo ta jo.
- Ta estraperlo kontua?
- Estraperlua batzuk, estraperlua eukitxeko handixa ixan bir zara ta dirua daukona, estraperlua, horrek behidxak ekarritxa ta erunda baina hori “ya los poderosos”. Estraperlua, hamen ez do /ezto/ estraperlorik, ez euan dirurik hamen, bape!
- Baina jenti ibiliko zan halan be? Jentik ekarriko ebala estraperloan jeneroa?
- Bai, batzuk […] hamar-edo, estraperlua eukitxeko erosi ein bir dozu /bizu/ ta ekarri ta. Bai, estraperlistak euazen orduan honek karnaxeru ta honek .
- Bai txarridxen estraperlua-ta eoten ei zien.
- Bai, bai
- Animalixena..
- Animalixak, bai.

7.28. Irina lortzeko zailtasunak

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/041
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:51:10. **Bukatu**: 00:52:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gabikagogeaskoa Korta, Estibaliz
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Errotak gerraostean zarratuta egon ziren. Markinan zegoen errota handi bat eta bertara joaten ziren; oinez joaten ziren eta telazko poltsa batzuetan ekartzen zuten irina. Oleta goian Guardia Zibilak egoten ziren, eta askotan kendu egiten zieten.

Transkripzioa
- Ta errotak-eta? Zarratute egon zin, ezta? edo hamen parajien….
- Bai gero eurek zarratu ein ebezan /eibezan/, bai, eta gero Lekitxon Agortatik e… Markiñan euen errota handidxa.
- Baiña Lekitxon bertan ez?
- Errotarik ez hamen.
- Ez? Erreidxoren baten ezkiñan-edo?
- Lekitxon ez, juten giñin Oletara.
- Zer juten ziñien ba? Ze zuek astorik eta ez zenduen eukiko.
- Astuk geu.
- Alaba: Oiñez, no?
- Oiñez.
- Eta zelan ekarten zenuen urune ba? Zakuetan e…
- Zakuetan, boltsa batzuk .
- Lastozko boltsa…
- Telazko boltsa batzuk edo, baina kantidade gitxi emoten eben ta kilo bat eta kilo bat. Gero guardia zibilak eoten zirin hamen Oletako han goidxan eta igul kentzen eutsuen: “¿Qué llevas ahí? ¡Deja esto ahí!”

7.29. Francoren eragina; salatariak

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/046
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:58:14. **Bukatu**: 00:59:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Politika eta Franco
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Francoren asmoa euskara zapaltzea zen. Bizkaiko ezkerraldera eta Barakaldo aldera milaka espainiar heldu ziren eta irakasleak ere handik zetozen. Lekeition bi gizon fusilatu zituzten. Herrian bertan ere bazeuden salatariak.

Transkripzioa
- Euskeria eguan, honek maixuak [ekarten ebiezan] erdaldunak danak, ta euskera…. Francon taktikie zan apurtu Euskadi. Euskeria? Zapaldu, etorten zirian hona Sestaora ta Barakaldora ta, zemat milla lagun etorri ziren, altosornosek hamabost milla lagun euki ebezan ordun, danak zirin extremeñuak eta…
- Eta Lekitton politikiek inddar asko euki eban?
- Bueno Lekittok… PNVk eukan beti, betikuk ixandikuek ezta? Baiña gero danak galtzen jun zirin, ta hil ebezen bi, hil ebezen. Damason aitta, Damaso Leturian aitta, afusila ein eben eta beste bat, hojalatero bat, beste bat. Ta gero honek denuntzixak, Jose Pagua ta honek zirian denuntzixaten ebezenak danak,
- Txibatuak? Hori hamen eta edonun.
- Bai bai, danien.
- Aprobetxa batzuk.
- En general, hau , ofizixokuk normalian ofizixokuak, ni arotza banaz arotzari apunta!

7.30. Baserrian goserik ez

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere; Uribarren Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/011
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:11:42. **Bukatu**: 00:13:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alday Uskola, Mikel
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Juanen ama baserrikoa zenez handik hartzen zituzten elikagaiak eta ez zuten goserik pasa; gainerakoek bai. Oso jende gutxik zuen dirua. Oletako errotara joaten ziren.

Transkripzioa
- Mari Tere: Baiña gero ama baserrittarra zalez, baserridxan baakixu jaidxo ta hazinikua, ba solo zatitxua eukan, kanpuan solua esaten dotsau guk hamen baiña orto zatitxua. Ta han patatia ta amak hartzen ebazalez biberak eta ba politto, baiña beste asko gosi sendo ordun denporan ze ez zan irabazten hor dirurik, hor ez euan dirurik, txoferrakin eta ezkonduten zirinak eta ene, suerte handidxa ein dabela-ta, baakixu puestua euken jentiak, hillian sueldu eukelez. Baña han ez euan e, iual hille betin ta iual aste betin ta itsasora jun barik ta han ez zetorren etxera dirurik, ta ume asko, ta kontu, gose asko ordun denporan askok.
- Eta neba arreba asko ixan ziñien?
- Juan: Hiru.
- Orduan askorik be ez ziñien zuek.
- Juan: Ez, neska bi eta neu bat; hiru
- Mari Tere: Baiña ume asko, ume asko
- Orduan itsasora zu bakarrik?
- Juan: Bueno, gu jatekua eta ez gendun faltaten, honek esan daben modura amak ekarten eban inddiarra ta artua ta solotik-eta.
- Mari Tere:Taluak eindda.
- Juan: Errotara juan da kanbidxa ta etxin taluk ein ta artuaz kanbidxa ta ahal dan modura ibilli.
- Nungo errotara juten zan?
- Juan: Oletara.
- Mari Tere: Oletara, oletan euan e, hori

7.31. Ebakuatzeko beharra

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/016
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:21:53. **Bukatu**: 00:25:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Anakabe Murelaga, Aroa
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Nazionalak Ondarroatik Lekeitiora sartu baino lehen, nahi zuenak ebakuatzeko aukera izan zuen. Mari Tere Kalbarioko kobazuloan

ezkutatu zegoela, abisatu zieten nahi izanez gero ebakuatu zitezkeela. Bere aitaren aldeko familiako asko "San Roke" baporean joan ziren Laredon zuten senitarteko batengana.

Transkripzioa
- Mari Tere: Harek emon eben ba hamen holako zantarra, andra guztiari eitten eutsela bularrak ebagi, ta hori ta bestia, ta jentia ba ebakuaziñoia daola ta nahi dabenak juan ta sartun. Ondarrun euazan, Ondarrun euazan. Donostittik etorritta, ta harek nazionalak zirin ezta? Nazionalak.
- Semea: Bai Asterrikan euan frentia.
- Mari Tere: Bai ba, ta hona sartun eingo dirazela ta jentia ba billurra eukalez, harek ekarri eben horrekin handidxa, ba egin zirin asko ba ebakua hamendik sartun ein bir ebela Ondarrutik berton-ta. Ta baporak bapor zahartxuak zirian ta idxa hondora juteko modura, geu be, San Roke edo zein zan guria ordun eukauna?.
- Juan: San Roke.
- Mari Tere: San Roke eukaun. Ta neu be aitxitxa, gure aitxitxa be hainbeste urteaz jun zan, aitxen aitxa, ta etorri giñinian, hamen, kueban eoten giñin ezkutata, honek Kalbaridxoko kueban ta haraxen etorri zan gixon bat esaten, ebakuaziñoia daola, ze reketik sartun ein bir dabela ta nahi dabenak, badakixu juan. Ta bapora guztiak, euazan baporak, holakotu zirian ta jentiak kalietara atara ta trastetan ta baeuan, baiña jentiak eta. Ta ni be jun nintzan Kafe Marinen aurrian euan gure bapora ta aitxitxak “Mari Tere!” esaten eustan: “Ene, jun etxera eta aitxari esan etorteko bidxar hil eingo zaittuez-ta”, ta “ez ta ez aitxitxa erun zeuekin ni”,“ez aitxa barik ez” eitten eusten. Aitxitxa ixan bazan ni jungo nintzan eurakin ta denborala zan, mandu. Tio eukaun, aitxen anaidxa bat eukaun Laredon ezkonduta ta esaten gaittuzen beti holako ezer badator juteko. Ba gure familidxa, ba aitxen partekuak, asko jun zirian hantxen baporian ta denporali, ta bete-bete eindda bapor txiki, bakixu oraingo /ongo/ moduko bapor handidxak be ez zirian-ta, ta haraxe jun zirin ebakuata ta gu geldittu giñin, geu be, gure aitxari etxera jun nintzanin nearrez: "Aitxa aitxitxak esan nau ze bidxar hil eingo gaittuzela danok eta ez nau nahi ixan baporin itxi sartzen zeuana, zeuek be etorteko ta danok juteko” Ta esan eban gure aitxak ze: “ez”. Beste anaidxiana jun zan nire aitxa, beren anaidxia: “Bueno tioana noi ontxen, tiok zer esaten daben”. Ta jun zan tio Pauloana, ta esan eban: “Hauxe ta hauxe etorri jat nearrez, jun nahi dabela berak hamendik” ta esan eutsan anaidxik: “Ez hermano!” esan eutsan, harek eh ume asko eukazan eh tiok, ta esan eutsan ze: “Ni ez nator iñora, ni neure umikin hamentxen geldittuko naz ein hermano zeuk be”. Hermanoka eoten zirin beti, hermano gora ta hermano. “Ein zeuk nahi dozuna /nahidxuna/ hermano, baiña ni ez noia iñora mobiduten, honekin ume guztidxokin. Jangoikuk nahi dabena ixan daixela ta gu berton geldittuten gara, o/ zuk zeuk nahi dozuna /nahixuna/ ein”.

7.32. Soldadu atzerritarrak

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/017
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:25:40. **Bukatu**: 00:28:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Zita Enperatriz hotela sutan ikusi zuten. Ikaratuta, kobazulo batera joan ziren eta bertan pasatu zuten gaua. Goizean sartu ziren nazionalak herrira. Gerrako soldadu gehienak kanpotarrak ziren: alemaniarrak, italiarrak, frantziarrak, mairuak... Mairuek ospe txarra zuten.

Transkripzioa
-Mari Tere Aboitiz: Hori hotelori be, hotela, zelan da? Emperatrixa be, ganbaratik ikusten genduan, dana sua emon eutsen ta sutan, ta ikaratuta. Gero aittak eta tiok erun gaittuzen kueba batera, erun gaittuzen, billurraaz. Kueba batera erun gaittuzen ta hantxe pasa gendun gaba. Ta gero hurrengoko goixian ba sartu zirian ta pasa zan halako, zelan da? Esan ebezen /esabezen/ modura. Haretxek altera eben asko. Ta halantxe [...]. Hamengo halakua halantxeik ixan zan, ebakuaziñoia.
-Juan Uribarren: Gerran ekarri ebezen alemanak, italianuak eta internazionalak guztik ekarri ebezen ta harek "a matar" etozen ta "a matar". Topaten dabenari, zer esaten daben ta "a matar". Gerrara ekarri eben, Euskadiko gerrin kontra ekarri eben italianuk eta alemanak eta. Frantses zantarrak be itxi pasaten alemanari . Traslada, Españira pasaten, frantsesak.
-Elkarrizketatzailea: Ta hemen moroak eta ez zien egon, Lekeition / Lekitton/?
-Juan Uribarren: Moruak eta edozer ekarri eben. Moruari esaten eutsen, jun billa ta... "España morir, Africa resucitar. Vamos a pagar tanto dinero". Ta moruak guztik zoratuta gerrara, geure kontra.
-Beste batek: Jihad.
-Juan Uribarren: E?
-Beste batek: Bai bai, morun mentalidadia bai.
-Juan Uribarren: Ta harek siñistu eitten eben ta harek gero... "España morir, Africa resucitar" esaten eutsenian ta pozik eurak, eoten ei zirian, guk ez dakigu, gu gaztik giñin ta.
-Elkarrizketatzailea: Klaro...
-Juan Uribarren: Harek gerran ebixen ta. Eitten ei eben /eixeben/ moruak, hildakua topaten ebenin, kendu burua, hagiñak urre gorrizkuk eta ikusten baeutsan, sartun boltsan ta gero hagiñak kendu ta...bueno, esakeri be gehixo ixaten da ta... ixakeria baiño.
-Mari Tere Aboitiz: Bai ba horrek donostiarrak ekarri ebezen, horrek, halako guztiok hamen ta...
-Juan Uribarren: Ein ei ebezen ta [...]

7.33. Soldaduak etxean

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/038
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:55:50. **Bukatu**: 00:57:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- **Laburpena**: Gerran Asterrikan egon zen eta bertan zegoen frontea. Leihoetan tabloiak zituzten jarrita balak ez sartzeko. Kortan, ira artean, soldaduak izan zituzten lotan.

Transkripzioa
- Ta zelan bixi izan zendun zuk hori? Gerria zelan bixi zendun?
- Gerria? Nik baserridxan eon nazen, Asterrikan. Asterrikan.
- Asterrikan frentia euen...
- Bai, frentia bertan. Jo ta balkoi be behian ganera bota eban baten kaiñoiak. Ha, bentanak ipiñi, tabloiak, oihan dauen lekun balak sartun ez daixen. Danak balitxe, hantxe bala tartian.
- Zu gazti ziñan ta ez ziñan juan.
- Ba nik hamabi urte bertan urtian, gerria hasi zanian, hamabi urte.
- Baiña eingo zenduan zeozer, frentera-edo juten ziñien gauzak eruten?
- Ez, ez, ez.... Txarridxari han jatekua, arroza-ta, han Asterrikan han txarridxentzako jateku botaten daben han behera, soldauak, arroza ta okela zatidxek eta. Jan edarto! [Tejabanan] be bai. Etxin [...] koziñia euken ta hantxe. Konpaiñia bakoitxak koziña bat.
- Zuek nortzuk euki zenduezan etxien?
- Lo eitten? Lo eitten soldauek egoten zirin han kortan, iratzan.
- Ta zer, milizianuek edo...?
- Soldauak, milixianuak. Miliziano... Itxasalde-ta egon zirian, Itxasalde, honek.
- Batalloia?
- Bai, honek, e, bertokuak, Itxasalde. Han goidxen, bestien, Kalamendin, horrek, asturianuk be bai. Baten lau-edo hil zirian, asturianuk, sartun kaiñoi-ta Kalamendin. Han Asterrikan bertan mendi bat, Kalamendi. Sartu kaiñoie ta lau soldau hil. Beti eguzki berotan be guardasolaaz ibiltzen zan; `Paraguas´ deitzen otsaun. Ta haixe be atrapa eban. Gero elixia, Lekittokua edo..., bai Lekitton eon zan, abadia, Amorotokua, txikitxu bat.

7.34. Kamioikada gazte frontera

- **Hizlaria(k)**: Goitia Izurieta, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-043/007
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:11:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Eskolapean zeudela mutil gaztez betetako kamioia ikusi zuten. Mutil horiek frontera zeramatzan kamioiak. Oso egoera gogorra zela dio Gregorik. Talan ere bazegoen babesleku bat.

Transkripzioa
- Gero, jun giñian urten, eskolapian zihar jun giñian, eskolapian zihar ta... kamion handixa, kamion handixa, mutil gaztiakin , ama guztik negarrez, ama guztik negarrez, haixe zan etxuri, ene... Mutillak koittaduk hogei urtekuk mendira! Mendira! Umik danak, haxe zan e... haixe etxuri, esaten gendun. Baiña gero, zelan zan bestie? Ha talan be eon zan! Beste halako bat , beste suterraneo bat, talako han , baiña han... han barrun euan, zelaku da hori? E suterraneua, kamiñun barrun eguan han, han barrun kamiñun barrun eguan suterraneua, ta jentia haraxe. Zemat holako, ene!

7.35. Etxetik irten arren laster ziren bueltan

- **Hizlaria(k)**: Goitia Izurieta, Gregori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-043/009
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:14:09. **Bukatu**: 00:15:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Portal de Atea ondoan ura zuen lur azpiko pasabide bat zegoen eta gerran hara joan ziren amamagaz, baina laster bueltatu ziren etxera hura ez baitzen leku egokia.

Transkripzioa
-Ta gero juten giñian haraxe, bakixu nun dagon /don/ hori, lehen nun... lehen nun.... ontxe be... karnazerixa Portal de Atean? Hantxe, hantxe gora junda eguan suterraneo bat, baiña suterraneua zan gero erdi-erdixan eukan hori, zelaku hori... Ura, pozua, ta jentia hantxen ta jun giñenin hirurok amuma ta aizta bixok jun giñenin "kontuz e, hor jausi barik, ze hor jausten danak ez dauko entradarik eta gehixorik ". Itto, ta gure amumak esan eban ze "potxuak guazen etxera, etxera guazen, geure halakora, ze hobeto eongo gara etxin barrun". Ta etxin eon giñian, baiña esan neban "hau gerriau".

7.36. Pasai San Pedron gerra aurretxoan

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/008
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:08:44. **Bukatu**: 00:10:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Gerra aurretxoan, aitak Pasaia San Pedron egiten zuen lan, eta hara joan zen bera ere. Han ibili zen eskolan denboraldi batez. Gero, umetan egindako hainbat lagun pasaitar aurkitu zuen soldadutzan.

Transkripzioa
-Gerria etor zanin be... ni amaaz eon nitzan, aittak biharra eitten eban Pasaixan, baserrixen, ta haraxe junda eon nitzan, ta hantxe eskolara ibili nintzan pixkaten, San Pedron. Eta gerriak atrapaten pasa giñin hona.
-A! San Pedron egon ziñen?
-Bai.
-Gerria atrapa eben egune, gerria hasi zanian... bai...
-A! Eta zenbat urtegaz joan ziñen ba San Pedrora?
-Ni San Pedron zenbat e... zenbat eukiko neban ? Bederatzi. Ba hamar hara jun nitzanin... bederatzi-hamarreaz edo... gero gerria..., entseidako atrapa gaittuzen gerrik eta... bai... eta gero ba pasa giñin hona, eurak naziolanak hartun orduko ba pasa giñin hona.

-Eta San Pedroko biximodue zelakue zan?
-Han ezebez gu e... han be gaztik giñin ta, aitta biharrian, ama eta... hirurok bixi giñian, beste arrebak eta anaixik eta Lekitton bixi zirian, biharrian eguezan da ta... ezebez...
-Ta giputx artien...?
-Giputx artien..., baiña gero soldau jun nintzanien e, hemeretzi urteaz, han ibiltten giñin kuadrillian danak zirin neure edadekuek eta kuadra giñian sei, sei kuadra giñian e kuartelian, ta lehenengotan ikusitta... Ño! Ha ez da ba Fulano ba? Txo! Bai! Tak... ostera be sei, sei, neugaz zazpi, kuartelien kuadra giñian.
-Eta San Pedron eskolara be, bertan?
-Bai, bai... ein neban denbora gitxi han, badakixu /bakixu/ gerria etorri zan, denpora gitxi ein neban.

7.37. Errazionamendu garaiko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/014
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:15:50. **Bukatu**: 00:17:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gose handirik ez du berak pasatu, baina badira pasatutakoak. Errazionamendua udaletxe azpian hartzen zen. Garbantzuak eta dilistak kokoaz egoten ziren sarri. Ogia, egunean txusko bana. Baserritarrekin harremana zutenek jenero gehiago eskuratzen zuten.

Transkripzioa
- Ta goserik pasa zenduen?
- Gosia, gosia gitxi, ez, gitxi. Baiña pasa da, bai, pasa da. Nik neuk halako gose handirik, gosia pasa dot neuk be, baiña halako handirik ez. Baiña askok ba...
- Eta razionamentua esan dozu lehen. Nun hartzen zenduen ba?
- Aiuntamientuen azpidxan, ta aiuntamientua [...]. Aiuntamientua. Han azpidxan zelan dao ha, ha arkupia? Ba hantxen behian hartzen zan.
- Ta zer?
- Lentejia-edo, garbantzua-edo, ta garbantzua gero ezin ein ta, gogorroo. A saber nundik [...]. Indiarrak kokukin ta lentejia kokukin ta...
- Baiña jan.
- Jan ein bihar! ze ba?
- Eta ogidxa?
- Ogidxa, ogi baltza. Panaderidxia, ha be razionamentua. Haunakoxe txusko bana bakoitxentzako egunian. Ta baserridxan eitten ebenak, ba, ogidxa, ba, baeuan. Ba baserrittarrari edo. Ordun esnedunak eukitten genduzan. On dendetan dao esnia, baiña orduan baserrittarrak eta. Harek, ba, erosi hareri ta... danetara ein bihar.

7.38. Karabineroekin konpondu behar estraperloan jarduteko

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/015
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:17:15. **Bukatu**: 00:20:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Estraperloa egiten zen itsasoz: ogia, tabakoa... Karabineroekin konpondu behar lehenengo, eskatzen zutena eman behar. Erdaldunak ziren denak. Non egiten zuten guardia eta non zuten kuartela. Guardia Zibilak eta karabineroak erakunde berbera osatu zuten gerora. Karabineroen emazteak antxoari burua kentzen ibiltzen ziren fabrikan, udaberrian.

Transkripzioa
- Eta itsasoan-eta estraperloa baeuen?
- Bai, ogidxaaz ta, estraperlu beti.
- Bai?
- Bai.
- Ta ze, ze ibiltzen zan estraperluan, ze eoten zan?
- Ogidxa, ogidxa ta haurixe.
- Olidxua ta?
- Olidxua ta, ta tabaku be bai ta.
- Tabakua?
- Tabakua be bai ta. Horrek merkantietakuk, horrek ekarten ebena, tabaku be bai.
- Eta karabiñeruekaz zelan?
- Lehenago karabiñeruari emon bihar! [Harek ra!] ta karabiñeruari honenbeste, berak eskatuten dabena.
- A bai?
- Bai.
- Ordun karabiñeruekaz ondo konponduten ziñien?
- Derrigorrian konpondu bihar!
- Bertokoak izaten zien edo...?
- Ez, kanpokuak, danak kanpokuak, erdaldunak, osea, hamen eoten zinak danak erdaldunak.
- Ta nun eoten zin?
- A saber nunguk ixaten zin.
- Ez, nun egon, eurak nun egoten zin?
- Baakixu nun don Serenga? Ha arkupia? Hantxe eoten zan kaseta bat, kaseta bat. Han eitten eben guardidxa. Gabetan-ta hantxe, portu ikusteko. Ta eurak bixi, hamen zubidxa, zubidxen aurrin zelan dao [...]? Han euan bloke bat, hantxe. Ta horrek be, guardia zibillak bixi zirian, haur zelan daon portalien, Kriston portalien, botikia? Haren albuan, on etxiak-eta, bota ein eben lehengo zaharra, ta hantxe euken kuartela, bai.
- Ta guardia zibillakaz?
- Bai, han. Ta gero ein zirian horrek kuerpo bidxok bat, bat. Bai.
- Ta karabiñeruakaz ondo, eta guardia zibillekaz?
- Guardia zibillak portun ez zirian, txarto, horrek gaiztuk [...], horrek gaiztuak.
- Gaiztuak?
- Karabiñeruak [...] gero danak ein zirin bardiñak, e? Kuerpo bat ein zirin danak eta.

- Ta karabiñeruak ze uniforme edo ze ibiltzen eben?
- Ezer be ez harek. Hamen, baadakixu, Lekitton eoten zirin karabiñeruak arraiña-ta emon-ta. Andrak fabrikan eitten eben biharra primaberan buru kentzen.
- Karabiñeruen andrak?
- Andrak, bai.
- Antxoa sasoien, oin?
- Antxoa sasoin, bai.

7.39. Itsasoan aurkitutako "gomekin" dirua egin

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/029
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:36:58. **Bukatu**: 00:41:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: II. Mundu Gerran aliatuen hegazkinek kautxuz zamatuta zetozen kargauntzi alemaniarrak hondoratu zituzten. Kautxu ("goma") hori azaleratu zenean, arrantzaleek itsasotik bildu eta negozio handia egin zuten Salbadorren amak etxea erosi zuen diru harekin. Lehenengo Galizia aldean lokalizatu zituzten, baina gero askoz ere hurbilago. Berak 16.000 pezeta irabazi zituen 16 urterekin. Koinatuaren ontzian joan ziren bila. 18 lagun ziren.

Transkripzioa
- Lehen aittatu dozu momentu baten gomana, zelan zan hori, goman asuntua?
- Zein?
- Gomana, gomak batu zenduzenekoa.
- A! Gomak? Lekitton! Hamen, Frantzidxako kostan; lehenengo Galizidxan, soltian. Ta gero hamen berton. Bai, hamendik zenbat milla eongo zan ba? Burdeos ganian-edo, edo barrunao, barrunao. Bai Lekitton ordun zortzi baporek-edo, sei bapore, zortzik-edo, ondo irabazi [genduen].
- Aberastu?
- Aberastu? Amari emon neutsazan nik eta.
- Amari?
- Amari, ba, soltero neuan ta. Ondiok, baakixu zenbat? Nik ordun hamasei urte neukozan. Amak etxia erosi eban.
- Klaro, amak etxia erosi. Ta ze pasau zan gomakaz?
- Ze, ze, ze urtetan?
- Zer pasa zan?
- A! Gerran abionak.
- Gerra mundiala?
- Gerra mundialian bota ebezen, ba, barkuk, merkantiak, hondora alemanak. Ta gero, ba, hondun euazan ta handik denborara, ba, ordun eskotillak be, eskotillak esaten eutsauna, on burdiñakin zarratuten diraz, baiña orduan egurrezkukin euan zarratuta. Ta egurra usteldu zanian, harek, gomia azalera etorten da, urten ahala kautxua, urten ahala.

- Ta zelan entera ziñien ha pasa zala?
- Auntxe esango dotsut hori be. Lehenengo Galizidxan bai, entzun, lantzin bat topata, ekarri ebazan, ekarri genduzan, hirurogeta hamar. Ta gero bestian ekarri genduzan [hirurogei]. Halako fardo hadidxak zirian. Bestin ekarri genduzan beste hogeta hamabost edo. Biaje bi Galizidxara. Gero, etorri giñian, negua zan ta Lekittoko pareja bat urten eban, ta topa eben gomak. Ta etxeruntz datozela, bete zirian ta bat ein zan Frantzidxako kostan enbarranka, ta bestia allaa zan. Ta harek emon gaittuzen guri situaziñoia nun daozen, situaziñoia nun daozen, ta gu... ta ein genduan urten gabaz. Lau barku. Konpaiñika, e? Ekarri genduzan bakoitxak berrehun ta piku ta. Gero, ba, gorde genduzen ta gero etorri zirin billa ta eruan ebezen ta gero paga gaittuzen. bai.
- Ta zemat diru akordun dekozu?
- Nik neuria esan dotsut ze toka jaten: hamasei.
- Hamasei urte?
- Bai.
- Ta zemat mille pezeta?
- Hamasei milla pezeta, ba, ta hamasei urteaz.
- Hamasei milla pezeta?
- Hamasei urteaz.
- Horregaz bi pisu bai Lekitton!
- Cuarenta y dosian zan. Bai.
- Horreaz bi pisu erosteko beste bai! Bi pisu paseu.
- Bai, baiña beti ixaten da... Etxin asko geuazan ta.
- [...]
- Nik be hartu [neben] zati bat eta, baakixu, ba.
- Joe, egin behar zenduan /enbizendun/ bat amari erosi, etxe bat, eta beste bat zeuri.
- Bai, neuri!
- Hamasei urte euki arren.
- Hamasei urte euki arren... [...] neuk hartu neban parterik gitxien, ganera.
- Eta zuek nortzuk joan ziñien? Zuen enbarkaziñoan.
- Zein enbarkaziñotan? Koiñatuaaz jun nintzan, [...] Jesus.
- Ta zenbat lagun juan ziñien?
- Han hamazortzi lagun.
- Hamazortzi. Ta bakotxak hamasei milla pezeta?
- Bai.

7.40. Eskolan Primo de Riverarekin eta errepublikarekin

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/004
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:03:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1923-1931: Primo de Rivera
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Errepublika denboran zein aurretik, Primo de Riverarekin, ibili zen eskolan. Gurutzea kenarazi zuten errepublika etorri zenean. Lekeitiarrak ikurrina maite ei zuten, ez bandera errepublikanoa.

Transkripzioa
- Esan dozu kofradi zaharreko eskolan ibili ziñela?
- Bai ombre!
- Baiña zu eskolan errepublika sasoien ibili ziñen?
- Bai errepublika sasoin ta ariñaotik be bai.
- Ta ze, ze diferentzixa euen?
- Ba Errepublikie etorri zanian, hori kurtzixua, eskolan eon zan ta, kendu erain gaittuen kurtzixua, elixako kurtzixua kendu erain gaittuzen.
- Errepublikan?
- Bai
- Ta banderie?
- Banderia...guk beti geuria, ikurriñia geuria.
- A Bai?
- Ombre! Geuria ikurriñia. Hori errepublikanuak, errepublikanuak euki eben baiña guk lekittarrok geure ikurrintxua!
- Ta zu eskolan igual hasi, Primo de Riveragaz hasiko ziñen?
- Primo de Rivera euan ordun denporan, Primo de Rivera euan, Primo de Rivera ta horrek, hau be bai, ha, ordun... Primo de Rivera ta, nor zan bestia? A baiña euskalduna euan hamen, zantar handi bat. Zelan eukan berak? Ia gomutaten bajat.
- Ze Primo de Riveragaz batera?
- Bai orduntxe deporan euan ha. Bai, harek "estos son mis poderes" haunan karteletan ipiñitta.
- A bai? Zein zan ba?
- Akordauko jat ia...

7.41. 34ko Iraultza Lekeition

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/006
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:05:08. **Bukatu**: 00:06:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena**: 34ko Iraultza gertatu zenean grebak izan ziren Lekeition. Brouard familiarena zen autobus konpainia; garraioa geldituta egon zen.

Transkripzioa
- Egoten ziren hemen manifestaziñoiek edo mitiñek eta?
- Bai, bai. Huelgak be bai. Anaixia, Joseba, gaztia, ba ha ixango zan opera ebenian, eon ia, “treinta y dos”in jaixo zan anaixia, “treinta y dos , trenta y dos, treinta y cinku”n-edo, “trenta y dos, “treinta y cuatru”n-edo, zan ha errebolta halakua eon zana. Hamen halakoxe kotxe bat ibili zan, kotxe bat, Brouarden eta, aittak eta, Santi Brouarden eta aittak eta, kotxia euki eben. Haurretxek forma eben Lekittoko kotxiak, Santi Brouarden aittak eta. Eta danak parata, kotxe guztixak, danak parata.

7.42. Don Paulinori maisutzako baimena kendu nazionalista izateagatik

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/016
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:16:37. **Bukatu**: 00:17:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Maisuak ondo antolatzen zituen gauzak. Zaharrenak gazteenekin nahasten zituen taldean. Patroi ikasketan egin zituenean ere berarekin ikasi zuen, partikular. Beste lagun batzuk ere baziren. 'Maisutasuna' kendu egin zioten gerraostean nazionalista izateagatik.

Transkripzioa
- Han eskolan danak ondo ikasi eben han, danak e? Danok, danori erakutsi gaittuzen/eutsen ondo. Gero berak ekixen organizaten, igual gu baiño zaharrauk, [...] zortzi urte ta hamabi urte ta hamalau urtekuk ta ondo ikasitta euezanak ba igual grupo bateaz ipintten ebazen, beste grupo bateaz beste bat ta bera handik ba dirijiduten dana. Ondo ondo, maixu ona. Ba patro, patroi ein nintzenin be beraaz partikular eon nintzan hamen, hamen ibilli giñin partikularra lau lagun beraaz.
- Paulinogaz?
- Bai, ze hori be, hori be, nazionalisti zan ta. Horreri be haulakua ein eutsen horreri be. Maixutasuna kendu ein eutsen, frankismuk kendu ein eutsen danak. Ta juten giñian ba partikularrian ibilli giñin ba Tomas Amutxategi, Julian Kanpetillo, neu, nor zan laugarrena? Lau giñian.

7.43. Gerra Zibila hasi zenean

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/003
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:02:05. **Bukatu**: 00:04:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean bost urte zituen Bitoriak; hala ere, ondo gogoan ditu orduan bizitakoak. Baporean sartu ziren alde egiteko asmoarekin, baina azkenean etxera bueltatu ziren. Erasoak hasten zirenean, zubiko kobazuloan ezkutatzen ziren. Jende asko batzen zen bertan. Moilan mairuak ikusi zituela gu gogoan. Beheko botika ondoan zegoen bodegoi baten antzerakoa zen Mataklan. Eta askotan umeak bertan batzen ziren gurasoak beste zeregin batzuetan zebiltzan bitartean.

Transkripzioa
- Gerria hasi zanian umi ziñian?
- Bost urte, bai.

- Ta gomutaten dozu zeozer?
- Honbre, eitten [doten]. Badakit desaloja giñina, plantxia euan ontxe Isuntzak zelan saltzen dittuz harek, kamisetak eta? Han aurrin plantxia euan. Zeuri be akordako jatzu, gaizti zara baiña... Ba hantxe, sartu giñian `Rosario´ baporian, ta urten genduan kanpora. Aillega giñinian farolera, barrun euan bat hasi zan: "Enee, auntxe botako gaittuez hondora! Ene, ene! Buelta en biher do! Hamen dator, hori dator, `Cervera´ barku dator". Ta, klaro, guk argidxak ikusten genduzan, baiña guk ez zekigun holako konturik. Ta buelta ein genduan, e? Buelta. Eta gero gu etxin geratu giñian. On ez dakittena da bera bapora atza jun bazan edo ez bazan. Neuk dakit buelta ein genduana.
- Ta ze, abioik eta bonbardeuk eta ikusi, sentidu zenduzan edo?
- Bai, bai, eske han kueban eoten giñin gu, zubiko kueban. Hantxe ein jateku ta. Ama-ta juten zirian hara ta hona ta jatekua lograten, ta gu hantxe umiak, hantxe kueban. Eta asko, e? Gure modura asko eoten giñian.
- Aja, ta zelan entera ziñin gerria hasi zala?
- Gerria hasi zana gu entera ez giñin ein, ikusi ein genduan mobimentua ta aringa-aringi ta. Gero, niri esan osten italianuk zirina, baiña nik neuk pentsaten neban moruk ikusi genduzela moillan, moruk jesarritta moillan. Hantxe kafe Marina ta daozen hantxe. Ta badakizu jentia, batak haratz ta beste batzuk honutz ta badakizu ordun ein ebezena, “los que podían y eso ya hicieron cosas”, baiña gu, ba, badakizu, ontxe lantxerik. On be zelan gaoz? Bardin!
- Ta zutzako zelakuk izan zirin harek urtiak?
- Ba harek urtik... umik izan giñian. Ama-ta juten zirian, esan dotsut, ba horra edo hona ta umiak egoten giñian, ba, umiak eta. Ez dakit zuri akordaten bajatzu “Mataklan” nun eon zan. Beheko botikin aurrian eon zan “Mataklan”, e... hori.. e... holantxerik, Bodegoi izati lantxerik eta. Ta horren jaubiak, horren euren jaubiak be umik-eta eukezen, ta izten gaittuzen hantxen igual hamar ume ta hamabi ume ta gure amak eta. Ta eurak juten [...] jatekun bila hara edo hona edo, ta hantxe egoten giñien e... Ta gero, ba, juten giñin etxera amagaz-ta, ta holantxerik zan.

7.44. Errepublikan "Historia sagrada" eta gurutzea kendu

- **Hizlaria(k)**: Izagirre Aizpuru, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Akarregi, Leire - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-054/031
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:39:32. **Bukatu**: 00:40:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
  Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena**: Eskolan denetariko gaiak zituen entziklopedia zuten. Errepublika garaian, "Historia sagrada" atala artaziekin ebaki zieten eta hormako gurutzea ere kendu egin zuten. Errepublikako kafetegian bandera eta Galán eta Garciaren argazkiak eskegi zituzten.

Transkripzioa
- Ta gero eskolan emon gaittuzten, ez dakit ba, entziklopedixa zan, bai, una... eskolan. Ta nire lagunak Mendienekuak, "un poco más pudientes",

erosi ein eban harek, Klarita Mendik. Ta gero, Errepublikia etorri zanian, "Historia Sagrada" eta dana eukan berak liburuak, todo. Guri eskolako liburu zanari, hori, "Historia Sagrada" artazixakin, Errepublikia aillega zanian, kendu egin gaittuzen, artazixakin ebai eutsen. Eta harek euren liburu zan lez, ba, harek jostorratzaz eta harixaz harek paginak josi. Eta kruzifikua egoana kendu. Danok negarrez. Ta hamen aurrian hamentxe euan errepublikako kafia eta hantxe esegi eben banderia eta Galán eta Garcíaren erretratua ipini eutsen behian, banderiaren behian. Eskolatik... eta klaro eskolatik ikusten gendun. Eta banderia ez dakit nik zelako banderia ixaten zan... Espaiñola ixango zan, kontizu, ordun denporan, eskoletan-ta ixaten zana . Ta gero ez dakit... gero...
- Bandera republikanoa.
- Gero errepublikanua ixango zan?

7.45. Baserriko jeneroa ezkutatu beharra

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/017
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:22:49. **Bukatu**: 00:24:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerratean, Katalinek-eta etxean indaba ere ezkutatu egiten zuten. Bestela, topatzen zuten guztia konfiskatu egiten zieten; baserrian noiznahi erregistratzen zuten. Irratia ere ezkutuan entzuten zuten. Irratia eta bitxiak kortan ezkutatzen zuten, ira artean.

Transkripzioa
- Teresa: Ezkuta eitten ebezen honek.
- Katalin: A, bai.
- T: Bestelan danak kentzen eutsezen ta.
- K: Errekisaten ebena, topaten baeben, ba, kendu eitten... Garidxek be honenbeste entrega ein bihar ixaten genduzen. Ta baserridxen noixnahi eitten eben hori, e? Errekista, e? Ta harek gurera ekarritta hori, zein da? Radidxue, nungu zan bera? A bai, hangu pentsaten dot, “Guxinenekue”. Ta kortan ezkutata radidxu be, baiña gu... kortan, bueno, beren bedar siku, baiña entzun eitten gendun ixil-ixilik ipinitta radidxue, ordun denporan. Ta gero lobie, hangu, Mari Carmen, hori famosiori.
- T: Bai, bai.
- K: Ta “amumenien gixon bat dauke: “bubububu” eitten dau”. Mari Karmen. Ta koillarak zidarrezkuk be bai, hantxe kortan ipiñi ta iri bota, iri, baakixu, behidxari botaten jaken azpidxan sikue ganera ta hantxe ezkutata.
- T: Euskeraz berba eitten ebenari...
- K: Geurik ez, e? Lekittokuk. Ta gero errekistaten datozela, hori zan polittena, ta etxi guztik, baserridxek-eta,.Ta nire aiztiak hartu, bueno, ordun burun otzara zabala ixaten zan leheno, plazara […]-eta karriatekuak ta hantxe ta kara-kara. Ixen bazan euri zaparradie, adios.
- T: Bai, bai, bai.
- K: Ta horixe. Ta gu ez giñan... Gu geldittu giñien ahizta, hiru aizta, ama, aitta hilda eukoun ta nebie, gaztie. Ta gero, ba, jesus, ordun, ebakuaziñoien, han gora, Gernikarutz jun zan danak, gau guztie pasa ta pasa ta pasa.

7.46. Gerran Gardatatik Lekeitio zelan ikusten zuten

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/019
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:25:07. **Bukatu**: 00:26:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Mairuen beldur ziren gerra garaian. Gurutz gorrikoak zaurituak garraiatzen aritzen ziren Lekeitiora bidean eta erizainak zuriz jantzita ikusi eta mairuak zirela pentsatzen zuten. Bide guztia janariz eta aparteko tramankuluekin beteta utzi zuten. Kanpaiak entzuten zirenean, abioiak zetozela uste zuten eta horrexegatik ezkutatu behar zirela, baina oker zebiltzan, faxistak Lekeitiora sartzen zeudela esan gura zuen.

Transkripzioa
- Katalin: Ta gero argidxek be amatata ta jaten gendun idarrak eta patatak, akordaten jat, tenedoraaz illunien, ta, ba, topaten gendun ahora bidie, e!
- (senidea): […] zibilak, enfermerak, zibilak zurizko jantzitta.
- K: A, bai. Bai, bai. “Cruz Roja” ibiltzen zan ordun eriduk ekarritta hona Lekittora ta erun halakun, ta haretxek. Baiña zenbat ganadu ta zenbat gauza! Bide guztik itxi ebezen biberaz beteta. Zenbat indiar eon zan han tontorrian. Ta […] hareri, ta etorri zirin esnin billa bertara, baserrire. Ta harexek indiarrak batu ta eruan ebezen harek etxera. Ta kandela ta honek,

bujoiak, eta barrikak, ez dakitt zetako erun ebezen han ziher.
- (senidea): Iñori ostuta.
- Teresa: Ostu danak.
- K: Ostuta? Ez! ebakua...
- (senidea): Baiña horrek zirian ondarrutarrak-eta ebakuaten.
- K: Bai, [...] honeri faxistari ez ixtiaittik ezer be, karria danak. Ta ekarri ebezen barrika batzuk ta neu ta Antonio be jun eiñ giñin. Beitu [...] gaztetxuk, e? Ta bujo haundidxak eta han-ta. Ta, gero hauri, kanpaiak-eta. Ta kanpaiak joten ebezenian, abioiak datozela-ta, arin-aringa ezkutaten zirian. Ba, abioik datozelakun, baiña abioik barik, beste honek, faxistok hor, ba, Lekitton sartu zirila. Ta itxi [bujoiek] bertan ta gero eskapa. Baiña gero Manuel jun ta geure solora erun genduzen. Baiña harek ez zirin, guk erunda daozena ta erun ebezen bujoik, larrekuak, etxera.

7.47. Jeneroa entregatu eta txerria isilean hil behar

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/021
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:26:45. **Bukatu**: 00:27:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Gerraostean, garia nahitaez entregatu behar izaten zuten. Baina indaba adibidez, ezin zuten izan kantitate bat baino ez, horrexegatik ezkutatzen zuten. Beraien etxea herriz Ispaster (nahi eta Elizaz Lekeitio) zenez, hara eroan behar izaten zuten. Txerria ere isilik hil behar izaten zuten. Guardia Zibila paseatzen ibiltzen zen.

Transkripzioa
- Katalin: Biberak? Biberak, garidxe derrigorra zan entregatie, baiña indiarrak be honenbestetik gora ezin leixen euki, ta guk, ba, geunkaun lez, ba, ezkutata euki bihar, bestela kendu eingo gaittuezen ta.
- Ta bi Ispasterrera?
- K: Bai, Ipastarrera, ta horrek be, garidxa be, Ispasterrera erun bihar ixaten gendun.
- Eta ganaue?
- K: Ganadua... [...] ezer halakotu, baiña...
- Zer eukiko zenduen ba, zer [...]?
- K: Ba, hiru behi-edo, lau behi, lau behi ta txahalak. Harexeaaz bixi giñin ta.
- Txarririk be ez...
- K: Ez. Bai, txarridxe eukitxen gendun, txarridxe be ixilik hil bihar ixaten zan. Ta gure auzokuek, ba, errekista eben, ta, ba, lau holako. Zein dok? Jamoiek. Ta txarridxa hil dabela ta. [...] esan ei otsen eze: “zelan txarri bat hil ta lau jamoe dakozuez?” ta: “dos tiene atras y otros dos adelante”, esan ei otsen Guarda Zibillari. Ta geuk be txarridxe hilda. Ta ordun Guarda Zibillak-eta pasietan-ta, [...] kontu ta entreteniduten, haren ikariaaz, barrura sartuko dizelakuan, ta gu mortzillak-eta eitten barruan.

7.48. Estraperloa eta ogi gogorra, baina goserik ez

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/024
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:29:45. **Bukatu**: 00:32:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerraostean estraperloa zen nagusi. Katalinek olioa Arropainen erosten zutela du gogoan. Bi litro-oliok sei hilabete irauten zituen. Teresak dio hasieran ez zutela janari faltarik izan, baina errazionamenduko ogia gogor-gogorra zela. Katalinen nebari behin errotan eman zioten ogi zuria katuek jan zuten, baina nebak pentsatu zuen bera izan zela jan zuena. Baserri inguruetan eta itsasoko herrietan ez zuten goserik izan, beti izaten zuten zer jan-eta. Bilbo aldean-eta, txarrago ibili ei ziren. Gerraostean kaletarrak esne-eske joaten ziren baserrietara.

Transkripzioa
- Katalin: Estraperlue dana. Horrek estraperlue zirien. Estraperluen erosten genduen olidxu be bai, Arropaiñen, hori, ez daitt zelan dan bera, dana dalakue. Ta litrue berrogei, bueno, berrogei-edo, baiña berrogei ogerleko ixango zan, kontixu.
- Asko!
- K: Hogei, hogei, litro bi, berrogei ogerlekuun. Ez dakitt orduko...
- (senidea): Ogerlekuk asko diz, zentimuk edo...
- K: Baiña harek litro bidxek sei hillebete ein eben, e? Joder, bufa! Ugaridxo zirin harek! Ondo beitu eben.
- T: Hamen geldittu zirin biberak, Agirrek itxitta, bibera pillo bat. Ta harek gasta arte ondo ibilli zan gauzia. Nire amumak, amumak kontata dakidaz horrek, amuma [Saturniñak]. Ta harek gasta zirinian, ez euan biberarik, eta haunako ogi gogor-gogorrak emoten ebezen. Gure aittitta, akordaten jat niri, zopak ein [...] behian. “Zer da bera, burdiñia?” esaten eban.
- (senidea): Hondora jungo zan ta...
- T: Hondora, hondora.
- K: Ta gero, hor, Laixoletan, han, errotan emon eutsen gure nebiari, ordun nebi jun zan antza, ta ogi zatidxe, zuridxe, ta [...] azpidxen ezkuta. Baiña gurin, baserridxen, tabernie euan han ta, bentanie euen, ta bentanatik katuren bat-edo sartu ta ogidxe, antza, ostu, ze iñok ez eban jan ta. Ta geuk jan gendula ta gero hasarratuta. Baiña katu zan, handixeik bentanatik sartuta. Bueno, baserridxetan ez zan eon goserik, talue, urune ta bestia ta... Gosie Bilbon-ta, esaten eben arrato baten ondorik hamar lagun ibiltxen zirila ta.
- T: Ordun herridxak defendidu zirian. Hau ta Bermeo ta horrek, arraiña-ta, defendidu zirian, bai.
- Ta kalekoak ez ziren joaten, jateko eske edo?
- K: Esnin billa “en general”, bai. Esnin billa etorten zirin geurera be bai, Urkitzara be bai. Ta Urkitzakuari esaten eutsen eze: “ez diz etorten niri laguntzen”, harek Rosarito, zein da hori?, Katalin ta harek [...] Ambrosi ta, haren amak. Natitxukue-edo eukon harek gixona, dana dala. Ta “amuma, honek ez diz etorten niri laguntzen, e? Zeure sagar errik-eta jaten baiño”. Sagar erriak emoten eutsezen amumak eta.

7.49. Babeslekuak

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/038
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:42:01. **Bukatu**: 00:42:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gerra garaian kanpaiak jotzerakoan aringa-aringa joaten ziren babeslekuetara. Eurak non ezkutatzen ziren kontatzen du: kobazuloan, frontoian...

Transkripzioa
- Teresa: Horrek joten, kanpaiak. Danak arin-aringa errefujidxutara. Gu Portalin eoten giñin asko. Portalin, ontxe, hori, kotxe, automobillen hori, zelan da? Hantxe dao kueba bat.
- Katalin: Bai.
- T: Hantxe barrun eoten giñin geu asko. Frontoin be bai. Frontoin be ipiñi eben, kaleko azpi guztidxa dao, ezta?, suterraneua. Han be jenti ta...
- K: Santa Ritako azpidxan be bai, einde harek.
- T: Danak ezkutata, edonun ezkutata.
- K: Koba modun einde euezen zuluk, bi-edo.
- T: [Urte bi... gendun]. Handik etorri giñanian horrek gauzak amatata euazan, amatata. Jateko eskasak-eta baeuazan, baiña...

7.50. Francoren argazkiari kaka; Asterrikako frontea

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin; Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/042
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:44:01. **Bukatu**: 00:45:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena**: Gerraostean, kofradian Francoren argazkia egon zen. Baten batek, antza, kaka egin zion. Frontea Asterrikan egon zen. Francoren aldekoek mairuak, italiarrak eta alemaniarrak izan zituzten lagun.

Transkripzioa
- Katalin: Gero gerria amaittu ta gero Francon argazkixa kofradidxan be bai, handi-handidxa, ta noonok kaka ein ei eutsan. Herri guztia airian.
- Ta nor izan zan?
- Katalin: Ez eben atrapa, kuadrua kakaaz beteta topa eben.
-Teresa: Gero italianuk-eta han gora, batailloie. Ta zelan eukon han hori? “Parada discrecional, Gobierno de Euzkadi”. Eskopetin edo eron fusillan [halakue], apurtu eban. Italianuk, e?
- K: Ba, gerran, hor, Asterrikan dao mendi bat. Sei hillabete ein ebezen milizianuk hantxe. Nik entzunda daukadaz danak. Zortzi urte neukazan ebakua giñanian. Milizianuk euren eskopeti usaten, ta bestik tankikin euazan lez, ba irabazi gerria ein eben. Baiña irabazi eben morukaittik,

italianukaittik eta alemanak, hirurakaittik.
- T: Gero ordun, handik botaten ebezen horrek, kaiñonazuk, honutz. Ta Mendexara ta gu giñin behero ezkonduta, baiña aiztin hori, kaiñonadiaaz-edo bertan jausi. Bixitza biku zan ta erre eben, erre jaken.

8. Lanbideak

8.1. Donostiara neskame

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/018
- **Iraupena**: 0:05:25. **Hasi**: 00:56:54. **Bukatu**: 01:02:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Lekeitiotik irtetea galarazten zion zigorraren ostean, salbokonduktoa lortu eta Donostiara joan zen neskame, oraindik gerra bukatu barik zegoela. Francok kanpotik ekarri zituen soldaduak, italiarrak-eta, engainatuta ekarri zituela dio. Donostian beraien herrietatik alde egindako neskame asko zeuden. Hamabi ogerleko irabazten zituen hilabetean. Lasa-Inda familiaren etxean egon zen, bitxi-denda bat eta arrandegi bat zuen familia horrek. Aldamar kalean eta Narrika kalean egon zen.

Transkripzioa
- Ta jun ziñin nonora?
- Bai. Ni kridxdada segidxan. Topa neban kridxadako leku ta hantxe ein neban nik hori.
- Nora jun ziñen?
- Donostira.
- Ta zemat urtegaz joan ziñen kridxada?
- Nik hamasei urte pasata hamen denpora gitxidxan egon giñian. Han bizi hiru hillebete ein genduan ta gero, hamazortzi urterik be ez neukan.
- Gerria amaittu barik euan oindik?
- Bai. Hondiñoik gerria amaittu barik. Ganera etorten jakuzen horrek. Zelakua da? Italianuk. Ta: “señorinas”, etorten jakun. “Ala por ahí, cochinos. Habéis venido a matar a nuestros hermanos”. Harek ez daozela. Guk harek bestiak ikusten genduzanin, hareri errespetu geuntsagun ba. Ikaria. Hortxe be: “no, Franco decir mucho pan y mucho vino y muchas mujeres y…”. Eurak etorri dazela halantxik. Halantxik engañata pobriak han. Hau baiño pobrio hondiñoko. Bai.
- Lekitxo italianoz beteta?
- Italiarrak, bai. Lekeittio hamen Lekeittio harek, ez eben esaten…
- Hori Donostin zan.
- Donostian. Juntaten giñin ondarrutarrak eta lekeitxarrak eta hanguek be bai. Zelaku da? Bermiokuk be bai ta.
- Danok kridxada junda, bertara?
- Bertora junda kridxada. Eskapando jentia.
- Ta ze eon ziñien familia aberats bateaz?
- Bai. Bueno, ez zirien aberats-aberatsak, baiña ahal dabena beñipin. Nik hamabi ogerleko irabazten nebazan han.
- Astian?

- Ez hillian. Orduan hamabi ogerleko.
- Ez dakit zenbat diru daukon bez.
- Ta famelidxak zelan zan apillidua edo nortzuk zirin?
- Harek...
- Joieridxe be beuken.
- Joieridxa gizonak eukan. Lasa, Lasa ta gero Inda. Inda andrie da.
- Ta andriak negozidxua eukan be bai-edo?
- Bai, andriak peskaderidxa. Bai.
- Ta zeu zer eoten ziñen, etxien umiek zaintzen-edo?
- Bai, umiek eskolatik urteten ebanien, nik umien-ta erropak plantxa ta garbittu-ta eitten nebazan. Umiek jantzi ta umiekin hara. Hiru ume eukezan. Baiña hamabi urteko neskia itxi neban nik. Harek gehidxao ekidxen Matusalenek baiño.
- Zuk baiño gehidxo igual?
- Bai nire aldian. Nik ez nekidxan ezebe-ta.
- Baiña hor [...] famelidxaren arabera. Gero be, harremana ta bertako umiek-eta. Bai, bedonek akordu ona dauko, gustora...
- Ni ondo, ondo. Harek estimau euki eusten.
- Zeu gustora egon ziñan?
- Esaten eustan lelengo hiru hillabete-edo pasa nabezanian: “Jesusa, zelan zuk, gu zure, lau mahaidxan ta lodi- lodi eindda gaoz. Ta zu ez zara gizenduten bapez. Nola zauz zeu?”
- Eurak zer zien, Donostikuk zirian?
- Donostikuk bai.
- Ta Donostin nun izan zan? Ze partetan edo?
- “Parte Viejan”. Bai kalle Narrika, lelengo ta gero, ez kalle Narrikan biarrena. Kalle Narrika bigarrena zan. Zelakoa lelengua? Txikidxa zan etxia ta hartu eben, erosi eben etxe edarra. Ta oin dauke geure Mari Doloresen semiek-eta hartute beste erdidxe. Beste hori; deretxa-izkierda zirin-ta. Ta harek Bulebarrera botaten eutson balkoiek eta miradorak. Oin ez dakit zelan daon. Obra handidxa eindda dao-ta.
- Lelengoko etxie nun euan ez zara akordaten? Ze kale?
- Aldamar, Aldamar. Kalle Aldamar zan lehenengokue. Ta gero hori, Narrika.

- Ta zenbat denpora egon ziñian Donostin kridxada?
- Ez dakit ba zemat. Etorri nitzan Lekeittiora, aiztak-eta ezkondu nahi eben-ta, haretxek nahasta eusten.
- Haretxek manejaten etorri ziñen?
- Eurak manejaten. Eurak neu manejau.

8.2. Donostiatik Lekeitiorako bide luzea

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/020
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 01:02:37. **Bukatu**: 01:04:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Donostian neskame zegoela irabazitako diru apurra amari bidaltzen zion. Lekeitiora jaiegun batzuetan etortzen zen: Debara automobilez eta Debatik Donostiara trenez.

Transkripzioa
- Eta han hamabi ogerleko hillien eta oiñetakoak edo erropak edo beste ez zenduzen eukitzen edo bakarrik dirue?
- Ez euan telarik-eta. Denda guztitan ez euan. Gero etorri zan hori klaro! Handik ekarten dabenez, zelakue da ba? Barzelonatik. Ya zarratuta euan ha. Eta kolan eoten zirien, jentia. Etorten zanin hemen be, Lekitton be, kolan eoten zan jentia telak erosteko. Ordun, josi eitten zan telak.
- Harekin dirukin, telaren bat erosi zenduan?
- Bai, erosten neban neuk be. Bialdu amari be bai.
- Hori da hori. Hori dirue zeuretzat edo amantzat eta aitxantzat?
- Amentzako.
- Ta etorten ziñen Donostiatik Lekeitxora noizien behin edo ez?
- Bai. Ni Lekeitxora etorri naz pasaten San Antoliñak be bai; ta San Pedruk be bai. Bai, etorten nitzan. Eskatuten nebanin etxera nahi dotela, izten eusten ta listo.
- Automobille eoten zan orduan?
- Bai, automobilla eoten zan. Ez oingo moduen: baten haratz ta bat honatz, haidxe. Trenian, trena etorten zan Debara artian. Deban hartu bihar zenduan /bizenduan/ harako. Ta Lekeittiorako be haraxe artian horra,
- Debara artien, trenien ta gero, automobillen.
- Automobilla Ondarrutik zihar.
- Ointxe eitxen daben bardiñe?
- Oin be bardiñe eitten dau? bardin. Bai.
- Ondarru, Mutriku, Ondarru, Berrittu. Milloitxik eitxen eban edo kostatik eitxen eban?
- Lehen kostatik. Ene, Ondarrun pentsaten neban […]. Ondarruan honakoxe bidia. Hara uretara. On einde ei dao itzalian.

8.3. Guardia Zibila Portalean; Karabineroak zubian

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/049
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 01:53:05. **Bukatu**: 01:55:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Quincoces gozo-dendakoek astoz banatzen zuten ogia. Herrian bertan ez du errotarik ezagutu. Guardia Zibilak Portalean egoten ziren zaintzen eta buelta handia ematen zuten errotaren batera heltzeko. Zubian karabineroak egoten ziren; horiek ez zieten ikararik ematen.

Transkripzioa
- Horrek ogidxa eitten eben lehenengotan. Eta ogidxa kaballo, astuaz ekartzen eben ogidxa. Arranegidxan, eitten ebezen didarrak.
- Ta hemen herridxen bertan errotarik egon zan? Herridxen ez, ez?
- Zelan?
- Errotarik, egon zan?
- Erropak?
- Errotia.
- Errotia ez. Errotara jun ein bir zenduan, ta, ganera, horrek, Guardia Zibillak eoten zirian han. Ezin pasau, han. Eta eitten genduan, handik,

bueltatan eitten genduan...! On hori dao. Zer esaten eutsen berari? Etxiak daoz han eindda. Etxiak zelan daoz?
- Zu Marierrotara bidian...
- Geure Mari Karmenen amak-eta be baeuken han etxia.
- A, zuk hortik diñozu, lehengo horrek. Zelan da? ”Casas Baratasetik” diñozu?
- Bai. Handixerik. Handixerik eitten genduan bueltia, ez pasatiaittik Guardia Zibillen hori...
- Nun eguazan Guardia Zibillak?
- Hamentxe portalian. Ta haretxek ez pasatiaittik, errotara juteko handixerik juten giñian.
- Beste leku baten be baeuazan Guardia Zibillak, zubixan parian egoten zirin? Edo hori beranduo?
- A, karabiñeruak zirin harek. Harek karabiñeruak zirin. Harekin ez zeuan ikararik, harek lagun handidxak zirin Mariñerukin. Baiña...
- [...]
- Ta zer diferentzi eukitxen ebien, ba, karabiñeruek, bestietatik?
- E?
- Zer diferentzi edo?
- Ez dakit nik. Gaiztuao zirin honek.
- Guardia Zibillak.
- Guardia Zibillak.
- (erraina): Baiña karabiñerua ixaten zan gehidxao moillakua.
- Moillakua eta. Mariñerukin trataten ebenak. Harek bestiak askotan bat be ez eben trataten.

8.4. Amaren denda

- **Hizlaria(k)**: Pagoaga Etxaburu, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-012/002
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:01:55. **Bukatu**: 00:03:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gorostidi Vázquez, Jone
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Bere aita arotza zen eta ama jostuna. Denda txiki bat zuen Dendari kalean eta han egiten zituen jostun-lanak. Sasoi hartan herritar guztiek ezagutzen zuten elkar, denek zekiten denen berri.

Transkripzioa
- Ta zer mariñerue edo aitta?
- Arotza, arotza.
- Ta amak edo biharrik edo eitten eban-edo kanpoan?
- Eukan denporan jostuna, jostuna. Jostun zelan ixaten da, umik euki arren ba josten eban, jostun politta, zelan esaten da? jostuna
-Ta zer ibiltzen zan etxerik etxe eta holan?
-Ez, ez, ez. Dendatxu bat eukan. Ezebeza orduko dendak e ez diraz oraingo modukuak, hiru lau gauzaaz ta hantxen eitten eban josten. Bai, “Calle Tendería”.

-Ta klientela fijo bat euki eban?
-Bai bai, Lekitxon ontxe da por ejemplo ezagututen ez garinak, baiña orduan? Batak azukria, bestiak olidxua, bestiak kafia, zelan da? Alkar ordaindu esaten da? Holan da ezta?. Euskera ez dakitx ez euskera ez erdera, baiña bueno aittuten nazue. Erdaldunari be haixe esaten dotsate: “Le doy cada patrada al letronario” esaten dotsate.

8.5. Aguazilak

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/012
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:17:44. **Bukatu**: 00:18:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
- **Laburpena**: Aguazilak non egoten ziren azaltzen du. Astoz herrira sartzen zirenei kobratu egiten zieten.

Transkripzioa
- Ez zara akordaten han aguazillak egoten zirila?
- Zertzuk?
- Aguazillak.
- Bai, bai, bai. Aguazillak han ta Santa Katalinan, kobraten. Plazara datozen baserrittarrak-eta. Bestia eoten zan Goraburuko zinia baiño goratxuo. Antigueneko, Antigueneko baserridxa eoten zan han. Han egoten zan Domingo aguzilla, ta zubidxen eoten zana... zein egoten zan? Juan aguazilla, ez dakitt, Juan aguazilla-edo. Portalian beste bat. Akabo! Hiru halako, aguazillak, kobraten. Hiru txori handi-edo ez dakitt zenbat ixaten zan, erril bat-edo. Astuari kobratzen.
- Sartzen zirinak, ezta?
- Bai, bai. Sartu eingo zirin Lekitton laurehun asto bai egunin-egunian.
- Ta horreri kobra ein bihar ixaten jake, ez?
- Klaro. On ez dakitt zelan pagaten deutsen. On ez dao, plazi dao on.

8.6. Lekeitioko diru-etxeak

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/032
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:43:17. **Bukatu**: 00:44:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Banketxeak
- **Laburpena**: Banco de Bilbao, Caja de Ahorros eta Banco de Vizcaya, hiru diru-kutxa zeuden Lekeition. Bakoitza non zegoen.

Transkripzioa
- Ze banku euezan zu gaztie ziñenien?
- Ni gaztia nitzanian? Banko Bilbao, han zelan don zapaterixa?
- Berton?

- Ha zapaterixa hor, harexen beste aurreko blokien behian. Haurren, haurren familixa, "ogerlekos", Joxe Mari "ogerlekos" hantxe, [...] Gero pasa zirin hona, bai. Eta bestia "Caja de Ahorros", on zapaterixa daon lekuen. Lehenengo hamen, hamen, "Seguros Bilbao" daon lekuen, ta gero han imiñi eben. Ta gero "Banko Bizkaia" hamen. Hiru banko.

8.7. Juan Aguazila umeak eskolara eramaten

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/011
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:10:03. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Juan Aguazilak umeak bilatu eta eskolara eramaten zituen. Erdalduna zen jatorriz. Orduan umeek txarra irizten zioten baina gero konturatu ziren oso ona zela. Orain dela gutxi elkartu ziren berarekin tabernan.

Transkripzioa
- Juan aguazilla? Haren moduko...oraingo /ongo/ aguazilla guztik danak bat eindda baño gehixo zan ha.
- A bai?
- Bai, Kabauraiño etorten jakun ha. Geu Kabauan ezkutata (...) allaaten zan. Bai, Juan aguazilla.
- Ta umiek eskolara.
- Eskolara danok. Bai.Ta ez euana atrapaten, "nik zu harrapatu" esaten euan, "nik zu harrapatu". Handik etorrikua zan eta. Piñelen eta, Piñelen eta aittitta. Piñel, Piñel, ez dakit ezautu badozu /bozu/ Piñel, Eduardo Piñel. Bai, horrek, Jabi ta diez harin semiak. Jabi, lekittarrak, ezaututen dozu lekittarrak? Gasoille emoten, gasoille emoten dau harek, Jabi, Jabi Piñelek.
- Orduen, Juan aguazilla ona?
- Ona. Gutzako txarra, gutzako txarra, baña gero jausi giñin kontuan oneixa zala gutzako.
- Bai?
- Bai.
- Estimedue?
- Bai ta hamen, Angeliño zan, Angeliño Eskurza. Eskurza zan gure jefia, danon jefia, bandako jefia txikittan. Zortzi urte ta hamar urte ta eukauzenian, bandako jefia. Angeliño Eskurza. Ta primabera baten, haunako sasoi ixango zan, haunako saoi bueltari edo, ta Ondarrutik etorri zan bera Angeliño, Ondarrun ezkondu zan eta, Ondarrun, eta gero intelijentia zan. Eta esan aben ze "[Kato], txikituak edaten jun bihar /bi/ gara ba leleoko, leleoko, gaztetako launak, umetako launak". Bonbillonera, zortzi laun edo bederatzi edo. Landabaso, ez dakit ezautuko badozu /bozu/ Landabaso, bueno, ta han jun giñien. Han geuazen gero txikitua ta geure kontuk esan, txikittako kontuk eta dzanga bera, barrura aguazilla. "O!" haunan ein eban"¡Vaya cuadrilla!" Apellidukin danori, Akarregi, Izagirre, Uribar, danori, Eskurza. Danok, danok gixon eindda zaoze ta Sixto, nire lehengusu Sixtori, Sixto "okerra", ez dakitt Sixto "okerra" ezaututen ba

dozu /bozu/, Sixttori eta Joseri esan eutsen ze "Ni enterata nao zuek bixok ondioko ez zariela kanbixau" Harei bixari berak! Bai, Juan aguazilla, ona, ona zan. Gero jausi giñen kontuen.

8.8. "Señeruak"

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/025
- **Iraupena**: 0:00:27. **Hasi**: 00:20:55. **Bukatu**: 00:21:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
  Lanbideak » Antzinako lanbideak
- **Laburpena**: Eguraldi zantarra zegoenean, gauzainek, "señeruak", makila handi bat eroaten zuten arrastaka, itsasorako girorik ez zegoela iragartzeko.

Transkripzioa
- Seiñeruakin eta?
- Hombre, [bai], señerukin be, raust-raust juten zirianak, klaro. Egueldi zantarra egoten zanian, egueldi zantarra juten zanian, eoten zanian, pasaten eben holako bastoi handi bat ixatia lantxerik arrastando, arrastando pasaten eben itsasoraterik ez daola esateko. Ha entzuten zanian, ez zeuan.
- Trankilo.
- Trankilo, altzako zirian batzuk-eta igual baiña.

8.9. Umetan mutil artean hazia

- **Hizlaria(k)**: Erkiaga Korta, Teresa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/009
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:11:47. **Bukatu**: 00:13:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Bost neba-arrebatatik zaharrena eta neska bakarra zen Teresa. Mutil artean andrakuak (panpinak) alde batera utzi eta bestelakoetara aritzen zirela dio: tiragomekin, aldabak jotzen... Ez zuten ezertarako dirurik, baina pozik bizi ziren. Etxeko alaba bakarra izanda, behar asko egitea egokitu zitzaion. Ama josten aritzen zen eta berak ere ikasi zuen bere alboan prakak eta alkandorak josten.

Transkripzioa
-Gu bost neba-arreba; neu nausidxena ta lau mutil atzetik.
-Bost bakarrik ziñien?
-Bai bost, gu bost. Neuk zortzi euki doraz, baiña gu bost giñien.
-Ta neska bakarra?
-Neu neska bakarra.

-Ta zelan bizi izeten zan holako etxe baten?
-Bueno, lantzin drogak ein nebakin, [eurari] tiragomak [bota] aidian. Eukitten ebezen tiragomak eta lakaridxok txoridxentzako ta dana haretxekin. Andrakuari itxi ta harekin olga ta holakoxe gauzak. Ta aldaba joten etxerik etxe, aldabak joten. Gure entretenimentua haixe zan. Eskolatik urten ta aldabak joten etxietan. Kuadrilla bat juntaten giñian ta batzuk beheko kaletik, bestik goiko kaletik; ta bestik parte zaharrian. Lau grupotan. Ta gero Tinglau ganin junta. Andra guztik zarataka geuri…! Baiña ondo pasaten gendun. Iñok bez sosik ezetako, danok pozik.
-Eta etxien be igarriko zan neska bakarra ziñela?
-Klaro, etxin toka jat niri bihar eittia. Gero nire amak josten eikeran denda baterako ta beraz ikasi neban prakak eta alkondarak eta eitten. Ta gero sartu eustan ba erropak eta eitten dan lekun, josten ikasten. Nahi eban nik gehidxo ikastia ta han ikasi neban josten ta gero, ba, bihar ein dou, baserridxan ez baiña kalin toka jaku eittia, bai.
-Josten?
-Bai, josten be bai ta gero umik zaintzen, 8 seme-alaba euki doraz, e!

9. Itsasoa

9.1. Umetatik kabanara lanera

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/026
- **Iraupena**: 0:04:27. **Hasi**: 01:12:40. **Bukatu**: 01:17:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Etxetik kanpo lan ezberdinak egindako da umetatik. Zefalu kabanan ibili zen lanean, bertako jabeak italiarrak ziren. Hiru kabana inguru zeuden herrian. Han irabazitakoa amari ematen zion. Gogoan du amak emandako errealarekin erositako zapata parea. Bera abarketekin joan zen plazara dantzan bere ahizpa nagusiak kendu zizkiolako zapatok.

Transkripzioa
- Ta zeuk umiak euki orduko ta umiak eukitxa gero be biharrin segidu zendun etxetik kanpora be bai?
- Klaro, etxetik kanpora be,bai. Etxetik kanpora, kabanan ein naban nik biharra. Ta ume-umetatik eitten neban, hamentxe be umiek be eukitxen nebazan. Libre banaua, kabanara. Ordun italianuk euazan. Italianuk hantxe eitten neban nik.
- Kabana jaubiak zian italianuk?
- Italianuk.
- Zelan eukan izena kabaniak?
- Esto, Zefalu. Nik ein nauena, Zefalu. Zefaluneko kabanan.
- Ze euazan, kabana asko ordun sasoian?
- Hiru-edo bauazan ordun sasoian. Hiru-edo bai.
- Hori zer da, ezkondu aurretik gerri ta gero, ez?
- Ezkondu aurretik. Umiagaztia nitzala.
- Baina gero be, eon zara kabanan?

- Eitten giñian ezkuta, ezkuta ein gaittuzen, gu. Buruk kentzen juten giñienta ezkuta. Ze […] ein bihar zenduen hari. Ta umiak harek eskolara, gure sasoko umik eskolara. Ta dirua kentzen eben ba, handidxo zarenian, ein zanian, harek diruk. Erreala kentzen eban “en aquellos tiempos”. Esaten eban: “Zefalu nos quita mucho. Ah! Luego […]”, esaten gaittuzen. Handik handik […].
- Ordun lelengo bidarra kabanara jun ziñanian, ordun ume-ume ziñian?
- Umie nitzala. Ume-umia nitzela. Nahidxo neban nik kabanan ibili eskola baiño.
- Eta kabanan zelako jornala edo eukitxen zenduen?
- Bestiek baiño hiru txori txiki-edo gitxio, baiña.
- Zenbat kobretan zenduen?
- “Tres cincuenta” izaten zan.
- Hiru pezeta ta erdi?
- Ez “tres cincuenta” zan.
- Erreala, bai?
- Errielak zirian. Bakit zapatak erosi nebazana. Amak emoten eustan erriela itsulapikorako. Botaten neban itsulapikora, eruen neban zapatak erosten neuan zapateridxan. Hor, Konpañiko hantxe zelan oin dendie dao.
- Elorzaneko zapateridxan?
- Zapateridxa. Hantxe euan zapateridxa, zapaterua, zapateridxa. Ta erriel, amak emon eustan errialakin jun nitzan zapatak. Gusta jatazan zapatatxuk-eta. Aintziñe eruten zien, neska neska ya handidxak, edadekuak. Ni baiño aiztie zaharrao zanez, “Euzkitze” esaten eutsen zapatak.
- Zelan?
- “Euzkize”. Ointxe zelan eruten dabe harek, argal-argalak haunako takoia? Halakoxia. “Euzkize”. Ta harek euzkizeko zapatak-eta erosi. Ta elegante. Banoie plazara. Nik abarketak jantzi ein nebazen, zapatak ez estropeetako. Banoie plazara ta: “Ene! Nire zapatak!” Arin- aringa etxera negar baten. “Ama, tia Teresak zapatak eroan dittuz”. “Ez dau gehidxaurik eingo holakorik” amak.
- Aizta nausidxauak honen zapatak hartu ta juan zan dantzan.
- Nik abarkatakin. Esaten eustanin gero, barre eitten eban. Bai.

9.2. Kabanako lana

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/030
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 01:20:13. **Bukatu**: 01:23:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Kabanako lana zein zen azaltzen du pausuz pausu. Kabanako lana udaberriko lana da, antxoa sasoian, alegia. Arraina deskargatzen ere aritu izan da lanean Jesusa. Bapore asko egon ziren bere gazte denboran. Beraien lehenengo baporea "Lekeitio número uno" izan zen.

Transkripzioa
- Lelengo, burue kendu.
- Gatzetan ipiñi baiño ariño?
- Bai. Burue kendu, gatza emon lelengo eitten eben, ta gero burue kendu. Ta gero, hari, ta gero garbittu ta filetie ein. Filetie ein ta bestiari emon hari. Batzuk eoten zirien trapuk garbitzekuak. Beste batzuk…
- Ta urtian zihar, ze sasotan eitten zenduen hori biharra, urte guztian?
- Nik denpora gitxizen, tionera jun nitzanien. Denpora gitxi ein neban han.
- Normalian kabanan noz eitten da biharra?
- Primaberan, primaberan antxoie datorrenin.
- Ta zuk deskargan be ein dozu biharra, ein izan dozu biharra.
- Deskargan be bai. Deskargan ta, eonda gauz gu, zortzi kamion ein sei andrak. Ta automobil bat falta, berotan eitten dozuz ederto. Hotza pasau genduan ba han tinglauan azpidxan ba. Lekittoko tinglauan azpidxan, hotza. Ene, haidxe hotza!
- Eta deskargan ordun egunian, hotza pasa ta gero, barriro beste…
- Gero hotza pasa. Ta gizona presenta jaten bertan aurrian ta: “Aide etxera!”, esan eustan. “Neuk eingo dot zure partia-ta”. “Menos mal”, bestela bapora hantxe garbittuko… Hotza neukan, dardaraka!
- Baiña zeuek hori, udabarridxan eitxen zenduen, antxoa sasoien?
- Baiña hotza, hori. Aste Santuk-edo ez dakit zer zan ganera.
- Zenbat bapore euazan ordun?
- Bauazan, zenbat euazan, ba? Asko euazan. Ni neuanin be bauazan hamazortzi-edo, baeuazan.
- Izenakaz-ta akordetan zara? Izenakaz, akordue baukezu?
- Keba!
- Baporan izenak?
- Bapor batzunak baiña batzuk, kendu eitten […]. Geurien be,beitu: euki genduan, lehenengo “Lekeitio número uno”. Horregaz denpora gitxi ein eban.

9.3. Dei egiten

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/033
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 01:25:15. **Bukatu**: 01:28:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Senarra ere arrantzalea zuen. Jesusaren familiakoak ziren armaginak eta beraien ontzietan ibili zen lanean. Dei egiteko ibiltzen zen: itsasora joan behar ziren gizonei abisatu.

Transkripzioa
- Ta gizona zer zendun, mariñerua?
- Mariñerua.
- Ta beran baporin eitxen zendun deskarga biharrak?
- Ez.
- Edozeñetan?
- Geure etxekuan. Geuk eukagun bapora. Geure baporin jun giñien-ta.

- Ebakuaziñoia zeuen baporin ein zenduezan danak?
- Bai.
- Baiña gero, deskarga ezkondu ta gero be biharrin…?
- Gero be bai, gero be bai. Gurin neu izan naiz danak pagau doazena.
- Bihargiña.
- Dei eitxeko be bai ezta Jesusa?
- Deittuteko be bai. Ez daukat dei eittekotasunik.
- Ta zer da dei eitxeko? esplika apur bat. Nereak ez daki zer dan dei eitxekue, zer da?
- Dei eitteku da gizonai deittu bihar dotsazu /bitsazu/. Lelengo: “tran-tran” txilliñek joten eban, harek guk […] señeruak. Joten eben ha zan hara urteteko, baporera. Ta gero urteten eben baporak itsasora ta etxera, gero. Baiña bidxagoneko egunian, antxobie bazan, antxobara jun bihar zenduan /bizenduan/. Gizonari edo andrari pagaten burun daroina edo hori dana. Ta zelakua da? Bestela, horrek, bidxigua-ta zanian, bidxiguari be paga. Andrak etorten zirian. Hantxe, klaro ez euan dirurik. Ta andrak etorten zirian: “Nik tioa daukat hamen”. Ta tion hori. Ta halantxeik erueten ebezan zestak.
- Arrain partia?
- Arrain parti. Hantxe daukela tio-ta. Zestak hantxe eruten ebezen, hantxe antxoa txiki hartzeko.
- Ta egualdi zantarra euanian, zelan abidxetan zendun, ez zala…?
- Bai. Berak seiñeruak. Seiñeru pasaten zan: “braun-braun”. Han ez daidxen […]. Tanda, buelta.
- Deitxu bihar zanian, señeru pasa ta gero, gero zuk zer ein bihar zenduan?
- Zer ein? Mollara bajatu, mollara bajatu, baiña deittu bihar nabenian / binabenian/, lelengo deittu. Izera guztiek batzen zirinian, zera, lo eitten. Sekula, batzuk sagarrak jaten-ta. Nik ezin jan izaten neban.

9.4. "Gora Jaungoikun izenian mezia entzuteko!"

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/034
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 01:28:13. **Bukatu**: 01:31:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Dei egiteko bi ordu ezberdin zeuden: bata gauez eta bestea goizeko 06:30-07:00ak aldean. "Gora Jaungoikun izenian mezia entzuteko!". Meza egoten zenean, dei egiteko bakarra egoten zen, eta meza entzun ostean joaten ziren itsasora. Bestela, mezarik ez zegoenean, "Gora Jaungoikun izenian itsasora dxuteko!" oihukatzen zen. Bapore bakoitzak dei egiteko pertsona bakarra izaten zuen; gerora bi egon ziren. Urte askoan ibili zen eginbehar horretan.

Transkripzioa
- Ze ordutan izeten zan hori?
- Segun bapora izaten zan. Baten pasa jaten, hari, baporan urteten eben, zelako izena dauka berak? Gransolbes. Holakoxe izena eukan. Urrunao juten zanak, beranduao edo goidxo urteten eban. Bi eoten zin, igual. Batzuk halako bauazan? Alperrik jun bihar izeten zirin horrek txiliña joten.

Ta bigarrena zan igual, ez zienak juten. Bigarrena. Bigarrena bazaz, zazpi-sei terdidxak-edo holakoxe orduan.
- Nik pentseten neban goidxao izaten zala?
- Antxobie be. Segun goidxaua be bai.
- Izengo zan eguna eitxen hasten zanaren arabera, ez?
- Ez. Eguna baiño ariñao. Ha eguna izaten zanin, arin-arin izeten zan.
- Ta zelan deitzen zenduen?
- Gora Jaingoikuan izenian, mezi entzuteko.
- Ein zun ointxe.
- Fulano, baia oin zarrauta daukat. Gora Jaingoikun izenien, mezi entzuteko!!! baiña ez daukat, oin ez daukat.
- Ta ze eitxen eben, lehenengo mezatara juten zirian ala dei bi egoten zirian?
- Ez. Mezia eoten zanian, bat eoten zan. Danak entzuten eben mezia.
- Baiña izeten zan deidxa orduan, Jesus Mariantzat Jaingoikun izenian, itsasora juteko edo mezatara juteko?
- Mezetara.
- Dei bi euazan?
- Ez.
- Egun batien, bat, egun...?
- Ez.
- Ama, entzun piskatxo bat.
- Entzun zeuek. Jaidxa, jaidxa etorten bazan ta arin juten bazirian, mezie entzuten zan.
- Gero itsasora.
- Gero itsasora. Ta deittu bihar zenduan: Gora Jaingoikuan izenian, mezie entzuteko. Ta ez bazan deirik joten ta bi, meza bi edo halako bi bauazan be, Gora Jaingoikun izenian mezie entzuteko, ez zendun esaten.
- Zuek esaten zenduen itsasora jueteko?
- Itsasora juteko. Gora Jaingoikun izenian, mezie entzuteko jaidxa zanian.
- Ta bapor bakotxak zenbat dei eitxeko eukitzen ebazan?
- Dei eitxekua bat. Bat. Ni bat izan nitzan, beñipein. Gero ipini eben bi.
- Zenbat denporan egon ziñian dei eitxeko?
- Dei eitxeko denpora nahikua. Ba Gotzone be jaio zan, beitu: solteratatik neuan. Ezkondu nitzan, euki neban Gotzon, Gotzonek eruten eutsan horreri, […ri] lau urte. Ba hamar urte, hor ibiliko zan. Hamar urtian.

9.5. Partila eta jornala harrapatutakoaren araberakoa

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/036
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 01:32:39. **Bukatu**: 01:33:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Aitaren baporean dei egiten lan egiten zuena amari ematen zion. Jornala ez zen finkoa, arrantzaren araberakoa baizik. Lekeition dei egiteko andre bakarra egoten zen; Bermeon, ostera, bi.

Transkripzioa
- Aitxen baporin zeuazan dei eitxen?
- Bai.
- Ta paga eitxen eutsuen orduan?
- Keba! Bai, dirua bai. Kobraten neban nik hori. Ta amari emoten neutsan nik. Jan eitten gendun bertan-ta.
- Zenbat kobraten zendun? Zenbat emoten eutsuen?
- Segun ze atrapetan zan. Atrapaten zana.
- Partillia zan atrapetan danan arabera?
- Bai. Partillie eitten zan halantxerik.
- Ta dei eitxeko, andrazkoak bakarrik ibiltxen ziñien? Dei eitxen andrazkoak bakarrik?
- Bakotzak andra bana eukitten eben.
- Andran biharra zan?
- Gure nire sasoian itsasora juteko, dei eitxeko nire sasoian andra batek. Gero ipini eben andra bi. Ta gero telefonotik. Bermion bi, baiña hamen,bat.
- Ta sarein-ta ibili zara biharrian?
- Ez. Sarein ez. Antxoan be bai; burua kentzen ta edonun ibili naz baiña. Ba hor konpon!

9.6. Bapore bakoitzak bere taberna

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Jesusa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea - Murelaga, Esther
- **Erref**: LEK-002/041
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 01:40:03. **Bukatu**: 01:42:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
  Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
- **Laburpena**: Taberna ugari zeuden herrian, baina emakumeak ez ziren sartzen. Baporeetako partilak ere tabernetan egiten ziren; itsasontzi bakoitzak berea zuen. Beraien baporearen partiketak Nikolasenean egiten zen, gaur egungo "Gazte leku" tabernan.

Transkripzioa
- Jesusa, tabernak be sendo egongo zirian, ezta? Kantie be, badao ta…
- Bai. Tabernia ba…
- Zuentzako?
- Koittaduk ez euken besterik. Haxe txikitue hartzen juten ziren. Gutzako ezebez.
- Baporeko partillak be, tabernetan eitxen zirian, ez?
- Bai, tabernetan eitten zin ta kuartilluk eitten eben.
- Ta ze taberna eon zien?
- Tabernak asko. Bakotzak beran tabernak eukitten ebezen-ta. Enbarkaziño bakotzak tabernak eukitten ebazen. Ta tabernerik saltzen ebazan ardaua. Bueno, hareri emoten eutsen ardaua, baporetik kobraten eben.
- Izenekin-ta akordetan zara? Ze euken baporian izena eukitzen eben tabernak?
- Ez.
- Uzabana edo igual?

- Izenik ez eben eukitten. Jaubiena bai.
- San Pedropekue zelan zan? Hori...
- Kai ganekua. Kaiana. Bai, holaintxenik...”Aitta guria” eukan harek.
- Izena “Aitta guria”, eukan?
- Ez. “Aitta Guria” baporak baporak eukan “Aitta guria”.
- Ta zeuen baporin zera, nun eitxen zan? Zein tabernatan eitxen eben?
- Nikolasenian. Geure han. Lehengusu karnalak ziri lez gure aitta-ta, hantxe.
- Nun euan tabernia?
- Zelakue da? Geure Gotzoneneko tabernia...?
- Apalloa.
- Apalloa, daon aurrien.
- Arritxun.
- Arritxun aurrian daoena.
- Gaztelekun, ordun!
- Gaztelekun, Gaztelekun geunkagun guk tabernia.
- Ordun zelan zan, izena?
- Izena Nikolasenekua. Bai. Berena zan ta.
- Ta hor andrak, andrarik ez ezta? Dana gizona? Ta andrak?
- Dana gizona.
- Andrak bitxartien nun? Etxien?
- Etxien andrak. Etxien nahi dan beste bihar eitten.

9.7. Talaieruaren ke-seinaleak antxoa "blankuria" ikusitakoan

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/014
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:18:36. **Bukatu**: 00:19:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- **Laburpena**: Talaia-zaina ('talaixerua') talaian egoten zen arraina begiratzen, antxoa-eta agertu zain. "Blankuria" agertzen zenean keaz egiten zituen seinaleak. Gizonezkoak arrapaladan sartzen ziren barkuetan lehenbailehen itsasoratzeko. Jendea begira egoten zen talaiatik.

Transkripzioa
- Lehen komenta zendun talaidxero bat egoten zala...
- Bai, talaidxan, seiñero moura. Seiñerua esaten eutsen. Seiñerua ixaten zan, talaidxerua aparte. Talaidxerua eoten zan han, arraiña bijilateko, jeneralian hamen antxoi-ta, ba, agertuten zanin-ta, ezta? Ta antxoba, antxoba manjuja esaten jakon, blankuria be bai esaten jakon. Talaidxeruak ikusten ebanian blakuria dao... Baporak igual itsasuan edo portuan. Ta blankuria [...] eiñ dala, ta eitten eban keiaz, talaidxan keia, eitten eban señia. Ta “han, blankuria daola!”. Mutil ta gixon hartzen eben karreria, euren baporetan ez bazan be, lehelengo daon bapora, ez jakon ixaten arduraik nun sartun. [Kuestiñoi] zan sartun ta gero, ba, Konpañian be eitten zirian igual batak hartun, bestiak igual [kortxua ein dabela], ta Konpaiñia be bai, erdi bana, hori be eitten eben. Baiña... Nun enbarka dan, ba, hantxe enbarka danak, ze arraiñ erun daben, ba, partillia hantxe hartzen eban jun dan mutillak. Baakixu ze martxia hartzen eben?

Talaidxeruak ein haura seiñia blankurak daozela ta bai, ba, bapora guztiak, ahal danak [...] montaten zirian ta abantin blankuraa. [Oseake] talatik bestiok beira, kañia zelan botaten daben, “harek enbarka dau, han dao, alaten dao auntxe arraña”. [...] Ta hori ixaten zan talaidxerua.

9.8. Arraina garbitzeko "plantxak" portuan

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/020
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:31:02. **Bukatu**: 00:33:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Kaian, pare bat lekutan, plantxak (harrizko plataformak) zeuden. Horietako batean bi emakume indartsu aritzen ziren arraina garbitzen. "Txori txiki" (txanpon mota bat) batzuen truke arraina garbitzen zioten nahi zuenari.

Transkripzioa
- Ta... [ahaztu jate], askatasunagaz.
- [Baiña kanta...]?
- Kantaten. Kanta... Juten zirian despeskan ama, nebia ta aiztia; ta ni geratuten nintzan armuzua eruten. On ez dao plantxarik. Lehen plantxa bi euazan: hamen, ta San Pedro pasa ta gero euan beste plantxa bat, han portuan. Ta ondo politto. Han makiña bat olgaten [giñun]. Han, hantxe bai eitten zala igiri, haretxetan eskillaretan. Ta hamen plantxan, hamen plantxia ta hori muturra eitten da ta harutz eukazan eskillerak. Ta hamen muturrian ixaten zan beti antzarra esegitteko posti ipintten ebena, hortixe Abade Moillara. Ta lantzian behin enbarkaziñoia egoten zan, igual, hamen. [...] muturra kenduta bazan, muturra kenduta ta gero enbarkaziñoia hamen, sokia eitteko. Ta, ordun, plantxia. Ta baporak etorten zirinian, neguan, besigutan ta papardotan-ta jundakuan-ta, asko jentiak garbittuteko arraiñak, hantxe. Karo, norberak plantxia honan euan beherutz, ta hau lixo euan lez, ba askok, ze altura daukon, plantata hantxe. Plantxan planta, ta hantxe ganin despeska, etxera erun barik eskamak-eta, besuak-eta, hantxe, ta tripak-eta be itsasora bota ta, ba, hori. Ta andra bi eoten zirin a ello. Bi behinik behin, hiru ta lau, baiña harek bi, behiñik behin, ortozik egoten zirin, ganera, Maria ta Segunda aiztak. Ta harek asko, eurak [...] txori handi bateaittik-edo, ba haretxeri. Ba arraiña karriatuteko, ta harek pozarren, osea, txori handitxuaaz be, ba, bueno. Ein eitten eben ta... dirutxua. Txori handi bat asko zan ta, parte batera. Batek txori, bestik txori, bestiak hiru txori txiki emoten baeutsazan, ba, jo aurrera Maria-ta, ortozik. Fuerte zirian, ortozik. Euridxa, euritzan ta neguan be ortozik, ya kurtiduta azala. Ta gero euan ha beste plantxia, San Pedro pasata. Hori gero kendu hori plantxiori ta eskillarak be kendu ebezen ta halan dao gero, muturra haulan, kenduta. Ta besti zan San Pedro kilin-kalaku esaten eutsena. San Pedro pasata kilin-kalia. Harek eukazan eskillarak hamendik partetik, ta plantxia be bai. Gero hango plantxia kendu eben han, ta ipiñi ebezen eskillarak, motor-txikiñak-eta asko atrakateko, euren otzarak-eta ekarteko, ipiñi eben eskillarak, osea lau eskillara-edo, beste deskantxillua ta halantxeik. Ta, bestela, lehen plantxi euanian, horko muturreko plantxia,

ta tinglautik honutz beste plantxa bat, mari behera euanian [...plaittik hara] bardin pasaten ziñien.

9.9. Lekeitioko aduana

- **Hizlaria(k)**: Ansotegi Txakartegi, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-006/052
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 01:16:15. **Bukatu**: 01:18:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- **Laburpena**: Astilleroan aduana egon zen. Gogoan du hura eta beste eraikin batzuk sutan zeudela sartu zirela tropa frankistak herrira. Bandera errepublikanoa egoten zen aurretik. Gero Itsasalden egon zen aduana.

Transkripzioa
- Ta lehengunien be esan zendun han Astilleruan aduania egon zala?
- Bai. Lehelengoko astillerua, harek etxiak, han aduania eon zan. Gu ume mokuak giñinian, sutan euan aduania ta ONU-neko txaleta, oseake, karo, on Karraspidxorao daona, ta hau palazidxua. Hirurak euazan sutan. “Ama –diñotsat neuk–, palazidxua erreten dao, hangoko be bai, ONU-neko txaleta be bai”, “Bai, aduania be bai” diño gure amak. Ta, klaro, aduania be arboliak kenduta [...], ta hirurak euazan sutan. Ta horren suen tartetik, kamiñotik zihar etozen lez soldauak, suen garragaz ikusten genduan pertsonak pasaten-pasaten. “Han datoz soldauak!”, “Ixi –geuri–sartun barruan. Eon geldi-geldirik danok. Sartun han barruan, kamarotitan –esan gaittuzen gixonak–. Sartun kamarotitan ta ez urten handixerik”. Geuk bakarrik urten genduan atzanengokuak Lekittotik.
- Eta aduanan zer egon... nor...?
- Ez dakitt nor eongo zan aduanan ordun momentun. Ze gero aduana bai ezautu neban... Ha ordukua ez jat akordaten, aduania hantxen euana bai, ta republikano banderia eoten zana be bai, han. Moraua, horidxa ta... Zelan diraz? Horidxa, moraua ta berdia-edo? Ez dakitt ze...
- [...]
- Hiru, hortxe hiru kolore dira, baakitt moraua ta horidxa aurrin dirazena ta, ez dakitt. Bueno, dana dalakua. [...] fija nitzan eoten zana hantxen. Ta gero eon zan aduania, ontxen barra Itxasalde barik bestia daona, Goitiko-edo. Plazatik ez zara eon? Bueno, hori, Itxasalde dago, plazara orduko han kantoian behera bajatuta, Itxasalde, gero hamen eskillera batzuk daoz, kantoia ta gero dao Goitiko tabernia. Hortxe eon zan gero aduania. Hor ezautu neban horko gixonak-eta, ezautu nebazan. Sareiñen eoten nitzan lez hantxe, ze Itxasalde ez euan, bodega bat zan ta zarratuta eon zan. Gixon batek eitten eban gero limonadaduna, limonadakin-ta biharra barretarako, errepartidore modura. Haxe, beste biharrik ez euan lez, topa eban haxe biharra, limonadak-eta errepartiduten. Ni eoten nitzan hantxen sareiñen, ez zan lez barrik eta eon, bera Rubio, Rubio, etorten zanian, beti ahal dala, eoten nitzan ba atetik kanpora, bera datorrenian limonadak kargaka edo sifoiakin-edo badator be. “Trankil –esaten eustan–, trankil”. Karrotxu bateaz etorten zan ta, ba, hantxe eoten. Ta aduania euan hantxe.

9.10. Sabaiak hartu eta saldu

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/019
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 00:45:41. **Bukatu**: 00:50:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- **Laburpena**: Gazte guztien ardura etxera jatekoa eramatea zen. Abadeen moila izenekoan gazteek sabai asko hartzen zituzten gero saltzeko; sabaia bisiguaren antzeko arraina da. Belarrekin harrapatzen zituzten: belarra txiki-txiki egin eta amuarekin harrapatzen zituzten. Behin, aratusteetako astearte batean, 500 kilo sabai hartu zituzten.

Transkripzioa
- Hor ha bueltan, gure gazte gehidxenak,e? Gehidxenak, e? zirian nundik atarau etxera eruateko zeozer, nundik atarau, handik edo hemendik sabaidxak! Ez dozu entzun sekula be? Hor ha, hor ha, abadin moillatik edo hori, hau, rompeolasetik kanpora. Hortik. Berrogetak eta hirurogei-ta, atrapaten genduzan eta Pilarreri saldu!
- Zertzuk?
- Sabaidxak, holakoxe arraiñak.
- Sabaidxak!
- Sabaidxak, “eran el tipo” bixigun modukuk, baiña sabaidxak. Bedarraaz atrapaten genduan, “con hierba”. Bedarra batzen gendun erridxuan, erreidxuan on ez dao /ezto/.
- Ura ekarriko dogu /ekarrikou/.
- Eon, ez ez... Hori bedarrori be, hori bedarrori be desaparezidu edo ez dakit nik zerek desaparezidu daben. Erreidxu egoten zan bete-bete eindda!
- Mari beheran?
- Bai, bai. Honako... haunako bedarra... oin ez dago /ezto/ bat be, rarua.
- Azalian eoten zan, uren azalian?
- Ez, ez, behian, bere sustraidxagaz. Ta haixe usaten genduan.
- Horretxetako.
- Peskan eitteko.
- Ta zer eitten zenduen uretara beorí bedarrori edo…
- Ez, txikittu kutxilluaaz. Masi eitten gendun eurak erreklamu eitteko. Gero bera multzu ipiñi amuaaz ta berunagaz, ta ekarten gendun amuen bera bedarren halakua, [...] kaiñaberiaaz erria ta kortxo handidxa ta aibadios!
- Ta hori arraiñori zer zan ba? Hemen erreidxun ibiltzen zan be bai?
- Bai, sabaidxa! On ha ez da ikusten hainbeste. Hamen, hamendik atrapaten dana [...] hau zapalaua, hamen daona. Hamendik atrapau genduzan Karnabal egunian “Martes de Carnaval” anaidxa bidxok, Joseba edo... Julian, ta hau...
- Manolo?
- Ez, Manolorik ez. Enriken koiñatua, beren anaidxia, Mateo, ta neuk atrapa genduzan, bostehun killo atrapa genduzan, “Quinientos kilos”!
- Ta gero saldu?
- Eon pixkaten; hau zan “Martes de Carnaval”. Juan Marques etorri jakun hauna, hauna ganera, ta ekazen angulak, angulak eta hori, este, angulak eta arraiña, hau... mekauen la puñeta! Ya hasi da ganbaria jodiduten! Ba esan eban eze, “Pedro Juan, hamen daoz angulak, ta horrek

garbittuteko...", kabuen diez! Hauxe da markia! Bueno, dana dalako santua! Ta "Juan, ni hamendik ez nator, nahixo dot hamendik debalde [...] horrek angulok jan baiño!" Hain neuen gustora haxe atrapaten eze!
- Atrapa eta atrapa!
- Bostehun killo. Atrapa ein bihar da bostehun killo, e?
- Errementata!
- Eta... keba, ez! keba, errementata tantarik be ez, gustora! Ta, klaro, jan gendun Taberna Baskan jan genduan. Taberna Baskan jan genduan horrek trastiok, angulak eta, bestia, hori, kauendiez, rape! Zapua, Zapua! Taberna Baska honek eukan Martiñen, Martiñen, Martin Laken arrebiak eukan!
- Luziena?
- Ez, Taberna Baska, zelan da, zelan jakon izena berari? Hamen...
- Arropaiñen?
- Arropaiñen ez, hamen berton baiño!
- Berton hortxe Otoidxo dagon lekuan.
- Ez, ez ,ez ...
- Egaña! Jesus.
- Euan... neuk esango deutsut /esangotsut/ nun euan, hau, Garabilleneko, Garabilleneko ontxen bota dabena hori.
- Garajik daozena?
- Garajik-eta ein dabezen halakuan, hauxe baiño pixkatxu bat beheratxuau euan guardia zibillen kuartela ta bera euan. Hantxe euan. Ta hantxe jan genduzan horrek eta, hurrengo egunian, baakixu, "el que más el que menos" ederto para giñin danok eta. Anaidxia, anaidxa Julian eta Enriken koiñatua, bere motorragaz jun Ondarruara ta bederatzi pezetan killua saldu eben!
- Jolin!
- "Ya está bien, eh?" Haixe da partillia! joe!
- Ordurako ezkonduta-ta egongo ziñian?
- Bai, hortxe...
- [...] gauzia!
- Valdesenian nabilleneko gauzia zan.

9.11. Atunetan

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Pedro Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ajuriagerra, Iker - Erdozia, Olatz - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-011/023
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:56:05. **Bukatu**: 00:57:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- **Laburpena**: Atuna harrapatzeko 13-14 aparailu erabiltzen ziren. Gizon bakoitzak bere postua zuen eta bera kakoarekin hasi zen, atunari kakoa sartzen. Inguruan ibiltze ziren, asko jota Santaderrera eta Frantziako kostara.

Transkripzioa
- Bueno, aber. Ia segi, zer?
- Zu atunetan hasi ziñanian eta, zelan harrapetan zenduezan?
- Aparidxukin. Ba aparidxua zan, eruten ebazan baporak hamalau-hamabost aparidxu eruten ebazan. Ta bakotxak bere puestuak eukezen

gixonak; batzuk kakua, gantxua, ta ni, mutil txikiña nintzan lez, ba, karo, gantxua! Atunari gantxua sartun ta barrura sartun ta haixe.
- Ya, ya. Eta ordun berton inguruetan bakarrik ibiltzen ziñien?
- Ez diñotsut ba?
- Santander.
- Santander ta Gijonera be aillaaten giñian!
- Baiña holan, beherantz, Afrika alderantz eta, ez ziñin juaten?
- Ez, ez, ez, ez.
- Ez?
- Ez.
- Ta Frantzira-eta be ez?
- Ezta. Frantzira kostara bai! Frantzira kostara bai juten giñian; hona, Frantziatik bastante hurrera be bai!

9.12. Txalopetxeak; Santi taberna

- **Hizlaria(k)**: Eiguren Mendiguren, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-014/018
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:22:06. **Bukatu**: 00:23:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Eiguren, Josu
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Ardoa zahagietan gordetzen zuten. Enbarkazio bakoitzak bere taberna zuen, "txalopetxia", eta ardo kuartilu bat edanda konformatu behar ziren, ez zegoen gehiagorik-eta. Santi lehenengo taberna zen, gerora bihurtu zen jatetxe.

Transkripzioa
- Ta gero harek e lehengo ardaua nun gordeten zan? Horrek.
- Zahagidxa. Zahagidxa, “pellejo”.
- Halako handidxak zirian ?
- Bai, bueno.
- Ta jentie ardaua erosten joaten zanien ze joaten zan bakotxa bere botelliaz, edo zelan ixaten zan hori?
- Orduan lehengo lehen zirian txalupa txikiñak izaten zirian, enbarkaziño bakoitxak eukitxen eben bere tabernia. Ta hantxe kuartillo bat, itxasora juten zirian kuartilloko bat. Ta urteten baeben kuartilloko bat neguan. Hantxe haxe kuartillua edan ta bigarrenik ezin edan, ez euan ta.
- Ta bera Santi lelengo hasi zan taberna lantxerik ta gero restaurantera bihurtu zan ezta?
- Restaurante bai.
- Gero gitxika-gitxika...

9.13. Kabanako lana

- **Hizlaria(k)**: Fundazuri, Mari Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erkiaga, Josu
- **Erref**: LEK-017/001

- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Kabanako lana zein den azaltzen du pausoz pauso.

Transkripzioa
Kabanako kontu´n eingot berba.

Kabania da arriña enlatateko lekua. Kabanan gagos, gitxi ba gorabera, iruro´tamar pertzona da, orduan, eoten gara batzuk, ogetamabost bat ero enpakaten da beste berrogei bat buru´ kentzen.

Mariñeru´ takarreni´n arraiña portura, fabrikanti´k erosten dau bentan. Fabrikanti´k, eee..., erosten daben arraiña eoten da iru tamañotan klasifikata: aundijja, medianua da txikiña.

Bentatitatorren arraiña, kabanara, eitten dabe lau launek deskarga kamiona, da gero, lau laun eoten diras gatza emoten tiñetan arraiñari. Lelengo, arraiña bota orduko tiñara, bota biar da salmuaria, da ori salmueriori ra ur kresala. Tiñatiras egurreskuak da iru tiñak atzen dau milla killo. Tiñetatik arraiña pasaten da maira da an eitten da burua kendu, da orrek gausiorrektauko enportantzijja, arraiñari itxi bijjakona egatia. Maitxitoian arraiña buru´ kenduta pasa bi´r da beste tiñara, da andik tiñatitoia arraiña latara. Latatitoin arraiña doia bagora; bagoia ser dan? Bagoia auxe ra: imiñi parrilla bat gani´n; ipini iru o lau arri ganian, prentzata. Bagoi´tan eoten da arraiña iru o lau arri ganian, prentzata. Bagoi´taneoten da arraiña iru bat illebete, da gero eitten da andik, latak sarratu. Latak sarratuta gero eitten diras garbittu, sosatzan; tiñan ipini sosia ta garbittu, da gero, bota biosu beste tiña batera, aklarateko; gero, osterabe aklara, da serrautzetan pasa birosu, siku siku ein latia da enkajona. Enkajonaten dosu da bialtzen dosu Jenobara. Jenobara doin latiak ikuitten dau antxoa osua buru´ kenduta.

Beste bire bata, arraiñ txikiña berton geratzen dana. Ori arraiñ txikiñori barrillian sartzen dou "murtzillak" eitteko. Orrek murtzillotiras barrilari ipintten jjakona koro baten forman. Orreri barrillori ein bijjako salmuari´ bota ganera da euki sei illebeti´n antxen geldirik. Sei illebetian dagonian ori barrilli´n, arriña, ya amaitxu rau bere plazua, da ordun asi biar da filetiagas, da ein biar da atara barrilletik arraiña maira, da laun batek ein bi ´r dau trapuaas pasa da beste batek ein bi´r dau artu kutxillu da trapua, da eraiñ, da gero beste batek ein biar dau enpaka, o sea, enpaka da latan sartun arraiña. Sartzen da ori latiori,... ori arraiñori latan, da gero bota bijjako orijjua ganera, da gero, erun biar da makiñara, da makiñatik eitten dabe sarratu, da gero enkajonaten dabe barriro, da gero ori, ba, ixaten da, ba, kanpora ta olan bialtzeko, o sea, kanpora baiño geijjo´, ba, berton ingiru´n geratzen da.

On atunenagas asiko nas. Atuna da, ba, lelengo egin bijjakona, buru ´kendu, gero tiñara bota, garbitzeko, da gero tiñatik, garbittutakuan, jjun biar dau egosten, kaldera batzutan egosten da, da ipini biar da an eriñotza. Da andik, egosittakuan, ein biar da maira atara da maijjan eitten da asala kendu da gero makiñetan ebagi, latan sartzeko.

9.14. Sei urterekin tretzak "enkarnatzen" II

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere; Uribarren Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/006
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:04:38. **Bukatu**: 00:07:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Arrasate Murelaga, Markel
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: Tretzak zelan "enkarnatzen" zituzten azaltzen du. Bakoitzak 12 tretza "enkarnatzen" zituen. Tretza bakoitzagatik bi erreal edo txakur txiki bi ematen zizkieten. Dirua amari ematen zioten. Otzara handietan jarrita baporeetara eramaten zituzten. "Enkarnatzen" mutilak baino ez ziren ibiltzen. Arrainak ez zuen gaur egungo baliorik; hori dela eta, ez zen diru askorik irabazten.

Transkripzioa

- Eta zelan eitten zeunduezan horrek?
- Mari Tere: Amu handdixak eukitten ebezen aparidxuak.
- Juan: Eukitten gendudan gabaz goxeko lauretan beatzidxak arte hamabi tretza bakotxak enkarnaten genduan. Tretza bakotxak, tretzia arraiñetakua geunkan, ehun eta berrogeta hamar amu, halakoxe hamabi tretza, erriel bi edo txori handi bi, ez daitz zemat balixo izaten eben. Amentzako diru eruteko juten giñin. Gero harek juten zirian baporera eruten eben, otzara handidxakin, ta gero otzarak ipinitta baporera sartzen ebezen eta gero goxin altxa ta bapora juten zan harek tretzak botaten arraiñak atrapateko. Eta gu baporakin batera, bapora itsasoa eta gu [oreara] enkarnaten, halantxeik.
- Eta ze ibiltzen ziñian mutiko asko hor biharretan?
- Juan: Bai, danok txiki, [jaun]. Ordun danok ahal daben guztia, enkarnaten ekizen guztiak.
- Eta neskak be bai?
- Juan: Neskarik ez, neskarik ez zan ibiltxen.
- Mari Tere: Ta hau eukana be ez. Honek jun ein bihar.
- Jente gitxik eukiko eban dirue?
- Mari Tere: Orduan, ordun zer irabazten eben ba koittaduak ba?
- Juan: On dala ehun edo ehun ta hogei-edo zemat diaz? Ni esaten naona.
- Mari Tere: Ehun eta hogei urte daukaguz ala?
- Juan: Ez larogei urte.
- Semea: larogei urte gitxi gorabehera.
- Mari Tere: Ta baakixu ordun ez zan irabazten ezer, ze ez zeukan arraiñak hon dakozen balidxuk-eta. Ordun koittaduk emoten eutsen ba itsasoa juten bazirian, euken kuartilloko ardaua emoten eutsen, kuartillo bat ardau ta besigutxu edo hori emoten eutsena euren arrain partia, besiutxu eta beste arraiñak, da besiutxu salduta ta andrak han arrain ederka kalerik kale besiutxu eta hantxen beste arraintxuk etxerako itzitta, haxe dirutxu zeozetako ta halantxenik ba ez zanez dirurik, partidia, zer eitten eben ba? partidia gitxi.

9.15. Partila banaketa

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere; Uribarren Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/008
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:07:52. **Bukatu**: 00:09:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Arrasate Murelaga, Markel
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- **Laburpena**: Arrantzaleek zapatuetan jasotzen zuten soldata, diru-partila, baina gutxi izaten zen. Kofradian kanpaia jotzerakoan banatzen zuten. Itsaso zatarra zegoenean, ezin zenez itsasora joan, kofradiako presidentea Madrilera joaten zen dirua eskatzera.

Transkripzioa
- Mari Tere: Ta gero ixaten zan zapatutan partillia, baiñe zembat diru ordun denporan?
-Juan: Errial bi edo lau pezeta edo bost pezeta-edo.
- Mari Tere: Ta ez bazirin juten itsasora egueldi zantarraz ezin junda eta miseridxa daola eta ekarten eben kofradidxa han txilin joten ben kanpaiak. “Han diru pardidu do” han danak pozarren arin-aringa e
emoten eben hogeikotxu-edo zer ixaten zan?
- Juan: Bost ogerleko.
- Mari Tere: Bost ogerleko ordun bost ogerleko [...] eruten zan ta pozarren kanpai entzuten zanin.“Daon miseridxiaz itsasorako egueldirik bez” da esaten eben, gu umetxuk giñan, baiña.
- Juan: Presindenti juten zan Madrillea diru eskatzea.
- Zer, nor?
- Juan: Presidentia, mariñeruan presidentia juten zan Madrillea diru eskatzea geuri partiuteko. [...] kobraten eban eta beste saidxetan ez ta gero eitten eben, han Madrillen emoten ebena ez pagateko. Baiñe bertan emoten ebena ixaten zan, kofradidxak emoten ebana pagateko, denporiaz pagateko, zelan irabazi halan pagateko ta.
- Semea: Bai prestamo bat modura.

9.16. Zaldien buztana txipiroitarako

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere; Uribarren Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/010
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:09:35. **Bukatu**: 00:11:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alday Uskola, Mikel
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
  Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Txibiak eta txipiroiak
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: Juan eskolara oso gutxi joan zen, urte bat-edo. Umetatik hasi zen aitarekin motor txikian inguruko kaletan arrantzan; kala horiek

zeintzuk diren aipatzen du. Zaldien buztana erabiltzen zuen apareju bezala txipiroitarako. Sareak gerora hasi ziren erabiltzen.

Transkripzioa
- Zelako biximodua eukitten zenduen umetan?
- Juan: Biximodua txarra, eskolarik be ez, eskolan zemat denpora eingo neban ba, urte bete-edo. Gero gerri etorri zan, bueno hori baiño ariño aittak motor txikiña ein eban itsasora juteko bera bakarrik, ta neu gazti nintzala erun naben beraaz. Zemat urte eukiko nebazan ba? hor hasi nintzanian be, ba zazpi zortzi urte-edo, arrañak atrapaten. Holantxik biximodua ahal dan modura eruteko ein gendun aittak eta neuk bihar itsasuan.
- Eta bertoko inguruko kaletara juten ziñien edo nora?
- Juan: Bai, berton hurrian, Talatik bistan, tximiñotan ta kabratan ta, [kordiaz...] ta, ahal dan modura.
- Semea: Esan eidxuz /esaidxuz/ kalen ixenak, ze kalatan ibiltten ziñien:
- Juan: Haunen Abran, Ogellan, [or bazakozak kalatan!
- Eta ze aparaidxo eta ibiltten zenduan han sasoian?
- Juan: Aparidxua guk, orduan kaballuen buztana.
- Mari Tere: Aparidxuak etxian eitten zirin.
- Juan: Kaballuen buztanak eukitten ebazan harek, yutak. Zeuk buruan daukazun moduko horrek, ulan daukazun moduko horrek. Eitten gendun haretxek ebai kaballuari, nonok emoten eutsen eta gero haretxeaz bihar eindda eindda eindda, ebai, amarratu, korapilluk ein ta buelta ta buelta ta eitten ebenian ehun bat braza, eitten eben haretxek ipiñi tximiñotako.
- Mari Tere: Yutik ez, zelaku da?
- Ta sare txikirik edo ez zenduen ibiltzen?
- Mari Tere: Geruo saria.
- Juan: Horrek gero.
- Mari Tere: Geruo hasi zirin sariakin.
- Juan: Sariakin neuk bakarrik ein dot makiña bat urte ontxe azkanetan.

9.17. Arrastreoak; alabaren jaiotzaren abisua

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere; Uribarren Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/025
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:42:22. **Bukatu**: 00:46:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Canales Ruiz, Amaia
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Juan arrastreroetan Ondarroan eta Pasaian ibili zen; bertan ere ez zutela jatekorik dio eta oso gutxi irabazten zela. Terranovan zegoela lehenengo umea jaio zitzaion eta ez zuen zerekin ospatu, ez jatekorik, ez ardorik. Sukaldeak orujoa zuen eta botila hura zabaldu zuten. Hotzaren hotzaz eskuak oso txarto izaten zituzten.

Transkripzioa
- Juan: Gero handik be jun nitzan Ondarrura arrastrera, ez giñin ondo arreglaten patro gazti ta ni ta ez, bai Ondarrura, bai, bai [Dorateara] juteko

esan naben, ba hor ez neban eiñ ezer, holako bat, primabera bat, gero arrastrerako etorri jaten motorista bat ia jungo nazen ta “bai” ta Ondarrura jun giñin, jun nitzan arrastrera. Baiña hori baiño ariño pasaiten ebillen beste arrastrero batzuk. Terranoba ordua zan lelengo nebillen “Estrella de la mañana” “Estrella […]” pereji , han be jateko be ez, ibilli nazen tokidxetan jai.
- Mari Tere: Baina ez dozu esan, makallautan han ibilli ziñinin Terranoban milla pezetako plantillia ekarri zenuan ta pentsa milla pezeta orduan Lekitton.
- Juan: Bi milla pezeta zan, bialdu eban, ni etxin neuan orduan.
- Mari Tere: Bai ba, ta Lekitton daonik eta aberatsena nintzala pentsa neban bi milla pezetaaz orduan.
- Juan: Gero Terranoban be, umi jaidxo, lelengo umi jaidxo jaten Terranoban. Ta geuazan “ a la deriva”, jateku bapez ta ardaurik bez ta ezebez. Ta Lekittotik deitxu eben zelan umi jaidxo jaten ta “[…] mujer, la hija, las dos”. Gero han eon zan , ardaurik eta ezer be barik eta zelan da kontu ta koziñeruak eukan oruju, ein eban berak zeozer koziñan brijidu edo holakua eta orujo botella zuridxa, baakixu zelakua dan orujo? Fuertio bera. Galleguan edaridxa da haidxe emoten gaitxuzen “a morir”, haixe eruten gendun bakotxak botella bana-edo, guk eurak hutsitxuta berak koziñeruk agintzen ebelez, harek gordeta eukitxen ebazan erreserban, berena edanda be han eukitxen eban harek. Kamarotian sartun giñin motoristi ta engrasadori ta danok eta atrapa, bertan kanta, kanta genduan halako batzuk, edan gendun beori orujo hori ta ederto pasa gendun, egueldidxa be edarra euan-ta.
Baiña mariñeruak ibiltten zirian, honek esku guztik apurtuta itsasoko erropakin , hotza ta haren biharrin makaillaua ta tripak kentzen ta. Asiske gero etorri giñin, ta urten gendun handik ta sartu nitzan hortxe [...] ta gero Ondarruara […] nebillen. Beste pareji zan etxekua, bi ibiltxen giñian ba amarratuta ba, biren arte arraiñetan. Ta hantxe zeozer irabazi, apurtxu bat hantxe, bestela beste arrastrero guztitan jai, jai ta jai ganera, […] subertoso iñun be. [...] ibiltzeko eta beraaz gitxixaz jan ta bertan hamen baiño gehidxo irabazten zan ta ahal dan moduan ibilli beñipein, suerti bihar da edonun ta.
- Mari Tere: Mariñeruen biximodua tristia.

9.18. 1961. urteko ekaitza I

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere; Uribarren Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/027
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:47:24. **Bukatu**: 00:50:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gabikagogeaskoa Korta, Estibaliz
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- **Laburpena**: 1961. urteko uztailaren 11ean, Ribadesellan zeudela, 80 atun harrapatu zituzten eta eguraldi zantarra zetorrela igarri zuten. Lo zeudela olatu batek itsasontziko zubiaren atea apurtu zien eta justu-justu lortu babestu zuen makina. Bertan bizitako bizipen gogorrak kontatzen ditu.

Transkripzioa
- Juan: Atunetan ibiltxen giñian, atunetan kaza, kazan atrapaten genduzan atun batzuk-eta. Halakun baten, zein zan ha? juliua ezta?
- Semea: Bai, hamaika.
- Juan: Juliun hamaika.
- Mari Tere: Hori jaidxota edo jaidxoteko edo jaidxo.
- Semea: Hogeta bidxan.
- Juan: Hogeta bidxan, zein urtetan?
- Semea: Milla bederatziehun eta hirurogeta bat, “mil novecientos sesenta y uno”.
- Juan: “Mil novecientos sesenta y uno”.Ba asi eske…
- Semea: Laredo ganin edo nun eon ziñien?
- Juan: Ribadesellas. Atrapa genuzan larogei atun, kalma zuri-zuri-zurizuridxak ta, zarati euan egualdi zantarra dakarrela ta, halaku ta besti ta, hor geuazan danok para ta para. Halaku, ni gabaz biharrin neuan makiñan zeozetan, zeozer eitten, danak lo euazan ta makiñan zozer eitten nebillen, gero zer ein neban, puentera juan eta radidxu erai. Radidxun entzun neban gallego guztidxak dandarrez datozela buruz behera, denpora zantarragaz. Ederto, nik ze ein bir dot /enbiot/? Ez badau ekarten denpora zantarrik, baguz barruruntz neure kulpi ixango da, eta esan bez patroiari. Dzanga lotara neu. Goixian sartun gaittuzan egunez, jo gaittuz parata gaozela edo olatu batek eta puenteko ati be apurtu. Justu, justu makiñia arrankaten jun neu horren parian, reduktoren parian, justo-justo tapa neban reduktora, ta ez dait/eztait/ tripakin edo zeaz haraixe urik ez juteko eta arranka egin genun motorra. Denpori gogorra eta ez giñin gu kapaz gu [...] bueltateko. Getaridxan bapor handi bat kostan txo, ura hartzen gendun sendo ta, baldakin ura kentzen gebidxen, ura kendu eta kendu, bonbi be bai, lohidxak agarraten eutsan behetik, aurreko paretin euazan urak etorri zirin lohidxa guztik bonba ganerantz eta ezin, estutu zirin txiki gertau [...], motorrak eitten eban, eskasa zalez, ta gero baldakin ta, ahal dan modura gebizen. Eta Getaridxara etorri zan ha, ha bapor handi bat, Mater Dolorosa zala pentsaten dot, ta gidxonak bertan emoteko, amarratu nebazan gidxonak....
- Mari Tere: Danak nearrez esaidxu. Gidxona guztiak, hondora jun bir dozuela /bizuela/ ta, eta zuk ein zenduen, gidxonak guztik bialdu haraixe baporera eta zeuk hiru-lau edo lau bakarrik geldittu.

9.19. 1961. urteko ekaitza II

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere; Uribarren Atxabal, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/028
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:50:28. **Bukatu**: 00:54:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goitia Arrizubieta, Aitzol
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- **Laburpena**: Aurreko pasartearen jarraipena da. 1961. urteko uztailaren 11ko denboralean bizitakoak kontatzen ditu: baporea martxan jartzeko izan zituzten zailtasunak, ura kentzen... Donostiako bapore bateko patroiarekin irratian izandako elkarrizketa ostean, haien baporea

hondoratu egin zen; begiak karramarroak janda zituztela aurkitu zituzten.

Transkripzioa
- Juan: Amarratu nebazan baporak.
- Mari Tere: Sokiaz beste baporera.
- Juan: Beste baporera
- Mari Tere: Ha handidxa zan ta honena eskasa.
- Juan: Bat, bi, hiru, lau, bost edo sei-edo amarratuta eruten ta, patroiak esan naben: “Ekarri karteria nire...”. Bere [saindxia] allaa zan amarratzeko. Karteria kamañan azpin eoten da. Ta esan naben ze: “[Jo, ze eingo dou, ez dgu ba bueltako?]”. Ni tontuo naiz: “Zeuk nahi dozuna /nahixuna/”. “Geldittu engo gara?”, ta “Bai, nahi bozu”. Ta geldi bertan trabez.
- Mari Tere: Lau lagun bakarrik.
- Juan: Ta ura kendu ta ura kentzen, ta ura kentzen ta ahal dan modura, ta ein gendun zeozer. Ta gero, ha jun zan, harek eskapa egin eban harek.
- Mari Tere: Baporak
- Juan: Bapor handidxak eskapa gaittuzen guri. […] Ta harek “Argidxak amata jakoz”, ta argidxak amatata ikusi ebazan. Ta gu hasi giñin hamar, trabez gaozela, hareri atzetik segitzen, baiña ez eban baporak inddarrik aurrerutz etxeko. Ez gendun mobimientorik be eitten ta.” Patiña etten dau enbragiak berutz”. […] “Ondo prensata daukat eta ez dau patiñaten on". Halako baten emon neutsan beste hagin bat gehidxo, sartu eben zelan edo halan, ba abantera harek ez eukan […] aurrera segitzeko. “Ze eingo dogu / engou/? Ze engou?”, “larra trabez”. “On ez gara jungo enbragez bapor guztia apurtu hondora jungo gara-ta”. Karga gendun trabez, ura kentzen zelan edo halan. Ikusten zirin haren mendidxen olatuk bai. Geure ondun apurtute. Itsasu eruten, hauxe eitten gaittuzen olatuak, alboz be. Beitu handik makiñatik, tapatik, atzeko tapia, atzeko tapatik, ta itsasuk raka-raka, larran-larran. Ez dau gerri emoten, gerri berari emoten badau horrek […] tapata gaoz. Zer da kontu ta, ba honek […] halan diñoutsa: “Aquí no hay nada que hacer”. Ta […] jun atzetik. Ta gero, eguna ailla zanian, han mendidxak bistan, haidxik itxi eban.
- Mari Tere: Baña zeuen aurrian ikusi zendun hondoraten beste barkua, zeuek baiño handidxo.
- Juan: Ez, hori be ez dot esan. Donostiar barko bat, donostiar bi euazan han, donostiarrak. Kaiser jakon idxena patroiari. “Kaiser, denpora gogorra dakar gero! Ta barkun jun bir dogu /bidou/” bestik esaqn eutsen. Ta Kaiserrek kontesta eutsan, olatua azpittik pasaten dala. “ Olatua azpittik pasaten da, atrapaik arraiña!!!”. Horidxe entzun neutsan radidxotik, “Arraina atrapaik!”. Ta geldittu zan, atara kontuk eta karramarruk begidxa jan mariñero guztiari.
- Mari Tere: Hondora-edo.
- Juan: Kondora karramarruak jan begidxa. Ta holako bat be bai, turista bat be bai, eurakin jun zan turista bat.
- Mari Tere: Bakasiñoitan euan gazte bat zan.
- Juan: Donostiar bat, lihortarra.
- Mari Tere: Bai.
- Juan: Danak itto bertan.

9.20. 1961. urteko ekaitza III

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Iriarte, Mari Tere; Uribarren Atxabal, Juan

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-028/029
- **Iraupena**: 0:04:08. **Hasi**: 00:54:00. **Bukatu**: 00:58:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Hidalgo Egurrola, Nahia
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- **Laburpena**: Aurreko pasarteetan kontatutakoaren ostean, inguruetan beraien baporea, "Aita Guria", hondoratu egin zela zabaldu zen. Mari Tere umedun zegoen eta jendeak kalean ez ziola kasurik egin zion. Portura heldu zirenean, bere alabak aldaba joaz zarataka joan ziren ama abisatzera. Soineko arropak txiki-txiki eginda ekarri zituzten. Lekeition galdutako beste arrantzale eta ontzi batzuk aipatzen dituzte.

Transkripzioa

- Mari Tere: Gero harek beste baporak ekarri ein ebazanak eurok emonikuk euron mariñeruak zabaldu ein eben.
- Semea: Bermion sartu zirin.
- Juan: Bermiora jun zan mariñerukin, han zabaldu ein eben hondora garila.
- Mari Tere: Hondorata daola, hori akordaten jat. Aitxa guria
- Juan: On zeuk esan, zurie pasau jatzun kasua-ta gero. Ez eutsun beituten iñok be /iñope/ arpeira-ta.
- Mari Tere: Bai, ta gero ni bakixu enbarazada handi neuan da iñok be ez.
- Semea: Bosgarrenaz.
- Mari Tere: Zeuaz ez. Iñok be ikusten eustenin, herridxan zabalduta euan hondorata, eurak emon dabezen mariñeruak ekarri dabezela, Bermiora erun dabezela esan dabena txikotakin amarratuta bota ein ebezela beste baporera, ba sartun dala ta diñula ba Aitxa guria galdua dala. Ta ni halako, ta gero ba ez dakit ba entera edo zer, ta, “Ene sartu dala Aitxa guria!” ez, ez zan holan.
- Juan: Zu errekadutan jun da iñok bez ez eutsun beitu be eitten arpeira.
- Mari Tere: Bai ba, bai ba, ta gero etxin naola zan.
- Semea: Iñok ez nahi esan ezer.
- Mari Tere: Bai ba, lau alaba hori baiño ariño, ez bost.
- Semea: Hiru alaba ta Andres.
- Mari Tere: Bai ba,bai, hiru alaba ta mutilla e neukazan ta.
- Juan: Zeu enbarazata honeaz.
- Mari Tere: Beori itxoten ba, eon ba, neuri be on holakotu ein jat eta, ta ni etxin iñora nahi urten ez be bildurragaz ta gero halakoren baten etorri zirin alabak, aldabak jo ta jo ta jo ta jo, “Ama!”, halako baten: “Sartu diraz aitta-ta portuan”. Ta orduntxe ba halako, ta, ekarri igo eben gora, erropak be zatittuta etorri zirin honek, soiñeko erropak be halakotuta. Lau lagun geldittu zirin beraaz baporaz, ta danak halakotuta, ezin siñistuta. Ta etorri zirin aldabi ba apurtu edo ein eben urrian hamen jo ta jo ta jo, ikusten eusten zelan nebilen etxin, bakidxu arduratuta ta, ta erun ein eutsezen erropakin ta halantxerik, pasa jakon han be, hainbeste halako euki dittuz ta Jaingoikuk lagundu dotso danetatik.
- Semea: Bueno, hainbeste gorabeheraaz ta azkanin Lekitxoko porturaiño allaga ziñien.
- Juan: Lekitxoko portun gero bi makina behian etorri nitzan halakotuta. Ronpeolasen sartzen goizela idxa tirabera ein genduan, jenti buruari agarrata. Kanpotik etorri giñin ba, ta olatua eualez, emon gaittuzen lantxadiaz idxa tirabera ein gendun.
- Mari Tere: Ixena “Aitxa guria” eukan bapor zaharrak baiña dependidu

bazan.
- Juan: Lelengo urtian harek baporak hartu ein eban denporala gogorra. Lelengo estreña zanin, “treinta y seis”ian, denporala gogorra atrapa eban. Barridxa zan lez, aguante gitxi, txarra ez, baiña bueno ongun zaharra zan ta aguanta gendun ta, zorrik euki ez-edo. Lekitxar yate bat be galdu zan gizon biaz, Sokorrori be beste gizon bi atara ein eusazan baporak galdu, beste gizon bi galdu zirin Lekitxon.
- Mari Tere: Bai, bai, orduntxe.
- Eta zuek euki dozue...?
- Mari Tere: Olatuak, portuko etxik arteko olatuk zirin. Ta argirik be ez, argirik be ez etxian, ordun zan?
- Juan: Ordun, tio Juliñen […].

9.21. "Kosteroak"

- **Hizlaria(k)**: Urizar Murelaga, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-030/017
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:30:38. **Bukatu**: 00:32:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxebarria, Mikel
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Sasoirik onenean 32-33 enbarkazio ezagutu zituen Luisek. "Kosteroak", kargadunak, sei-zazpi bat zeuden: Asturiasko ikatza, Aulestiko minerala, Asturiasko sagardorako sagarrak... garraiatzen ziren.

Transkripzioa
- Zuk zenbat motor ta zenbat bapore ezagutu zenduzan Lekitton sasoirik onenian?
- Sasorik onenian hogeta hamabi-hogeta hamahiru enbarkaziño euazan, bete-bete eindda euan portua ta gero eoten zirian, bueno harek arrastekuak arin jun zirian, sei pareja arrastero eoten zirian, arrasteruak eoten zirian harek: Ta gero kosteruak, kosteruak eoten zirian sei-zazpi kostero hor, kosteruak eitten eben /etxeben/ biharra ba, hau kargia, kargero jeneral modura ibiltxen zirian, on bai, kosteruak zirian ehun tonelada ehun ta berrogei gehidxen eukenak eruten eben, igual apeak. Apeiak kargaten zan hamen, harako, hor Asturiaserako, miñetarako ta orduan apeiak zan gehidxena, eruten eben, ikatza handik ekarten eben hona, ta hamen Allustiko (Aulestiko) hor be hortixik be miña bat, hor be mineral pixkat ataraten zan, ha be eruten eben ta, ta sagarra kargaten zan, sagarra hamen sagar asko euanin be, sagarra Asturiaserako kargaten eben-ta.
- A bai? Sagardoentzako?
- Bai, sagardoentzat bai, Juakin Erdozia hamen, Erdoizia, honen aittittak, erosten eban sagarra hamen hango, Karrantzako morro bateaz etten eban horko Burgosen partetik zetorren e, Karrantzako sagar guztik batzen eben zakutan ta horrek baba-zako handidxetan, larogei killoko zakua, holakoxia beteta eruten ebezen, zakuak, horretxek hirorogeta hamar larogei holako barkuak beteta juten zirian. Kubierta gane guztia, hara Asturiasera ta Kijon edo Avilés-edo. Han problemia, Euskal Herridxan asko euanin sagarra han gitxi esaten dabe, ta han zanin asko ba hamen gutxi, porke Euskal

Herridxak sagar asko euki dau, ontxe galduta, hamengo sagar guztik usteldu ein zirian, jaon barik ondo, ta dana sagastidxa, hamen euan dana sagastidxa, lehen […] ezer be, horixe galdu gendun sagardauak eta danak.

9.22. Beste arrantzaleekin hartu-emana

- **Hizlaria(k)**: Urizar Murelaga, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-030/021
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:42:15. **Bukatu**: 00:44:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxebarria, Mikel
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena**: Gipuzkoako eta Bermeoko arrantzaleekin ondo konpontzen ziren. Ondarroako arrantzalea beti laguntzeko prest egoten da. Kantabriakoak azken urteetan hasi dira arrantzan, lehen nahiko txiroa zen.

Transkripzioa
- Ta zelako hartu-emona eukitten zenduen giputxekaz ta kantabroakaz ta?
- Giputxakin-ta bai.
- Ona?
- Bai, giputxakin ta, bueno […] Lekitton ondo, danakin eon gara gu ondo.
- Bermiotarrakaz?
- Bermiotarrakin be bai, ondarrutarrakin pixkat e, baiña, ondo ondo. E! On beste bat, ondarrutarra itxasuan gixon handidxa da laguna laguntzeko ta horretako, eurak holakoxe holako… ta bermiotarrak be, entzun dozu ? Ta erdidxan euki douz horrek bidxok be, geu erdidxan, ta gu bidxakin ondo.
- Ta kantabroak?
- Ba kantabruakin. Kantabruak ontxe arte ez diz ixan. Kantabruak on zemat esango dotsut ba? hogeta hamar urtetik edo ein dabe arrantzan. Santoña ta nik ezautu dotez, Santoña pobrezidxa, miseridxa ta Laredon ta. Beitu gaur Laredo zelan daukazun, orduan Laredon ta ez euan ezebez. Castron ta ezebe ez euan “ miseria y pobreza todo es una pieza” halakoxia zan pobre, pobre, pobria. On, gaur turismua Bilboko jente moru guzti jun dok hortik zihar, hantxe daoz danak: Castro, Laredo-ta. Laredon-ta, gaur […] eskerrik asko emoten “hospital de Laredo”, gure sasoian medikurik be ez euan hamen, gure denporan, gazte denporan. Santoña be herridxa pobre, pobre, pobria urik, urak be halaku gatza eukan harek. Gero, honek Carrero Blancok-eta hasi zirin, emon eutsen, ba ein ebezen gauzak-eta. Ta gero badakixu fabrikaziñoia ta bertara jun zan ta on pentsaten dau honek Revillak “joder salason de Santoña” esaten dau, “¿Salason de Santoña? ¿De donde estas hablando? Si salason no existe… seis años llevamos sin pescar e!" Ta on botian ipinitxa… horko, Marruekoseko arraiñantzako.

9.23. Arraina buru gainean kabanetara

- **Hizlaria(k)**: Goitia Izurieta, Gregori

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-043/012
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:20:27. **Bukatu**: 00:22:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Miseria asko ezagutzea egokitu zitzaien gaztetan: eskolarik ez, umeak jagon beharra, gutxirekin bizitzen ikasi behar... Arrainak buruan hartuta eramaten zituzten kabanetara. Trapu batekin azaltzen du zelan eroaten zuten. Otzarako bi edo hiru txori handi irabazten zituzten. Otzara bakoitzak 24 bat kilo zituen.

Transkripzioa
- Guk... geure denporia miserixan, ze halakorik bez, eskolarik bez, eskolarik bez, umiek jagon, erderarik bez ta ezebez, eskribiduten be jakin bez. Esan neban: hauxe da daukaun biximodua, esaten neban. Baiña tira, bixi ixan gara ta bixi ixan garin lez e, zenbat holako ein doun. Ta arraiñak, gixonak ekarri itsasotik ta burun hartun ta kabanetara eruan.
- Burun?
- Burun hartunda, burun hartunda.
- Ta zelan eroaten zenduen?
- Ba eskuk, ordun eskuk [...] eukauzan ta, eskuokin e, gixonak altzaten euskuen burun eta kabanetara eruan, kabanetara eruan, eitten gendun.
– Ta hemen zer jartzen zenduen?
- Bai hori, e, trapu bat imiñi, trapu bat imiñi ta burun erdixan ipiñi. Haunantxeik imiñi ta burun erdixan, haunantxeik. Haunatxeik imiñi ta gixonak imiñi otzaria, gixonak imiñi otzaria ta norberak eruan. Ta hiru txori handi, txori handi bi ta otzarako. Nun eguan ba, nun eguan ba? Ez eguan dirurik eta. Zenbat holako, ene... ein douzen.
- Zenbat killo otzaran?
- Otzaran asko, hogetalau killo bai, asko, otzara handixak zirin ta.

9.24. Emazteak lana sendo egin, baina kotizatu barik

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/011
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:12:32. **Bukatu**: 00:13:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Denetara egiten zuen bere andreak: saregin, arraina barkutik husten, kontserba-fabrikan... Erretiroa hartzeko orduan jabetu ziren hiru urte bakarrik zituela kotizatuta.

Transkripzioa
- Non ibiltten ziren saregiñek biherrien?
- Saregiñek, fabrikan.
- Fabrikan?
- Fabrikan be bai. Ta baporen arraiñak deskarga, kamionak kargaten be bai, berentzako jaubintzako.
- Ez zen tinglauan egoten, saregin?

- Sarein be bai, danetara ein dau nire andriak, danetara. Ta beti harek, fabrikan badakixu. Sareiñak orduan, ordun denporan, ba, ez euken jubilaziñorik , ez eben erriaten ta. Ta nire andrik ta fabrikan, jaube bateaz eitten eban , filetiak ta buru kendu, danetan eitten eban, ta gero baporetik arraiñak urteten ebanian, horrek kamionak moillan ixten eben, kamiona karga. Ta gero andrik ta sarri esan “atun hori! tra dios! zuek seguru daukozu ta". Seguru? Hirurogei urteaz harek be, hasi zanetik biharrian , hiru urte bakarrik pagata.

9.25. Zazpi kontserba-fabrika Lekeition

- **Hizlaria(k)**: Anakabe Mendieta, Salbador
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-046/016
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:20:04. **Bukatu**: 00:21:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Emakumeak eta umeak jarduten zuten kontserba fabriketan. Zazpi fabrika egon ziren Lekeition. Amoroton ere ipini zuten bat, baserritarrek jarduten zuten han.

Transkripzioa
- Hamen eon zirian zazpi fabrika edo. Bai.
- Orduen, bihar faltarik ez zan egon, eta diru faltarik, edo zer?
- Bai, bai. On ez dao ezer be.
- Eta fabrikan andrak bakarrik?
- E? Bai, mutillak be bai, ba, horrek, mutiltxuak be bai. Hamabi urte ta neskak-eta, eskolara be jun be ez ta, baakixu, dirua halakotuteko. Bai.
- Ta zazpi fabrika?
- Bai.
- Zeintzuk zien?
- Bai, hamentxe Garabillenien bat, bat, Erga bi, Garabilla, beste Zesario Garabilla lau, Ortiz bost. Bai, zazpi bat eongo zien. Gero hamendik, hor be bai, Amoroton be bai ipini eben fabrikia.
- A bai?
- Bai, Amoroton be bai. Ta ha be, baserrittarrak-eta, hamendik eruten eben arraiña ta pagaten eben.

9.26. Errepublikanoak Lekeition

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/005
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:03:48. **Bukatu**: 00:05:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoarekiko jarrera
- **Laburpena**: Gutxi, baina izan ziren errepublikanoak Lekeition. Kafetegia eta bilera-lekua izan zuten. Ondarroarra zen jabea. PNV zen nagusi Lekeiton.

Transkripzioa
- Errepublikanuek baeuezan Lekitton?
- Lekitton? Errepublikanuak, ba, egon zirian.Hamen euan, “Café de República”. Hamentxe hamentxe, hau “Banco de Vizcaya”, hau, hamen dona.
- Eskolapean?
- Eskolapian daona, hortxe euan “Café de República”, bai, geure amen lehengusu batek euken hori, ondarrutarra, bueno, ondarrutarra zan. Lekittarra zan baiña Ondarroan, gero, Ondarroan bixi zan gero, Ondarruen. Bai, Leandro, Leandro Badiola.
- Baiña igartzen zan kalidn errepublikako mobimentua eta?
- Hamen?
- Inddarra euken?
- Keba, hamen nazionalistak beti gehixo, PNV beti gehixo hamen, PNVk.
- Ta errepublika hasi zanien hori, Alcalá Zamora ta?
- Bai, bai Azaña eta Prieto be bai eta, danak eon zirin orduntxe denporan. Queipo de Llano eta, zantar handixek.
- Bai?
- Bueno, harek, sebillanuk zian harek, Queipo de Llano.

9.27. Sare konponketan

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/018
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:15:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Sare konpontzaile bezala, bapore batetik bestera ibiltzen zen lanean. Trainak egiten zituztenean, bukaeran kobratzen zuten, baina kanpoko baporeetako konponketak egunean egunekoa kobratzen zuten. Lastozko jesarlekuen gainean, behean gainean jesarrita, aritzen ziren; baita nahiz eta umea izateko egon.

Transkripzioa
- Ba nire biharra egun guztian kalian. Sare egiñen. Eta gero bapora guztietara be juten nitzan sare egiñen. Kanpotarrak-eta etorten zirian: Laredo, Castro ta San Juan de La Arenakuak...eta dana egoten zan beteta. Klaro, esaten eban guztietara, baporitara, ba baporik bapor juten ziñin konponduten.
- Ta bihar gogorra zan?
- Bueno, ba, horixe eitten gendun ta, ba, zer esango dotsut, ba? Gero, traiñak-eta eitten genduzanian, hasi ta amaittu eitten genduan, ba, igual, ba, ez dakit ba zenbat egun ta eingo genduzan, amaittuten zanian kobraten zan traiñak-eta. Bestelan, ba, juten ziñian kanpotarrakana ta eunekua-ta emoten eben eskura, ta, ba, pozik.
- Gorputza asko kantsaten jatzuen edo gogorra zan?
- Ez dakitt zerik esan be. Guk igarri be ez, kontixu. Igarri be ez, kontixu, kantsaten bagiñian be. Baiña, holako, zuk imajina jaidxoteko besteko enbarazua ta behian ganian egoten giñian gu sare eiñen. Zelan horrek sillak eukitten dabez, ganeko lastozko gania, sillak lastu eukitten dabena? Halakoixe lastozkuen ganian, behian ganian ipini, ta hantxen, behian

ganian eitten gendun sare egiñen.
- Orduan komodo-komodua ez zan ixango hori?
- Bapez! Imaginaixu, berrogeta hamar urte, on berrogeta hamar urte-edo ixan zan koronaziñoia Lekitton, Ama Birgiñiena, ta neukazan nik bost mutil, ta neuan itxoten seigarrenari. Ta esaten eusten: “Bitoria, Ama Birgiñien koronaziñoia da, ta hauxen ixango dozu neskia; Hau bai e!” Paso ein genduan. Berrogeta hamar urtekua daukat; Ameriketan bizi da, zeztalaridxa, badakixu.Ta gero euki neban neskia. Esan neban: tira, behin edo behin,”algo es algo”. Hainbeste mutilleaz mereziduten neban neskatxu bat, ezta? Ta horixe.

9.28. Dei egitekoak

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/023
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:18:45. **Bukatu**: 00:19:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Emakumeak aritzen ziren dei egiten: itsasora joan behar zuten gizonak noiz joan behar ziren abisatzen. Hori zelan egiten zuten azaltzen du Bitorak. Lehen bapore asko zeuden Lekeition.

Transkripzioa
- Zelan e... zuek kalietatik eta pasako ziñien, andrak gizonari itsasorako deitzen eta?
- Bai; Hombre! Hoba ez pasa! Behin sasoi bat ezkero, txokukin orduan juten zirian, egurrezko txokiñak, glin-glan, kalian beherutz juten zirian ta dei eittekuak hoba ez. Ba fulano, neure gixona ixatia lantxerik, “Salbador, gora Jangoikuaren ixenian!” esaten zan, ta gero, mezia entzuteko egunian juten zirinian “gora Jangoikuaren ixenian, mezia entzuteko!” esaten eben ta nahi dabena juten zan mezatara, ontxen lantxerik, ta nahi ez dabena ez.
- Espektakulua izango da, ezta?
- Bai, danak. Ta gero bapore asko euan. Badakixu zenbat bapore egon zan Lekeittion? Eskandalua. On moillan horrek danak daozenak einda, klukak eta horrek terrazak-eta horrek danak zirian baporen bodegak orduan.Ta gero, ba, danak libra zirian, danak hutsik. Ba, pentsa, ez eban emoten pisuk be igual abastorik jentia kanpotarra ta egoten zirian, on etxe barrijak ein dabezenak Kortabitartek eta San Pedron aurrian, hantxe be pisua egoten zan antxoak-eta kontateko-ta.

9.29. Bisigu-sasoia polita zen

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/024
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:19:58. **Bukatu**: 00:20:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

- **Laburpena**: Bisigu-garaia oso polita zelan dio. Lekeition lau ontzi "pasajero" zeuden eta bisiguak zelan ekartzen eta banatzen zituzten kontatzen du. Bere ustez, gaur egungo Lekeitiok ez du herri arrantzalearen itxurarik.

Transkripzioa
Ta gero besiutako denporia be politta ixaten zan, e. Besiutako denporia, gure aittak [euan pasajeru euan]. Lekitton euazan lau pasajero-edo euazan. Baporak etorten zirian besigutatik ta amarratuten zirian kataietan, ta gero juten zirian pasajeruaaz gixonak eta besiuak ataraten kanpora. Andrak eruateko buruan, burun eruten ebezen, burun, “fijate” haretxek otzarak, ta badakixu, parientiak-eta zirinak lehenengoko, igual nonor jun hartzen ta: “neuk daukat lehengusua, neuk daukat ez dakit nor”. Ta esaten eben, ta preferiduk ixaten zirian haretxek. Gu ta ez, gu gaztiak giñian ta. Baiña, besiutako sasoia... Ta eguerdidxan, egueldi edarra euanian, danak etxetik, ze holako sasoian etorten zirian baporak. Asko zirian lez ta, gauza politt bat zan, on ez daona, ze on ez dauko Lekittok e...On Lekittok badauko mariñeruen herridxen antzik ala? Nik ez dotsat hartzen. Ordun ikusitta, on behiñipehin.

9.30. Saregile lana

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/035
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:31:27. **Bukatu**: 00:32:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Saregileek maistra bat zuten. Ikusiz ikasten zuten ez inora joanda ikasten. Zein lan egiten zuten kontatzen digu.

Transkripzioa
- Ba nik ez dakitt ba nok erakutsiko eustan! Ba edonor egoten zan moillan sare eiñan ta igual hantxen ondun ta eonda. Ordun motor txikiñak eta sari mailla bakarrak-eta asko egoten zirin, e. Abadi moillan be motor txiki asko euazan eta danak eukitzen ebezen sariak. Eta eoten giñian igual jente pillo bat sare eiñen ta. Ta ikusi zelan eitten dan ta. Zelan ikasten da, igual, bordaten ta? Josten be zelan ikasten da? botoi bat josten be zelan ikasten da? Ba holantxerik ikasi. Ez behiñipin, jun ta toki batera “ikasten zatoze ta”; holantxerik ikasi genduzan.
- Ta maistriak, orduan, zu eoten ziñian biharrian ta maistriak zer eitten eban?
- Maistriek sarik-eta arma, eurak eitten ebezen; kortxuek eta berunak eta pañu hutsak etorten zirian. Entzun dozu? Eta guk eitten genduzan pañuak goittik eta behera pega, pega, pega. Ta gero eitten jakozen, “bihetza” esaten jakon ha loditsu pasaten zana traiñari, ta gero harek uezaba andrak-eta eurak eitten eben arma ta gauzak eta sarik eta, eurak zirian eittekuak. Guk geuk ez gendun armaten ta ezer, guk konpondu ta igual asko baeuan apurtuta, igual, ba, zatixa bota bihar da /bida/, hau gaitza da eitten ta ebaitten zan kuadrau-kuadrauan ta ipintzen zan ba kuadrau-kuadraua. Begoña Saguntok be esplikako eutsun hori, alkarreaz ibili giñin.

10. Baserria

10.1. Marierrotaren funtzionamendua

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/002
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:01:26. **Bukatu**: 00:04:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Marierrotan jaio zen. Bera jaio zenean, errota bakarra zegoen martxan, artoarena; gariarena, ostera, ez. Pascual Abaroarena ziren etxea eta lurrak. Marea igotzen zenean, urez bete eta marea bajatzerakoan martxan hasten zen errota. Polito ehotzen zuela dio. Ehotako portzentaje bat beraientzat izaten zen, %5a.

Transkripzioa
- Errota bi eukazan harek.
- Ta martxan euazan?
- Bat bai. Bat ibiltten zan, artuena; bestia garidxena, ez. Ha erre ein zan, ha etxia, ta geure aittak arregla eban.
- Zeuen-ta aitxak arregla eban?
- Bai.
- Ta ze pasa zan ba, erre ein zan etxia?
- Ba erreta geldittu zan ta iñok arregla be ez ta ba. Don Pascualena, Abaroana zan ha.
- Pascual Abaroena zan?
- Bai.
- Errotia?
- Bai.
- Edo baserridxa?
- Baserridxa...
- Dana zan bat?
- Dana bat, ta solua be bai. Solo aberatsa eukan harek.
- Ta solua nun eoten zan ba, Marierrotan?
- E?
- Solua nun eoten zan?
- Ba, bertan daon [haxe...] handidxa.
- Erdi parian?
- On urak erunda dauko harek danak. Ha solo haundidxa da.
- Eta ura sartzen zan han, maria etorten zanian?
- Marian gorazkuan, atia erain, tornuaaz. Ta beteten zanian, maria beheranzkuan ibiltzen zan errotia.
- Martxan hasten zan?
- Bai.
- Ta gero batzen zenduen garidxa...?
- Ba, bertako auzokuari-ta, artagarau pasaten zan, hantxe errotia. Urrunao jun bihar zan [bestelan], jun bihar zan Oletara arte, ta bertakuk, hurrakuk. Bai, Loibe goikuak ta bertakuk, bertakuk, Keleridxakuk-eta. Ba, bai. Ba politto ixoten eban harek.
- Ta akordaten zara zenbat joten eban?
- Bai, klank-klank, klank-klank, klank-klank ibiltzen zan.
- Ez, zenbat... zenbat joten eban?

- Zenbat anega edo zenbat...?
- Zenbat saku-edo, zenbat ataraten ebezan?
- Harek zaku bat artagarau bai, mari beherazko bakoitxian. Gehidxo, gehidxo, marin zaku bi be bai, ehun bat killo-edo artagarau.
- Ehun bat killo?
- Bai.
- Ta gero ze eitten zan, bertatik nora eruten zan, Udaletxera?
- Baserrittarrari, ekarten dabena artua ta, haretxek be jo.
- Ta bertan saldu eitten zan?
- Bai. Saldu ez, errotan pasau. Gero, killoko honenbeste kendu. Bost killori, ba... berrogetamar killori, bost killo-edo, lau-edo.
- Gelditzen ziñien zeuek.
- Bai geu gelditzen giñin harexeaz.
- Biharra eitten da...
- Zemategaz geratzen ziñien? Zemateko partiegaz geratzen ziñien?
- Bost edo ez dau esan ba... Zenbat?
- Zemategaz geratzen ziñien zuek?
- Ze? Artua? Ehuneko bosta, ehuneko bosta.
- Bosta?
- "Aquellos tiempos". Bestela jun bir zin, Oletara-edo... jun bihar zarien.
- Bai, edo Gixaburura-edo.
- Ta hamen hurrakuak bertara ekarten eben.

10.2. Errotara joateko astoak; asto-kortak

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/003
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:04:22. **Bukatu**: 00:05:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Lekeitiarrak astoz joaten ziren beraien errotara, Marierrotara. 400 bat asto zeudela dio. Asto-kortak ere bazeuden herrian zehar.

Transkripzioa
- On be... astu bihar zan, ez euan automobillik-eta, ez euan automobillik en aquellos tiempos.
- Astua.
- Astua, artu beteta etorten zan astuaaz.
- Otzarakin, otzaran.
- Bueno! Lekitton eoten zan laurehun asto baiño gehidxo egunin-egunian. Beheko kalian, asto-kortak eta danak han, beheko kalian.
- Beheko kalia edo Dendari kalia. Zein zan?
- Dendari kalia? Beheko kalia.
- Beheko kalia gehidxao eta astuak. Eta hamen inguruan be eoten zan?
- Astua? Bai, bai, hamen [...] danian.
- Bai. Baiña horrek zer euken, astuk-eta?
- Bai, bai, bai. Asto-kortia hamentxe, asto-kortia. Itsuna. Ezautzen dozu itsua? Emakumia?
- Ze kale?

- Haurtxe goittik behera doiana ayuntamientura, hortxe eon zan asto-korta bat.
- Azpiri kalia.
- Bai, bai. Hortxe eoten zan Marijosen tabernin bueltarin, goratxuago, hortxe, hortxe eoten zan halakua, astua, asto-kortia.

10.3. Marierrotako kanalak eta ura

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/004
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:05:39. **Bukatu**: 00:08:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Marea igotzen zenean, errotako kanalean mila bat tona sartzen ziren. Ura nondik nora joaten zen azaltzen du. Bospasei kanal zeuden.

Transkripzioa
- Ta errotiek, esan dozu, marie igoten zala ta atie zabaldu.
- Bai, atia zabaldu tornuaaz. Bete eitten zan. Gero, maria beheran hutsittu.
- Ta hori atie zelan deitzen zan? Horreri atieri zelan deitzen jako?
- Atia esaten eutsagun /esatetsaun/ guk, ez dakit nik.
- Ez, gero [andaparia] sartzen zan uragaz.
- Ura sartzenzan kanaletan, han buelta guztidxan. Ba ura sartuko zan milla tonelada bai.
- Orduan ura juten zan kanpotik zihar.
- Handixerik, kanpotik zihar.
- Ta erdidxan euan…
- Ontxe be, ontxe be halakoixe kanala do. Barrutik.
- Ta erdidxian solua?
- Bai, barrun solua.
- Ta ze eitten zenduen solun? Ze…?
- Edozer. Erremolatxi ta patati ta piperra ta edozer. Baiñak-eta, edozer. Gero, maria goranzkun, ura ez sartzeko, eitten zan tornu zarratu. Ta zementuaz zarratuta eoten zan. Paret bi eoten zirian, hasi Loibeko errekan, ta hara arte, Keleridxara arte. Presia. On dana dao lurraaz beteta.
- Ze Keleri esan dozu?
- Keleridxa ez dakixu zein dan? Zuk ezautu dozu ha…
- A, Keleridxa… bale.
- Bai, bai, bai, bai, baserridxa. Iñor ez da bixi, e?
- Eske haraixeaiño…
- Jesus, Jesus, Jesus , [Jesus Kelleridxa], ta Paulo [Kelleridxa].
- Haraixeaiño eote zan e… hori, ezta?
- Bai, buelta guztidxan.
- Ze han e… kanbidxa ein dabe ta…
- Gero, nahi badozu ur eztidxa sartun, ba, goidxan zabaltzen zan. Ur eztidxa, edateko ura, sartzen zan solora. Kanalak eoten zin, kanalak, ba, hau baiño zabalauak, kanalak. Sei kanal-edo, zazpi-edo, ez dait zemat. Halaixe sartzen zan ura ta, euridxa eitten dabenian, […], ta beste edozer baiño ariñao sikatu. Solua. Ta gero, sikati danian, ba, goittik sartun ura ta […] erain be ez ein, tornorik, daola. Haunenbeste falta danian beteteko, ba,

para hantxe. Han behera ur asko etorten zan, [...] han behera. Han, Loibe errekatik.
- Loibe errekatik, ezta?
- Bai. Edateko urak be eon zin han, urik eran ahal zan sasoi baten. Itturridxak.
- Ba, han jentik edaten eban, itturridxan, ezta?
- Bai. Itturridxan.
- Ta gero handik gora junda, zu akordaten zara kordeleridxa eoten zana? Akordaten zara, handik gora junda, Loibetik, kordeleridxa eoten zana?
- Bai, bertan eoten nitzan ni [...], bertan. Txoridxa emon ostan zuen aittittak, kilgerua. Halako kaidxola txikitxu baten. Daukon, gaiñera, piño abolan eseitta.
- Ze eitten zenduen, ba?
- Beti ibiltzen zan txorittan ta...
- Txorittan-ta, lakaridxuk-eta...
- Bai, bai, lakaridxuk eta arrato handidxak be bai. Kaidxolan barruan.
- Ta harek sokak-eta badakixu noraako zirian?
- Haurixe ez daitt. Ni ez neuan hamen ta.

10.4. Artoa irindu arteko prozesua

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/019
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:26:13. **Bukatu**: 00:27:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Arto-errotak funtzionatzen zuen Marierrotan. Artoa zelan txikitzen zuten eta zahia zelan egiten zuten azaltzen du. Ehotakoa zakuetan sartzen zuten.

Transkripzioa
- Artua beteta eoten zan han goidxan ta, klak-klak, joten dau golpia, ta hiru-lau artagarau barrura. Ta hiru-lau barrura ta hantxe. Hantxe apurtzen harri bi, bat behetik ta bestia ganetik, harridxak. Hantxe haustu, hantxe haustu harridxak.
- Ta batzutan urune fiñaua ixengo zan ta beste batzutan ez.
- Ez, gero galbahin pasau biher ixeten zan, ha nahi bazu ein... [hautsittu hori]. Ta [ha izeten] zan zahidxa, ha sobrantia, azala ta horrek, zahidxa.
- Ta hareaz ze eitten zendun?
- Harek ganaduntzako. Bueno, ha lehelengotan baserrittarrak osorik eruten daben, daon moduan. Gero baserridxen pasaten daben galbahian.
- Ta urteten daben ha uruna zakutan ipintten zenduen?

10.5. Errotarriak

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/021
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:28:56. **Bukatu**: 00:30:21

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Errotarriak zotza eta zintzelarekin pikatzen zituzten. Harriak Milloi (Berriatua) aldetik ekartzen zituzten, ez zuen edozein harri motak balio.

Transkripzioa
- Han pika? Gastaten zanian, pika hori geldi-geldi, geldi-geldi pikaten zan.
- Zereaz?
- Zotza ta zintzalaz edo pikatiaaz apurtu barik bera harridxa. Joten badozu, apurtuko da bestelan ta. Harri halaku zan, garratza.
- Ta nundik ekarten zenduen horrek harridxok?
- Horrek ein eitten daben kanteran.
- Non, ze kanteratan?
- Ba eitten daben hortxe, Milloi partetik, hortitxik eitten daben.
- Handik etozen?
- Bai, bai, hantxe. Harri diferenti ixaten zan, baltza. Besti karatxarridxa, lisotu arin eitten dana, bestia, ba, garratza. Han ipintzen zan harridxa, han ta kanalak bidxetan. Kanaletan juten zan gero eta estuo, estuo, estuo, uruna hortik zihar.
- Eta artagarauek sartzen zenduezan hori kajieri, zelan deitzen dotsazue horreri?
- Horixe ez dotsut esango. Artagaraua botata egoten zan, beteta. Ta gero holako palo batekin eitten da klak-klak, […] ta kanala, joten dabenin klak-klak-klak ta harek botaten dau artagaraue hantxe, klak-klak artagarauk jausten zirin.

10.6. Artoa eho, pisatu eta asketan gorde

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/023
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:32:04. **Bukatu**: 00:34:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Errotarriak bi izaten dira: azpikoa geldi egoten da eta goikoa mugitzen da. Artoa botatzen zenetik zelan pasatzen zen errotarrietatik. Balantzako pisua erabiltzen zuten. Bezeroak eroandakotik parte bat beraientzat izaten zen, ordainsari gisa. Irina asketan gordetzen zuten.

Transkripzioa
- Harridxa, harridxa geldi eoten zan, bat geldi eoten zan behekua; goikua ixaten zan ibiltzen zana. Goikuak. Eta eukitten ebazan, halako kanalak eukitten ebazan harridxak, lau bat edo. Ta ailleaten zanian “klank”, besti aillaaten zanin “klank”, eta artagaraua goittik behera. Han eoten zan enbudo bat, esatia modura, goittik behera sartunda.
- Bai, horixe ba, […]
- Ehun bat killo-edo.
- Zelan deitzen eutsazuen horretxeri, artua sartzen zan lekua?
- Ixena bai, baiña ahaztuta daukat nik horrek.

- Enbudo...
- Enbudua. Artagaraua, artagaraua hantxe hutsitzen zan, danari eitten eutsan klank-klank". Eta gero pixua eoten zan alderdi bidxetan, haulako pixu bat.
- Zelako pixua erabiltzen zenduan ha pixateko?
- Balantzan anegua. Eitten zan, ba, pixaten danian, honenbeste killo, ba, berrogeta hamar killo edo berrogei killo halakua. Gero kendu eitten zan bat, bost killoku-edo, harek, ha [kendu] eitten zan. Haren errestua norberentzako ixaten zan. Berrogeta hamar killori, ba, bost killo-edo, ez dakitt zenbat ixaten zan.
- Ta uruna nun gordeten zan gero?
- Bertan askan.
- Askan?
- Askan. Ta paliaaz bete zakua.
- Zenbateko askak ixaten zien?
- E?
- Zenbateko askak?
- Zenbat denporan?
- Zenbateko kapazidadie?
- Askia? [Asike] kabiduko [zien] ehun ta berrogeta hamar killo be bai, uruna. Askia, idxa, honenbestekua-edo. Honenbeste ez, baiña hamendik eta harako beste bai eta honenbeste zabaleria, eta haraxe juten zan uruna.

10.7. Malutak koltxoiak egiteko edo atunetarako

- **Hizlaria(k)**: Arrillaga Goikoetxea, Aurelio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Dolaraga, Olgi - Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-041/025
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:35:53. **Bukatu**: 00:36:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena**: Artoaren zati guztiak aprobetxatzen ziren, baita irinetarako balio ez zutenak ere: ganaduarentzako, koltxoiak egiteko edo karnatarako (atunetarako)...

Transkripzioa
- Ganaduntzako.
- Ganaduntzako.
- Soka [zaharra hartu] ta ganaduntzako, behi bi euazan ta.
- Ta, gero, malutak? Malutak?
- Malutak, behidxak jaten daben batzuk eta bestiak... koltxoia ein.
- Koltxoia eitteko.
- Etxian, etxian koltxoiantzako malutia. Leheno mollezkorik ez zan eoten, malutezkua. Astinddu ta dzanga! barrura.
- Baiña malutak be erabiltzen zirin Lekitton itsasorako?
- Bueno!
- Atunetarako.
- Atunetarako be bai.
- Eitten zirian aparidxuak-
- Bai, bai, bai. Harek itsasorako eitten zirian, malutak bigunenak apartau eta lejitan ipiñi, zuri-zuridxa eoteko.
- Eta gero?

- Gero orrazi bateaz orraztu, atunetarako.
- Malutak. Horretxeaittik deitzen jako...
- Bai, ta harek malutak, bestiak, ba, onenak aparta eta bestiak ganaduentzako-edo, jaten dabe neguan behidxak.

10.8. Errotara Guardia zibilak ikusi barik

- **Hizlaria(k)**: Atxurra Alegria, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-060/022
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:27:59. **Bukatu**: 00:29:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Hamar-hamaika urte zituela, astoz joaten zen Gizaburuagako errotara. Astoak behin egindako bidea ikasi egiten du. Guardia Zibila egoten zen bidean eta kontuz ibili behar izaten zen, bestela jeneroa kentzen zien-eta. Oletak eta Ean ere bazeuden errotak.

Transkripzioa
- Katalin: Juten giñin errotara. Pentsa, hamar-hamaika urteaz, astuaaz Gizaburuagara. Ta han goittik ikusten zan kamiñue, ta Guarda Zibillak begitu, baiña ez zan eon Guarda Zibillak, bestela kendu eitten ebezen, atrapata horrek be.
- (senidea): [...]
- K: Bai. Garidxe ez, artue-ta idxoten eruten gendun errotara ta. Ta hantxe astuaaz, hantxe, beti ni, hamar-hamaika urteaz.
- (senidea): Ta amak ze esaten eutsun? Astuek...
- K: A! Berak erakusten dabela, astuek bidie berak erakusten dabela, ta behin ikesi ezkeruen, hantxe, hantxe juten ei da, e.
- (senidea): Juteko trankil.
- Klaro, astuek behin eiñiko bidie ya badaki.
- K: Bai, bai, ei dakie, bai. Holan esaten dabe.
- Eta hemen ez zan egon beste errotarik, ala?
- K: Ez, hamen Oletan egon zan bat.
- T: Eta Gizaburuagan, Elexakua?
- K: Bai ba, horixe, Elexara ta Laixoleta. [...] harutzago be bai. Ean be eon zan beste bat. Baiña beti billurraaz.
- Ta errotara be gabaz?
- K: Ez, egunez juten giñin, e. Bai. Egunez juten giñin, baiña haixe ikari [...]. Ta akordaten jat beitzen gendun ta kamiñutan ez zan ikusten ta, ba. Gero igual segidxen ez gendun ekarten, ostera be barriro billa jun bihar, ze ordun danak....
- [...]
- K: Bai, jente asko ibiltzen zan hara, errotara, osteran ta.

11. Iritziak

11.1. Zazpi pezeta nahikoa egun eder bat pasatzeko

- **Hizlaria(k)**: Akarregi Aboitiz, Julian

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: LEK-048/022
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:23:53. **Bukatu**: 00:25:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Barrakak oraintxe legetxe egoten ziren San Antolinetan. Orduan diruak gehiago balio zuen orain baino; zazpi pezetarekin eguneko otordu guztiak egin zitezkeen jatetxe batean.

Transkripzioa
- Eta ze barraka edo ze izeten zien?
- Asko eoten zin Lekitton, autotxokik eta ontxe eoten dizen modura, umienak eta danak eoten zirien.
- Ta dirua?
- Ordun e, karo, ordun, gaurko bizixa txarrao da ordukua baiño gero. Orduko, orduen denporan, orduen denporan, zazpi pezeta, zazpi pezeta e! eitten zenduan “un banquete de categoría”, langosta artekuak eitten zirien, zazpi pezetaz e?, atara kontue. Ez dakit /eztakit/, patrikeran badaukat /baukat/ be, beralakue papela badaukat […] patrikeran, ez dakit. Hori, “pensión completa” goixin armozua, eguerdixa ta gaba kafi ta kopia ta puru ta hori zazpi pezeta, “siete pesetas”, atara kontua, harek diruk ze balixo eban. On, zazpi pezeta emon umiari, arpeixen jo segixan, zazpi pezeta emoten badeutsazu /botsazu/, segixan arpeira, emoten badeutsazu /botsazu/ zazpi pezeta.
- Eta, San Antoliñetan eta Ama Birjiñen egunien neskatan eingo zenduen ba?
- Ba baltsiuen plazan, hartu ta baltsiuan.
- Libre zan baltsiuen ettie, ez zan pekatu ala?
- Keba… baltsiue beti ein dogu /inju/ Lekitton, plazan, musiki joten ta jenti handik beira hor pillaran parata ta gaztiok ba baltsiuen, gaztiak.
-Ta nor eoten zan musikie ipintten?
- Bandia, bueno orduen hori, hondiñoko bandia formateko euan.

11.2. Itsasoko lanbideak galzorian

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/030
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:28:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Elkarrizketa garaian bi arrantza-bapore baino ez zeuden herrian; eta, ondorioz, hainbat lanbide galtzen. Lehen sare-konpontzaileek-eta nahi zuten baporera joateko ahalmena zuten, aukeratzeko adina. Hala ere, ez du nahi bere etxekoentzako lehen zuten bizimodua eta lanbidea.

Transkripzioa
- Ez dao baporik baiña, bi baiño. Bapor bi daoz ta, zer, zer egongo da ba? Lehin asko euazan. Lehin igual, eneee, akordaten jat niri egoten giñiala,

hauxe kofradidxa, badakixu nun daon, egoten giñiana. Ta etorten zirian patroik-eta sareiñetan-eta ta, baiña igual hain asko ze bata hara jun, horra jun ta itsasora jun bihar eta kontuk eoten zirian. Baiña on ya bapor biaz, bapor biaz, hori negoziuori be ya jun zan. Nik pentsatzen dot Gipuzkun-ta gehitxuo baporak be badaozen lez ta, baiña hamen ez.
- Zuk pentsatzen dozu generaziño gaztik baten batek hartuko dabela errelebua?
- Ezta pentsa be! Eta neure seme bat pe ez ez dot nahi /eztonai/ juterik. Pentsata, beste barik, hamalau urteaz itsasora jun zirila, ta on hamalau urteko umiari “jogurra jangozu? Ez dakitx zer jangozu?” gabiltzaz. Ta hamalau urteaz jun zirila itsasora, hamabost egun-ta atunetan eitten ebezen modura. Koittaduk, hamabost urteaz ta hamalau urteaz ta. Ordun holantxeik zalako. Baiña nik neuk... Niri jun jaten itsasora bat, zaharrena. Bigarrena, urten ebanian eskolatik, Zesarianeko kabanara, Ramon trabajadoreaz, haratxe jun zan biharrian. Hirugarrena eta laugarrena, zestalaridxak, harek Ameriketara jun zirian. Ta bosgarrena Santutxun dao neskiaz.

11.3. Arrantza herrien gainbehera

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/032
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:28:43. **Bukatu**: 00:29:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Gaur egungo Lekeitiok ez dirudi Lekeitio. Baina Lekeition bezala beste arrantza herriak ere berdin daude.

Transkripzioa
- On baiña baporik eta, horretxek baporok pentsaten dozu denporia eingo dabela? Kalamuan danak dizelako etxekuak, patroik, motorista, deitzeku, danak dizelako, baiña, bestelan, pentsa be ez. Horrek ez dabe eingo denporarik. Neutzat, e? Ez dakitt.
- Ta ez dotsu emoten penarik?
- Klaro emoten nabena! Ez dotsut esaten, ba, ez dotela pentsaten Lekitto danik be, ba? Klaro emoten nabena penia, baiña... Ta edonun, e! Zer? Laredo ta Castro, ta San Juan de la Arena, ta horretatik eta danetatik, San Estebanen eta horretan ta danak eguazan baporak, baiña on nun daoz? Gipuzku partetik daoz daozenak eta, bestelan, ez dao. Geruo gitxio, kontixu.

12. Ekonomia eta industria

12.1. Ezin erretirorik kobratu

- **Hizlaria(k)**: Aboitiz Atxabal, Bitoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Leniz, Jokin - Zugadi, Aitor
- **Erref**: LEK-051/020
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:16:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
  Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Nahiz eta urte askoan egin behar ez du erretirorik kobratzen. Senarraren erretiroari esker bizi dira.

Transkripzioa
- Jubila? Jubila, zetako jubila? Nik ez dot kobraten sobirik be ta. Makiña bat urte egin neban biharra baiña. Neure gixonak be esan eutsun hori, ezta? Ze Salbadorrek esan eustan niri hori ta. Esan neutsan, ze eske neuri be esango nabe baiña, sekula ez dot kobra dirurik; pezeta bat be ez. Horretxegaittik, kontixu, Jangoikuak emon nau gixona urte askun bizitteko jubilaziñoiaz, bestelan ia aber ze ein bihar genduan; ”Es así!”. Filetian, hor, burua kentzen, enpakaten, moillara, gero barruna, eta gero hartzen ebenian antxobia be, “a la hora que era”, gatza emoten, igual goixin-goixetik gabera artian. Holantxik.
- Ondo. Orduan, Bitori, eukiko dozu anekdotaren bat edo istoridxoren bat graziosua edo zeozer kontateko ba? Pasako jatzuzen hainbeste gauza ta.
- Zertzuk gauza? Ze anekdota? Zertzuk, zertzuk? Eukitten gendun astirik be ezetako ala? Arin-aringa! Hoinbeste umeaz, imajinaten zara? Interiña be bai, edonora juten nitzan libre neukan egunian.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Abadea abesti bat entzunda aztoratu zenekoa (LEK-002/054)

Dotrina abadeekin ikasi zuen euskaraz. Lehen jaunartzea ere euskaraz egin zuen don Antonio Atxurrarekin. Behin abadeari kantatu zioten abesti bat kantatzen du, "Urtebarri barri, txarri belarri...". Abesti horrekin abadea aztoratu egin zen, antza, eta pezeta bikoa eman zion gehiago inon abesti hura kanta ez zezan.

2. Jaunartze txikia eta lehen jaunartzea (LEK-002/055)

Lehen jaunartzea hamar urterekin egin zuen, baina aurretik jaunartze txikia, zazpi urterekin. Lehengusinaren soineko batekin egin zuen lehen jaunartzea. Jaunartze txikia, aldiz, edozein domeketako arroparekin egiten zuten. Mutilekin batera egiten zuten, baina ez ziren elkarren alboan jesartzen.

3. Ezkontza eta osteko bidaia (LEK-002/057)

Soineko beltzarekin ezkondu zen, denak ezkontzen ziren beltzez. Ez zuten banketerik egiten, gaileta batzuekin konformatzen ei ziren. Ezkon-bidaian Bilbora eta Donostiara joan ziren. Izekok 10 (50 pezeta) ogerleko eman zizkion eta osabak 30 ogerleko (150 pezeta), garai hartarako diru asko.

4. Izurritean hildakoak (LEK-002/059)

Hileta-elizkizunak beti ezagutu ditu arratsaldez. Bere amak kontatu zion, behin, gripe handi bat egon zenean, gorpuak arrastaka eraman zituztela, tartean baita oraindik bizirik zeuden batzuk ere.

5. Hildakoen kanpai-hots motak (LEK-002/061)

Gizonezkoa hiltzerakoan sei kanpai jotzen ziren; andrazkoa izanez gero, zazpi; eta, umea hilez gero, txilinak.

6. Nesken jolasak (LEK-002/064)

Umetako jolasak: "prima segundaka", sokasaltoan, torlolosak (tabak), intxaurrekin txoloka... Jolas horiek azaltzen ditu.

7. Katuak zituen "sorgina" (LEK-002/085)

Dei egiten zihoala, arrantzaleei itsasora joan zitezen abisatzera, katu asko zituen sorginaren antza zuen emakumea ikusi zuenekoa kontatzen du, asko ikaratu zen.

8. Zinean larri eta estu txiklea irenstearren (LEK-006/011)

Sasoi berekoak zirela uste du Goraburu eta Beitia zinemak. Gogoan du lehenengo koloretako filma, "La Pandilla". Txiklea irentsi zuen nahi gabe eta anaiak beldurtu zuen esanez hil egingo zela. Etxera joan zirenean amak errieta egin zion anaiari.

9. Ezagutu dituen ta talaiazainak (LEK-006/015)

Gogoan dituen talaieruak: Manuel, Leandro, Anton... Talaierua ez zen talaian bizi, baina bazuen sukaldea eta jateko tokia. Begoñak nahiago du lasterbidetik igotzea. Aurten ere izan da talaian.

10. "Ai, Lekeitio, bonito pueblo" (LEK-006/017)

Oso kantaria da bera. Taldean kantatzen zuten. Letrak asmatu eta musika jakin bati egokitzen zizkien nebak. Gogoan du bat: "Ai, Lekeitio, bonito pueblo, eres lindo desde que te conocí..."

11. Salbokonduktoa (LEK-006/054)

Salbokonduktoa oraingo karneta bezala ei zen. Gordeta dauka bat etxean, paper bat da datu pertsonalekin. Herritik kanpora irteteko zen beharrezkoa.

12. Etxerik etxe marinelei dei egiten (LEK-006/055)

Etxerik etxe deiak egiten ibiltzen zen Begoña. Zarata asko ateratzen zen, batetik zurezko oinetakoak erabiltzen zirelako eta bestetik aldabak hots handia ateratzen zuelako.

13. Ontzi berriak bedeinkatu ondoren, monjorra, otordua (LEK-006/057)

Barku berri bat egiten zenean ontziolan, bedeinkatu egiten zuen abadeak. Ereinotz adar bat ipintzen zitzaion. Langileek otordua egiten zuten, "monjorra".

14. Amaren ardurak eta lanak jaunartze arropak aurkitzeko (LEK-006/059)

Eskola zein dotrina erdaraz jaso zituen, monjetan. Asko kosta zitzaion amari jaunartzea egiteko arropak eta zapatak bi ahizpendako aurkitzea. Lehenengo jaunartzerik ez zuen egin.

15. Bermeora ihesi gerra denboran (LEK-010/002)

Hiru urte zituela sortu zen gerra. Bermeora eraman zituen amak gerra denboran. Gernika ketan zegoela itzuli ei ziren; italiarrak sartu berri ziren Bermeon. Anai-arreba asko ziren.

16. Ume eta gazte denbora txarra pasatutakoa (LEK-010/003)

Gerraosteko miseriak: janik ez, zorriak, botikak falta... Ume-denbora eta gazte-denbora txarra pasatu zuen. Gerraosteko gabeziek asko iraun zuten. Frantzia eta Alemania askoz ere azkarrago eta hobeto errekuperatu ziren beren gerratik.

17. Maisu errioxar makila zalea (LEK-010/005)

Maisua, errioxarra, gaiztoa ei zen. Makila erabiltzen zuen arin. 70 ikasle zituen. Lau erregela, "kebraduak", eta kito. Pizarratxoa erabiltzen zuten idazteko. Libururik ez. Mapa bat horman eta santuak gura adina. Herriko eskolan ibili zen. Cara al Sol kantatzen zen sarreran eta irteeran.

18. Atxilotuak eta fusilatuak Lekeition (LEK-010/006)

Gogoan du barku bat etorri zela portura presoekin. Jende asko eraman zuten kartzelara. Fusilatuak ere izan ziren Lekeition, Damaso Leturiaren aita eta Malaxenekoa, esdaterako

19. Heriotza-zigorra eta behartutako lanak (LEK-010/008)

Heriotza-zigorrarekin egon ziren lekeitiar asko. "Trabajadoreetan" hainbat urte ibili ziren. Berak ezagutu dituen batzuk izendatzen ditu behartutako lanetan gerraostean ibilitakoak. Lagun batek esaten zion belarra ere janda zegoela gosearen gosez.

20. Baserritarrei esker iraun zuten gose denboran (LEK-010/009)

Errazionamendu kartillaz ondo gogoratzen da. Azukre beltza ematen zuten, findu gabekoa. Eskerrak baserritarrei. Garia denek hartzen zuten; ogia eta esnea ekartzen zuten, arrainaren eta diru apur baten trukean. Zezina ere egiten zen baserrietan, gatza emandako okela.

21. Eguneko arrantza egiten zen gurasoen denboran (LEK-010/010)

Sasoi hartan eguneko arrantza egiten zen Lekeition. Artean ez zegoen hozkailurik eta horrelakorik. Atunetan Santander aldera jotzen zuten gurasoen denboran, baina egunero itzultzen ziren portura. San Vicente de la Barquera, Ribadesella...

22. Eguneko arrantzatik astebetekora (LEK-010/011)

Bera itsasoan hasi zen sasoian baziren hozkailuak. Atunetan sei-zazpi egun egiten zituzten itsasoan. Neguan bisigua hamar bat milatara harrapatzen zuten. Gerora, barku handiak egin ziren. Hogei mila kilo eta hartzen zituzten. 22-23 metrokoak ziren.

23. Bermeo eta Lekeitiotik Senegalera arrantzara (LEK-010/012)

Senegal aldera joaten hasi ziren neguan, enpresa-gizon kanariar batek kontratatuta. 23 barku joan ziren 1959an sei hilabeterako, hogei Bermeokoak eta hiru Lekeitiokoak. Kanarietatik eramaten zieten janaria eta izotza. Hantxe zeuden Senegalek independentzia lortu zuen egunean, 1960an.

24. Kanarriarrei saltzen zieten arraina hasieran, kaliforniarrei gero (LEK-010/013)

Sierra Leonan kokatuta zegoen enpresa kaliforniar bat jarri zen eurekin harremanetan Senegalen. Hobeto ordaintzen zieten kanariarrek baino, dirua eskura gainera, eta handik aurrera hari saltzen zioten dena. Harrezkero beste kanpaina pare bat egin zuten modu berean.

25. Barkuek ez zuten orientazio tresneriarik (LEK-010/016)

Ondarroako eskolan ikasi zuen patroi karrera. Orduan barkuek ez zuten tresneriarik, sextante batez konpondu behar non zeuden jakiteko. Portura sartzeko ere asko arriskatu behar.

26. Bisigutara neguan kaletara (LEK-010/017)

Bisiguaren kalak non zeuden oso ondo zekiten aurreko zaharrek. Mendiei begira orientatzen ziren, Anbotara, esaterako. Hainbeste mila barrura. Beren izenak zituzten kalek. Itsasoak 120 eta 160 braza arteko sakonera zuen lekua egoten zen bisigua.

27. Azarotik urtarril amaierara bisiguaren sasoia (LEK-010/018)

Azaro azkenalditik urtarril azkeneraino harrapatzen zen bisigua. Pentsatzen du geroago ere harrapa zitekeela, baina ordurako karnata hondatuta egoten zenez, ezin. Gero frogatu zen amu eta karnata onarekin apirilera arte harrapa zitekeela bisigua.

28. Elantxobetik Igeldo bitartean bisigua (LEK-010/019)

Elantxobetik Igeldo bitartean harrapatzen zen bisigua, 10-12 miliatara, pare bat orduko bidean joanda. Bermeo, Lekeitio, Elantxobe, Mutriku eta Getaria ziren bisigura dedikatzen zirenak. Ondarroarrak ez. Arrain asko zegoen sasoi hartan.

29. "Seiñeruak" itsasoaren egoera aztertzen zuten gizonak (LEK-010/020)

Kofradiak ordaindutako bi gizonek zaintzen zuten itsasoaren egoera, barometroari begiratuta eta abar. "Seiñeruak" esaten zitzaien. Girorik ez bazen ez ziren arrantzara irteten. Goizean goiz kalez kale marinelei deitzen ibiltzen ziren ardura hori zutenak, andreak normalean,

30. Esku-sunda sakonera jakiteko (LEK-010/021)

Soka luzeari burdina bat,'kandelejua', lotu eta hura erabiltzen zen sunda gisa itsasoaren sakonera jakiteko. Sakonera egokira heldutakoan hasten ziren arrantzan.

31. Lau ontziola Lekeition (LEK-010/023)

BI ANAIA zuen izena euren gurasoen barkuak. Gerra aurrekoa zen. Herrian egindakoa; lau ontziola zeuden Lekeition. Barku asko egiten zen. Beharginak baserritarrak ziren asko.

32. Ikatzezko barkuak (LEK-010/024)

Ikatzezko baporeak ere ezagutu ditu mutikotan. Bikote bat ezagutu zuen neguan arrastean egiten zuena. Bera baino lehenagoko sasoietan ugari ziren ikatzezko baporeak.

33. Julianen aita portuan ito (LEK-010/025)

Julian Akarregiren aita, barkuko patroia, 1951ko abenduaren 28ko gauean ito zen Lekeitioko portuan. Denborale beldurgarria irten zen, herrian argiak joan ziren, eta bere barkua salbatu nahirik zebilela itsasoak eraman zuen. Ez zen haren arrastorik gehiago izan.

34. 1964ko ekaitz ikaragarria portuan (LEK-010/026)

1964an ekaitz ikaragarria izan zen. Haizerik ez zegoenez, jendea ez zen konturatu. Itsasoa modu beldurgarrian harrotu zen eta eskerrak marinelak laster esnatu ziren eta beren barkuak ondo lotu zituzten.

35. 1964an hogeita zortzi barku handi Lekeition (LEK-010/027)

1964an 28 barku zeuden Lekeition, denak 200 zalditik gorakoak. Lumetza eta Otoio barku bereziei buruzko xehetasunak. Kalamua zen eurena; 63an estreinatu zuten. Zumaian motorrak egiten zituzten hiru enpresa zeuden.

36. Irlandako portuetara "arribadan" (LEK-010/028)

Hogeita hiru urterekin patroi ikasketak egin zituen eta harrezkero patroi ibili zen jubilatu arte. Arrastean ibili zen lehenengo. Titulua hartu eta lehen bidaia Irlandara. Hirunaka ibiltzen ziren, bi ontzi arrantzan eta hirugarrena arrain garraioan. Irlandako portuetara sartu ohi ziren "arribadan", itsaso txarrak behartuta. Bantry, Valentia... paraje pobreak ei dira.

37. Kalamua ontzia eibartarrei erosi zieten (LEK-010/030)

1980an erosi zuten Kalamua barkua. Eibarko Astelena pilotalekuko jabeena zen, Bidartetarrena. Beste sozio batzuk ere baziren, tartean Garate futbolistaren aita.

38. 'Pelotarixa' barkuaren ezizena (LEK-010/032)

Kalamua zen barkuaren izena, Pelotarixa ezizena. Ohitura zegoen barkuaren tximinian irudiren bat pintatzeko, eta pilotaria zuen eurenak, Eibarko pilotazaleei erosia zelako.

39. Motor fabriken arteko konpetentzia (LEK-010/033)

Konponketak egin zizkioten erosi berritan barkuari. Beranduago, motorra aldatu eta abar, Zumaian. Zumaiako motor enpresak desagertu egin ziren eta berria sortu, Guascor. Bermeon ere hasi ziren motorrak egiten. Gero atzerrikoen konpetentzia etorri zen.

40. Karga-ontziak (LEK-010/034)

Lekeition baziren karga-ontziak ere, "kosteruak". Asturias aldera egurra, porlana, sagarra eta abar eramaten zuten eta handik ikatza ekartzen. Bi barku handi ikatz garraioan ibiltzen ziren "Altos Hornos"era. Gatza ere ekartzen zuten Cadiztik. Txakartegitarrek barkuak eta gatzagak zituzten.

41. Barku eta etxeetarako ikatzaren banaketa (LEK-010/036)

Txakartegitarrak gatza ekartzen zuten Andaluziatik. Gero kamioi txikietan kargatu eta behar zen lekura eramaten zuten. Ikatza edukiontzi handi batean pilatzen zen kaian; handik hartzen zuten barkuek. Biltegi bat ere bazegoen, eta handik saltzen zen etxeetara.

42. Pinu-koskor bila basora (LEK-010/038)

Pinu-koskor bila ere joaten ziren basora mutikotan goitibeherekin. Pinuak ondo egiten du su.

43. Karga-ontzi batek kai sarreran hondoa jo (LEK-010/040)

Bere begiekin ikusi zuen zelan geratu zen karga-ontzi bat azpian jota isla parean. Harrikatza zekarren. 120 tona hustu zituen jendeak, uretan gerriraino sartuta. Busti arren berdin egiten du su. Barkuko tripulazioa zeintzuk osatzen zuten.

44. Isuntza, Karraspio, Ondarzabal... hondartzen izenak (LEK-010/042)

"Amanderri" (Amandarri?) du izena portu sarrerako farolak eta haren inguruak. Isuntza eta Karraspio hondartzek. Ondarzabal ere esaten diote batzuek Isuntzari.

45. Barkuaren parteak eta osagarriak (1) (LEK-010/044)

Barkuarean parteak. Goian: puentea, 'guardekalorra', sukaldea, komedora... Azpian: kamarotiak, katriak, kamaiñak. Atzean: neberak, biberoak, makinak, manparoak...

46. Barkuaren parteak eta osagarriak (2) (LEK-010/045)

Amura, branka, popa... Popatik haizeak jotzen duenean, ondo, brankatik jotzen badu, gaizki. Atzerago beste nebera bat eta gasolio tankeak. Hotza egiteko makinak.

47. Izotza beharrezkoa da barkuan (LEK-010/046)

Elurra (izotza) beharrezkoa du arrainak. Gainera gozoagoa egoten da. Hotz lehorra ez da aski.

48. Frantsesak eta barometroa eguraldiari igartzeko (LEK-010/047)

Frantses irratiek ematen zuten ondoen eguraldiaren berri. Barometroa bazuten. Asko jaisten bazen ez ziren itsasora irteten. Baina ezin jakin non zegoen borraska edo antizikloia.

49. Haizerik onena, arrainaren norabidean datorrena (LEK-010/048)

Haizearen norabidea inportantea da sarez arrantzatzeko orduan. Haizerik onena arrainaren norabide berean datorrena.

50. Haize klaseak (LEK-010/049)

'Norteko haizea', 'iparra' (ipar mendebalekoa), 'erreka haizea' (hego-mendelakoa),'ipar baltza' (hotza, ekialdekoa, Bordele inguruan jotzen duena, esaterako), 'terrala', lehorretik jotzen duena.

51. Ilargia, lainoak eta barometroa (LEK-010/050)

Iretargiari asko begiratzen zioten lehengo zaharrek. Eguraldi onarekin jaiotzen bazen, onarekin jarraitzen ei zuen. Lainoei ere begiratzen zitzaien.

52. Itsaso barea eta galarrena (LEK-010/052)

"Bare" edo "kalma zurixa" olaturik ez dagoenean. 'Mendebala', 'erreka-hazia'. Ez dakite ziur zergatik sortzen den galarrena. Matxitxako aldean laino beltza ikusten denean, galarrena datorren seinale.

53. Itsas txoriak, arrantzaleen lagunak (LEK-010/053)

'Txirriña' izeneko txoriak (zuria) berehala ikusten du atuna. 'Martiñak', beltza, ere bai. "Santzia" esaten zaio Lekeition kaioari.

54. Hegaluzeak eta martinak Azores aldean lehendabizi (LEK-010/054)

Kalatxoririk ez da ia ikusten. Gozoa da jateko. Martina ere bai. Honek atuna detektatzen du. Azores aldean ikusten dira asko. Kanada aldetik ei datoz. Izkira (gril) orbanak ikusten dira han. Hegaluzea Azores aldean detektatzen da lehendabizi.

55. Izurdeak arrantzaleen gidari (LEK-010/055)

Antxoa, txitxarroa, berdela... urrunera ikusten dira. Izurdeekin orientatzen ziren arrantzaleak, arraina jatera etortzen baitira urrundik. Arraina azaleratzen laguntzen zuten eta orduan harrapatzen zuten sarez. 'Koplia' esaten zaion hegaztiak ere egiten du arrantzan, bala bat bezala murgilduz.

56. Kupoari aurre egiteko trikimailuak (LEK-010/057)

'Konpañiak', barku-taldeak, sortu ziren. Kupoa zegoenez, barkuek elkarri pasatzen zioten soberako arraina.

57. Karnata eta arrainaren adurra (LEK-010/058)

Karnata egiteko antxoa txikia erabiltzen zen. 'Arkadan' gordetzen zen. 'Adurra' deitzen zaio arrainek larruan duten sustantzia labainkorrari. Hondoko arrainek gehiago izaten dute.

58. Traganarrua, haize-zurrunbiloa (LEK-010/059)

'Traganarrua' esaten zaio haize-zurrunbiloari. Hemengo itsasoetan ez dira arriskutsuak izaten. Pertsona jatunari ere esaten zaio traganarrua.

59. Alga biltzaileak (LEK-010/060)

Lekeition batzuk dedikatu izan dira kostan algak biltzera. Donibane Lohizunen, Donostian eta Kantabria aldean ikusi du batez ere alga bilketa. Alga gorria.

60. Bermeotarrekin harremanik onena (LEK-010/061)

Bermeotarrekin konpondu izan da ondoen itsasoan. Elkarrekin egon ziren Afrikan. Giputzekin ez hain ondo; oso berekoiak ziren. Santandertarrekin ez du ezer jakin nahi. Gailegoekin ez du hartu-emonik izan.

61. Behe-lainoaz larri itsasoan (LEK-010/062)

Itsasoan hasi zenean ez zegoen ez irratirik eta ez ezer. Beste ontzi batzuen keaz orientatzen ziren askotan. Konpasaz konpontzen ziren non zeuden jakiteko. Behe-lainoaz larri ibiltzen ziren. Sirena jotzen zuten bost minututik bost minutura, eta aurrean mutilak adi egoten ziren.

62. Lehorreko irratien bidez orientatzen ziren gehienbat (LEK-010/064)

"Gonio" esaten zaion aparatuaz orientatzen ziren. Lehorreko irratien uhinak nondik zetozen adierazten zuen, eta kalkulu batzuk eginez asmatzen zuten zein zen portu jakin batera zuzentzeko norabidea. Lekeitioko portura lainoarekin sartzeko komeriak. Ez zuten radarrik izan 1972ra arte.

63. Venezuelako espedizioaren porrota (LEK-010/066)

Venezuelara joan ziren hainbat herritako barkuak 78an. Baina ez zuten arrakastarik izan. Ez zekizkiten hango trikimailuak eta zorrak eginda itzuli ziren. Urte hartan antxoa asko egon zen Kantauri Itsasoan.

64. Kofradiako langileak (LEK-010/068)

Kofradian idazkariak eta pare bat bulegarik egiten zuten lan; bazen errekaduak egiten zituen gizon bat ere, besomotza. 'Benterua' ere bai, salerosketez arduratzen zena. Dena berbaz egiten zen. Goitik hasi prezioa eta jaitsiaz joaten zen poliki-poliki. Andaluzian eta Kanarietan bitartekari bat egoten zen kanpotik heldutako barkuen gorabeherak eramaten zituena.

65. Arraina subastatzeko sistema berezia Lekeition (LEK-010/070)

Kanpoko barku asko sartzen zen Lekeition arraina saltzera, galiziarrak eta abar. Subasta, errematea, egiteko bonbo bat zegoen kofradian. Erosle bakoitzak bere aulkian botoi bat zeukan, behar zuenean sakatzeko. Bola bat irteten zen. Sistema azaltzen du.

66. Mahoizko arropak marinelen uniformea (LEK-010/072)

Mahoizko arropak, jertse beltza eta jake lodia zen Lekeitioko arrantzaleen uniformea. Eskularrurik ez. Udan sudurra gorrituta eta azala joanda izaten zuten.

67. Frantzian helikopteroa norbait gaixotzen zenean (LEK-010/073)

Norbait larri gaixotzen zenean, hurbilen zegoen portura eramaten zuten. Frantzian arreta ona zegoen. Helikopteroa ere jartzen zuten behar zenean.

68. Itsasoko legea norbait hiltzen denean (LEK-010/074)

Itsasoko legeak dio norbait lehorretik hogeita lau ordura baino urrunago hiltzen bada, errezoak edo dena delakoak egin, bildu, lasta jarri eta urpera bota behar dela. Behin euren barkuko marinel galiziar bat hil zen, baina portura ekarri zuten hilotza.

69. Sobredosiak jotako marinela Frantziara helikopteroz (LEK-010/076)

Bordele inguruan zebiltzala, sobredosiak jota utzi zuen beren barkuko marinel bat, eta frantsesek helikopteroz eraman zuten. Han bere onera ekarri eta etxera itzuli zuten.

70. San Pedroak, arrantzaleak herrian egoteko eguna (LEK-010/078)

San Pedro eguna ospatzen zen etxean hurbil zebiltzanean. Baina akordioa egin zuten gero: San Juan eguna baino lehen irtenez gero itsasora, baimena zegoen san Pedro eguna itsasoan igarotzeko.

71. Erlijioari lotutako errito gutxi barkuan (LEK-010/080)

Berak ez du izan santurik eta horrelakorik barkuan. Barku berria egiten zenean, abadeak bedeinkatzen zuen. Antzinako zenbaitek errezoak egiten zituzten eguzkia irteten zenean. Estutasunak pasatutakoa da portura sartzerakoan, baina ez da goikoaz akordatu izan.

72. "Bagea" eta tsunamia (LEK-010/081)

Bagea olatu handi eta zabala da. Lau etorri ohi dira elkarren segidan, bigarrena handiena. Ez du arrisku handirik ontzi txikientzat, baina bai zama-ontzi luzeentzat. Erresaka eragiten du. Ur handitan tsunamiak ez du minik eragiten; beste gauza bat da kostara heltzen denean.

73. Dinamitaz portua sakontzen (LEK-010/082)

Dinamitaz portua eta sarrerak sakontzen jarduten zuten, dragatzen. Buzoak konpresore batez egiten zituen zuloak haitzean. Modesto buzoaren izena.

74. Elur-fabrika (LEK-010/084)

Elur-fabrika betidanik egon da Lekeition. Antzina gutxi erabiltzen zen, neberadun ontziak egiten hasi arte.

75. Arto-maluta karnata gisa atunetarako (LEK-010/085)

Ehizan (kazan) arrantzatzen zuten antzina atuna, amuei arto-maluta jarrita. Arrainak pentsatzen du arrain txikiak direla eta heldu egiten dio. Sistema horri buruzko xehetasunak. Lejiatan edukitzen zen arto-maluta zuritu zedin.

76. Sareak tindatzen (LEK-010/087)

Sareak harizkoak ziren 61-62rarte. Gero etorri ziren nylonezkoak. Tindatu egiten ziren urtean behin edo birritan. San Pedropean zegoen tindategia. Nola tindatzen diren. Gogortu egiten ziren sareak eta sokak tindatuta. Sareak astero atera behar izaten ziren lehortzera, bestela usteldu egiten ziren.

77. Diruak egin itsasoan aurkitutako kautxuarekin (LEK-010/089)

1942an, II. Mundu Gerran, urpeko alemaniarrak ibiltzen ziren Kantauri itsasoan. Estatu Batuak gerran sartu ziren eta material asko bidaltzen zuten Europara zama-ontzietan. Urpeko alemanek hondoratu zituzten haietako asko eta tartean kautxua zekartenak. Kautxu-xaflak ziren, ondo prentsatutakoak. Arrantzaleek "goma" haiekin diruak egin zituzten.

78. Itsasoan aurkitutako koipe barrikak (LEK-010/090)

Bermeotarrek koipe-barrikak aurkitu zituzten itsasoan, zama-ontziei galdutakoak hauek ere. Produktu ona ei zen; Bermeora senideen etxera joaten zenean harekin prestatutako patata frijituak jaten zituen.

79. Hidroiabioia aurkitu eta Lekeitiora ekarri (LEK-010/091)

Lekeitiarrek hidroabioi alemana aurkitu zuten itsasoan II. Mundu Gerra sasoian. Lotu eta herrira ekarri zuten. Kantak eta dena atera zioten. Ez ei zuten harekin diru asko atera.

80. Gomak zelan batu zituzten, 21 tona guztira (LEK-011/008)

Gomak zeramatzan ontzia hondoratu zela jakin zutenean, hasieran aitak esan zion ez pentsatzeko horretan. Baina gero, laguntzaileak aurkitu ostean, aita ere gehitu zitzaien. Gomak zelan batu zituzten kontatzen du. 21 tona batu zituzten. Inguruetako beste arrantzale asko ere bili ziren batzen.

81. II. Mundu Gerrako itsaspekoa ontzi azpian ezkutatuta (LEK-011/010)

1945. urtean Pasaiara joan zen motorista. Sasoi hartan Frantzia aldean II. Mundu Gerra zegoen. Bertako abioiek interferentzia egiten zutela-eta, handik erretiratzeko eskatu zieten, itsaspeko (submarinoak) alemaniar bat beraien ontzi azpian ezkutatu baitzen. Hasieran, ez zieten kasurik egin, baina gero erasotu egin zieten.

82. Santoñatik Lekeitiora bueltan; Euzkadiko dirua (LEK-011/012)

Bera aitarekin egon zen Bilbon gerra sasoian, etxeko gainerakoak Frantzian zeuden bitartean. Euzkadiko dirua zelakoa zen azaltzen du. Santoñan harrapatu zituzten eta baporeko ikatza kendu zieten.

83. Gauez arrantzatzen, "txartaran" (LEK-011/015)

Bere aita-eta arrantzan joaten zirenean, egunez joaten ziren. 1948 inguruan hasi ziren gauez arrantzatzen, "txartaran". Gero galarazi egin zuten gauez arrantzatzea; fabrikatzaileek zioten gauez harrapatutako antxoa belztu egiten zela. Marmoka garaian hartutakoak ere, maiatza aldean, ez zuen balio latarako.

84. Ardora eta geldua (LEK-011/016)

Gauez ardora egiten da itsasoan, arraina non dagoen erakusten duena. Geldua ere egoten zen, baina azken urteetan, Prestigen hondamenditik, ez da ikusten. Geldua uraren gainean sortzen zen eta arrainak azpian egoten ziren. Beraien ardura bakarra etxerako ogia lortzea zen, oso garai gogorrak bizi izan zituzten.

85. Arrantza-sasoiak (LEK-011/024)

Udaberrian antxoatan ibiltzen ziren; gero, atunetan; eta, neguan, bisigutan eta papardotan. Papardo asko egoten zen, ontzi bakoitzak 15-20 tona harrapatzen zituen.

86. 21.000 kilo bisigu (LEK-011/025)

Bisigua zen estimazio gehien zuena. 1966. urtean, 21.000 kilo bisigu harrapatu zituzten anaiak eta berak.

87. Salmentak "presiñoka" (LEK-011/026)

Salmentak "presiñoka" egiten ziren. Otzarek 60 kilo zituzten, 6 "presiñoi": 10 kilo "presiño" bat zen. Antxoetarako lehenengo otzarak erabiltzen zituzten eta gero 19 kiloko "meridiak" hasi ziren erabiltzen.

88. Arrain-salmenta (LEK-011/027)

Lekeition arrain asko saltzen zen, 10-11 fabrika inguru zeuden. Kofradian egiten zen salmenta enkante bidez. Arrain gehiena arroka saltzen zen; atuna, ostera, kintaleka. (Arroa: 12.5 kilo; kintala: 50 kilo).

89. Don Julian, arrantzaleen maisua (LEK-011/029)

Deskargan askotan eurak arrantzaleak aritzen ziren. Arrantzale moduan ibili ostean, 18 urterekin motorista hasi zen. Don Julian maisuarekin patroi eta motorista asko atera ziren; Pedro Juan era berarekin hasi zen.

90. Panpinen ordez harriak (LEK-012/003)

Umetan ez zuten ezta panp¡nik ere. Panpinen ordez harriak erabiltzen zituzten, haiei jartzen zizkieten arropak; gero eta harri handiagoa hobe. Lekeitiotik Kurtzia partean ibiltzen ziren.

91. Mojak: debaldekoa edo ordaintzekoa (LEK-012/007)

Mojen eskolan ordaintzen zutenak zein debaldekoak egoten ziren, bera debaldekoan egon zen. Kategoria ezberdintasunak egoten ziren ikasleen artean. Behin moja bati amonari ostutako xaboi bat oparitu zionekoa kontatzen du.

92. Mojetan, txiza aldean (LEK-012/008)

Moja askoren izenak gogoratzen ditu: Sor Nila, Sor Teofila, Sor Josefina, Sor María... Eskolako lagun bati gertatu zitzaion anekdota kontatzen du: komunerako baimena eskatzen zutenean, askotan ez ziren komunera joaten, eta komunerako baimena hirugarrenez eskatu zuenean, benetako larriarekin, ez zioten utzi eta aldean egin zuen txiza.

93. Ogi-banatzaile (LEK-012/011)

16 bat urterekin hasi zen ogi-banatzaile etxerik etxe Atea portaleko "Viuda de Telleria"n. Hasieran, buruko otzaran eramaten zituen ogiak; gerora, eskuko gurdia izan zuen. Ogiak pisu zehatz bat izan behar izaten zuen, bestela isuna egoten zen.

94. Dendak; arropa gutxi (LEK-012/012)

Lekeition denda asko zeuden, lehen ez ziren kanpora joaten erosketak egitera: Mendexaneku, Isidraneku, Enterradoreneku... Arropa gutxi izaten zuten, eta muda onenak medikuarenera joaten zirenerako gordetzen zuten, badaezpada ere. Beraiek gaur egungo umeak baino bihurriagoak zirela dio.

95. Dzanga portura (LEK-012/013)

San Pedro egun batean, mutil batek uretara bultzatu zuenekoa kontatzen du.

96. Neba "Valle de Mena" baporean hilda (LEK-012/017)

Frantziako kostan Bilboko "Valle de Mena" baporean hildako 17 gizonetatik bat bere neba izan zen, burdinazko bobinak zeramatzaten eta kargak buelta eman zien. Sekula ez zuten gorpua aurkitu.

97. Gerratik babesteko moduak (LEK-012/020)

Gerran 7 urte zituen. Amorotoko Abitaga baserrian igaro zuen gerra sasoia, handik ikusi zuten Gernikako bonbardaketa. Lekeition Kalbarioko kobazulora joaten ziren. Babeslekuak zakuekin egiten ziren. Bere edadeko ume bat hil zutela gogoratzen du.

98. Goserik ez (LEK-012/022)

Gerran ez zuen goserik pasa, ez zitzaien ezer falta izan, baserrian bizi baitziren. Bere amama txerri-gobernuan ibiltzen zen, eta handik ere lortzen zuten janaria. Baserri hori kalean zegoen baserri bakarra zen. Sekula ez zen baserriko lanetan aritu.

99. Telazko panpinak, marroka, astorik mandoka... (LEK-012/023)

Telazko panpinak izaten zituzten umetan, jostunek ematen zizkieten telak. Mutilekin marroka eta astorik mandoka ibiltzen ziren. Txikotarekin ere jolasten ziren.

100. Abarketak (LEK-012/027)

Herriko jaiak oso alaiak ziren. Ogi-banatzaile zebilela abarketak erdi apurtuta zituela gomutatzen du, gizon batek abarketa berriak erosi zizkion Eulogioren dendan. Gizon hori oso eskuzabala zela. Dantzan aldean zituzten oinetakoekin egiten zuten.

101. Paparroia, hondartza (LEK-012/032)

Kretonazkoa izan zen izan zuen lehenengo paparroia (bainujantzia). Bere izekok egin zion. Askotan lantegitik irteterakoan hondartzara joaten ziren atun usaina kentzera. Paparroia ez zuena azpiko gonarekin sartzen zen uretara.

102. Karabineroak eta Guardia Zibilak (LEK-012/033)

Karabineroak kanpotarrak ziren, baina etxeko egin ziren. Guardia Zibilen kuartela non zegoen azaltzen du: Ondarroarako bidean eskumatara, kobazuloaren ondoko etxeetan. Karabineroak eta Guardia Zibilak bat egin zuten. Karabineroak portuko etxola batean egoten ziren.

103. Errazionamendua; "tipo único" tela (LEK-012/034)

Gerraostean jende asko ibili zen estraperloan. Errazionamendura txarteltxoarekin joaten ziren, eta hura bukatu ostean, berriaren bila joan behar izaten zen udaletxera. Tela hartzeko ere ilara egin behar izaten zen. Tela "tipo único" zen, zeru kolorekoa, Hijas de María kongregazioren kolorekoa.

104. Gerra hasierako oroitzapenak (LEK-014/034)

Nazionalak sartu zirenekoa zelan gomutatzen duen kontatzen du. Etxe batzuk erre zituzten. Centro Republicano eta EAE-ANVren egoitzak edo batzeko tokiak egon ziren herrian.

105. Umiliatutako emakumeak (LEK-014/044)

Andrazkoen kartzela Itsasalderen goiko partean zegoen, gizonena kontzejupean. Andrei ile labur-labur ebaki eta kalerik kale eramaten zituzten buruan espainiar bandera zutela.

106. "Txirillo"ren bertsoak (LEK-019/001)

Bertso zaharrak kantatzen ditu.

107. Bertso zaharrak (LEK-019/002)

Bertso zahar batzuk kantatzen ditu.

108. Dirua amak gobernatzen zuen (LEK-024/002)

Nahiz eta neska-laguna 16 urterekin hasi, 28 urtera arte ez zen ezkondu. Bere amak gobernatzen zituen etxeko diru guztiak, eta ez zuen ezkontzeko dirurik.

109. Ontziolaren hastapenak (LEK-024/003)

Ontziolaren hastapenak azaltzen ditu. 1932. urtean jarri zuten martxan Arropaineko ontziola.

110. Gerra hasiera; aita ebakuatuta (LEK-024/004)

Gerrako lehenengo bonbek ontziolan bertan harrapatu zuten; zelan bizi izan zuten kontatzen du. Egun hartan eurak baino ez ziren joan eskolara. Bere aita iparralderantz joan zen ebakuatuta, beste askorekin batera; hiru urtera bueltatu zen herrira eta berriro hasi ziren lanean.

111. Gero eta ontzi handiagoak (LEK-024/005)

Bere aita ebakuaziotik bueltan lanean hasi zen berriro ontziolan. Bi bazkide izatetik 3 izatera pasa ziren, bere osaba bat ere gehitu zitzaien. Gero eta ontzi handiagoak eraikitzen zituzten eta azkenean zerrategia jarri zuten eurek; hori dela eta, arazoak izan zituzten. Ontziola bera ere handitu egin zuten. Tarte horretan aita hil zitzaien Jualinek 20 urte zituela. Irabaziak hiru bazkideen artean banatzen zituzten, berak ez zuen dirurik ikusi ere egiten.

112. Materialak eta erremintak (LEK-024/006)

Soldadutzan Ferrolen egon zen eta baimenarekin herrira etortzen zenean ere beti beharrean jarduten zuen. Ez zuten erreminta eta material onik izaten, baina bere osabak ez zuen berririk erosterik nahi. Bere osabari ezer esan barik erosi zuten beharrezkoa eta horrela egin zuten aurrera.

113. Hiru anaien artean aurrera (LEK-024/007)

Diruaren balioa asko aldatzen zen urterik urtera. Sasoi batean txarto ibili ziren diruz, baina gero egin zuten aurrera. Hiru anaiak sozio bezala hasi zirenean, autonomoena ordaintzeaz gain gizarte segurantza ordaintzen hasi ziren erretirora begira. Hasieran lepoan eramaten zuten pisu guztia, eta txikituta bukatzen zuen eguna.

114. Ezkondu arte diru-kontrolik gabe (LEK-024/010)

Hiru anaiak atera zuten aurrera ontziola, baina dirua amak kontrolatzen zuten. Ezkondu zirenean, beraiek hartu zuten ardura hori.

115. Zelan itsasoratu baporea (LEK-024/012)

Bapore bat errekatik ateratzea, ontziolatik, ez zen erraza. Zelan ateratzen zuten kontatzen du.

116. Txapak ordezkatu zuen egurra (LEK-024/013)

Ontziolak desagertzen hasi ziren apurka-apurka. Egurraren ordez txapa hasi zen nagusitzen. Gineatik ekarritako egurra erabiltzen zuten. Armazoia haritzarekin egiten zuten eta bragerak eukaliptoaz.

117. Buiak uretaratzerako (LEK-024/015)

Ontzia uretaratzeko buia handi batzuk erabiltzen ziren, zelan jartzen ziren azaltzen du. Sekula ez zuten arazorik izan.

118. Egurra zelan ebaki eta zuzendu (LEK-024/016)

Bere aitak-eta lehenengo, motor txikiak eta batelak egiten zituzten. Gero eta handiagoak egiten joan ziren. Egurra zelan ebakitzen eta zuzentzen zuten azaltzen du, suarekin berotzen zuten.

119. Armazoiak egiteko plantillak (LEK-024/017)

Armazoia egiteko plantillak egurrezkoak ziren. Zelan egiten zituzten azaltzen du. Armazoi bakoitzak bere plantilla zuen, 40-45 ezberdin. Armadoreak erabakitzen zuen baporearen tamaina. Gaur egungoak, txapazkoak, neurrira egiten dituzte kanpoan.

120. Diru-arazoak, zordun asko (LEK-024/019)

Diru-arazoak zituztenean banketxeek ez zieten laguntzen, ontziola kentzeko mehatxua ere izan zuten. Armadore asko txarto portatzen ziren, nahiz eta dirua izan ez zuten ordaintzen sasoiz.

121. Lau ontziola (LEK-024/021)

Sasoi batean 4 ontziola egon ziren Lekeition: Mendieta, Mendietaren lehengusuak, Egiguren eta beraiena, Murelaga. Zaharrena Mendieta zen. Eurena izan zen sortzen azkena eta baita zarratzen ere.

122. Ontziola "costas"ena (LEK-024/023)

Ontziola zegoen lurra ez zen beraiena, "costas"ena zen, kanon bat ordaintzen zuten. Bere anaiak erretiratu zirenean zarratu zuten.

123. Armazoiak zelan egin (LEK-024/024)

Bere aitaren sasoian Kanpezutik ekartzen zuten armazoietarako haritz egurra. Iltzeak galbanizatuak izaten ziren, kresalaren kontrakoak. Iltzeak zelan sartu behar diren azaltzen du. Galafateatzeko kotoia erabiltzen zuten. Azkenik l¡xatu eta margotu egiten zuten. Bermeoko "Erregina zuri" izan zen egin zuten azkeneko ontzia.

124. Lekeitiko ontziak (LEK-024/025)

Lekeition egin zituzten ontziak: "Ederramendi", "Agurtza", "Amandarri"... Asko egin dituzte.

125. Sei urterekin tretzak "enkarnatzen" I (LEK-028/003)

Gerra aurretik abarketak erosteko dirurik ere ez zuten, ortozik ibiltzen zirela dio. Sei-zazpi urterekin tretzak "enkarnatzen" hasi zen lanean, goizeko 04:30ean jaikita. 08:30ak aldera amak kafesnea eta "pota" (ogi biguna) eramaten zizkion jateko.

126. Lekeitiotik Santoñaraino bizitakoak (LEK-028/012)

Gerra heldu zenean, Juanek aitarekin batera motor txikian alde egin zuten Santoñaraino. Ebakuazioa zelan bizi izan zuten kontatzen du zehaztasun guztiz: Armintzan zeudela, aitak soldadu joan behar zuela esan zion alkateak; faxistak Bilbora sartzerakoan, Zierbenera joan ziren eta handik Algortara; Bilbo hartu zutenean, Laredora joan ziren; azkenik, Santoñara joan ziren. Toki guztietan izan zituzten bizipen interesgarriak. Santoñan faxistak lekeitiar batzuen bila joan ziren; "Aita Guria" baporean, Leturia lekeitiarra hartu eta fusilatu egin zuten.

127. Osaba beste lekeitiar batek hil zuen (LEK-028/014)

Juanen osaba komunista zen eta Lekeitioko intendentzian egiten zuen guardia soldadu zela. Errekete batzuen bila zihoala, preso hartu eta langile-batailoietara eraman zuten. Hantxe beste lekeitiar batek, errekete batek, tiroz hil zuen.

128. Terranovan (LEK-028/020)

"Aita Guria" baporean joan zen Ternuara (Terranova). Dirua asko irabaziko zutela esan zieten. Haize gogorrak jasan zituzten bertan, 200 k/o baino handiagoak; hori dela-eta pentsatu zuten ez zirela onik irtengo.

129. Bakailao asko (LEK-028/022)

Terranovan, sarea bakailaoz bete zutenekoa gogoratzen du, kubierta bete harrapatzen zuten. Atunetan eta txitxarrotan-eta zebiltzanak hilean 6.000 pezeta inguru irabazten zuten, eta beraiek 12.000. Terranovatik bueltan atunetan hasi zen hemen inguruan.

130. Denboraleko lekuko (LEK-028/024)

Denborale gogor batean, portuan lotuta zeuden motor eta bapore asko askatu zituen ekaitzak. Tartean beraien baporea ere egon zen. Bertako hainbat kide joan ziren baporea amarratzera, baina itsasoaren indarrak bere osaba eta beste bat, pasajeroa, eraman zituen; sekula ez zituzten gehiago ikusi. Juan zintzilik geratu zen barandan.

131. Amaren denda eta "txalopetxia" (LEK-030/002)

Bere amak Garavilla lantegian egiten zuen lan, baina denda bat zuen moilan. Lehenago bere aititak taberna zuen bertan, "txalopetxia", txalupa bakoitzak zuen taberna. Bertan bizi ziren eta komunik ere ez zuten, eta egur-ikatzezko sukaldea zuten. Hala ere, bazuten ura. Berea amak Gernikatik estraperloan dendarako hainbat produktu ekartzen zituen: irina, olioa, azukrea...

132. Errazionamendua; "latoneria" (LEK-030/003)

Errazionamendu garaian oraindik ez zuten denda zabalik. Beraiek Dendari kaleko "Gala" dendan hartzen zuten. Amari askotan laguntzen zion dendan. 13 urterekin "latoneria"n hasi zen beharrean, gerora joan zen itsasora

133. Gose garaiak (LEK-030/004)

Dendako bezeroekin hartu-eman ona zuen bere amak. Ez zuten trukerik egiten. Bere aita eta aitita arrantzaleak zirenez zenbat gura arrain izaten zuten, eta gainerakoak dendan izaten zituzten. Okela erosteko dirua behar izaten zen. Jende askok pasatu zuen gosea. Estraperloan produktu asko egoten ziren eta dirua behar zen horretarako.

134. Garai gogorrak (LEK-030/005)

Francoren diktadura garaia oso gogorrak izan zen: eskolan Cara al Sol abestu beharra, zikinkeria asko, hazteria "sarna" ugari...

135. Garbitasuna; ur eskasia (LEK-030/006)

Garbitasunak "terreña" egiten zituzten, harrian. Beraiek ura zuten etxean, baina askok ez. Lekeitiora Pascual Abaroak ekarri zuen 1888. urtean hainbat iturri eta depositu jarriz.

136. Argindarra (LEK-030/007)

Etxean bonbilla bat edo bi baino ez zituzten izaten. Trumoiekin askotan joaten zen argia. Zineman sarritan gelditzen ziren argi barik pelikula ikusi ezinik. Karburoa itsasoan erabiltzen zuten.

137. Tabakoa, arto-bizarrak, pipa... (LEK-030/009)

Gaztetan, ezkutuan erretzen zuen. Hebra izeneko tabakoa erretzen zuten. Arto-bizarrak eta kakahueteen azala ere erretzen zen; eztarria erretzen zuten. Andrazkoek ez zuten erretzen, baina lehen andrek pipatik erretzen zutela dio.

138. Txikiteoa; ardoa (LEK-030/010)

Kuadrillak oso handiak izaten ziren eta txikiteorako joera handia zegoen. Txikiteorako 100 taberna inguru egon ziren Lekeition. Ardoa, anisa eta koñaka baino ez zen egoten edateko. Goizetan ardo zuria eta arratsaldez beltza edaten zen. Zahagian egoten zen ardoa, alondigan egoten

zen ardoa. Bisigutan joaten zirenean kuartiluko ardoa izaten zuten egunero. Txikitoa nahiko merkea izaten zen.

139. Dantzaldiak; neska gazteen eguna (LEK-030/011)

Domeketan herriko banda egoten zen plazan eta gerraostean gramola; gerora, berriro bueltatu zen banda. Baltseoan egiten zuten neskekin. Neska gazteen egunean, abenduaren 8an, puruak oparitzen zizkieten mutilei neskek; jai handia egiten zen egun horretan.

140. Gazterik itsasora (LEK-030/012)

Zapatu askotan lan egin behar izaten zuten itsasoan. Domeka gauerako itsasora joan behar izaten zuten. Itsasora joan aurretik, 13 urterekin, "latoneria"n ibili zen beharrean. Handik bi urtetara joan zen itsasora. "Alejandrina" motor txikian hasi zen lanean. Hasieran, txipiroitan ibiltzen ziren; udaberrian, sareekin antxoatan; eta, gero, "Jesusen bihotza" baporera joan zen.

141. Txipirotan (LEK-030/014)

Txipiroitan joaten zirenekoa. Egunsentian eta arratsaldean joaten ziren. Pilar Arrindari saltzen zizkioten eta han kanpoan saltzen zituen.

142. Andrazkoak arrain-saltzaile (LEK-030/015)

Motor bakoitzak dei egiteko bat zuen, ugazabaren andrea izaten zen, eta bera arduratzen zen arraina saltzeaz. Baserrietakoek erosten zituzten. Andrazkoek ere behar asko egiten zutela dio. Sorkia buru gainean zutela eramaten zuten arraina, sorki bakoitzean 50 bat kilo eramaten zituzten.

143. Zenbat gura lan (LEK-030/016)

Herri mailan diru gehien antxoak ematen zuen, umeak ere burua kentzen joaten ziren-eta. Lehen herritar guztientzako lana zegoen: arrain-fabrikak, ontziolak...

144. Arrantzarako aparejuak (LEK-030/019)

Aparejuak: bisigutarako korda egiten zen, tretza bakoitzak 130-140 bat amu zituenez guztira 300 amu inguru erabiltzen ziren. Papardotarako, apareju lodiagoa erabiltzen zen; txitxarrotarakoari "melenia" deitzen diote, amu gehiago zituen eta lodiago zen; antxoatarako traina erabiltzen zuten, sarea; atunetarako kaza, kaza zelakoa den azaltzen du. Kazari artoaren maluta jartzen zitzaion puntan; antxoa txikiari gatza ematen zitzaion eta horixe erabiltzen zuten bisiguaren karnatarako.

145. Bisigutan: korda, kalak, tuntuxak (LEK-030/020)

Bisigutarako inguruko kalak aipatzen ditu. Eskoteko kalan askotan batzen ziren Getariako eta Mutrikuko arrantzaleekin. Bisigutan kordarekin egin behar zen, eta ondarroatarrak ez ziren abilak horretan. Tuntuxen erabilera.

146. Bisigutan: zelan harrapatu, prestaketa, arbia... (LEK-030/023)

Kordak esaten zuen non zegoen bisigua, erraz asmatzen zen. Patroiak ere abilak zirela eta erraz asmatzen zutela dio. Bisigutan joan aurretik tretzak prestatu behar izaten ziren eta beraiek prestatu behar zituzten: sikatu, amuak

egin... "Santa Katalina bisigutarako goiz da" eta "Después de enero besugo caballero" esaera zaharrek azaltzen dute zein den bisigu-denboraldia. Arbia botatzen duenean, bigundu egiten da bisigua eta arbia duenean gogor egoten da.

147. Bisigu asko harrapatzen zen (LEK-030/024)

Gabonetan zein urte berri egunean ere bisigutan ibiltzen ziren. "San Anton besugo a montón". Bisiguak behar asko ematen zuen eta Lekeition arro asko batzen ziren, non gorde ere ez zuten izaten. Arratsaldeko 5ak aldean izaten zen salmenta. Bisigua zelan prestatzen duen azaltzen du. Ia egunero jaten zutela-eta ez zitzaion gustatzen bisigua jatea.

148. Antxoatan: ardora, trainak... (LEK-030/025)

Bisigu-denboraldiaren ostean, antxoarena dator. Ardora, zuritasuna, ikusten zen eta horrela zekiten non zegoen antxoa. Hurbil zeuden antxoa-kalak. Antxoatan irten aurretik trainak zelan prestatu behar izaten ziren azaltzen du.

149. Harri-ikatzen abestia (LEK-030/026)

Baporeek harri-ikatza behar izaten zuten. Horri lotutako abesti bat aipatzen du.

150. Dakarrera; marmokak (LEK-030/027)

Trainak moilan zabaltzen zituen, ez baporean bertan. Baina Dakarrera (Senegal) joan zen lehen aldian bai eskegi zituzten bertan. Dakarrera (Senegal) hegalaburretan joan ziren. Marmoka asko zeuden, eta marmokak trainak erretzen ditu.

151. Lehengo Lekeition denak lagun (LEK-032/004)

Etxeetako ateak zabalik egoten ziren, giltza barik. Guztiek elkar maite zutela dio. Miseria eta gosea ezagutu zuten, baina beti zeuden elkarri laguntzeko prest.

152. 15 urterekin "Nuestra señora del Socorro"n (LEK-032/007)

Portuko antzinako argazki bat erakusten du. Baporeak ikatzarekin ibiltzen ziren. 1931n bere aitak-eta "Nuestra señora del Socorro" egin zuten. Jose 15 urterekin hasi zen galdara-makinak pizten. Irabazitako guztia amari ematen zion; amak seitik bat ematen zion berari.

153. Itsasorako behar ziren dokumentuak eta tituluak (LEK-032/008)

Itsasoko titulu desberdinak erakusten ditu: 1946ko "Nombramiento de segundo mecánico naval", "Libreta de inscripción marítima".... 14 urtegaz itsasora joateko behar zuen dokumentua ere erakusten du. Ganbaran ikasten zuten. Nautikako eskolara etortzen ziren maisuak irakastera.

154. Dei egitekoak eta señeroak (LEK-032/009)

Gizonak itsasora joateko zelan abisatzen zituzten azaltzen du. Dei egitekoak joaten ziren eguraldi ona eginez gero. Txarra eginez gero, aldiz, "txarrastadia" izeneko palo batekin joaten ziren zarata eginez jendeak jakin zezan itsaso zatarra zegoela. Señeroek eguraldiaren berri ematen zuen. Kabana asko

zeuden herrian, arrain-fabrikak, 12 bat egon ziren. Atuna bisiguaren karnatarako erabiltzen zen. 200 bat arroa (12 kilo) izaten zituzten gatza emanda horretarako.

155. Bisigutarako lan-tresnak eta kalak (LEK-032/011)

Bisigua zelan harrapatzen zuten kontatzen du.: tuntuxa, tretzak, aparailuak... Goizeko laurak aldera joaten ziren Garganto aldera, Lekeitiotik 40 itsas milia ingurura. Beste kala batzuk ere aipatzen ditu: Takarako 15 miliatara, Harritxu zazpi-zortzi miliatara...

156. Bisigutarako prestaketa (LEK-032/012)

Bisigutan irten aurretik tretzak enkarnatu behar ziren. Umetan ere askotan ez ziren joaten eskolara lan egin behar bazuten. 160 amu eta 60 tretza erabiltzen ziren. "Txitxiña" esaten zaio enkarnatzeko erabiltzeko erabiltzen zuten antxoa edo bokarta. Harria botatzen zen tretza bota aurretik, gero berriro ere harria eta tuntuxa.

157. Bisigutako arrantza (LEK-032/013)

Bisigutarako tretzak bota ostean ordu betez egon behar zen zain gutxi gorabehera. Alarreoan papardoak harrapatzen zituzten. Tretzak, tuntuxa eta gainerakoak zelan batzen zituzten azaltzen du. Kintaleko (50 kilo) otzaretan gordetzen zituzten. Bisigua neguko arraina izan arren abuztuan ei du koipe gehien.

158. Bisigutarako bakoitzaren eginbeharrak (LEK-032/015)

Gabonetan ere bisigutan ibiltzen ziren. Urte bateko garai hura dakar gogora, laino asko zegoena eta aurrekorik ere ikusten ez zutena. Bakoitzak bere eginbeharra zuen, berea makinak martxan jartzea eta tuntuxa hartzea zen. 15-16 lagun ibiltzen ziren lanean. Guztira 600 arrantzale ziren herrian.

159. Itsas-txoriak (LEK-032/016)

Itsasoko txoriak: kopla, martina, txirrina, kala-txoriak... Txirrina atunetan ibiltzen zen. Bisigutan santzak ibiltzen ziren. Kaioa beltza da eta zuritzen denean, santza da. martina arrastean ibiltzen dira. Bokartetan santza ere ibiltzen zen. Josek dio gaur egun ez direla kala-txoriak ikusten; lehen harrapatu eta saldu egiten ziren saltzeko, gozoa ei zen.

160. Izurdeei segika antxoa harrapatzeko (LEK-032/017)

Izurdeek bokarta jaten dute. Hori dela-eta, lehen radarrik ez zegoenean, ontziak izurdeei segika egoten ziren antxoa non zegoen jakiteko

161. Itsasoko esaera zaharrak (LEK-032/019)

"Santa Katalina noiz da? bisigutarako goiz da", "Ama Birjina martiko, arraina atateko", "San Anton besugo al montón"... Tartean berak asmatutako bat ere esaten du.

162. "Agostuaren lelengo hogeta batian..." abestia (LEK-032/020)

Txikiteroak tabernarik taberna abesten egoten ziren. Abesti bat abesten du: "Agostuaren lelengo hogeta batian, pasa zirian txalupa batian...".

163. Trainak bota eta batu (LEK-032/024)

Antxoatako traina 60 braza ingurukoa zen. Zelan botatzen eta batzen zuten azaltzen du.

164. Banaketa buru gainean eta gurdiz (LEK-032/025)

Arrainen deskarga otzaretan egiten zuten. Otzarak zelakoak zirena azaltzen du. Saltzera buru gainean eta gurdian eramaten zuten. Josek gomazko gurdi bat egin zuen freno eta guzti. Buru gainean sorkia jartzen zuten otzara jarri aurretik.

165. Atunak harrapatzeko tresnak (LEK-032/026)

Atunetan kazan aritzen ziren, txitxarrotan moduan. Karpinak, gartxak, soka eta maimena erabiltzen ziren aparailu moduan.

166. Jela; elur-fabrikak (LEK-032/030)

Hiru matxin zeuden, hiru garabi. Atuna izotzarekin, jelarekin, gordetzen zuten hozkailuetan. Lekeition elur-fabrika bat egon zen, Txopi.

167. Mendexarako zubiko aduana (LEK-032/031)

Aduana polita Mendexako zubian zegoela dio. Gerran erre egin zuten. Gerran, 11 urte zituela, arreba lepoan hartuta zubia zelan pasatu zuen gogoratzen du.

168. Ikatzetan Ondarroara (LEK-032/032)

Ikatza zein gasolioa erabiltzen zuten,. Ikatz bila Ondarroako Pontixenera joaten ziren, haiek ekartzen zuten eta.

169. Txipiroitan (LEK-032/033)

Txipiroiak zelan arrantzatzen zituzten kontatzen du.

170. Gomekin diru asko irabazitakoa (LEK-032/034)

Diru gehien atunak ekarri zuen. Baina gomatan diru asko hartu zuten, beraiek 10.000 mila pezeta hartu zituzten buruko. II. Mundu Gerrako merkataritza-ontzi bat hondoratu zuten eta 6.000 fardo inguru jaso zituzten. Kiloa 10 pezetatan saldu zuten; estraperloan 3.000 pezetatan egon zen.

171. Itsasorako arropak (LEK-032/035)

Erretzen zirenean, "Nivea" ematen zuten. txapel gutxitan janzten zuten. Mahoizko arropak erabiltzen ziren. Eskuetan ez zuten babesgarririk erabiltzen.

172. Diru-partiketa (LEK-032/036)

Diru-partila egiteko, lehenengo gastatutako dirua hartzen zen eta gainerakoa, erdi eta erdi arrantzaleen eta baporearen artean banatzen zuten.

173. Hondarrezko zakuz egindako babeslekuak (LEK-043/006)

Gerran beharretik lurpera joaten ziren ezkutatzera. Hondarrez beteta zakuak jartzen zituzten babesteko. Gernika erre zutela jakin zutenean, Lekeitiora etorriko zirela pentsatu zuten.

174. Ogi gosea (LEK-043/008)

Gerra garaian ogi eskasia zegoen. Aulestiraino joaten zen ogi bila. Mendexatik zetorren esnedunak arto-irina ekartzen zien taloak egin ahal izateko. Horrekin lotutako anekdota bat kontatzen du, amamaren ezkutuan orea egin zuenekoa.

175. Aita Gasteizen eta neba Ferrolen preso (LEK-043/010)

Gerra Zibilean aitak alde egin zuen. Herrira bueltatu zirenean, atxilotu eta Gasteizko kartzelara eroan zuten aita. Gregoriren nebaren bila ere etorri ziren, baina aitak bere semea Ferroleko kartzelan zegoela esan zien. Datu hori egiaztatu ostean, aita aske utzi zuten, semearen truke aske uzten zutela esanez. Ia arropa barik bueltatu ziren; izan ere, zorriek dena jan zieten.

176. Aita eta osaba Markinako kartzelan (LEK-043/011)

Behin Guarda zibilak aita eta osabaren bila joan ziren motorrera (itsasontzira). Kuartelera joan eta gero Markinako kartzelara eroan zituzten eta bertan kartzelaratu. Bertara egindako bisita bat dakar gogora Gregorik.

177. Hondoratutako gomei esker etxea erosi (LEK-043/015)

II. Mundu Gerran, itsasoan hainbat ontzi hondoratu zituzten. Bere senarra horietako batera joan zen, hondoratutako bat goma kautxuz beteta egon baitzen. Lau bapore joan ziren eta laurak bueltatu ziren gomaz beteta. 12.000 pezetako partila (soldata) lortu eta horri esker erosi zuten etxea.

178. Erreketeak sartu zirenean, kabanan ezkutatuta (LEK-043/019)

Lekeitiora erreketeak etorri zirenean, bera Okamikaneko kabanan (Kontserba-lantegian) egon zen lanean. Kabanako kanpaiak jo zituzten erreketeak sartu zirenean. Kabanan bertan ere ezkutatu egiten ziren, poteak Maria bainuan jartzeko lekuan.

179. Enperatziz zita hostala erre zutenekoa (LEK-043/021)

Gerra Zibilean Enperatriz Zita hostala erre zutenekoa gogoratzen du. Hondarreraino doazen eskaileretatik irten ziren bertan egon zirenak. Gaur egungoa baino dotoreagoa zen. Zelakoa zen deskribatzen du. Berak ez zituen bertakoak ezagutu.

180. Domeketako bikariotzako eskolak (LEK-043/023)

Umetan ez zuen eskolara joateko aukerarik, neba-arreba gazteagoak baitzituen zaintzeko. Bikariotzara joaten zen zer edo zer ikastera bertako irakasleekin. Eskolako kontzeptuak ikastez gain, erlijio kontuak ere irakasten zizkieten. Berak ez zuen "pando" egiteko (sasieskola) gogorik izaten. Dena egiten zuten euskaraz. Bere ahizpak kolejiora joan ziren eta ikasi zuten erdaraz.

181. Herria italiarrez beteta (LEK-043/028)

Gerra Zibilean, italiarrak etorri zirenean, ikara asko izan zuten. Italiarrei ogi zuria ematen zioten eta ogi zuriaren truke musua eskatzen zuten; hala ere, ez zieten musurik ematen.

182. Gose garaia (LEK-043/029)

Gerra garaian, gura beste arroz jan zuten. Eliza atzean jaten zuten, bikarioaren etxean.

183. Ilea moztutako emakumeak herritik bueltaka (LEK-043/035)

Gerra garaian, ilea moztu zieten hiru emakumek egunero egiten zuten herritik buelta danborra joaz.

184. Karabineroekin Guardia Zibilekin baino hobeto (LEK-043/040)

Karabineroak Lekeition. Zubi ondoan ere bazeuden eta han ondoan zegoen kobazuloan ere ezkutatzen ziren gerran. Karabineroekin Guardia Zibilekin baino hartu-eman hobea zuten.

185. Errazionamendua Arranegian eta jantokia bikariotzan (LEK-043/042)

Errazionamendua Arranegian hartzen zuten. Aita-eta alde eginda egon zirenean, bikarioaren etxeko jantokira joaten ziren

186. Egunkaria kalerik kale saltzen zuten (LEK-043/048)

Egunkaria kalerik kale saltzen zuten kantatzen. Lolita aritzen zen saltzen.

187. San Pedro egunez ezin zen itsasora irten (LEK-048/035)

Behin (1956a edo izango zen) Vigon suertatu ziren San Pedro egunez. Ondarroara deituz baimena eskatu zuten itsasora irteteko, eta ez zieten utzi. Harrezkero gauzak aldatu ziren. Egun haietan irabazi zuen Athletic-ek kopa. Parranda galanta egin zuten hori dela eta.

188. Traineruetan irabazle soldadutzan (LEK-048/044)

Hilean hamabost pezeta irabazten zuen soldadutzan. Armadako traineruan ibili zen, zorte ona izan zuen. Lehen hiru hilabete txarrak, instrukzioak ikasten eta, baina gero ondo pasatu zuen. Traineruetan irabazle izan ziren. Coruñako "Francoren kopa" irabazi zuten. Euskal kostaldeko mutilak osatzen zuten tripulazioa. Harrezkero ez zuten kolperik jo zerbitzuetan.

189. Komandante lekeitiarrarekin mozkorra harrapatu guardian zegoela (LEK-048/045)

Komandanteak lo harrapatu zuen guardian. Lekeitiarra zen. Barrura pasatu eta kontuak kontatzen egon ziren koñaka eta whiskia edanez. Mozkortu egin ziren. Gero egundoko astrapala sortu zen barkuan. Azkenik, guardia eta beste zerbitzu guztietatik libre geratu ziren trainerukoak. Don Castor Ibañez de Aldekoa zen komandantea, gizon ona.

190. Itsasontziei euskal izena kendu espainiarra jartzeko (LEK-051/005)

Gerra garaian bapore asko zeuden herrian. Beraien aitak ere beste asko bezala, alde egin zuen. 'Aberri Eguna' zuen izena beraien aitaren ontziak eta 'Navarra' jarrarazi zioten. 'Euzkadi' izenekoari, ostera, 'España'.

191. Gerran janari faltarik ez (LEK-051/006)

Beraiek ez zuten jateko arazorik izan gerra garaian; izan ere, beraien ama baserritarra zen eta handik ekartzen zuten patata, esnea... Gainera, ez ziren luzaroan egon ezkutatuta eta ez zuten inolako faltarik igarri.

192. Eskolak garrantzi gutxi (LEK-051/009)

Hamar urtera arte joan zen eskolara. Pando egin (piper egin) arren, etxean ez zuten jakiten eta ez zen ezer pasatzen.

193. Aita bakarrik joan zen ebakuatuta (LEK-051/011)

Gerra garaian, beste askok egiten zuten legez, bere aitak ere baporea hartu ere alde egin zuen. Ontziak 'Aberri Eguna' izena zuen eta horrek sortutako ikarak eraginda, bakarrik joan zen.

194. Umetako beharrak (LEK-051/014)

Gazterik hasi zen beharrean, bederatzi edo hamar urte zituela. Lehorreko lanak izaten ziren beraiek egiten zituztenak.

195. Aititak kirruzko izarak egiten zituen (LEK-054/002)

Gurasoak ere lekeitiarrek zituen: ama lehorrekoa eta aita itsasokoa. Bere aitita Itziarrekoa (Deba, Gipuzkoa) zen eta kirruzko izarak egiten zituen. Oraindik baditu aititak egindako izarak. Saldu ere egiten zituen. Aitita mahatsak inausten etorri zen herrira, Santa Katalina aldean mahasti asko zeuden-eta. Bere amama ezagutu eta bertan ezkondu ziren.

196. Kofradiako Martzelino "eskribintian" alaba (LEK-054/005)

Bere aitak kofradian idazkari lanak egiten zituen. Itsaso aldean Martzelino "eskribintian" alaba zen eta lehorrean Maria 'ehulia'rena. Aitak dena idatzi behar zuen eskuz, ez zegoen makinarik. Bere aitaren beharra zein zen azaltzen du. 23 urtez izan zen "eskribintia".

197. Kofradiko eta Eskolapeko eskolak (LEK-054/007)

Kofradiako goiko aldean don Paulino Alonsok eskolak ematen zituen. Maria hara joan zen, mutil tartera. Gerra garaian ez zegoen beste eskolarik. Nahikoa zen idazten eta irakurtzen ikastea. Irakasleek ez zekiten euskaraz eta eurek erdararik ez. Eskolapean zegoen herriko eskola, alondegiaren gainean. Eskolapeko eskolan Señorita Pilar, Señorita Segunda eta doña Eloisa Arteta nafarra ezagutu zituen.

198. Eskola alondegi gainean (LEK-054/009)

Eskola alondiga gainean zegoen. Alondigan ardoak gordetzen zituzten eta handik banatzen zituzten tabernetara. Jolas-orduan Eskolapera bajatzen ziren eta maistra, antza denez, alondigara joaten zen egunkaria eskatzera eta horrela ezagutu zuen maistrak bertako mutila, bere gizona izango zena.

199. Txikotarekin, "prima segunda"ka, tronpan... (LEK-054/010)

Eskola garaian Eskolapera bajatzen ziren jolastera. Txikotarekin (soka) eta egur-ikatzarekin zenbakiak marraztu eta "prima segunda"ka aritzen ziren.

Tronpaka jolasterakoan, nesken modura edo mutilen modura, desberdin jolasten zen.

200. Txikotean aritzeko abestiak (LEK-054/012)

Txikotean (sokadantzan) aritzen zireneko abesti bi abesten ditu. Erdaraz dira abestiak. Zer esaten zuten ere ez zuten jakiten eta edozer abesten ei zuten.

201. Jolasean ere mutilak eta neskak nahastu barik (LEK-054/013)

Mutilak beste eskola batean zeuden eta ez ziren batzen. Mutilen eskola eliza atzean zegoen. Doña Marzelina 'Surrandi' ('sudur handi') maistraren garaian, ostera, batera egoten ziren.

202. Eguenetako dantzaldiak (LEK-054/014)

Eguenetan (ostegunetan) plazan musika egoten zen. Taberna zutenez, ezin izan zion mutilei ezetzik esan, bezeroak ziren-eta. Geroago, ontziolakoek gramola jarri zuten eta mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantzan egiteagatik. Beranduago, herriko banda hasi zen joten.

203. Banda militarra eta herriko banda (LEK-054/015)

San Antolinetan banda militarra etortzen zen eta herritarrek agur beroa egiten zieten. Militarren bandako zuzendaria gero Lekeitioko bandako zuzendaria izan zen. Hurrengo zuzendaria valentziarra izan zen.

204. Aita bandako kidea zen (LEK-054/017)

Bere aitak herriko bandan gitarra jotzen zuen. Burgosen egon zen soldadu; lehenago sekula zaldirik ikusi gabeko zalditeriako sarjentua izan zen. Bere amama semea bisitatzera joan zenean, gitarra jotzen zuela esan eta horrela aurkitu zuen.

205. Lanaren truke zinema debalde (LEK-054/020)

Bere ahizpa Beitia hotelean hasi zen beharrean errekaduak egiten; horren truke zinema debalde izaten zuten. Maria ere beragaz joaten zen debalde izateko.

206. Ura ordu betez baino ez (LEK-054/024)

Errekan garbitzen zituzten arropak. Bizimodua gogorra zen eta behar asko egin behar izan zuten. Ezkondu ostean ere ez zuten inolako aurrerakuntzarik; egunean ordu betez baino ez zuten ura eta ondo aprobetxatu behar izaten zen. Errekak non zeuden azaltzen du.

207. Garbitasun pertsonala balda barruan (LEK-054/025)

Txinbo xaboia erabiltzen zuten garbitasun mota guztietarako. Ilea garbitzeko ozpina erabiltzen zuten. Urez betetako balda barruan garbitzen ziren. Orduan ez zuten bainugelarik, komuna baino ez.

208. Antzinako komunak (LEK-054/026)

Komuna zelakoa zen azaltzen du. Hasieran eskaileran izan zuten. Lehen eta azken solairukoek etxe barruan zuten, lehen solairukoek sukaldean zuten olezko komuna. Papera beharrean egunkaria edo beste paperen bat erabiltzen zuten garbitzeko.

209. 'Euzkadi' egunkaria (LEK-054/027)

Bere aitak Euzkadi egunkaria erosten zioten Iñaki Euzkadiri. Kalerik kale saltzen zuten. Gerraostean jada ez zen Euzkadi egunkaririk egon. Beste hainbat egunkari eta aldizkari ere bazeuden: La Gaceta del Norte, Ahora... Aitari irakurtzea asko gustatzen zitzaion eta Mariak beragaz ikasi zituen lehen letrak eta zenbakiak eta baita errezoak ere.

210. Aitagandik jasotako liburuak (LEK-054/028)

Aitak irakurtzea gustuko zuen eta baita Mariak ere. Aitak oparitu zion bere lehen liburua Los viajes de Gulliver izan zen. Isabel II.a Lekeition egon zenekoa kontatzen zuen liburua ere bazuen.

211. Eskolako kantak eta katona (LEK-054/030)

Bere sasoian denek zekiten idazten eta irakurtzen. Biderketa-taula, Espainiako geografia... abestuz ikasi zituzten. Eskolan paperezko kartila izan zuten katona izan aurretik. Oraindik buruz dakizki katoneko lehen letrak.

212. Dotrina eta jaunartzea (LEK-054/033)

Errepublika garaian egin zuen lehen jaunartzea. Bikarioa bizi zen tokian, eliza atzean, ematen zuten dotrina eta bertara joaten ziren. Bi jaunartze egin zituzten: handia eta txikia. Klarinezko arropak zituzten bi oso-oso dotore joan ziren eta lehenengo ilaran jesarri ziren. Ez zuten inolako ospakizun berezirik egiten.

213. Jostunak egindako arropa dotoreak (LEK-054/035)

Astegunetako eta domeketako arropak desberdindu egiten ziren. Jostunak egiten zizkieten arropak. Dotore janzten ziren hiru ahizpak. Astegunetako arropak arruntagoak izaten ziren. Prakak ez ziren neskek janzteko.

214. Barruko arropak (LEK-054/036)

Barruko arropak telaz egindakoak izaten ziren. Kuleroak ("pantaloiak") zinta batekin lotzen zituzten. Horiek ere jostunak josten zizkieten. Mutilen galtzontziloak luzeak izaten ziren, hotz asko egiten zuen-eta.

215. Bularretakoak eta abarketak egiten zituztenak (LEK-054/038)

Bularretakoak Carmen Piñelek egiten zituen modeloa hartu eta gero. Abarketak astegunez janzten zituzten eta Patxi "abarkateruak" egiten zituen. Kanpotik etorritakoak ere saltzen zituzten plazan eta Patxik baino merkeago saltzen zituztenez, euren amak bertan erosten zituen abarketak. Diruari asko begiratzen zitzaion.

216. Eskolako ikuskaritzak (LEK-054/043)

Eskolara ikuskaria etortzen zenerako, maistrak ondo irakasten zien zer esan behar zuten: "¡Sea Usted bienvenido!" esaten zuten denak tente jarrita. Orduan ere ez zuten erdaraz egiten beraien artean.

217. Maistra desterratu egin zuten (LEK-054/044)

Maistrek ez zekiten euskaraz eta eurek, ostera, erdararik ez. Doña Eloisa maistraren gizona gerran kartzelaratu eta bera Lekeitiotik desterratu egin zuten. Euskaraz egitearren ez zuten zigortzen.

218. Amagaz Kataluniara ihesi eta aita kartzelan (LEK-060/012)

Hamalau urtera arte izan zuen eskolara joateko aukera. Tartean bi urtez ebakuatuta egon ziren Katalunian. Lekeition jende askok egin zuen ihes, Teresaren ama lau ume hartuta joan zen: Bilbora, Meruelora (Kantabria), Kataluniara eta Frantziara. Batetik bestera zebiltzala bizitakoak ondo gogoan ditu. Bitartean, beraien aita preso izan zuten.

219. Euskalduna izate hutsagatik kartzelara (LEK-060/014)

Beraien aita kartzelan egon zen beste asko bezala. Esukalduna izatea arrazoi nahiko ei zen preso hartzeko. Bi lekeitiar ere fusilatu egin zituzten. Bueltan, Okamikanekoan bitartez lortu zuen beharra. Nahiz eta pentsaera ezberdina izan, jatorrak ziren. Hiru urte egin zituen preso.

220. "Café de la República" (LEK-060/028)

Beraien familiakoak errepublikazaleak ziren. Eskolapean egon zen "Café de la República".

221. Euskaraz egitea galarazita (LEK-060/029)

Gerra garaian eta gerraostean ere, euskaraz egitea galarazita zegoen. Euskaraz berba egitea arrazoi nahiko zen aurpegikoa jasotzeko edo edonork edozer esateko.

222. Liskarrik ez abertzaleen artean (LEK-060/031)

"Café de la República"n errepublikazaleak baino gehiago ANVkoak batzen ziren. Beraien etxekoak han egoten ziren. PNVkoekin ondo konpontzen ziren, ez ei zegoen "drogarik" (borrokarik) politika kontuengatik. Izen euskaldunak ere hasi ziren jartzen (Josu, Libe, Gotzon...), batzuentzat txakur izenak ziren. Faxistak ere bazeuden.

223. Faxisten ospakizunak: alabari "Victoria" izena jarri (LEK-060/032)

Faxistek Francoren aldekoek herri bat hartzen zutenean, kanpaiak jotzen zituzten eta jai handiak ospatu. Zatika auzoan batzuk alaba izan zuten gerra bukaeran eta "Victoria" izena jarri zioten.

224. Batzokia "Victoria parc" bihurtu zen (LEK-060/034)

Batzokia errekisatu zutenean izena ere aldatu zioten: Victoria parc. Batzokiko kontuak. Lekeitioko herritarrek horri buruz egindako kanta.

225. Santa Katalinako bidea Errepublikan egin zuten (LEK-060/036)

Santa Katalinako bidea Errepublika garaian egin ei zuten. Teresak etxekoei entzun zien esaten Errepublikak jarraitu izan balu denentzako lana egongo zela

226. Lekeition suntsitutako eraikinak (LEK-060/040)

Gerran hainbat eraikin erre zituzten: Ganboaneko jauregia eta Zita enperatrizen hostala, besteak beste. Gorriek erre zituztela esan arren, gezurra ei zen, Francoren lagunek erre zituztela dio Teresak. Mairuek mojak ere bortxatu zituzten.

227. Ikastolaren sorrera (LEK-060/044)

Lekeitioko ikastola sei umerekin hasi zen, bat Teresaren semea izan zen. Nieves Solanoren etxean batzen ziren, bere sukaldean. Herriko faxista bat txirrina jotzen aritzen zen etxe hartan. Nieves Solano Carlos Solanoren alaba zen. Dirua zuten eta asko lagundu zuten ikastola. Ana Mari izan zen lehen andereñoa. Dirua zelan lortzen zuten. Umeak andereñoaren aitaren akademian egon ziren matrikulatuta. Nieves Solanoren etxetik bikariara joan ziren, gaur egungo ikastola eraiki aurretik.

228. Izen euskaldunak erdaratu (LEK-060/046)

Bere seme-alaba guztiek dituzten euskarazko izenak, baina aldatu egin behar ziren erdaldunduz: Aintzane>Gloria, Aitor>Sabino Aitor... Bikarioa ere faxista zen eta Elizan ez zioten edozein izen jartzen seme-alabei.

229. Abesten ikasi zituzten aditzak (LEK-068/002)

Eskolan gauza asko kantatzen ikasi zituen. Baina gero metodo hori kendu egin zuten, ezin ei zen kantatzen ikasi eta berak ordudanik ez zuen askorik ikasi. Hendaian errefuxiatuta zeudela ikasitako abestiak ere oraindik gogoan ditu.

230. Umetan frantsesa oso ondo zekien (LEK-068/003)

Gerra zibilean Hendaian egon zen eta bertako eskolara joan zen. Lekeitiora bueltatu ostean, mojen ikastetxera joan zen. Frantsesa irakasten zuen mojak baino frantses gehiago ei zekien Milak berak. Hala ere, gaur egun ia dena ahaztu du.

231. Dotrina Hendaiako mojekin (LEK-068/005)

Gerra Zibilean Hendaian egon ziren. Dotrina mojekin ikasi zuen bertan. Beraien ama nagusiaren moduko begiak zituela-eta, asko maite zuten mojek Mila. Erreka ondora jolasten eta sua egiteko egur bila joaten ziren.

232. 5.000 pezetako isuna errekisatutako etxea berreskuratzeko (LEK-068/007)

1937ko apirilaren 28an izan zen Lekeitioko ebakuazioa eta lau urtez egon ziren Hendaian. Aita errepublikazalea zen eta ezin izan zuen beraiekin joan, fitxatuta zegoen-eta. Alemaniarrak Frantzian sartu orduko bueltatu ziren berriro ere Lekeitiora. Etxea ere errekisatu zieten eta 5.000 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen amak etxea berreskuratu ahal izateko. Etxea zikin-zikin aurkitu zuten. Etxera bueltatu baino lehen, etxe desberdinetan sakabanatuta egon ziren etxekoak.

233. 'Larrosinekua' eta 'Maittenekua' desizenak (LEK-068/010)

Aitaren aldekoak Larrosinekua desizenez ezagunak eta amaren aldekoak "Maittenekua desizendunak. Desizenon azalpena ematen du.

234. Belarria dindilizka haginka egin ostean (LEK-068/013)

Bere ahizpa batek mutiko bati belarrian haginka egin eta dindilizka utzi zion. Mutikoaren aitak aiztoa hartu eta bere atzetik joan zen, baina ezin zuen umea harrapatu.

235. Mandaskak eta iturria (LEK-068/015)

Eskolape ondoan mandaska (mandoentzako aska) handi bat zegoen eta ganaduak bertara joaten ziren ura hartzen. Eurak Eskolapeko iturrira joaten ziren ur bila, gaur egun botika dagoen tokira. Egunero joaten ziren pitxerra hartuta.

236. Taloa jan zion katua txapa gainera zigor modura (LEK-068/017)

Gerraostean ez zuten ogirik izaten, taloa baizik. Behin bere ahizparen taloa eta afaria katuak jan zuen. Bere ahizpak orduan katua hartu eta txapa gainera bota zuen. Katua zoro baten modura hasi zen, atetik irten eta ez zen gehiago etxera bueltatu.

237. Arrosarioaren garrantzia (LEK-068/018)

Amuma eskutik heldu eta arrosarioa errezatzen zuten etxeko karrajuan (pasilloan) aurrera eta atzera zebiltzan bitartean. Ahizparen mutil-laguna etxe azpian zain egon arren, amumak ez zuen horrelakorik ulertzen eta zain egon behar izaten zuen, errezoak sakratuak ziren.

238. Amuma petrikiloa (LEK-068/019)

Bere amuma petrikiloa (kurandera) zen. Botikara joan eta kokomarroa erosten zuten amumaren aginduz. Kokomarroagaz sendaketak egiten zituen. Hainbat osagai nahastuta egiten zuen ukendua. Arrantzale asko joaten ziren beregana eskuetan zituzten zauriak eta infekzioak osatzeko.

239. Tripako minentzako gerezien adarrak kamamilagaz (LEK-068/021)

Bere amamak hainbat erremedio natural zekizkien. Berak ere egin izan ditu enplastoak berbena belarragaz. Tripako minentzako gerezien adarrak gorde, sikatu eta kamamilagaz batera prestatzen ziren.

240. Bularrerako enplastoa (LEK-068/022)

Bularreko gaixotasunetarako eta infekzioetarako enplastoak egiten ziren. Tuberkulosiak jotako jende asko zegoen orduan. Berakatza berbena belarragaz batera zartaginean pasa, arrautzaren zuringoagaz tortilla bat balitz legez prestatu, paparra alkoholagaz garbitu eta enplastoa jartzen zuten izara zahar batean-edo. Trapu batekin azaltzen du pausuz pausu prozesua. Hurrengo egunerako zikina kanporatuta egoten zen.

241. Kokoteko antraxak (LEK-068/024)

Kipula oso ona ei da bihotzarentzako. Gizonezko askok antraxak izaten zituzten kokotean eta osatzerakoan zuloak gelditzen zitzaizkien.

242. Saburdinaren pozoia (LEK-068/027)

Saburdinak pikatuz gero, pozoia zabaltzen zaizula igartzen du norberak. Hori dela-eta, hondartzako txabolan, akerraren adarra, labana, gasak... prest izaten zituzten. Pozoia zelan ateratzen zuten azaltzen du. Bukaeran akerraren adarragaz estutzen zuten zonaldea.

243. Gallo taberna zabaldu zenekoa (LEK-068/031)

Gallo taberna bere aitarena zen, baina gerran ondasunak kendu zizkietenean taberna ere galdu zuten. Bere aitak oilar-auskei zien zaletasuna tarteko izen hori jarri zion tabernari. Taberna zabaltzea zelan erabaki zuen azaltzen du.

244. Karneteko abizena zuzen ipinarazi zuen (LEK-071/002)

Ana Mari Trebiño Lauzirika izenez. Bartzelonan Lausirica ipini zioten karnetean eta aldarazi egin zuen.

245. Aita Ameriketara lanera (LEK-071/004)

Tenderia kalean jaio zen Ana Mari. Ama lekeitiarra eta aita errioxarra. Aita Ameriketara joan zen lanera berak hamasei urte zituela. Lau neba-arreba izan dira, bi hil egin ziren.

246. Aitona maisuak 14 seme-alaba izan zituen (LEK-071/005)

Aitaita errioxarra Amorotoko maisua izan zen. 14 neba-arreba ziren aitaren familian. Aitonak herri bakoitzean bat izan ei zuen.

247. Ana Mariren gaztetako amodioak (LEK-071/006)

Gizon asko izan zituen maiteminduta Ana Marik gazte-denboran. Bati amodioa ez, pena ziola dio. Ana Marik halako egoeretan atzeraka egiten zuen, karramarroa bezala. Pastel gozo asko jandakoa da mutilen kontura, baina horietako batek txanpon berarekin ordaindu zion handik urte askora.

248. Euliak eztira bezala mutilak Ana Mariri (LEK-071/007)

Milak dio euliak eztira bezala joaten zitzaizkiola gizonak Ana Mariri. Bular handiak omen zituen ("kantinplorak"), bera, berriz, "de Castellón de la Plana" ei da. Behin Logroñon ikasten zegoen aberaskume bat bisitatzera joan ziren, baina Milak atzeraka egin zuen harekin ere. Mutil txikia begitantzen zitzaion, eta berari handiak gustatzen.

249. Bartzelonara Lekeitioko "zortzi neska mando" (LEK-071/008)

Bartzelonara joan ziren "zortzi neska mando" Lekeitiotik. Ana Marik Ameriketan lanean zegoen aitari eskatu zion dirua. Han zabaldu zitzaizkien begiak. Ederto ibili ziren Bartzelonan. Boltseraren (diruzaina) kontuak.

250. Bartzelonatik Villasa de Mar-era (LEK-071/009)

Batzelonatik Villasar de Mar-era joan ziren. Treneko gorabeherak. Taxisean joan ziren geltokitik herrira.

251. Mutilari barre itsusia zelako (LEK-071/010)

Mutil bat ikustera zihoan nesketariko bat; Jaume zen mutil hori. Ikusi zutenean, barreari eman zioten neskek, oso itsusia zelako. Txarto portatu zirela onartzen dute.

252. Nola ezagutu zuen Ana Marik Jordi (LEK-071/011)

Halako batean ondo jantzitako mutil itxuroso bat ikusi zuten. Jordi, gero Ana Mariren gizona izango zena. Lehenago ikusitako erretratutik ezagutu zuen. Oso argala ei zen. Handik gutxira itzuli ziren Ana Mari eta Mila Karnabaletan. Dantzan egin zuten..., mutila guztiz maiteminduta geratu zen.

253. Argazkiak eta gutunak Jordik Ana Mariri (LEK-071/012)

Ana Marik bere senarra ezagutu eta hurrengo egunean ermita batera joan ziren erretratuak ateratzera. Jordi adurra dariola. Lekeition postaz jaso zituzten argazkiak. Gero, gutunez hasi ziren harremanetan, baina Ana Marik ez zuen bestelako asmorik. Jordik nahi beste zigilu eta gutun bidaltzen zion. Lekeitiora etortzeko esan zion Ana Marik.

254. Jordi Lekeition (LEK-071/013)

Ana Mariren senarra, Jordi, kataluniarra da. Autobusez heldu zen Bilbotik Jordi. Ana Mariren bihotza lehertu beharrean. Herria erakutsi zion. Hamabost bat egun egin zituen Lekeition.

255. Benetako amodioa Juana Mari eta Jordiren artekoa (LEK-071/014)

Ana Mariren senarra Kataluniakoa da. Jordi Lekeition egon eta gero Ana Mari Jordiren herrira joan zen. Itsua ei da amodioa. Urte eta erdi egon ziren elkar ikusi gabe. Milak ezin izan zuen ezkontzara joan. Gutun bidezko amodioak existitzen direla dio; behin irratira deitu zuen hori ukatzen zuen bat gezurtatzera.

256. Jordi guztiz harrituta Kantauri Itsasoarekin (LEK-071/015)

Jauma katalana guztiz harrituta geratu zen Lekeitioko marea gora eta marea beherarekin. Mediterraneoan ez da halakorik gertatzen.

257. Ana Mariren ezkontza eta bidaia (LEK-071/016)

Ezkontza ederra izan zen, katalanak eta euskaldunak denak pozik. Donostiako hotel batean pasatu zuten lehen gaua. Handik Madrilera, Santanderrera... eta buelta Lekeitiora. Eta Lekeitiotik Bartzelonara.

258. Hilekoaren lehen bisita (LEK-071/020)

Milaren bidez jakin zuen Ana Marik hilekoa zer zer. Lehen 'bisitaren' esperientzia kontatzen du, nola jarri zuen zapia, heldu zen eskolara hanka-zabalka eta nola itzuli zen etxera zorabiatuta zegoela esanez.

259. Senarrak azaldu zizkion sexuari buruzko gorabeherak (LEK-071/021)

Senarrak ezkondu ziren egunean esplikatu zizkion sexuari buruzko gauzak. Horretaz ez omen zekiten ezer. Hogeita zortzi urte zituen ordurako. Umore handiz kontatzen ditu horren ingurukoak.

260. Hilekoari buruzko sineskeriak (LEK-071/023)

Hilekoa xukatzeko, zapia jarri zuen bi inperdiblez lotuta. Gero ezin jesarri. Izozkirik ere ezin zen jan, oinik garbitu ere ez. Hilekoarekin zegoen batean uretara jausi zen eta guztiz ikaratuta ibili zen, ezbeharren bat gertatuko zitzaiolakoan.

261. Nola demontre jaiotzen dira umeak? (LEK-071/024)

Auzoko emakume batek "umea galdu zuela" entzun zuen Milak, eta ez zuen esaldia ulertzen. Ana Marik ere ez zuen ulertzen nola irten zitekeen umea hain zulo txikitik. Umea izan zuenean ezusteko handia izan zen berarentzat.

262. Sexu-gogorik eta horrelakorik ez buruan (LEK-071/026)

Gaztetan ez zekiten ezer sexuari buruz; umeak nola etortzen ziren, arrastorik ez. Sexu-gogorik ere ez zutela dio, beren grina guztia mutilen kontura pastelak jatea ei zen, eurek ez zuten dirurik eta.

263. Santa Eufemiako erromeriara (LEK-071/028)

Arrakasta handia zuten dantzan-eta. Ana Mari Santa Eufemiara joaten zen erromeriara. Pobre itxurak eginez dirua biltzen zuen limonada erosteko. Botila hutsak entregatzerakoan ere tranpa egiten zuen.

264. Hanka bereko zapatak (LEK-071/030)

Behin amari zapata zuriak eskatu zizkion. Amak Bilbotik ekarri zizkion, baina biak hanka berekoak. Ana Marik artaziak hartu eta hautsi egin zituen.

265. Familiako urdaitegian errekaduak egiten (LEK-071/031)

Urdaitegia izan zuen Ana Mariren familiak. Behin odolosten saria irabazi zuten Bilbon. Banaketa lanetan ibili ohi zen Ana Mari. Ez zuen eskupeko handirik jasotzen lanagatik.

266. Astoari pipermina sartu ipurditik (LEK-071/033)

Baserritarrek astoak lotuta izaten zituzten lekura joan zen Ana Mari eta asto bati pipermina sartu zion ipurditik. Astoa, aztoratuta, zalapartaka eta aringa-aringa hasi zen. Eskerrak gizon batzuk heldu zioten.

267. Elizatik kostata ihes egin zutenekoa (LEK-071/034)

Behin mojen Santa Rita elizara joan ziren kuadrilla. Begitan hartuta zituzten han, eta fraideek elizako atea itxi zieten. Ana Marik fraideari bultza egin eta neskak arrapaladan irten ziren, baina kanpoko atea ere itxita zegoen eta nola edo hala gainditu ahal izan zuten hesia, mutil baten laguntzaz.

268. Ana Mari prozesioetan banderadun (LEK-071/035)

Ana Mari "barrukuma" ('interna') egon zen Bilboko ikastetxe batean. Moja batez maiteminduta egon ei zen. Prozesioetan berak eramaten zuen bandera, nahiz eta portaera txarrekoa izan.

269. Ana Mariren bihurrikeriak (LEK-071/037)

Bihurrikeria handiak egiten zituen ikastetxean. Patatak zuritzea izaten zen zigorra. Baina txiki-txiki eginda uzten zituen. Beste behin, Bermeon, behi-bekorotza paperen bildu eta mojen tornuan jarri zuen. Mojek igarri nor izan zen, eta astebete izan zuten zigortuta komentua garbitzen.

270. Ama bisitatzera kartzelara (LEK-071/040)

Ana Mariren ama kartzelan egon zen. Bisitara joaten zirenean, ea zertan zegoen han galdetzen zion berak, "hemen ardixak (arkakusoak) daoz-eta" esaten zion. Amaren lagun batek maldizioa bota zion gizon bati eta bete egin zen.

271. Lekeitioan emakume asko kartzelan eta umiliatuta (LEK-071/042)

Aitari pilota gustatzen zitzaion. Ameriketatik etorri zenean, Gernikara joaten zen partiduak ikustera. Dirua ere jokatzen zuen. Aitaren anaiaren erruz egon zen Ana Mariren ama kartzelan. Emakume asko egon zen Lekeitioko kartzelan. Ilea moztu, errizino-olioa eman..., umiliazioa handiak sufritu zituzten.

272. Bilbora emakumeak isuna ordaintzera (LEK-071/043)

Gerra denboran, Itsasaldeko goian egon zen kartzela. Emakumeak kartzelatik irten zirenean Bilbora joan behar izan zuten isuna ordaintzera. Ordaindu eta gero, ondo bazkaldu eta kantuan itzuli ziren herrira.

273. Gaztetxearena, gai korapilatsua I (LEK-076/004)

Herriko koadrilen arteko harreman eskasari irtenbide bat emateko eta neguan gazteek biltzeko toki fisiko bat izan zezaten sortu zen gaztetxea Leikeition. Baina bilakaera korapilatsua izan du proiektuak, okupazio saioak, epaiketak eta negoziazio saioak tarteko. Anderrek eta Iratik azaltzen dute zer izan den eta zertan den gaur egun.

274. Gaztetxearena, gai korapilatsua II (LEK-076/005)

Herriko koadrilen arteko harreman eskasari irtenbide bat emateko eta neguan gazteek biltzeko toki fisiko bat izan zezaten sortu zen gaztetxea Leikeition. Baina bilakaera korapilatsua izan du proiektuak, okupazio saioak, epaiketak eta negoziazio saioak tarteko. Anderrek eta Iratik azaltzen dute zer izan den eta zertan den gaur egun.

275. Udako Lekeitio eta negukoa (LEK-076/007)

Lekeitiar asko herritik kanpora ikasi eta lan egiten du. Hori dela eta, neguan bizi gutxi izaten da astean zehar. Asteburutan eta udan izaten da giroa Lekeition, Aste Santuko oporraldiarekin pixkana hasi eta iraila bitarte.

276. Lehengo eta egungo "beraneantiak" (LEK-076/008)

Lehengo beraneanteak egungoak baino gehiago integratzen omen ziren herrian. Ander eta Iratiren esanetan, bada turista mota bat, Lekeition etxebizitza erosita duen diruduna (orokorrean), udan Lekeitiora joan eta herriko nagusi dela uste duena. Euskararen erabilera asko jaisten da udan.

277. Lekeitiar izaera I (LEK-076/011)

Anderrek dio nortasun handiko herria dela Lekeitio. Irati ados dago, eta horri eustearen aldekoa da, baina harrokeriarik gabe.

278. Lekeitiar izaera II (LEK-076/012)

Lekeitiarrari kosta egiten zaio, orokorrean, beste herritako jendearekin harremantzea. Eta berdin kanpotik Lekeitiora bizitzera etortzen den jendearekin. "Lekeition integratzea urtetako prozesua da". Lekeition behin Santa-eskean atera ziren donostiarraren eta iruindarraren anekdota kontatzen du Anderrek. Herritik kanpora irtendakoan ere, lekeitiarrak argi utzi ohi du nongotarra den.

279. Antzar Egunaren antolakuntza (LEK-076/015)

Herriak herriarentzat antolatzen duen jaia da Antzar Eguna.

280. Batxilerra ikastera Lekeitiotik kanpora (LEK-076/019)

Lekeitioko BHI herrian izan arren, batxilerra ikasteko garaia heldu eta ikastolako ikasle askok herritik kanpora jo izan du, beste zentro baten bila. Iratik eta Anderrek joera horiek nola bizi izan dituzten eta gaur egun nola bizi dituzten kontatzen dute.

281. Txisteak euskaraz kontatzeko joera (LEK-076/022)

Txisteak euskaraz kontatzeko joera dute Anderrek eta Iratik. Euren lagunartean ere joera bera nagusitzen da. Irainak eta hitz larriak, aldiz, gazteleraz irteten zaizkie, gehienetan. Hala ere, ba omen dira lekeitiar gazteak irainak eta esalmoldeak euskaraz esateko joera handiagoa dutenak. Anderrek eta Iratik adibide batzuk jartzen dituzte: zingan juan, kardaia, eta nola ez, "txo!".

282. "Euskeriak ez dako iraiñik" (LEK-076/023)

"Euskeriak ez dako iraiñik" ideiari tiraka irakasle batek erantzundakoa. Lekeitioko Ikastolan euskara batua nagusi izan dela kontatzen dute. Herriko eskolan, aldiz, gehiago eutsi diote bertako herri hizkerari.

283. Lekeitio herri arrantzalea (LEK-076/025)

Ander eta Iratik diote Lekeitio nekez kontsidera daitekeela egun herri arrantzale. Izandakoaren arrastorik bada oraindik; gutxi samar, ordea. Arrantzontzi handi bakarra, eta "lebazaliak".

284. Ederra txitxarrua! (LEK-076/027)

Itsasoari lotutako hitz, espresio eta esamoldeak.

285. "Ligoteo sanoa" (LEK-076/029)

Ligatze kontuez mintzo dira Ander eta Irati. Lekeitio ez omen da berezia ligatze kontuetan, Euskal Herriko beste edozein tokirekin alderatuz gero. Baina herri txikia da, eta parrandaren luzapena izan ohi da biharamuneko txutxumutxua.

286. Lekeitiarra beti lekeitiar I (LEK-076/031)

Lekeitiar gazteen artean ez omen da ohitura handirik hizkera aldatzeko edo batura jotzeko, behin herritik kanpora irtenda.

287. Lekeitiarra beti lekeitiar I (LEK-076/033)

Lekeitiar gazteen artean ez omen da ohitura handirik hizkera aldatzeko edo batura jotzeko, behin herritik kanpora irtenda.

288. Bertako hizkerari eutsi (LEK-076/034)

Kanpotik Lekeitiora bizitzera datorren jendeari bertako hizkera egitearen aldeko dira Irati eta Ander. Hala ere, eta kasuan-kasuan, batuari ez diote inolaz ere aterik ixten. Anderrek "hitza" egunkariaren adibidea jartzen du, batuaren aldeko kontu positibo modura. Iratik, ordea, kontrapuntua jartzen du, umorez, txikitan amonarekin izaten zituen elkar ulertu ezinak gogora ekarrita.

289. Karkabia aisialdi taldea (LEK-077/002)

Karkabia aisialdi taldea Lekeitioko nerabeek euren aisialdia kudeatzeko sortutako talde bat da. Karkabia Lekeitioko hitz batetik hartutako izen bat da eta bi etxeren arteko kale estuari egiten dio erreferentzia.

290. Lekeitiora euskara ikastera I (LEK-077/004)

AEK-k garai batean Lekeitioko etxeak alokatzen zituen bere ikasleek euskaraz ikas zezaten eta bide batez, herrian integaratu zitezen. Iratik bere amak aukera hori baliatuta Bilbo utzi eta Lekeitiora euskara ikastera joan zela kontatzen du. Euskaraz ikasteko metodo berezia zen hura, baina bere amak behintzat euskaraz ikastea lortu zuen.

291. Lekeitiora euskara ikastera II (LEK-077/005)

Gaur egun Lekeitiion jada ez da euskara ikasteko barnetegi-etxe metodoa erabiltzen. Iratiren ustez, metodo horrek ez luke funtzionatuko ez baitu uste egun inork bere etxea utziko duenik herri ezezagun batera hizkuntza arrotz bat ikastera joateko.

292. Lekeitiar izaera (LEK-077/006)

Lekeitioko gazte askok herritik alde egiteko joera dute. Iratik bere burua lekeitiar gisa deseraiki duela onartzen du eta orain, lekeitiar nortasun horrekin talka egiten duela sumatzen du.

293. Aita herriko medikua (LEK-078/001)

Aita herriko medikua du Anderrek, etxez-etxe ibiltzen den horietarikoa. Medikua izateaz gain, psikologoa ere izan daitekeena; pertsona hurbila dela diosku Anderrek.

294. Euskara talde berria Lekeition (LEK-078/002)

Lekeitioko euskara egoerari aurre egiteko euskara talde berri bat osatu zuten Udalaren eta herritarren artean. Lau arlo ezberdin jorratzen dituzten taldeak sortuz: eskola eremuak; komertzioak eta hizkuntz-paisaia; kontzientzia kanpainak landu dituzte bai eta Lekeitioko esaerak eta berbak berreskuratzen saiatu ere.

295. Pilotazale eta pilota entrenatzaile (LEK-078/003)

Ander pilotazalea da betidanik, txikitatik jokatu izan du pilotan bai eta entrenatzaile gisa ibili ere. Haurrak euskaraz entrenatzea eta euskaraz irakastea oso garrantzitsua izan da berarentzat, eta esperientzia bikaina izan dela dio.

296. Aisialdiaren eboluzioa teknologiari esker (LEK-078/005)

Aisialdiari dagokionez aldaketa edo eboluzio bat gauzatu dela dio Anderrek. Batez ere, teknologien erabilerari dagokionez; horregatik, aldaketa horri aurre egiteko formazio bat egon beharko lukeela uste du.

297. Teknologiaren aurrean hartu beharreko erabakiak (LEK-078/006)

Teknologiaren erabilerari aurre egiteko eta berau ezagutzeko, lehenik eta behin pentsaera berritu beharko genukeela diosku Anderrek bai eta formakuntza jaso beharko genukeela ere. Teknologiaren egokitzapena erraza ez dela uste baitu.

298. Kargu politikoak eta arrantzari lotutakoak (LEK-079/003)

Kofradian zuzendaritzan sartu zen eta harrezkero, lehendakari izan zen hainbat urtez. Kargu politikoak eta arrantzari lotutako beste hainbat kargu izan ditu.

299. Itsasoan gi gizon galdu zituenekoa (LEK-079/004)

1961ean itsasoan bi gizon galdu zituen, denboralearengatik. Zer gertatu zen kontatzen du.

300. Gau eskolara lehenengo, Donostian ikasketak gero (LEK-079/005)

Gaztetxotan, egunez antxoatara joaten ziren eta, gero, gauez, eskolara. Han ikasitakoarekin, irakasleak Donostiara bidali zituen motorista ikasketak egiteko. Makinista eta patroitarako ere han ikasi zuen. Erdaraz pixkanaka ikasi zuen.

301. Lehengo eta oraingo gazteen bizimodua (LEK-079/006)

Gaurko gazteei buruzko iritzia ematen du. Bere gazte garairik onena gerran pasatu zuela dio. Preso eta soldadu ibili zenekoa kontatzen du. Handik etorri eta itsasoan eta eskolan ibili zen.

302. Orduko txikiteoa (LEK-079/007)

Zigarrorik eta txikitorik ez zuen ezagutu nagusitu arte. Bere lagunak izendatzen ditu. Tabernetako ohitura zen lagun artean pinta-erdi ardo elkarrekin edatea.

303. Antxoatan egiteko teknika aldaketa (LEK-079/009)

Antxoatan zelan egiten zuten azaltzen du: izurdeen bila ibiltzen ziren, haiek antxoa gora noiz eramango zain. Gauez antxoak distirarengatik arrantzatzea debekatuta zegoen baina batzuk joaten ziren, eta pixkanaka gero eta gehiago hasi ziren.

304. Antxoa oso merke saltzen zen (LEK-079/010)

1931n baporea egin zuen bere aitak eta lehenengo egunean hamabi mila eta bostehun kilo antxoa arrantzatu zituzten. Oso merke saltzen zen. Pasarte bat kontatzen du.

305. Antxoarentzat kupoa (LEK-079/011)

Antxoa gauez distirarengatik arrantzatzen hasi zirenean, gehiago harrapatzen zuten lehen baino, baina arrain gutxi botatzen zuten uretara atzera. 1960an Santoñan egindako bilera batean erabaki zuten kupoak ipintzea antxoari. Eztabaida handia sortu zen. Gertaeren azalpen zehatza ematen du.

306. Arrantzaleen arteko elkartasuna antxoarekin (LEK-079/012)

Itsasoan elkartasunez jokatu dute antxoarekin. Kupoak mugatutakoa baino gehiago jasoz gero, beste bati ematen zitzaion; hasieran, kofradiari.

307. Atuna kanaberarekin (LEK-079/013)

Frantsesak, japoniarrei ikasita, atuna haztegietan kanaberarekin arrantzatzen hasi ziren. Gero beraiek ere hasi ziren teknika hori erabiltzen. Joera beti izan da flota handitzekoa, barku handiagoak egitekoa.

308. Baporea egiteko asmoa bertan behera (LEK-079/014)

Umetan, Lekeitioko itsasontziak beladunak izaten ziren. Aitak patroi moduan eta bere baporearekin egindako ibilbidea kontatzen du. Berak baporea egiteko asmoa bertan behera laga zuenekoa kontatzen du.

309. Kooperatiben sorrera eta beherakada (LEK-079/015)

Kooperatibak egin zituzten arrantzaleek baina kudeaketa txarrarengatik, asko desagertu zirela dio. Madrilen Itsasoko Gizarte Institutuko almirantearekin bilera egin zuten Ondarroako presidenteak eta biek, itsasontziak enbargatu nahi zizkietelako.

310. Isunak arrantzaleei (LEK-079/018)

Kofradiako presidente izanda, isuna jarri behar izan die zenbait baporeri arauak ez betetzearren. Batetik, beste egun bateko antxoa egunekoa moduan saltzen saiatu zenekoa kontatzen du; bestetik, itsasontziko txibatoak baimenik gabe kendu zituztenekoa.

311. Kofradien sorrera eta funtzioa (LEK-079/019)

Kofradiak zelan sortu ziren kontatzen du. Ea dela porturik zaharrena irakurri izan du. Arrantzaren garapena azaltzen du.

312. Arrainaren salmenta zelan egiten den (LEK-079/020)

Arraina zelan saltzen den azaltzen du pausoz pauso. "Benta kantatzen hasi da", esaten zuten.

313. San Pedro eguneko ospakizunak (LEK-079/021)

Kofradiak San Pedro egunean ospakizunak egin izan ditu, baina aldaketak egon dira. Kaxarranka kenduko balute, presidentetza lagako lukeela esan zien arrantzaleei. Kaxarranka egin beharreko egunean, norbaitek txistera eta bandera lapurtu zituen. Bere zapia eta txapela erabilita egin zuten dantza.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com